



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2004ko maiatzaren 20a

43-5. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2003an egindako lanari buruzko txostena ([2. or.](#)).

(Txostena Aldizkari Ofizialaren bost aletan argitaratzen da, 43-1, 43-2, 43-3, 43-4 eta 43-5. zenbakietan).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2003an egindako lanari buruzko txostena.

43-5 ALEKO AURKIBIDEA

II-10. HERRILANAK ETA ZERBITZUAK

HERRILANAK

- Etxebizitza batera doan bidearen zoladura falta.
- Zeharbide baten egoera kaskarra eta konpon-tzeko beharra.
- Nahitaezko desjabetzapenaren espedienteak ebazteko atzerapena.

ZERBITZUAK

- Plaza publiko batean terraza jartzeko baime-na ukatzea.
- Kalean mahaiak jartzea, sinadura biltzeko.
- Akatsak telefono zerbitzuaren funtzionamen-duan.

II-11. OSASUNA

PEDIATRIA LAGUNTZA

- Guardiaren araubidea Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Pediatriako zerbitzuan.
- Lizarraldeko oinarritzko osasun barrutietako pediatria laguntza eta Lizarrako García Orcoyen ospitaleko Pediatria zerbitzuko guar-dien araubidea.
- Corella-Castejón oinarritzko osasun eskualde-ko pediatria laguntza.

ABEREEN ETA ELIKAGAIEN OSASUNA

- Etxebizitza baten osasun eta higie-ne egoera, animaliak izateagatik.
- Osasun Publikoa Ikuskatzeko eta Elikagaien Higienarako Atalaren jardunaren baldintzak.

OSASUN LAGUNTZA

- Bortzirietan emakumeari laguntzeko zentro espezializatua irekitzeko eskaera.

- Jaso ez den osasun prestazio bat ordaintzeko eskaera.

- Zentro pribatu batean ebakuntza egiteagatik izandako gastua itzultzeko eskaera.

- Nafarroan bizi den pertsona bati osasun txar-tel indibiduala berritzea ukatzea.

II-12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

PENTSIOAK

- Lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez den pentsioa duen pentsioduna, alargun-pentsioentzat ezartzekoa den dirulaguntza jasoko ez duena.

GIZARTE SEGURANTZA

- Langile autonomoen kotizazioak, ondorio-rik ez dutenak.

II-13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

HIRIGINTZA

- Arga ibaiko plan integrala betetzeko desjabe-tzapen prozedura.
- Etxe bat eraikitzea lehendik zeuden beste batzuen ondoan.
- Enpresa baten instalazioak baimenik gabe eraikitzea.
- Eraikuntza lizentziak emateko baldintzak.
- Bide baten hirigintza egoera.

ETXEBIZITZA

- Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko pro-zeduretan baremoak aplikatzeko moduari buruzko informazioa eta alokairu-araubideko etxebizitza babestuen beharra.
- Alokairu-araubideko babes publikoko etxebi-zitza, araubide berezikoa, eskuratzeko eskaerei ezetza ematea.
- Sindikatuek eginiko babes publikoko etxebi-zitzen adjudikazio prozedurak.

- Baremoen aplikazioa babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan eta administrazioak eginiko ikuskapena.
- Etxebizitza baten bizigarritasun-baldintza kasarren egiaztapena, babes publikoko etxebizitzak adjudikatzeko prozedura batean.
- Eraikuntza akatsak babes publikoko etxebizitzetan eta bizikidetzara arazoak Vinsaren jabe-goko etxebizitzaren errentarien artean.

II-14. HAINBAT

TOKI ENTITATEEN FUNTZIONAMENDUA

- Herritarren elkarte bat elkarteen udal erregistroan inskribatzeko atzerapena.
- Kontzejukide kargua betetzeko zailtasunak, horretarako beharrezkoa den informazioa eskuratzetik ez izateagatik.

II-10.- HERRILANAK ETA ZERBITZUAK

HERRILANAK

ETXEBIZITZA BATERA DOAN BIDEAREN ZOLADURA FALTA.

AURREKARIAK

Kexa aurkeztu duen pertsonak (02/296/O espediente) bere etxebizitzako eta beste bi familiaren etxebizitzetarako sarbidearen egoera salatzaren zuzen, Ilarregiko kontzejuan.

Horri buruz, alegatzen zuten idazki batzuk aurkeztu zizkiola kontzejuari egoera horren berri emanez, eta aipatzen zuten egoera pairatzen zuteneko batek ehuneko 70ekoa baino minusbaliotasun handiagoa zeukala; halere, ez dute beren arazorako erantzun positiborik jaso, kexa aurkezteko egunerako arte.

Halaber, aipatzen zuten halako bazterkeria bat pairatzen dutela herriko gunean ez bizitzeagatik; izan ere, interesdunaren esanetan, herriko gunerako sarbideak behar bezala egokiturik eta zolaturik daude.

Idazkiari erantsi zizkion arazoaren berri emateko kontzejuan aurkeztutako eskabideen kopiak, bai eta kontzejuburuaren erantzunen kopiak ere. Halaber, Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio-ko Departamentuan aurkeztutako beste eskabide baten eta hari emandako erantzunaren kopiak erantsi zituen.

Kexa horri buruz ebazpen egokia emateko eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean erakunde honi emaniko ahalmenez baliatuz, Ilarregiko kontzejuari

eskatu zitzaion kexan planteaturiko gaiari buruz informazioa emateko.

Ilarregiko kontzejuak, guk informazioa eskatutakoan, haxe azaldu zigun:

“1. Bere etxebizitzako sarbidea dela-eta [...] jaunak ez du erantzun positiborik jaso sarbide hori ezin delako egin Nafarroako Gobernuak obra horiek diruz laguntzen ez dituen bitartean.

2. Gainerako bizilagunen aldean pairatzen duten bazterkeriari buruz esan beharra dago Ilarregiko bizilagunek Nafarroako Gobernuarengandik pairatu duten bazterkeria bera dela. Izan ere, toki azpiegiturei buruzko hiru urteko plan indardunera arte, eskatutako obretako bat bera ere ez zaie onartu; hain zuzen ere, aurreko planetan aipatu bidea hobetzeko eskatu da, baina ezezkoa eman zaio.

3. Herriko gunea zolaturik egoteari dagokionez, esan beharra dago 2001ean ekin ahal izan diogula lan horri, Nafarroako Gobernuaren toki azpiegiturei buruzko planaren bitartez.

4. Kontzeju honek obra horiek egin nahi dituela, baina horretarako Nafarroako Gobernuak dirulaguntza eman behar duela, zeren eta, bestela, ezinezkoa baita horri ekitea.

Horri buruz, esan beharra dago azaroaren 7ko bilkuran, batzarrak erabaki zuela, aho batez, Nafarroako Gobernuari eskatzea aipatu bidearen hobekuntza sar zezan azpiegiturei buruzko plan indardunean, presako prozeduraz. Eskari hori 2003ko urtarrilaren 21ean aurkeztu zen Toki Administrazio-ko Departamentuan.

5. Lurzoruaren sailkapenari buruz, alderdi horretarako aurreikuspeni buruz eta egungo egoera azalduko duen antolamenduari buruzko planari buruz, honakoa esan behar dugu:

Kontzejuak ez daki zein aurreikuspen dauden alderdi honetarako, ez eta lurzorua sailkapenari buruz edo egungo zoladuraren egoera adieraziko duten planoei buruz ezer ere, zeren eta hori guztia udalaren eskumena baita. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago sarbide horren hobekuntzari lekua egin dakiokela toki azpiegiturei buruzko planetako toki bideetako obren artean.

Azken urte hauetan egindako inbertsio bakarra behin eta berriz aipatu den “Sareak eta zoladurak berritzea” izan dela. Horren guztizko kostua, lantsariak barne, 46.944.190 pezetakoa izan da, eta horietatik 29.815.953 Nafarroako Gobernuak jarri zituen eta 8.000.000 Ultzamako Udalak; gainerakoa kredituen bitartez eta kontzejuaren funtsekin ordaindu zen.”

ANALISIA

Bi dira kasu honetan auzitan dauden gaiak: alde batetik, zehaztea kontzejuaren betebeharra ote den planteatutako obra egitea; bestetik, Nafarroako Gobernuak toki azpiegituren planen bitartez lortu nahi den finantziazioa dela eta gertaturikoak.

I. Aztergai dugun lehen gaiari dagokionez, planteatutako obra egiteko betebeharra dagoen ala ez dagoen, esan behar da lotura daukala toki entitateei esleituriko eskumenekin, eta egoera argitzeko Toki araubidearen oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legea jo behar dela.

25.d) artikulua hauxe dio:

“Hurrengo eskumenak erabiliko ditu udalak, estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedien arabera erabili ere:

d) hirigintzaren antolaketa, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina; etxebizitzak sustatzea eta kudeatzea; parkeak eta lorategiak, hiribideen zoladura eta baserri-bide eta estratak zaintzea”.

Lege bereko 26. artikulua, berriz, hauxe dio gai berari buruz:

“Udalek bakarrean edo elkaturik, honako zerbitzu hauek bete behar dituzte, betiere:

a) Udal guztietan: herriko argiak, hilerria, zabor-bilketa, kaleen garbiketa, edateko uraren etxez etxeko hornidura, estolderia, biztanleguneetako sarbideak, herribideen zoladura eta janari-edarien kontrola.”

Aurreko guztia lege bereko 18.1.g) artikuluan osaturik dago, bertan hauxe aitortzen baitaie bizilagunei: “halako zerbitzu publiko bat nahitaetzko udal-eskumenekoa bada, herritarrek eskatzeko eskubidea izanen dute”.

Estatuko lege horretan ezarritako bide berean daude Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 8/1990 Foru Legeko 31.1 artikuluan zerbitzu horiek emateko betebeharra dela-eta ezarritakoak; izan ere, 31.2 eta 39. artikuluetan berriaz aipatzen dira kontzejuen eskumenak.

31. artikulua hauxe dio:

“Nafarroako udalek, norik bere aldetik edo taldean, legeria orokorrak gutxienezkotzat ezartzen dituen zerbitzuak eman beharko dituzte. Biztanleek eskubidea izanen dute zerbitzu horiek ezarri eta emanak izan dakizkien.

Beren lurralde esparruaren barnean kontzejuak dituzten udalerrietan, aurreko zenbakian aipatutako zerbitzuak udalen kontura izanen dira, zerbitzu horiek ez baldin badira lege honetan kontzeju horien esku utzitako gaiei buruzkoak”.

Aipatu foru legeko 39. artikuluan, hauxe esaten da:

“Kontzejuen kudeaketa eta administrazio organoentzako dagokie ondoko arlo hauei buruzko eskumenen erabilpena: dermioko landa bideen mantentze eta zaintza, baita kontzejuaren interesekoak bakarrik diren erabilpen eta zerbitzu publikorako gainerako ondasunena ere”.

Bestalde, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 195. artikulua ezarri zuen aurrekontu orokorreko gastuen egoera-orriek behar bezain zehatz bilduko dituztela betebeharrak bete ahal izateko beharrezko kreditu guztiak; ez dugu ahaztu behar betebeharraren artean nahitaetzko zerbitzuak eta entitatearen eskumenekoa diren gainerakoak daudela.

Betebeharraren lotuta dagoela, lege-testu beraren 203.3.b) artikuluan aurreikusita dago toki entitateen aurrekontuen aurkako errekurtsioak aurkezteko aukera, “toki entitateari, legezko agindu edo beste edozein titulu bidezkoa dela eta, galdagarri zaizkion obligazioak betetzeko behar den kreditua ez sartzeagatik, edo horren eskumeneko ez diren beharrezko kontsignatzeagatik”.

Horrenbestez, argi dirudi interesdunaren eta haren auzokoen etxebizitzetara sartzeko bidea egoki mantentzea eta zaintzea kontzejuari esleitzen zaizkien eskumenetan sartzen dela –landa bideen zaintza eta mantentzea–, eta aipatu legetestuek berriaz aitortzen dutela bizilagunek presazio hori exijitzeko daukaten eskubidea.

II. Bada bigarren gai bat –Nafarroako Gobernuak toki azpiegituren planen bitartez lortu nahi den finantziazioa dela eta gertaturikoak–, obrak ezin egitea arrazoitzeko erabiltzen dena. Horri buruz, ondokoak hartu behar dira kontuan:

Nafarroako Gobernuak 2000tik onetsitako toki azpiegiturari buruzko planak aztertuta, ikusi ahal izan dugu, eta kontzejuak berak ere horixe jakinarazi digu, 2000ko planean entitate horren obra batzuk onetsi zirela “Hornidura eta saneamendu sareak berritzea” eta “Kaleak zolaberritzea eta sareak berritzeko obrak” izenekin; 34.560.000 pezeta eta 6.768.000 pezeta aurreikusten ziren haietarako, hurrenez hurren. Ilarregiko Kontzejuak obra horien lizitazioa abiarazi zuen, 2001eko apirilaren 23ko 50. Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita.

Aurrerago ikusi ahal izan dugu 2004rako toki azpiegiturari buruzko planaren proiektuan ere kontzeju horien obra batzuk sartu direla “Argiteria publikoa hein batean berritzea” eta “Hilerrirako sar-

bidea zolaberritzea”, 7.813,16 eta 10.818 euroko kostuekin, hurrenez hurren.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar dugu kontzejuari berari dagokiola, bere autonomiaren esparrutik, erabakitzea zein obra egin behar dituen une bakoitzean eta zein eskatzen dituen Nafarroako Gobernuaren toki azpiegiturei buruzko planetan sar daitezen.

Halere, horrek ez du berekin ekarri behar, inoiz ere, aplikatzekoak diren arauak kasu honetan kontzejuei esleituriko eskumenak ez betetzea –aztergai dugun kasuan, landa bideak zaintzea eta mantentzea–; izan ere, kexa aurkeztu duenaren etxera iristeko bidea horrela sailkatu behar baita, landa bide baten gisara, herriko gunetik 600 metro ingurura baitago.

Guztiz errespetatzekoa da kontzejuak hartutako erabakia, hormigoia botatzea, estoldak egitea eta pendiza gutxitzeko indusketa lanak egitea –horren guztiaren aurrekontuak 54.000 euro egiten du–, eta jo behar da konponbide horrek, zalan-tzarik gabe, bide horren egoera nabarmen hobetuko duela; hala eta guztiz ere, aitzakiarik gabekoa eta saihestezina dena da kontzejuak auzigai den bidea zaindu eta mantendu behar duela, eta horixe da exijitu behar zaiona, behar diren lanak egin ditzan bertan zolari eta trazadurari dagokienez erabiltzeko behar den bezala uzteko; gaur den egunean, aldiz, ez da horrelakorik gertatzen, zulo eta desnibebez beterik baitago, kontzejuak berak aitortu duenez.

Xede horretarako, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru legeko 5.

eta 7. artikuluetan Nafarroako toki entitateei aitortzen zaizkien baliabideak lortzearen, finantzaketa bideetara jo behar du kontzejuak, eta beste administrazio publiko batzuen –bereziki, Nafarroako Gobernuarena, toki azpiegiturei buruzko hiru urteko planean lan hori sartzearen bitartez– laguntza tekniko eta ekonomikoa lortzeko aukera ezin da aitzakia izan bidea zaindu eta mantentzeko lanak ez egiteko. Hori guztia kontzejuak berak aukeratu duen alternatiba –alegia, bidea hobetzea hormigoia botaz eta abar– gauzatzen ez den bitartean.

Hori dela eta, egokitze jo genuen kontzeju horri GOMENDIO bat egitea, berehalaxe ekin diezaien aipagai dugun bidea, zoladuraren eta trazaduraren aldetik, erabiltzeko behar den moduan jartzeko lanei. Gainera, kontuan hartu behar da kexan aipatzen den bezala etxebizitza horietan minusbaliatu bat bizi dela, eta, beraz, kontzejuak nahi dituen behin betiko obrak egiten ez diren bitartean, behin-behineko konponbideren bat jarri beharko litzateke, etxe horietara sartzeko dagoen desnibela berdintze aldera.

Kontzejuburuak, azkenik, aditzera eman zigun kontzejuko egungo batzarrak lehentasunzatz jotzen zuela arazo honi konponbidea ematea, eta datu hori berresteko esaten zigun behar diren jarduketa guztiak egiten ari zirela dokumentazioa biltzeko, Nafarroako Gobernuari eskatzearen behar diren laguntzak; horretarako, ingeniari bat proiektua egiten ari zen, ingeniariak enpresa batek berea bukatu ondoren [...]. Kontzejuburuak jakinarazi zigun, gainera, konponbidea atzeratuz gero, kontzejuak behin-behineko konponbide bat jarriko zuela.

ZEHARBIDE BATEN EGOERA KASKARRA ETA KONPONTZEKO BEHARRA.**AURREKARIAK**

Kexa-idazkian (02/318/O espedientea), N-121-B errepide nazionalako Iruritako zeharbidearen egoera salatzen zen, bizilagunei enbarazu egiten baitie bertan pairatzen den trafiko trinkoak.

Horri buruz kexa-egileak esaten zigun, zeharbidearen berezitasunak direla eta, autoak eta kamioiak gehiegizko abiadan igaro ohi direla bertatik, eta arrisku handia sortzen dietela oinezkoei, kalteak higiezinei, enbarazua zaratarengatik eta bibrazioengatik, bereziki gaeuz, eta istripuak ere, Foruzaingoak eta Guardia Zibilak ongi dakiten bezala.

Interesdunak 1999ko abenduaren 14an Baztango Udalean salatu zituen egitateak, eta horrek salaketa NILSari igorri zion; izan ere, badirudi enpresa horrek errepidearen egoera okerrera eramane zuten saneamendu obra batzuk eginak zituela. Kexa hau aurkezteko garaian, ordea, bi entitate horietako inork ez du ezer egin errepideko zoladura hobetzeko edo zeharbidea erabiltzen duten ibilgailuen gehiegizko abiada eragozteko.

Udalaren jarduera eza ikusita, 2000ko ekainaren 14an, kexa-egileak egoera hau salatu zuen Nafarroako Gobernuko Errepideen Zainketa Zerbitzuan; erakunde horrek, behar den ikuskapena egin ondoren, jakinarazi zion errepidearen sestra longitudinala hausten zuen lurrazpiko gurutze bat zegoela egiaztatu ahal izan zuela, eta horrek halako deformazio txiki bat sortzen zuela, eta hori izan zitekeela, agian, zarata zela-eta bizilagunei enbarazu sortzen ziena, baina, edozein kasutan ere, ez zela aski inguruko etxebizitzetan pitzadurak eragiteko. Halaber, interesdunari jakinarazi zitzaion errepidea epe laburrean indartzeko asmoa zegoela, eta horrek bidea emanen zuela enbarazuak eta balizko kalteak konponbidean jartzeko. Halakorik ez da izan.

Zerbitzu horren ikuskapena aski ez zela jota, 2000ko abuztuaren 11n interesdunak idatziz eskatu zuen bibrazioaren intentsitatea neur zezaten; 2000ko irailaren 7an zerbitzuak erantzun zion udalari zegokiola errepidea lehengo egoeran uztea, bera izan baitzen obrak egin zituena.

Udalak eta Nafarroako Gobernuko Errepideen Zainketa Zerbitzuak ezer ere egiten ez zutela ikusita, eskatu zuen bitartekaritza lana egiteko, neurri eraginkorren bat har zedin bide horretatik dabilzan ibilgailuek hiri-bideetarako ezarritako abiadamuga errespetatu dezaten; horretarako, gainera, seinale bertikalak eta horizontalak hobetu beharko

lirateke, zebra-bideak barne, edo errepidean bertan abiada mantsotzekoren bat jarritz.

Gure aldetik gai hauei buruzko informazio eskaria egin ondoren Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari eta Baztango Udalari, lehenbizi departamentuaren honako erantzun hau jaso genuen:

[...] andreak Iruritako Kale Nagusiko bizilagunek pairatzen duten egoerari buruz eginiko kexari dagokionez, honakoa esan behar dugu:

Iruritan, zeharbidearen hasieran, eta gure foru erkidegoko herrietako gainerako zeharbideetan gertatzen den bezala, orduko 50 km-ko abiadamugaren seinaleak daude.

Udal batzuek, beren ekimenez eta dagokion kostua beraiek ordainduz, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari eskatu diote seinale osagarriak jartzeko behar den baimena eman diezaien, baita oinezkoentzako zebra-bide goratuak ere (abiada mantsotzekoak), irailaren 10eko 787/2001 Foru Aginduz araututakoak (irailaren 24ko 116. NAO); izan ere, horixe da, gaur arte, trafikoko radarrekin batera, ibilgailuek abiada baimenduari euts diezaioten lortzeko sistema eraginkor bakarra.

Bere aldetik, Baztango Udalak honela erantzun zuen:

“[...] andreak ongi dioten bezala, saneamendu obrak, eta haien ondoriozko errepidea zeharkatzeko obrak, NILSA enpresak egin zituen, eta Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Zainketa Zerbitzua da obrak egiteko eta haiek baimentzeko baldintzak ezartzen dituen; hartara, aztergai dugun kasuan, komenigarria izanen litzateke kexa NILSari helaraztea, behar den txostena eman dezan.

Bibrazioen eta zaraten arazoa, [...] andreak ongi dioten bezala, funtsean zeharbidearen ezauzgarri eta bertatik ibiltzen den trafikoaren –arina nahiz astuna– dentsitate handiari zor zaie.

Udal honen ustez, konponbidea Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak jarri behar du, zeren eta N-121-B errepideaz ari baikara, Irurita zeharkatzen duen tartean; izan ere, departamentu horrek behar diren neurriak jarri behar ditu zorua baldintza egokietan edukitzeko eta bide segurtasuna zaintzeko, egiteko asmoa duen saihezbidea egiten ez duen bitartean.”

ANALISIA

Kasu honetan, bisita bat egin genuen Iruritarra, bertatik bertara egiaztatzeko salatutako ingurua-barrak, eta ikusi ahal izan genuen herri hartarako sarbidean, Elizondotik gatozela, ez dagoela inongo seinalerik gidariak behartzen dituenik abiada jaistera hiri guneeetan baimendurik dagoen mugara; kontuan hartzekoa da, gainera, Baztango beste herri batzuetarako ezarritako abiada-muga orduko 40 km-koa dela. Egiaztatu ahal izan dugu, halaber, N-121-B zeharbideko tarte honetara sartzen ziren eta bertatik Elizondo aldera ateratzen ziren ibilgailu gehienek baimendutako abiada nabarmen gaintzen zutela. Ibilgailu horietako asko eta asko, gainera, kamioiak edo tamaina ertaineko ibilgailuak ziren.

Abiada gehiegizkoarekin batera, beste inguruar bat aipatu behar da; hain zuzen, Irurita eta Elizondo batzen dituen bidearen zorua nahiko egoterra kaskarrean egotea egun indarrean dauden kalitate estandarrekin alderatuz gero: zulo asko daude, eta errepideak ez du bazterbiderik; gainera, zeharbideak ez du espaloirik kexa aurkeztu duen andrearen etxebizitzarekin mugakidea den aldetik –fatxada errepideko mugatik 2 metrora dago; halere, etxebizitzak atzeratuxeago dauzkaten beste bizilagun batzuek aitortu ziguten beren etxeetan ere trafikoak sorrarazitako zarata eta bibrazio handiak nozitzen dituztela–.

Halaber, egiaztatu zen euri-uren bideratzeak egoera kaxkarra agertzen duela eta nahiko utzita dagoela; hartara, euria egiten duenean, putzuak egiten dira interesdunaren etxebizitzako sarreran, etxebizitzako sestra errepidearena baino beheiago baitago.

Aipatu arazo guztiak, begiratu hutsarekin antzeman daitezkeenak, behin eta berriz salatu dira Baztango Udalean eta Nafarroako Gobernuo Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan, baina gaur egun arte administrazio publiko horiek ez diete inongo erantzun positiborik eman herrietako bizilagunei. Are gehiago, bi administrazioek arlo horretan eskumenak izateak berekin ekarri du bietako bakarrak ere behar beste egin ez izana arazoari konponbidea emateko; hori dela eta, gure ustez, bakoitzaren eskumenak mugatu behar dira, antolamendu juridikoak ezarritakoaren arabera dauzkaten betebeharrak exijitu ahal izateko.

Hartara, Toki araubidearen oinarriari buruzko Legeko 25. artikulua dio udalen eskumena dela eremu publikoetako segurtasuna bermatzea, hiri bideetako ibilgailuen trafikoa antolatzea eta bide horien zoladuraz arduratzea, zeinak berekin daka-

rrren oinezkoentzako espaloietan zintarriak jartzea, erabat baita hori hiri azpiegitura bat, bai eta ur zikinen estoldak eta tratamendua ere.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak kexa honetan aztertzen den gaiari buruz dauzkan eskumenak foru erkidegoak errepideen eta gainerako bide publikoen gainean daukan titularitateari dagozkion guztiak dira, hain zuzen ere Nafarroako Errepideen Babesari buruzko urriaren 11/1986 Foru Legeko 1. artikuluan aipatutakoak, Foru Hobetzearen 49.1.f) artikuluan ezarritakoaren babesean. Horrenbestez, berari dagokio errepideen plangintza egitea, haiek eraikitzea, mantentzea, finantzatzea, erabiltzea eta ustiatzea.

Errepideen hiri guneeetako tarteei dagokienez, aipatu legeko 2. artikulua garatzen duen maiatzaren 10eko 154/1999 Foru Dekretuak ezarri zuen zeharbideak jabari ondasunak direla, denon erabilera-erakoak, eta haien titularitatea foru erkidegoarena izanen dela Nafarroako errepideen sarekoak direnean, salbu eta udalei eskuratu zaizkienean hiri-bide bihurtu direlako, honelakorik gertatuz gero: a) Nafarroako Errepide Sareari jarraitasuna emanen dion beste ordezkoko bide bat egotea, edo b) Trafikoa-aren % 70 baino gehiago hiri-trafikoa izatea.

Aztergai dugun kasuan, ez dirudi Iruritako zeharbidearen titularitatea udalari eskuratu zaionik; hori dela eta, zalantzarik gabe, eskumena eta, horrenbestez, errepideko zoladura behar bezala konpontzeko betebeharra, departamentu horrena da; hori guztia ezertan kendu gabe bi administrazioek bien eskumenetan eragina duten obrak modu koordinatuan egiteko aukera.

Udalaren eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eskumenak mugaturik, argi zegoen aipatu ditugun arazoei exijitzen zutela bi administrazioak beren eskumenez baliatzea, hartara erreklamazio-egileak salatutako kalteak saihesteko.

Udalak espalo bat egin behar zuen interesdunaren etxebizitzaren ondoan, bai eta hondakin-urak nabarmen hobeki bideratzeko behar diren obrak ere, hartara aipatu ditugun saneamendularen akatsak zuzentzeko. Halaber, ibilgailuen herri guneko trafikoari buruzko beren eskumenak zorrotzago bete beharko lituzkete, bidaiariak zirkulazio arauak ez ditzaten bete gabe utz orain arte bezain erraz. Egia esan, zarata eta bibrazio arazo gehienak zeharbidea erabiltzen zuten ibilgailuen gehiegizko abiaduratik zetozen; hori dela eta, argi eta garbi zegoen udalak neurri erabakigarriagoak hartu behar zituela. Horretarako, Nafarroako herri askotan zebra-bide goratuak egin dira, abiada mantsotzeko; sistema horrek ederki betetzen du

bere egitekoa. Hori dela eta, bidezkoa zen haiek jartzea, irailaren 10eko 787/2001 Foru Aginduan aurreikusitako baimenak eskatu ondoren.

Bere aldetik, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ere errepideak eta zeharkaleak zaintzearen arloan dauzkan betebeharrak bete behar zituen; hori dela eta, behar diren neurriak hartu behar dira errepideko zoladura hobetzeko, zeren eta behar ez bezalako abandonu egoeran baitago, diogun bezala, hiri barneko bideetan exijitzekoak diren estandarrekin alderatuta. Bidezkoa da, era berean, abiada mugatzeko trafiko-seinaleak jartzea, egokia den bezala, hiri guneetako sarreretan, ibar bereko beste herri batzuetan egin den bezala.

Hori guztia dela eta, bidezkotzat jo zen LEGEZO BETEBEHARREN GOGORARAZPEN bikoitza egitea:

Baztango Udalari, ukituriko alderdiko saneamendu eta urbanizazio arloetan bere betebeharrak bete ditzan, arestian adierazitako terminoetan, eta Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, auzigai den zeharbideko mantentzea zuzen egin dezan eta bidezkoak diren trafiko-seinaleak jar ditzan, lehen adierazi dugun bezala.

Baztango Udalaren lehen erantzunean jakitera eman zigun legezko betebeharren gogorazpena onartzen zuela, eta aldi berean esaten zuen Nafarroako Gobernua hasia zela Irurritako zeharbideko zoladura egokitzen; horrenbestez, haren esanetan, epe motzean konponduta egon liteke kexaren arazoia. Azkenik, adierazten zuen alderdi hartako urbanizazioa, zehazki espaloia, jabeak berak egin behar zuela, zeren eta haren jabetza errepidearen ertzearaino bertaraino iristen baitzen.

Hala eta guztiz ere, gure erabakian adierazten genuenaren ondorioz, gure ustez beharrezkoa zen udalak sistema eraginkorren bat jartzea gidariak zuhertasun handiagoz iragan zitezen zeharbidetik; hartara, balizko kalteak eta udalbatzaren ardurak ere saihestuko lirateke. Uste genuenez, horrenbestez, udalak arazoari konponbidea bilatu behar ziola, zeren eta gidari askok Elizondotik datozela Irurritara sartzen direnean daramaten abiada ezin baita uztartu alderdi horren hiri-izaerarekin, eskatu genuen berriz ere gai horri erantzuna emateko.

Bestalde, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak emandako erantzunari dagokionez, hartan ordura arte egindako jarduketan berri ematen ziguten, funtsean zeharbide horretako akatsak zuzendu ondoren.

Zoladuraren konponketari dagokionez, kexa honen helburuetako bat baitzen, argi zegoen gidariak abiada gehiegizkoa eramateagatik arau-haustea gehiago egitea ekarri zuela, hain zuzen ere abiada handiagoan iragaten zirelako bike geruza berria aplikatu ondoren, horrek azkarrago gidatzea bideratzen zuelako; hori dela eta, udalari eskatu genion presako neurriak har zitzan istripuak saihesteko eta zeharbideak hiri-bide bat izateko behar diren ezaugarriak bete zitzan.

Edonola ere, departamentuari jakinarazi genion abiada mugatzeko paratuta dagoen trafiko-seinale bertikalak, Elizondotik gatozela Irurritako sarreran topatzen dugunak, orduko 60 km-ko abiada adierazten duela, eta ez orduko 40 km-koa, txostenean zioenaren aurka; lurrian, berriz, 40 km-koa dago jarria. Horrenbestez, bidezkoa da trafiko-seinale horiek egokitzeko eskatzea, gidariak ez daitezen nahas.

Halaber, erreklamazio-egilearen etxebizitzaren ondoan elektrizitate-horniduraz arduratzen den enpresaren erregistro bat zegoen, hein batean errepidearen barruan geratu dena, beheraxeago; ibilgailu astunek, turismo-ibilgailuak baino zabalagoak izaki, ezin saihesten dezaketen zulo bat dago, beraz, zoladuran, eta zarata ateratzen da autoek erregistroko tapan jotzen dutenean.

Horrenbestez, departamentuari eskatu genion, halaber, esan ziezagun zein neurri hartu behar zituen aipatu arazoak saihesteko.

Azkenik, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak jakinarazi zigun erreferentziako kexan ageri den gaia guztiz konponduta zegoela, administrazio publiko horri dagokionez, zeren eta Irurritako zeharbideko zoladura konpondu eta trafiko-seinale egokiak jarri baitziren.

Baztango Udalak ere esan zigun Irurritako sarreran abiadura mantsotzeko gailuak jartzea aztertzen ari zela, eta horretarako harremanetan jarri zela kexa-egilearekin; azken horrek horixe egi-aztatu zigun.

NAHITAEZKO DESJABETZAPENAREN ESPEDIENTEAK EBAZTEKO ATZERAPENA**AURREKARIAK**

Kexa-egileak (2002/350/O) salatu zuen gehiegizko atzerapena gertatua zela Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak nahitaezko desjabetzapenaren bidetik haren lursail batzuk eskuratzeko prozesuan.

Bere idazkian esaten zuen bi desjabetzapen jasan behar izan dituela. Horietako lehenbizikoak --/01 espedientea eragin zuen (— zenbakiko fin-kak), eta 1996ko maiatzaren 8an hasi eta 2002ko maiatzean bukatu zen.

Bigarren desjabetzapena, kexa honen arrazoia dena, 1998ko otsailaren 2ko erabakiaz hasi zen, eta NA-132 errepideko San Martin Unx - Lergako gaina tartea hobetzeko lanetarako behar zen. [...], [...] eta [...] fin-kak okupatzeko akta 1998ko martxoaren 25ean eman zen.

Desjabetutako lurren balorazioari buruzko akordiorik ez zenez lortu, 2000ko martxoaren 22an departamentuak prezamendu-orriaren errekerimendua egin zuen, eta proposamena 2000ko apirilaren 3an igorri zien partikularrei.

Erantzunik jaso ez zuenez, 2002ko uztailaren 4an interesdunak eskabide orokor bat aurkeztu zuen gaiari buruzko informazioa eskatzeko; 2002ko azaroaren 5ean erantzun zioten. Erantzunaren idazki berean jakitera ematen zioten prezamendu-orria atzera bota zutela, eta ontzat jo zela administrazioak aurkeztutakoa. Hala eta guztiz ere, gaztigu horretan ez zen inolako aipamenik egiten espedientea Desjabetzapeneko Epaimahaiari igorri izanaz.

Departamentuari gai hauei buruzko informazioa eskaturik, kontseilariak hurrengo erantzuna igorri zigon:

“Prezamendu-orriaren tramitazioan izan den atzerapenari dagokionez, erantzuna da balio justua zehazteko espediente ugari metaturik dagoela. Hala eta guztiz ere, esaten da desjabetzapen eginkizunetan administrazioari laguntza emateko enpresa espezializatupei eginiko gomendioekin espero dela atzerapen horiek laster zuzentzea.

Prezamendu-orrian berandutza-korrituak sartzeari dagokionez, ez da bidezkotzat jotzen, eta adierazten da korrituen kalkulua Desjabetzapeneko Epaimahaiari zehaztutako balio justuaren gainean egiten dela.

Espedientea Desjabetzapeneko Epaimahaiari igortzeari dagokionez, balio justuaren pieza

banandua organo horri igorri zitzaion 2002ko abenduaren 19an.”

ANALISIA

Aztergai dugun kasuan, bereizirik aztertu beharreko zenbait gai juridiko topatu ditugu.

Lehenbizi, horretarako ezarritako lege-epeetan partikular batek aurkeztutako eskariari Herrilan Departamentuak erantzunik ez ematea. Lehen gaiari dagokionez, Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bitartez eman zitzaion testuan eta 42. artikuluan, hauxe ezartzen du:

2.- Esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazteko egonen den gehieneko epea, dagokion prozedura arautzen duen arauan jarritakoa izanen da. Epe hori ez da sei hilabetetik gorakoa izanen, baldin eta lege-mailako arau batek hori baino epe luzeagoa ezartzen ez badu, edo Europako erkidegoko arauetan bestelakorik ezarrita ez badago.”

Prozedura horri buruzko araua Nahitaezko desjabetzapenari buruzko Legea da, 1954koa; hauxe dio lege horrek 30. artikuluan:

Lehenbiziko kasuan, balio justua behin betikoz zehaztutakotzat joko da, eta administrazioak hura ordainduko du, okupazioaren edo erabilpenaren aurretiko baldintza gisa. Bigarren kasuan, administrazioak desjabetzapenaren xedearen balioan oinarritutako prezamendu-orria emanen du, eta jabeari jakinaraziko dio, eta jabeak, hurrengo hamar egunetan, hura dagoen horretan onartu ala errefusatu ahal izanen du; bigarren kasu horretan, eskubidea izanen du egokitatzat jotzen dituen alegazioak egiteko, bere balorazioa justifikatzeko egokientzat jotzen dituen balorazio-bitartekoak erabiliz, 43. artikuluan bildutako eraginetarako, eta, halaber, alegazio horiek justifikatzeko egokitatzat jotzen dituen frogak aurkeztu ahal izanen ditu.

Horrenbestez, administrazioak, kasu honetan departamentuak, formalki erantzun beharko dio, ezarritako epean, hasieran aurkezturiko eskaerari, jabearen balorazioa onartuz ala errefusaturik.

Ez da ahaztu behar Konstituzioaren egileak administrazioaren jarduerari ezarri zion lehen printzipioa eraginkortasunarena izan zela, eta horrek esan nahi du, bistan da, administrazio-prozedurak ebazpen berariazko, arrazoitu eta behar den epean emandako baten bitartez amaitu beharra.

Kasu zehatz honetan, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak interesdunak aurkeztutako eskariari berariazko ebazpen bat emateko —eta epean emateko— betebeharrak argia zeukan,

are gehiago kontuan hartuta desjabetutako ondusunaren jabea erabaki administratiboak kaltetutako bera dela.

Horrenbestez, lehen alderdi horretan, baieztatu beharra daukagu Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ez zuela bere betebeharra bete, alegia, interesdunak 2000ko apirilaren 3an aurkeztutako prezamendu-orriari ez ziola erantzun.

Bigarrenik, desjabetzapena egiten duen administrazioaren beste betebeharrak bat aipatu behar da, alegia, espedientea Desjabetzapeneko Epaimahaiari igortzea, desjabetzapena jasan duen partikularrak aurkezturiko prezamendu-orriarekin ados ez badago.

Hartara, Nahitaezko desjabetzapenari buruzko Legeko 31. artikulua ezarri zuen jabeak administrazioak eskaintako prezio oinarritua errefusatu gero, balio justuari buruzko espedientea Desjabetzapeneko Epaimahai Probintzialari igorriko zaiola.

Balio justuaren fasea lehentasunezkoa da Konstituzioko 33.3 artikuluan ezarritakoa betetzeko; izan ere, artikulua horretan hauxe ezartzen da: "Inori ez zaio bere ondasun eta eskubiderik kenduko, onura publikoko edo gizarte-intereseko arrazoi justifikaturik izan ezean, betiere kalte-ordain egokia eman eta legetan xedatutakoaren arabera." Tramite hau ezinbesteko elementua da desjabetzapenaren barruan, zeren eta balio baitu desjabetzapenak kaltetutakoari ondarea justiziaz berreskuratuko dion kalte-ordain ekonomikoa zehazteko.

Kasu zehatz honetan, erakunde honetara igorritako txostenean departamentuak onartzen du 2002ko abenduaren 19ra arte ez ziola igorri balio justuaren atal berezia Desjabetzapeneko Epaimahaiari; hau da, bi urte eta bederatzita hilabete igaro zirela interesdunak prezamendu-orria aurkeztu zuenetik. Legeak ez du epe zehatzik ezartzen balio justuaren espedientea Desjabetzapeneko Epaimahai Probintzialari igortzeko; hori dela eta, igorpen hori berehala egin beharrekoa da. Gure ustez, prozedura hori epe luzean gerarazita edukitzea justifikaziorik gabekoa da ikuspuntu guztietatik, are gehiago departamentuak bestelako kudeaketarik egin behar ez zuenean, ez bazen partikularri idatziz adieraztea ez zegoela ados aurkeztutako balorazioarekin.

Horrenbestez, bigarren alderdi horretan, esan dezakegu departamentuak ez dituela bere legezko betebeharrak bete, alegia, balio justuaren espedientea behar den epean eta moduan igortzea Desjabetzapeneko Epaimahai Probintzialari.

Hirugarrenik, desjabetzapena gauzatzeko erabili den prozedura aipatu behar da.

Interesdunak aurkeztutako dokumentazioetik ondoriozta dezakegu desjabetzapenerako erabili den prozedura presakoa izan dela, eta prozedura hori, printzipioz, aparteko egoeretan erabiltzeko dela eta behar bezala justifikatu behar dela. Hala eta guztiz ere, administrazio publikoek prozedura hori arlo honetan jarduteko modu arruntzat hartu dute, eta, gainera, ez da uztartzen administrazioak desjabetuari balio justua ordaintzeko eduki behar lukeen azkartasunarekin. Hartara, nahiz eta departamentuak prozedura hori erabiltzen duen lurra okupatzeko premian oinarriturik, balio justua zehazteko prozeduraren faseak oso mantso garatu dira. Izan ere, ulertezina da ia bost urte iragan izatea (1998ko martxotik 2002ko abendura) prozedura hasi zenetik eta bitarte horretan espedientea bera ere Desjabetzapeneko Epaimahaira igorri ez izana.

Aztergai duguna bezalako kasuetan, zigor bikoitza ezartzen ari zaio administratuari, zeren eta, bere jabetza galtzeaz gainera, ondasunen presako okupazioaren poderioz, dagokion kalte-ordaina ere ez du arrazoizko epe batean jasotzen, zeren eta administrazio eskudunak ezarritako balio justuarekin ados ez badago, hura finkatzeko prozesua urtetan luza baitaiteke. Gainera, justifikaziorik gabe atzeratzen ari da babes judizial eraginkorrerako daukan eskubideaz baliatzeko aukera.

Praktika administratibo honek, balio justua zehazteko prozedura sistematikoki atzeratzean datzanak, berekin ekar dezake administratu askok, beren ondasunen zilegizko jabeak izanda ere, beren burua behartuta ikustea administrazioak zehazturiko balio justua onartzera, dagokien kalte-ordainaren ordainketan urte luzetan atzera daitekeelako: praktika administratibo hori errotik desagerrarazi beharrekoa da. Gainera, lehen aipatu ditugun legezko betebeharren ez-betetze argia da, eta haren ondorioz interesdunak segurtasun juridiko eza pairatzen du, eta ez luke halakorik zertan nozitu.

Azkenik, berandutze horrengatik sortzen diren korrituei dagokienez, esan behar da ezen, desjabetzapenen ondorioz eragindako kalteak hein batean arintzeko balio badute ere, behar ez bezalako zama bat direla ogasun publikoarentzat, zeren eta zenbat eta atzerapen handiagoa, orduan eta korritu gehiago ordaindu behar baititu. Horrek, zalantzarik gabe, ezin ukatuzko kaltea eragiten die zergadunei, eta horiek dira, azken batean, guztizko prezioaren igoerak ordaindu behar izaten dituztenak.

Hori guztia dela eta, beharrezkotzat jo zen Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENEA EGITEA, zertarako eta aurrerantzean eta kasu guztietan behar diren bitarteko juridiko eta materialak jar ditzan, legeak horretarako ezarritako epeetan behar den ebazpen arrazoitua emateko, aplikatzekoak diren arauak halakorik exijitzen dutenean, desjabetzapen bat jasan duen edozeinek balio justuaren gainean egiten duen proposamenari buruz –batez ere, presako prozedura erabiltzen denean–; eta prezamendu-orriari buruz akordiorik erdietsi ezean, desjabetzapenari buruzko espedientea berehala igor diezaion Desjabetzapeneko Epaimahaiari, balio justua zehatz dezan.

Erantzunean, departamentu horretako kontseilariak, egindako gogorazpena onartzeaz gainera, adierazi zuen behar ziren bitarteko guztiak jarriko zituela desjabetzapen espedienteen tramitazio administratiboa arau indardunetan ezarritako epeetan egin dadin.

ZERBITZUAK

PLAZA PUBLIKO BATEAN TERRAZA JARTZEKO BAIMENA UKATZEA.

AURREKARIAK

Kexa (03/109/O espedientea) Tuterako Udaleko Gobernu Batzordeak 2003ko maiatzaren 23an emandako erabakiaren aurkakoa da; erabaki haren arabera, kexa-egileari Yehuda Ha Levi plazan –bertan taberna bat gobernatzeko baitu– terraza bat mahaitxoekin jartzeko baimena ukatzen zitzaion.

Erabaki hartan esaten da aurreko urteetan emandako baimenak baldintza batekin eman zirela: bizilagunak ez kexatzea zaratengatik eta eremuko garbitasunari eustea; baldintza horiek, Tuterako Udaltzaingoaren arabera, ez dira bete.

Erreklamazio-egileak uste du terraza jartzea baliagarri suerta daitekeela alderdi hura oneratzeko, nola gertatu baita beste hiri batzuetan, beren alde zaharra berpiztu dutenak interes kulturalako turismoa sustatuz modu honetako jardueren bitartez.

Udalak, alkatearen idazki baten bitartez, ondoko informazioa igorri zigun kasu honi buruz:

“Aurtengo ekainaren 11n, [...] andreak berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen Udaleko Erregistro Orokorrean Gobernu Batzordeak 2003ko maiatzaren 23an hartutako erabakiaren aurka; erabaki haren bitartez, baimena ukatzen zen bide publikoa mahaitxoekin okupatzeko.

Errekurtsoa aurkeztu zen eguna kontuan harturik –izan ere, jarduneko udal bat baitzegoen, eta udalbatza berria karguez jabetu gabe zegoen, ekainaren 14an jabetu baitzen–, adierazi behar dugu Gobernu Batzorde berria (bera baita berraztertze errekurtsoa ebazteko organo eskuduna) eratzen den egunetik aurrera erantzunen zaizula.

Esan dezagun, [...] andreak, bere errekurtsoari babesa emateko, herritarren artean bildutako sinadurak aurkeztu zituela, egoera berrazter dezan eskatuz; sinadura horien artean, berriki arte udaleko alkate izan denarena dago; esan beharra dago, halere, jaun horrek sekula ez duela sinadurarik eman eskari horren alde, eta, horrenbestez, gainerrako sinaduren egiazkotasuna zalantzan jar daitekeela.

Zaratengatik eta [...] izeneko lokalean ixteko ordutegia ez betetzeagatik Udaltzaingoak 1999tik gaur arte eginiko jarduketari buruzko ziurtagiriak igortzen ditugu. Horien artean, 2002ko abuztuaren 4an 02:50ean eginikoa dago; hartan, udaltzainak dioen bezala, jardutearen arrazoia bizilagunek egindako kexak izan ziren (aldizkarian, jaiei buruzko ale berezian, 2002ko uztailaren 10ean agertu zen iragarkia ere erantsita dator; bertan, ordainpeko publizitate gisa, honako testua dago: “[...], tres años tres, dando la lata a los vecinos”).

Herritarren sinadurak erantsi ditugu, udalari exijitzen diotenak zaratei buruzko arauak bete ditzan?”

ANALISIA

Auzi honetan aplikatzekoa den araua, funtsean, Toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 121. artikuluan eta hurrengoetan bilduta dago.

121. artikulua ondokoa dio:

Erabilpen berezi, pribatu edo ohiz kanpokoek lizentzia edo kontzesioa beharko dute.”

Hartara, lege horretako 122.1 artikulua araber, lizentzia beharko dute:

Ondasun publikoen erabilpen orokorra, izaera berezia duena, arrisku, erabilpen intentsitate edo antzeko aparteko egoerak izaten baitira.

Ondasun horien gainean pertsona nahiz entitate batzuek egiten duten erabilpen pribatua, beste batzuentzat erabilpen hori mugatzen duena edo horiek horretatik kanpo uzten dituen, eta obrak egitera edo instalazio iraunkorrak jartzera behar izan ez duena.

Lizentziak prekarioan emanak izanen dira eta edozein egunetan balio gabe utz daitezke.

Lizentzia hauei ezezkua ematea jurisprudentziak ere onartu du, zeren eta prekarioan ematen baitira eta ez baitute eskuratutako eskubiderik sortzen. Hartara Auzitegi Gorenaren 1995eko azaroaren 30eko epaiak (RJ 8582/1995) hauxe ezarri zuen: "Kasu honetan dudarik ez dago, zalantzan ere ez da jartzen, eskatutako udal lizentzia (...) mahaitxoak jartzeko aldiko lizentzia bat dela (...), eta hari buruz ordenantza bereko 35. artikuluan esaten da baldintza terraza bera dela... Horrenbestez ez dago errekurso-egileak eskuratutako eskubiderik mahaitxoaren terraza erabiltzeko; aldi bateko eskubide bat da, udalak garai horren bukeran atzera bota dezakeena..." Hau da, era honetako lizentziak prekarioan ematen dira eta, horrenbestez, ez dute inongo eskubiderik sortzen etorkizunean ere emanak izateko; udalek ere ez dute haiek zertan eman: urtero-urtero jarritako baldintzak errespetatu besterik ez dute egin behar.

Hori dela eta, [...] andreak aurkeztutako eskaria, San Anton komentu zaharreko bobedan maiatzaren 1etik irailaren 30era mahaitxoak jartzeari buruzkoa, erabilera publikoko ondasunen erabilera pribatuaren kategorian sartzen da. Halaber, azpimarratu behar da interesdunak aurreko urteetan eskatutakoaren berdinak diren lizentziak eskatu eta lortu zituela.

Hala eta guztiz ere, aurreko baimen horiek baldin bazeuden ere, 2003ko ekitaldian udalak ez dio lizentziarik eman, zeren eta lokalean, behin eta berriz, zaratei buruz eta ixteko ordutegiei buruz ostalaritzako establezimendu guztientzat ezarritako arauak urratu baitira.

Tuterako Udalean, ostalaritzako establezimenduetan mahaitxoak edo terrazak jartzeko lizentziak uda garai (maiatza-iraila) bakoitzerako ematen dira, eta behin garai hori bukatutik, indarrrik gabe geratzen dira. Horrek berekin dakar urtero-urtero berriz eskatu behar izatea, zeren eta ez baitira betikoak. Eskaria urtero egiteko betebeharrak aukera ematen dio udalari, arazoak emanez, baimenik ez emateko establezimendu jakin bati, aurrekoetan lizentziarik eskuratu badu ere, zeren eta lizentziak garai bakoitzerako ematen baitira, modu independentean, eta ez baitute inolako eskuratutako eskubiderik sortzen. Gainera, aipatu foru legeak bidea ematen du, baita ere, lizentziak eraginik gabe uzteko, onuradunari ezarritako baldintzak betetzen ez diren bitartean, 181.2 artikuluan ezarri bezala.

Kasu zehatz honetan, aurreko urteetan emandako baimenetan baldintza bat zegoen: interesdunek bermatzea zaratak eta ixteko ordutegiak kontrolatzeko arauak guztiz bete zitezela, inguruko etxebizitzetako bizilagunei enbarazu ez egiteko.

Baldintza horiek ezagututa ere, erreklamazio-egilearen establezimenduak askotan urratu ditu arau horiek, eta hori izan omen da udalak erabakia hartzeko arrazoia, hain zuzen beldurrez baitzegoen ez-betetze horiek beste behin gertatzeko, terraza kanpoan jartzea berriro baimenduz gero.

Ondorio horretara iritsi da udala behin egiaztatu ondoren hamabi akta ere badaudela, udaltzairekin eginak, aditzera ematen dutenak establezimenduko arduradunek ez zituztela betetzen zaratei eta ixteko ordutegiei buruzko arauak. Hala eta guztiz ere, harrigarria bada ere, salaketa horiek ez dute inongo zehapenik ekarri, horixe izaki udalak egitea bidezkoa eta derrigorrezkoa zena.

Bestalde, udalak bizilagunen 300 sinadura baino gehiago igorri ditu, salatuz, oro har, zaraten kontrol falta eta ostalaritzako establezimenduek herrian sortzen dituzten arazoak. Are gehiago, erakunde honek berak ere salatutako egitateen errealitatea ezagutzen du; izan ere, arazo nabarmena baitago San Jaime plazan eta "El Tubo" deitzen duten alderdian, non taberna ugari dagoen eta jende asko biltzen baita asteburuetan. Leku horietan, besteak beste, gertatzen dira arazo gehien eta Tuterako Udalaren kontrol handiena behar da, zeren eta bizilagunak defentsarik gabe baitaude.

Horrenbestez, gure ustez, ez litzaioke partzialki heldu beharko kexa honetan planteatutakoari, arazo guztia erreklamazio-egilearen establezimenduak sortutakoa balitz bezala –esan dezagun, gainera, establezimendua ez dagoela aipaturiko alderdietan–, baizik eta Tuteran arlo honetan dagoen arazoa modu orokorrean hartuz.

Esandakotik ondorio hau atera daiteke, alegia, udalak ez duela nahitaez bete beharreko arau argirik ezarri ukitutako aldeetako tabernetarako, eta horren froga egokia dela salaketak ez direla tramitatu beharrezko zehapen espedienteen abiapuntu gisa, administrazio publiko ororentzat nahitaezkoa den bezala. Ez da aski arlo hauek arautzeko ordenantzak argitaratzea; geroan haiek betetzea exijitu egin behar da, eta establezimendu guzti-guztiei exijitu behar zaie, eta bereziki traba handienak sortzen dituztenei.

Hori dela eta, gure ustez, udalak bere eginkizunak zorroztasunez hartu behar ditu bere gain, eta ahal den bezain laster arazo hau aztertu behar du; gero, ostalaritzako sektorearekin eta gainerako ukituekin kudeaketak eta negoziazioak egin ondoren, bizilagunek atsedenerako eta lasaitasunerako dauzkaten eskubideak bermatzeko neurriak hartu behar ditu. Arazoari buruzko gogoeta orokor horretatik abiatuta, onartutako neurriak ustez betetzen

dituzten terrazak ukatu edo baimendu beharko ditu.

Azaldutakoa dela eta, Tuterako Udalari GOMENDIO bat egin zitzaion, ahal bezain laster aipatu aldeetako ostalaritzako establezimenduek zaratei eta ixteko ordutegiei buruzko arauak beteko dituztela bermatzeko neurriak har zitzaion, betiere bizilagunek atsedena hartzeko eta lasaitasuna izateko daukaten eskubidea errespetatze aldera. Hortik aurrera, baloratu behar da ea bide publikoan terrazak baimentzeak kalte egin ote diezaiekeen eskubide horiei, eta, hala bada, haiek irekitzeko baimena ukatzea.

Gure jarraibideari erantzunez, udal horretako alkate-udalburuak esan zigun azkenik kexa-egileari bide publikoa mahaitxoekin uztailaren 19tik irailaren 30era okupatzeko lizentzia eman zitzaioela, eta une hauetan zaratei buruzko arauak betetzeko modua aztertzen ari zela, bizilagunen eta ostalaritzako establezimenduen jabeen eskubideak errespetatzen saiatzeko. Horri buruz esaten ziguten gai hauetan inplikaturiko arloak koordinatzen ari direla, arazoa mugatzeko eta ahal den guztian ebazteko.

KALEAN MAHAIK JARTZEA, SINADURAK BILTZEKO.

AURREKARIAK

Kexa (2003/247/O) aurkeztu zuen entitateak Iruñeko Udaleko Hiritarren Babeserako Alorraren jokabidea aipatu zuen; izan ere, hara jo zuten baimena eskatuz Mercaderes kalean, San Nikolas kalean, Sarasate pasealekuan eta Udaletxe plazan argibide-mahaiak jartzeko, hain zuzen ere Bake Konferentzia prestatzeko sinadurak biltzearen. Ezezkoa eman zitzaion, esanez udalak baimenak ematen dizkiela soilik ongintzako eta gizaldekoko elkartei; esate baterako, DYARI, Gurutze Gorriari, minbizia duten gaixoei laguntzeko elkartei eta abarrei.

Interesdunek esaten dute baimena ukatzea Konstituzioak babestutako eskubideen aurkakoa dela, zehazki berdintasun eskubidearen aurkakoa –14. artikulua–, biltzeko askatasunerako eskubidearen aurkakoa –21. artikulua– eta adierazpen askatasunerako eskubidearen aurkakoa –20.1 artikulua–. Horrenbestez, eskatzen dute behar diren neurriak har daitezela Iruñean lan egiten duten elkarte eta mugimendu sozial guztiek aukera berak eta eskubide bera izan ditzaten lan egiteko eta beren helburuak eta xedeak herritar guztiei helarazteko.

Hiritarren Babeserako zinegotzi delegatuak eskatutako txostenean aipatu entitateari ezezkoa

emateko ebazpena aipatzen du, eta hari buruz honakoa dio:

“Zinegotzi delegatuaren ebazpenak, bertan jasota dagoen bezala, argibide-mahaiak jartzeko baimena ez ematea aztertzen du, Hiritarren Babespenaren Alorraren eskumena den guztian, hau da, eremuak okupatzea jarduerak egiteko. Ebazpen horretan ez da adierazpen askatasuna mugatzen, ez eta bilera-eskubidea ere; azken hori 9/1983 Lege Organikoan araututa dago, eta haren geroko aldaketan, 9/1999 Lege Organikoan: udal honek ez du eskumenik arlo horietan.

Zinegotzi delegatuaren ebazpenak berak jasotzen du eskatutakoari ezezkoa emateko oinarria bere garaian hartutako irizpideak direla, hain zuzen ere jarduerak egiteko eremuak okupatzeko baimenei buruzkoak; zehazki, irizpide orokorrez gainera, hauxe dio eske-mahaiei buruz: “Herritarra konpromisoan jar dezaketenez gero, baimena emanen zaie soilik irabazi asmorik gabeko erakundeek edo gizaldekoko erakundeek sustatutakoei, baldin eta haien xedea bada elkarte horien mantentzea, herritar guztiei gizarte prestazioak eskaintze aldera. Debekaturik egonen dira xede partikularrak, propagandakoak, lan aldarrikapenei loturikoak edo aldarrikapen politiko, promoziozkoak edo/eta merkataritzakoak dauzkaten erakundeek direnak.

Honezkerok finkatutzat jotzen diren eske-mahaiak: Gurutze Gorria, DYA, Minbizia, Bularreko Minbizia, Parkinson eta Alcer.”

ANALISIA

Hasteko, aztertu genuen ea bilera-eskubidea eta haren ondoriozkoa den adierazpen askatasunerako eskubidea –eskabidean inplizitua zena– urratu ote ziren; izan ere, Konstituzio Auzitegian finkaturiko jurisprudentziak (Konstituzio Auzitegiaren 85/1988; 36/1982; 66/1995 eta 42/2000 epaiak) jo izan du bi eskubide horiek hertsiki loturik daudela aztertutako kasua bezalakoetan.

Auzitegi horren aburuz, bilera-eskubidea, historikoki, eskubide autonomo gisa sortu zen, adierazpen librerako eskubidearen eta elkartzeko eskubidearen arteko zerbaiten gisara. Gaur egun ere, doktrina-lotura estua dauka horiekin, eta, hartara, esan daiteke bilera-eskubidea adierazpen askatasunaren agerkari kolektibo bat dela, pertsonen aldi baterako elkarte baten bidez gauzatutakoa; elkartze horrek lanabes-teknika baten gisara dihardu, ideiak elkarrekin trukatzeko edo azaltzera emateko erabilitakoa, edo interes batzuen alde egiteko edo arazoei eta aldarrikapenei publikitate emateko. Hura osatzen duten elementuak subjektiboak –per-

tsonak biltzea— eta finalistikoa dira. Apirilaren 28ko 85/1998 epaiak, non aztergai dugunaren oso antzekoa den kasu bat planteatzen baita, bilera-eskubide funtsezkoaren elementu subjektiboak eta finalistikoa aztertzen ditu xehero, zehazteko eske-mahaiak jartzea Konstituzioko eskubide horren baitan sar ote daitekeen.

Elementu subjektiboari dagokionez, esan behar da pertsonak elkartzea bilera-eskubidearen funtsezko osagai bat dela, eta bilera hitzartua izatearen berezitasuna duela; bilera horretan, esku hartzen duen pertsona bakoitzak halako lotura subjektibo bat dauka gainerako parte-hartzaileekiko. Elementu finalistikoari dagokionez, esan behar da komunikazio publikoaren xedea elementu komun eta berezkoa dela leku publikoetan egiten diren era guztietako bileretan, eta, hartara, halako bat-etortze bat dagoela adierazpen askatasunaren eta bilera-eskubidearen artean.

Aipatu epaiak aurrerago dioen bezala, aurreko bi osagaiak —bat-etortze hitzartua eta bileraren xede zehatzaren kanpoko izaera— gure Konstituzioaren 21. artikuluan aitorturiko bilera-eskubidearen kontzeptuari buruz ere esan daitezke; izan ere, Konstituzioaren manu horretan eskubidea definitzen ez bada ere, bai agertzen da definituta Bilera-eskubideari buruzko uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoko 1. artikuluan; haren hitzek aukera ematen digute baieztatzeko gure antolamendu juridikoa bilera-eskubidea muga dezaketen elementuak direla, besteak beste, biltzen diren pertsonen hitzartzea eta eskubidearen zilegitasunerako kanpo-baldintza gisa jokatzeko duen zilegizko xede bat izatea.

Konstituzio Auzitegiak dioen bezala, aurreko gogoeta doktrinalak eztabaidaturiko kasuari aplikatzean, nahitaez aitortu beharra dago bide publikoan eske-mahaiak jartzea ez dela, berez, bilera bat, eta ez duela esan nahi jarduera horiekin Konstituzioan jasotako bilera-eskubideaz baliatzen ari denik, zeren eta ez baitira ematen eskubide horren bereizgarri diren funtsezko elementuak. Mahaiak jarriz hiritarrak kausa bati atxikitzea bilatzen da, sinadura edo dirua emanez, baina horrek ez du berekin ekartzen pertsonen halako pilotze handi bat gertatzea, hau da, bilera bat, zeren eta bilera ororen elementu subjektiboa falta baita, hau da, esan dugun bezala, elkarrekin bat etortzea ekitaldian parte hartzeko, bilera baten partaide izatekoak direla jakinik.

Doktrina horri aldaketarik gabe eutsi zaio, baita babesa baietsi den kasuetan ere, betiere egitatezko kasu ezberdinetan oinarrituz, logikoa den bezala. Hartara, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 27ko 195/2003 epaian —berriki emana da, beraz—,

85/1988 epaitik heldutako doktrina bilduz, babesa eskatzen dutenen alde egiten da, eta jotzen da argibide-mahaiak eta bestelako instalazioak jartzea bilera-eskubideaz baliatzeko alderdi osagarri bat dela, zeren eta alde zuzenetik ekitaldiaren xedeekin zuzenean lotutako pertsonen kontzentrazio bat gertatua baita, nahiz eta instalazio horiek erabilera publikoko eremuak aldi baterako okupatzea ekartzen duten, diogun bezala, bilera-eskubidea dela medio eta eskubide horretaz baliatzeko esparruan.

Horri buruz, goi auzitegiak adierazi du, adierazpen askatasunaren eta bilera-eskubidearen artean dagoen lotura hertsia aintzat hartuta, ulertu behar dela Konstituzioak babestutako eskubide horien jabeek libreki erabaki ditzaketela beren mezua hartzaileengana eramateko tresna edo bide materialak. Konstituzio Auzitegiak dioen bezala, ideiak, mezuak, aldarrikapenak, asmoak, salaketak eta manifestazioetako partaideen eta herritarren arteko atxikipenak azaltzeko edo trukatzeko era askotako bitarteko materialak erabil daitezke, horien artean eske-mahaiak jartzea. Halere, epai horretan aztertutako kasuan, beren bilera-eskubideaz baliatzen ari ziren pertsonak erabiliko zuten instalazio bat zegoen, eta horretarako behar ziren traste guztiak bete zituzten agintari eskudunarekin, hain zuzen bilera-eskubidea arautzen duen legean aurreikusitakoak. Esparru honetan, ulertu behar da mahaiak eta beste instalazio batzuk jartzea bateragarria dela eskubide hartaz baliatzearekin, baina osagarria dela, zeren eta mahaiak jartzea, berez, ez baita bilera-eskubidearen alderdi edo aldagai bat, baizik eta beharrezkoa da eskubide horretaz materialki baliatzea, pertsona batzuk bilduz.

Planteaturiko kasuari dagokionez, argi dago aztergai dugun entitateak ez zuela bilera-eskubideaz baliatu nahi; izan ere, sinadura-bilketa hutsa zen haren xedea, horretarako eske-mahaiak jarrita. Hori dela eta, Iruñeko Udalera jo zuen bide publikoa erabiltzeko baimen eske, eta ez estatuko Gobernuak Nafarroan duen ordezkaritza, zeina administrazio publiko eskuduna baita Konstituzioaren eskubide horretaz baliatu nahi izanez gero; izan ere, hari jakinarazi behar zaio hori, uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoak ezarri bezala. Hori dela eta, ezin da aldeztu Iruñeko Udalak biltzeko edo manifestatzeko eskubide konstituzionala urratu duenik, zeren eta, egiaz, ez baita eskubide horretaz baliatu nahi izan.

Erreklamazioa egin duen entitateak egiazki nahi izan duena da bide publikoaren erabilera pribatiboa egitea, eske-mahaiak jarriz; eta asmo hori epaitu behar da toki entitateen ondasunei buruzko araudiaren ikuspegitik. Nafarroan, araudi hori bil-

durik dago Toki administrazioaren araubideari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta hura garatzeko erregelamenduan; izan ere, bertan arautzen da udaletako erabilera publikoko ondasunen erabilera eta aprobetxamendua.

Lege horren beraren 121. artikulua honakoa ezartzen du:

1) Erabilpen publikoa duten ondasunen destinoa hiritar guzti-guztiek orokorrean erabiltzea da, horien izaera eta helburuaren arabera eginez normalean.

2) Erabilpen berezi, pribatu edo ohiz kanpokoek lizentzia edo kontzesioa beharko dute, sail honetako xedapenei jarraikiz.

Halaber, 122. artikulua esaten du udalaren lizentzia beharko dela ondasun publikoen erabilera bereziko edo pribaturako, salbu eta obra edo instalazio iraunkorrak behar diren kasuetan, haietan kontzesioa 123. artikulua arabera emanen baita.

Aztergai dugun kexan planteaturiko erabilera mota 122. artikuluan sartuko litzateke, zeren eta mahaiak bide publikoan jartzea haren erabilera pribatua baita, baina obra edo instalazio iraunkorrik behar ez duena, eta, horrenbestez, udalak lizentzia bidez baimen dezakeena. Honelako lizentziak "prekarioan emanak izanen dira eta edozein egunetan balio gabe utz daitezke," legean jaso bezala.

Doktrinaren eta jurisprudentziaren arabera, honakoak dira jabari-lizentzia mota honen bereizgarriak:

– Jabari-baimenak benetako tolerantzia-ekintzak dira, aldeztatik horretarako inongo eskubiderik ez duen partikular batek jabariari erabilpen berezi bat eman diezaion; hori lizentzia hauen bereizgarri bat da, nola gertatzen baita obren lizentziarekin ere, non lurzuaren titularrak lehendik existitzen den eskubide bat baitu eraikitze, nahiz eta eskubide hori gauzatzeko administrazioaren lizentzia eskuratu behar duen.

– Baimen hauek ekintza administratibo alde bakarrekoak dira, eta beti partikularrak aldeztatik eskatuta eman beharrekoak dira. Prekarioan ematen dira, eta, horregatik edozein unetan atzera bota daitezke. Erabiltzailearen eskubidea, beraz, mugatuta dago jabaria baimendutako moduan erabiltzera, eta, betiere baimenak indarra duen bitartean.

– Baimen horiek emateko tasak ordainaraz daitezke.

Ezaugarri horiek direla eta, ondoriozta dezakegu hiritarrek ez dutela eskubiderik bide publikoen erabilera berezia, ohiz kanpoko edo pribatua exijitzeko, eta udal bakoitzak erabilera hori arautu dezakeela bere diskrezio-ahalez baliatuz, eta erabilera hori zehazteko posible diren konponbideetako bat hauta dezakeela, guztiak zuzenak eta egoiak antolamendu juridikoaren arabera, non eta ez den agintekeriazko edo bidegabekeriazko desbideratzerik gertatzen. Alderdi horretatik, bereziki garrantzitsua da herritarren berdintasunerako printzipio konstituzionala bermatzea, hain zuzen Konstituzioaren 14. artikuluan bildutakoa; izan ere, haren arabera, "espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta."

Legearen arabera, legearen aurreko berdintasun printzipioa herritarren eskubide subjektibo bat da, haien arteko desberdintasun arbitrarioak sustatzen dituzten arauetatik babesten dituen, betiere konparazioaren terminoak egitatezko egoera berdinetatik edo antzekoetatik datozen; izan ere, egitatezko egoera horiei era bereko tratamendu juridikoa dagokie, zeren eta halakoetan arauak berdinduta izan behar baitu guztientzat, eta haren aurreikuspen juridikoek ondorio berak eduki behar baitituzte. Berdintasun printzipioaren arabera, egoera homogeneoen aurrean, arauak herritarren arteko eskubide eta betebeharrak berdinkatzea behar dituzte. Horrela ez bada, printzipio konstituzionala urratzen da.

Arauek tratu berezitua ezar dezakete egoera juridiko heterogeneoak arautzen dituztenean, betiere egoera horiek, ezaugarri desberdinak izateagatik, ezaugarri horiekin bat datozen arauak behar badituzte. Horretarako, ezinbestekoa da justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa izatea, orokorrean onartutako irizpide eta balio-judizioekin bat datorrena, baita neurriaren xedea eta ondorioak kontuan hartuta beharrezkoa izatea bere aplikazioa ere, betiere proportzionaltasun irizpideak aplikatuta erabilitako baliabideen eta lortu nahi den xedearen artean. Konstituzio Auzitegiak askotan adierazi duen moduan, tratu desberdinak ez dakar arbitrariorik nahitaez; aldez, herritarrekiko tratamendua arbitrarioa izanen da herritar batzuek besteekiko duten desberdintasun "arrazoigabe" batean oinarritzen bada, hau da, desproporzionatua, artifizio handikoa eta funts nahikorik gabea tratamendu desberdina, onerako edo txarrerako, justifikatzeko.

Esandakoa berdinduta esan liteke administrazio publikoaren edozein jarduketari buruz, zeren eta iriz-

pide horiek aplikatzen baitira legearen aplikazioan berdintasuna eta legearen aurreko berdintasuna ebaluatzeko.

Auzitegi Gorenaren 1997ko urtarrilaren 24ko epaiak dioenez, honakoak dira berdintasun printzipioaren ezaugarriak:

«a) Herritarrek tratu berdina jasotzeko duten eskubide subjektiboa da. b) Berdintasuna ezin da modu abstraktuan balioetsi, kasuan-kasuan gertatzen diren inguruabarren arabera ulertu eta epaitu behar baita beti, eta hortaz, eskubide-printzipio erlatiboa den aldetik, haren aplikazioak beti eskatzen du konparazioa egitea. c) Berdintasunak diskriminazio-debekua du bere baitan, baina debeku hori ez da absolutu eta baldintzarik gabea; izan ere, debekuak egoera berdinetarako balio du, ez ordea konparazio-gaien artean ondorio juridikoko elementu diferentzialak, zio objektiboetan –alegia, justifikazio arrazoizko edo juridiko nahikoan– oinarritutako tratu diskriminatua ahalbidetu eta are eskatzen dutenak, daudenerako».

Gainera, administrazio publikoei ondasun publikoen erabilera arautzeko ematen zaizkien diskrezio-ahalez jurisprudentzian finkaturiko printzipio batzuen arabera baliatu behar da. Auzitegi Gorenaren 1997ko apirilaren 10eko epaiak dioten bezala (RJ 2752/1997), "(...) gure antolamendu juridikoa zuzentzen duten printzipio eta irizpideen aplikazioak ondorio bat dakar, alegia, udal enteak jabari eta erabilera publikoko ondasunen administrazioaren gaineko ahalmenak izatea, nahiz eta partikularrei ondasun horien gaineko eskubide batzuk aitortu ahal zaizkien, betiere baldintza batzuekin: alde batetik antolamendu juridikoa ez urratzea eta bestetik bere ahalezkoak diren diskrezio elementuak ez izatea arrazoizkotasunaren aurkakoak, interes publikokoak izatea eta bitartekoen eta xedeen artean proportzionaltasuna gordetzea."

Azkenik, gogoratu beharra dago, baita ere, Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 54.1.f) artikularen arabera, administrazio publikoek behar bezala arrazoitu behar dituztela diskrezio-ahalez baliatuz emandako egintzak, eta horixe da epaitegiek haiek fiskalizatzea eta epaitzea bideratzen duen tresna.

Arau-esparru hau oinarri harturik aztertu dugu Iruñeko Udalak ezezkoa ematea kexa aurkeztu duen entitateak aurkeztutako eskariari; haren arabera, sinadurak biltzeko 4 mahai jarri nahi ziren hiriko alde zaharrean _____aren _____(e)an, 11:30etik 14:00etara.

Lehenbizi, azpimarratu behar dugu eskaria egin duen entitateari udalak emandako erantzuna

eskasa dela edozein ikuspuntutatik, diskrezio-ahal batez baliatuz ematen diren ebazpenak arrazoitze-ko legeko betebeharrari erreparatuz gero; izan ere, besterik gabe adierazten zuen "jarduerak egiteko eremuak okupatzeko baimenak direla-eta bere garaian hartu ziren irizpideei buruzko ondorioen arabera" ezezkoa ematen zaiola eskatutakolari. Argi dago azalpenak ez dituela agertzen ezezkoa emateko oinarri gisa erabili diren irizpideak edo funtsak, eta, horregatik, ez ditu betetzen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 54. artikuluan aipaturiko betekizunak.

Mahaiak jartzeari ezezkoa emateko erabili ziren arrazoiei dagokienez, kexarekin batera igorritako txostenean esaten da udalak baimena ematen duela dagoeneko finkatutzat jotzen dituen eske-mahai hauek jartzeko: Gurutze Gorria, DYA, Minbizia, Bularreko Minbizia, Parkinson eta Alcer. Eta bide publikoan eske-mahaiak jartzeko irizpideak honela hartu direla: "herritarra konpromisoan jar dezaketenez gero, baimena emanen zaie soilik irabazi asmorik gabeko erakundeek edo gizaldeko erakundeek sustatutakoei, baldin eta haien xedea bada elkarre horien mantentzea, herritar guztiei gizarte prestazioak eskaintze aldera. Debekaturik egonen dira xede partikularrak, propagandakoak, lan aldarrikapenei loturikoak edo aldarrikapen politiko, promoziozkoak edo/eta merkataritzakoak dauzkaten erakundeak direnak".

Udalak emandako erantzuna baloratu ahal izateko, aipaturiko konparazio-gaiak aztertzen hasi ginen, berdintasun printzipioa urratu ote zen ondorioztatzeko. Horri buruz, ikusten zen gutxienez ere ikuspegi formaletik ezin dela baieztatu udalak aipatu printzipioa urratu duenik, zeren eta erreklamazioa aurkeztu duen entitateak ez baitu egiaztatu udalak beste batzuetan baimena eman izana izaera bereko beste pertsona edo entitateei, egin nahi zenaren antzeko jarduerak egiteko. Gure ustez, aipaturiko gainerako elkarteek –Gurutze Gorria, Alcer, DYA eta abar– kexa aurkeztu duen entitatearenez oso bestelako helburuak daukate, zeren eta entitatearen helburuak hertsiki politikoak baitira eta ez ongintzazkoak; horrenbestez, abiapuntutzat hartu den konparazioaren gaiak heterogeneoak dira.

Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar hiriak bizikidetasunerako eta trukerako eremu pribilegiatua direla eta, horrenbestez, askotan, haren kale eta plazetan, mahaiak, postuak eta antzeko instalazioak jartzen direla era guztietako xedeetarako: aisia eta kultura, salerosketa hutsa, objektuak trukitzea eta bildumak egitea, propaganda eta era guztietako iragarkiak, hirugarren munduarekiko edo gutxiengo baztertuekiko elkartasuna, erlijioa

zabaltzea eta baita xede politiko hutsak. Administrazioek onartu egiten dituzte, bide publikoetan oinezkoei kalte edo traba egiten ez dieten bitartean, zeren eta jotzen baita jarduera hauek erabilera publikoko eremuetan txertaturik daudela eta herritarrei aniztasuna, ezagutzeko eta denbora-pasarako aukera, informazioa eta abar ematen dietela.

Konstituzio Auzitegiaren 66/1995 epaiak dioen bezala, "gizarte demokratiko batean, hiriaren eremua zirkulazio eremu bat ez ezik, parte hartzeko eremu bat ere bada". Eta neurri horretan, bide publikoek ez dute balio soilik batetik bestera joateko edo paseoa ibiltzeko; izan ere, bide publikoek balio dute, baita ere, herritarren eskubideez baliatzeko, bizikidetasunerako, gozatzeko eta aisiarako, informazioa trukatzeko, gainerakoekin komunikatzeko eta, baita ere, herritarren erakundeek kezkarri zaizkien arazoetarako dauzkaten alternatibak jakitera emateko eta herritarren atxikipena bilatzeko ere.

Bide publikoei eta haien erabilerari buruzko kontzepzio hau oinarri hartuta, gure ustez udalak, bere diskrezio-ahalez baliaturik, bidea eman liezaieke pertsona edo talde guztiei, legezkoak badira, beren xedeetarako eremu publikoak erabil ditzaten, herritarren arteko bizikidetasun arau gutxienekoak eta agintariak eta funtzionarioek emandako jarraibideak errespetatzea bermatzen duten bitartean. Hartara, gure kale eta plazen erabilerari buruzko araua berdina izanen da guztientzat, bereizkeria behartu edo artifizialik egin gabe –beti justifikatuta ez daudenak edo ulertzen ez direnak– merkataritza eta ostalaritza arloko jardueren eta jarduera informatibo, sozial, politiko eta abarren artean. Hartara, kasuan kasu ezarri beharreko mugek funts handiagoa izanen dute eta hobeki errespetatuko dute bitartekoen eta xedeen arteko proportzionaltasun printzipioa. Zentzu horretan, "favor libertatis" delako printzipio konstituzionala gogoratu behar dugu, zeinak beti eragin behar baitu askatasunerako eta haren aplikaziorako arau murriztaileen interpretazioan.

Azaldutakoa dela eta, IRADOKIZUN bat egin genion Iruñeko Udalari, bide publikoak erabiltzeko erraztasunak eman diezazkien nahi dituzten gaiei buruz beren alternatibak eta informazioa jakitera eman nahi dituzten eta herritarren atxikipena bilatzen duten herritarren erakundeei.

Udalak, Hiritarren Babeserako zinegotzi delegatuaren bitartez, erantzun zuen iradokizun hori onartzen zuela.

– Akatsak telefono zerbitzuaren funtzionamenduan.

Gero eta kexa gehiago aurkezten da telefono zerbitzuaren funtzionamenduan gertatzen diren arazoak direla eta. Funtsean, kexak landa inguru-neetan telefono linea berriak jartzeko eskariei erantzuteko atzerapenari buruzkoak izaten dira. Hartara, aurrean aurkeztu dizkiguten kasuen artean (02/331/O, 03/260/O eta 03/269/O espedienteak), arazoak Aldunaten, Artozkin, Arzotzen, Etxaurin, Iuritan edo Leiun-Lizoainen gertatu dira.

Kasu horietan, gure eskumen-eremuaren araber, kexa estatuko arartekoari igorri beharko geniokeen, Zientzia eta Teknologia Ministerioaren bitartez konpainien jarduna azter dezan, zerbitzu publikoa diren aldetik dauzkaten betebeharrak betetzen ote dituzten egiaztatzeko; zehazki, telefono zerbitzu unibertsala deitzen den horretarako sarbidea bermatzen ote duen. Hori egin baino lehen, zenbait urrats eman ditugu Nafarroako Gobernuaren Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan, zeinak behin baino gehiago jo baitu Telefónica era honetako arazoei konponbidea eskatzeko.

Beste batzuetan, Telefónica Iparraldeko lurralde zuzendariarengana ere jo izan dugu, eta horrela lortu dugu planteaturiko kasuetako batzuk konpontzea; halere, askotan, haren erantzun bakarra izan da zerbitzuak horretarako bidea eman bezain laster konponbidean jarriko zutela planteaturiko arazoa. Asetzeko moduko erantzun bat jaso ez dugun kasuetan, espedientea Espainiako arartekoari igorri diogu.

II-11. OSASUNA**PEDIATRIA LAGUNTZA****GUARDIEN ARAUBIDEA TUTERAKO REINA SOFÍA OSPITALEKO PEDIATRIAKO ZERBITZUAN.****AURREKARIAK**

Tuterako Reina Sofía Ospitaleko sendagile batek kexa bat aurkeztu zuen (02/27/S) osasun zentro horretan pediatriako guardietarako dagoen araubideari buruz; izan ere, guardia lokalizatuak asko eta asko erabiltzen dira, bertan egoteko guardien kaltetan, zeinak zerbitzuaren kalitatea bermatzeko beharrezkotzat jotzen baititu.

Jakitera ematen zigun Tuterakoa bezalako ospitale guztietan aurreikusita dagoela aldi berean egotea zentroko larrialdietan obstetriziako eta pediatriako espezialistak, hartara bermatuz amaren eta jaioberriaren osasun laguntza. Izan ere, Reina Sofía Ospitalea eskualdeko zentro bakarra da bertan egoteko obstetriziako espezialista bat bai baina pediatriako espezialistarik ez duena. Kexa-egileak dio pediatriako gainerako larrialdietan familiako sendagileak aritzen direla, salbu eta pediatriei deitzen zaienean, kasu jakin batzuetan. Hori dela eta, eskatzen zuen pediatren plantilla zabaltzeko edo arazo larri honetarako konponbide egokia bilatzeko, hain zuzen ere pediatriako larrialdiei behar den erantzuna emateko, bereziki osasun etxe horretako jaioberriei, zeren eta Reina Sofía Ospitalea baita Nafarroa hegoaldean dagoen bakarra eta inguru horretako populazioa etengabe hazten ari baita. Horretarako, parametro batzuk ematen zituen, gure iritziz abiapuntua izan behar dutenak arazoari konponbidea emateko.

Planteamendu horren aurrean, interesgarria zen jakitea zer eragin zeukan edo izan zezakeen egoerak ospitale horretara jotzen zutenei laguntza zuzena emateko. Hori dela eta, behar den informazioa eskatu zitzaion Nafarroako Gobernu Osaun Departamentuari.

Jasotako erantzunean, hauxe esaten zen:

“Aipatu pediatriako larrialdietarako laguntza zuzena eman izan da –eta jende guztia pozik dago emandako laguntzarekin– Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzuko sendagileekin eta pediatria guardia lokalizatuan edukiz. Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzuak, azken 18 hiletan, 13,7 larrialdi pediatriko izan ditu egunean, batez beste. Lan txanden araberako ordu banaketa hauxe da: 4,5 ordu goizez (8:00etatik 15:00etara); 6,4 ordu arratsaldean (15:00etatik 22:00etara), eta 2,7 ordu gauetz (22:00etatik 08:00etara).

Gehienetan patologia hutsala izaten da, eta Larrialdietako Zerbitzuko sendagileen laguntzaz konpontzen da.

Kasuen % 5,3tan baizik ez zaio guardiako pediatriari deitzen kontsultaren bat egiteko edo bertan egon dadin eskatzeko.

Zenbaki horiek kontuan hartuta, joan den urtearen bukaeran, pediatria zerbitzuko jarduera programatua eta larrialdietakoa aztertu ondoren, eta Larrialdietako Zerbitzura jotzen duten Pediatriako gaixoen kopurua eta ordutegia eta guardiako pediatriari eginiko deien kopurua ere aztertu ondoren, pediatriako zerbitzuaren jarduera berrantolatzen zen, eta ospitaleko pediatren plantilla handitu zen, laugarren pediatria jartzeraino, hain zuzen arratsaldeko lanaldia egiteko eta guardia lokalizatuko orduak gauetara mugatzeko, 21:00etan hasi eta 08:00ak arte.

Aldaketa horrekin, alderdi batzuk hobetu dira:

- Lehenbizi lana fakultatibo gehiagoren artean banatzen da, eta ordutegi zabalagoa hartzen du.

- Bigarrenik, horrekin pediatria bat egoten da ospitalean arratsaldeetan; izan ere, orain arte Pediatriako Zerbitzuak goizeko ordutegia baitzuen soilik.

- Hirugarrenik, pediatriako larrialdiek eta jaioberrientzako laguntzak berehalakotasuna irabazi dute, zerbitzuan arratsaldez pediatria bat badagoelako.

- Laugarrenik, pediatriako guardia lokalizatuak gutxitu egiten dira, astelehenetik ostiralera 17 ordukoak izatetik 11 ordukoak izatera pasatu baitira, eta larrialdietako jardun txikiagoko ordutegiarekin bat gertatzen dira; horrekin, pediatren lan gainkarga eta guardiako orduak gutxitu egiten dira.

Horrenbestez, hartutako neurria da zerbitzuko baliabideen handitzea eta pediatriako laguntzaren hobekuntza hobekien uztartzen dituen, eta horrek berekin ekarri du emandako laguntzaren kalitatea handitzea.

ANALISIA

Erantzuna aztertu ondotik eta osasun laguntza jasotzeko eskubidea arautzen duten manuak aztertu ondotik, kasu honi buruz hurrengo hausnarketak egitea erabaki genuen.

Lehenbizi, azpimarratu behar da osasunerako eskubidea Espainiako Konstituzioko 43. artikuluan jasotako oinarrizko eskubide bat dela. Arau horretan oinarriturik, botere publikoei dagokie osasun publikoaren sistema antolatzea eta zaintzea. Konstituzio Auzitegiaren 32/1983 epaiak, apirilaren

28koak, korrelazio bat ezarri zuen osasuna babes-teko herritarrak daukan eskubidearen eta hura betetzeko botere publikoek dauzkaten betebeharraren artean; betebeharraren ardatz nagusia da, oso bereziki, osasun prestazioak modu eraginkor batez bermatuko duen osasun sistema bat mantentzeko betebeharra. Halaber, osasun jarduerak eraginkortasun eta efizientzia printzipioen arabera izan behar du; hain zuzen ere, printzipio horiek inongo aitzakiarik gabe aplikatu behar dira administrazio publikoek ematen dituen zerbitzu guztien kudeaketan.

Kasu honi dagokionez, Tuterako Ospitalean pediatriako larrialdiak direla-eta hartu beharreko erabakiak printzipio hauek begiratu beharko ditu: konponbidea ezin da eman ikuspegi ekonomiko hutsetik, zeren eta hartara urratu egin bailiteke eraginkortasunaren printzipioa, eta, horrenbestez, laguntzaren kalitatea; bestalde, ezin dira kostuak ahaztu, zeren eta kontua baita zerbitzua ahal den modurik onenean bermatzea ahal den gastu txiki-ena; hau da, zerbitzu publikoa modu efizientean ematea.

Horretarako, datu objektibo hutsak hartu behar dira kontuan: zerbitzuaren xede den populazioaren ezaugarriak, haren kopurua eta osaketa, aurreko aldietan larrialdietan izandako gaixoen kopurua, tipologia klinikoak... zeren eta datu horien ezagutza zehatzak oinarria izan behar baitu konponbiderik zuzenena emateko. Egungo garapen zientifikoaren eremuan balioa duten beste irizpide tekniko eta mediko batzuk ere hartu behar dira kontuan.

Parametro objektibo horiek guztiak eta parametro hertsiki klinikoak, gure ustez, beharrezko abiapuntua dira Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Pediatria Zerbitzuko plantillaren tamaina eta gardien araubidea ezartzeko.

Nafarroako Osasun Zerbitzuak igorritako informazioaren arabera, pediatriako larrialdiei erantzun egokia ematen zitzaien zegoen sendagile-taldeekin, ospitaleko larrialdietako fakultatiboekin, familiako sendagileekin eta gauez guardia lokalizatuko pediatria batekin. Halaber, emandako informazioaren arabera, beste pediatria bat kontratatua zuten arratsaldeko lanaldia egiteko eta pediatrien guardia lokalizatuak soilik gauera mugatzeko.

Haren arabera, Reina Sofía Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzuan emandako laguntza pediatriko-ek buruz azken urte eta erdian eginiko azterlan baten arabera, eguneko 13,7 larrialditakoa da pediatriako larrialdien batez bestekoa. Horietatik 4,51 goizeko txandakoak dira, 6,4 arratsaldeko txandakoak eta soilik 2,7 gaueko txandakoak. Larrialdi horietatik guztietatik, kasuen % 5,3tan

baizik ez da behar izan guardiako pediatria bertan egotea; izan ere, gainerakoetan, Larrialdietako Zerbitzuko familiako sendagileek ebatzi zituzten kasuak.

Txostenaren amaieran esaten da, ondorio gisa, neurri horiek bidea eman dutela zerbitzuak berme guztiekin funtziona dezan.

Hala eta guztiz ere, kexa aurkeztu zuen pediatriak emandako informazioak oso bestelako datuak erakusten ditu; izan ere, hauxe azaltzen du:

A) Nafarroako Osasun Zerbitzuaren txostenak aipatzen duen pediatria berriaren kontratazioak 2001eko azarotik 2002ko apirilera iraun zuen, zeren eta [...] doktoreak, horretarako kontratatutako pertsonak, azken data horretan bukatu baitzuen zerbitzua ematen. Horrenbestez, kexa-egileak salatzen du gaur egun ospitalean ez dagoela pediatria iraunkorrik arratsaldean.

B) 2002an, 15 urte baino gutxiagoko 17,24 haur joan ziren larrialdietara egunean. Horietatik, 11,26ri goizeko ordutegiaz kanpo eman zitzaien laguntza. Larunbat, igande eta jai egunetan egunero 20 eta 21 haur bitarte joaten dira ospitalera. Hori guztia ospitaleko bertako harrera-zerbitzutik ateratako datuen arabera.

C) 2002an, guztira, 769 erditze izan dira ospitalean; horietatik 214 distozikoak izan ziren. Erditze gehienak goizeko ordutegiaz kanpo gertatu ziren. Salaketa-egileak dio pediatria bertan egotea ezin bestekoa dela erditze distozikoetan, baina baita erditze euzotiko batzuetan ere, obstetrarekin batera, konplikazioak izan eta sufrimendu fetala dagoenean.

D) Tuterako Ospitaleko Pediatria Zerbitzuko abisu-liburuan ageri da guardia lokalizatuan zeuden pediatrek 1.398 abisutan laguntza eman behar izan zutela 2002an; horietatik 674 goizeko lanaldian izan ziren eta 724 goizeko lanaldiaz kanpo. Horietatik 182 gaueko abisuak izan ziren. Deiak urteko 294 egunetan gertatu ziren. Halaber, abisuen kopurua ez da proportzionalki banatzen urtean zehar; izan ere, udako hiletan behera egiten du, baina ez zen gauza bera gertatu 2002ko azken hiletan, kopuruak nabarmen gora egin baitzuen. Hartara, abenduan pediatrek lanaldiaz kanpoko 103 abisutan laguntza eman behar izan zuten.

E) Gaur egun, asteburuak betetzen dira bertan egoteko gardien araubidean diren pediatrekin, 08:00etatik 20:00etara, 2002ko uztailetik aurrera; lanaldiaren gainerakoa guardia lokalizatuarekin betetzen da.

F) Guardia lokalizatuak eta bertan egotekoak betetzeko, zerbitzuko bi pediatria daude, eta horiez

gainera, oinarritzko osasun laguntzako zerbitzuei atxikitako bitarteko lan kontratupeko lau pediatria –azken horiek behartu egiten dituzte ospitalean guardiak egitera– eta lanaldi erdiko beste bi fakultatibo, aldi baterakoak ere, beste guardia bat egitea bermatzen dutenak.

Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta erreklamazio-egileak emaniko datuak irakurritz lortu genuen lehen ondorioa da kontraesan argia dagoela bi aldeek adierazitako parametroetan. Ezberdintasunetako batzuk azaltzeko kontuan har daitezke informazioetan aintzat hartutako aldi ezberdinak. Halaber, bazirudien datuak erregistro ezberdinetatik atereak zirela. Erreklamazio-egileak zioenez, haren datuak ospitaleko erregistroetatik eta Pediatria Zerbitzutik bertatik atereak ziren. Hala eta guztiz ere, beste datu batzuetan –esate baterako, arratsalde zehatzeko pediatria bat kontratatzearen kontuan–, ez dugu ulertzen batzuek eta besteek diotenean bat ez etortzea, zeren eta, dirudienez, kexa tramitzeko unean arratsaldeko errefortzuko zerbitzurik ez baitzegoen.

Halaber, planteatzen den gaiari dagokionez –ea beharrezkoa den pediatria bat egotea erditze zail batean–, ezer ez zitzaigun esaten Nafarroako Osasun Zerbitzuaren txostenean, ospitalean lagundu beharreko erditzeen kopurua nahiko handia zenean, aurkeztutako datuetatik ondorioztatzen denez. Ez da ezer esaten, ezta ere, pediatrik obstetrek batera bete beharreko paperari buruz, batera egon beharreko erditzeetan. Aitzitik, kexan esaten zaigu batzuetan pediatriaren presentzia ezinbestekoa dela erditze batzuetan, gerorapenik onartzen ez duten larrialdi batzuk gertatzen direnean, baina pediatriaren presentzia ia ezinezkoa dela, bere etxean lokalizaturik egonda ere.

Bestalde, argi dirudi asteburu-egun bertan egoteko gardien eta gainerako lanaldietako guardia lokalizatuen sistema nahikoa behin-behinekoa zela, zeren eta guardia horietako asko aldi baterako kontratatutako pediatrik bete behar izaten baituzte. Egoera hori larriagotu daiteke bajak gertatuz gero, kontratua bertan behera geratzeagatik edo beste edozein arrazoiengatik, bereziki oporraldietan. Gainera ez dirudi inongo araubiderik dagoenik fakultatiboek gardien ondotik, bereziki lan ugari egin behar eta gero, izan beharreko atsedenaldiei buruz.

Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez du azaltzen, ezta ere, zein izan behar duen pediatriaren betekizunak Tuterako Reina Sofía bezalako eskualde-ospitale batean, non lagundu beharreko jende kopuru potentziala 80.000 pertsona baino handiagoa baita, kontuan hartuz gero ez soilik Nafarroako hegoaldeko herriak, baizik eta, baita ere, beste

autonomi erkidego batzuetakoak ere, zeren eta haietatik ere etortzen baita jendea. Populazio potentzial hori dela eta, Espainiako beste eremu batzuetako antzeko ospitaleetan bermaturik dago pediatria bat eguneko 24 orduetan egotea.

Ospitaleak kudeatzeko erabiltzen diren eskuliburuen arabera, osasunaren arloko profesionalen artean erabateko adostasuna dago bigarren mailako ospitaleetako –Reina Sofía ospitalea halakoa da– larrialdi zerbitzuak antolatzeako moduari buruz; horien ustez, zerbitzu horietan larrialdietako sendagileek egon behar dute, baina, horiez gain, barne-medikuntzako sendagileak, kirurgia-oro-rrekoak, traumatologiakoak, tokoginekologiakoak, anestesia zerbitzukoak eta pediatriakoak ere izan behar dira. Horretaz gain, sendagile horiek ospitalean bertan eta laguntza emateko moduan egon behar lukete. Guardia lokalizatuak soilik zerbitzu batean laguntza emateko edo lehen mailako ospitaleetan egonen lirateke; izan ere, ospitale horietan oinarritzko larrialdiak bakarrik hartzen dituzte, eta gaixoak beste ospitale espezializatuagoetara bidaltzen dituzte gehienetan.

Horrenbestez, azaldutako gogoetak eta datuak ikusita, komenigarria zen Ospitale horretako Pediatria Zerbitzurako behar den plantillaren tamaina aztertzea, gardien araubidea zehaztasun handiagoz definitzeko, sisteman egonkortasun handiagoa lortzearen eta zerbitzua zuzen emanen dela bermatzearen (ukituriko funtzionarioen eskubideak errespetatuta). Hori guztia pediatrian eta obstetren parte-hartzearekin, horretan zeresana duten langileak direlako.

Azaldutakoa dela eta, GOMENDIO bat egin genion Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari, ahal den bezain laster Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Pediatria Zerbitzuko plantilla eta gardien araubidea azter ditzan; horretarako, ospitale-tik bertatik ateratako datu errealak eskuratu behar dituzte, eta zentro bereko pediatriako eta obstetrikako profesionalen partehartzea bermatuko duen prozeduraren bat abiarazi behar du, besteak beste zerbitzua hobeki ematen dela bermatzeko konponbiderik egokiena hartzeko.

Departamentuko kontseilariak igorri zizun erantzunean, berriz azaldu zizun zein giza baliabide dituen Tuterako Osasun Barrutiak ospitaleko eta ospitale kanpoko pediatria-laguntzarako, bai eta bertan egoteko gardien eta guardia lokalizatuen sistema ere, haien ordu-banaketa eta Tuterako Ospitaleko larrialdietako zerbitzuan hartutako kontsulten kopurua ere –horiek gure ebazpenean ere aztertuak daude–.

Emandako datuak ikusita, departamentuak ondorioztatu zuen ez zela bidezkoa pediatriako guardien sistema aldatzea, zeren eta jotzen baitzuen kontsulta gehienak ospitaleko guardiako sendagileek ongi betetzen dituztela, nahiz eta pediatriako espezialitateko kontsultak izan.

Horrenbestez, gure ustez gure gomendioari ez zitzaion behar zen erantzuna eman, eta, gure erakundea arautzen duen legeak ezarritakoa betez, Osasun Departamentuari jakinarazi genion horixe jasoko genuela gure urteko txostenean.

LIZARRALDEKO OINARRIZKO OSASUN BARRUTIETAKO PEDIATRIA LAGUNTZA ETA LIZARRAKO GARCÍA ORCOYEN OSPITALEKO PEDIATRIA ZERBITZUKO GUARDIEN ARAUBIDEA.

AURREKARIAK

Oraingoan, kexa (03/34/S espedientea) Abar-tzuza, Lezaun, Oteitza, Amekoabarren, Dei-erri eta Gesalazko udaletan, besteak beste, bizi diren gurasoen talde batek aurkeztu zuen, hain zuzen Villatuertako, Alloko eta Los Arcosko osasun esku-alde oinarritzkoetako biztanleak direnak. Haien salaketaren arabera, eremu horietan laguntza pediatrikoan eginiko berrantolaketak nabarmen kaltetu ditu, zeren eta lehenago Lizarrako García Orcoyen Ospitalaren zerbitzuaz baliatzen baitziren goizez eta arratsalde, astelehenetik ostiralera; ospitale hori, zerbitzu handiagoa emateaz gainera, beren etxeetatik hurbilago dago pediatria berriak kontsulta daukan herrietatik baino.

Halaber, salatu zuten ospitaleko larrialdietako zerbitzua birmoldatu egin dutela laguntza pediatrikoaren erreforma egin ondoren, halako moduan, non lehenago zentro horretan arratsaldeko zerbitzua emateko zegoen pediatria kendu baitute. Halaber, esaten dute ospitaleko larrialdietako zerbitzuan ez dagoela pediatriarik, beharko litzatekeen bezala.

Diotenez, ahaleginak egin zituzten hiru barruti-etan laguntza pediatrikoaren eta Lizarrako Ospitaleko larrialdietako zerbitzuaren baldintzak zein ziren jakitearren beharrezko datuak eskuratzeko, baina ez zieten horri buruzko inolako informaziorik eman.

Eskatzen zuten, azken batean, ukitutako aldeetan zerbitzu pediatrikoaren berrantolaketa berraztertzeke eta Lizarrako Ospitaleko laguntzari eusteko, horren barne dela sendagile pediatriaren larrialdietako laguntza.

Hori guztia ikusita, behar den idazkia zuzendu genuen Osasun Departamentura, eta bertan ondoko datuei buruzko informazioa eskatzen genuen:

- Villatuerta, Allo eta Los Arcosko osasun barruti oinarritzko ei esleitutako 14 urte baino gutxiagoko haurren kopurua, jatorrizko udala adieraziz.

- Pediatria zerbitzuaren antolamendu berriaren funtzionamenduari buruzko eskema, alde horiei buruzkoa.

- Lizarrako Ospitalari esleitutako populazioa, hura bigarren mailako laguntza espezializatuko zentro gisa duena.

- Lizarrako Ospitaleak 2002an hartutako larrialdi pediatrikoen kopurua, ordu tarte ezberdinetan eta asteburuetan, hileka; adierazi, baita ere, laguntza eman duten fakultatiboan lanbide profila eta guardien sistema.

- Ospitalean arratsaldeko pediatria kentzeak 2003ko otsailera arte larrialdi zerbitzuan izan duen eragina.

Ospitalean guztira hartutako erditzeak, eutozi-koak eta distozikoak bereiziz; haien egunak eta ordu tarteak.

Aipatu departamentuak, kontseilariaren bitartez, behar zen txostena igorri zuen; bertan, laguntza pediatrikoa aldatzeko arrazoiak azaltzen zituen: a) Hiru osasun barruti oinarritzkoetarako pediatria finkatzea lortzea eta plaza behin betiko betetzea, azken enplegu eskaintzaren ondoren. b) Laguntza pediatrikoa hurbiltzea biztanle gehienei, leku-aldatzeak eta beharrik gabeko deserosotasunak saihesteko. c) Laguntza pediatrikoa pertsonalizatzea eta haurren historia klinikoei eustea, laguntzaren kalitatea hobetuz. d) Eta, azkenik, populazioari beste zerbitzu batzuk eskaintzea; esate baterako, pediatriako erizainak haurrei txertoak bisita berean jartzea eta eskolako txertoak ere jartzea, modu sistematikoan eta antolatuan; halaber, erizainaren eta barrutiko gizarte laguntzailearen etxez etxeko bisitak bideratzea tramiteei buruzko informazioa emateko eta gizarte laguntzei buruzko informazioa emateko, kasua bada.

Halaber, erreklamazio-egileek bilera bat eskatu zioten barrutiko zuzendaritzari; bilera 2002ko abenduaren 19an egin zen, eta hartan sistema berriari buruzko galdera guztiei erantzun zitzairen, eta aldaketaren arrazoiak eta erabiltzaileentzako onuren berri eman zitzairen. Hala eta guztiz ere, erreklamazioa aurkeztu zuten gurasoei jakinarazi zitzairen barruti horietako arduradun sozialen adostasuna beharko zela hiru osasun barruti oinarritzkoen pediatria Lizarran zentralizatzeko –horrenbestez, aurreko sistemara itzultzeko–, zeren eta hori zenbait herritako bizilagunen talde batek eskatu baitzuen, baina bizilagun horiek ez baitzi-

tuzten ordezkatzeko osasun barrutiak osatzen dituzten udal guztiak.

Halaber, osasun laguntzari buruz eskatzen genituen datu batzuk ematen dizkigu txostenak, beharrezkoak zaizkigunak kexa ebatzi ahal izateko. Ondoren, datu horiek aipatuko ditugu.

ANALISIA

Lehenbizi, osasunerako eskubideari eta osasun prestazioak modu eraginkorren –eraginkortasun eta efizientzia printzipioen arabera– bermatuko dituen osasun sistemari buruzko antzeko gogoeta batzuk egin genituen, azaldutako espedienteen jasotako antzekoak; aipatu genuen honelako kasuetan beharrezkoa dela datu objektibo hutsez aparte zerbitzua hartu behar duten populazioen ezaugarriak ere kontuan hartzea, eta kontuan hartzea, halaber, laguntza zentroetatik zenbateko distantzian dauden, balizko erabiltzaileen kopuru erreala, aurreko aldiak larrialdi pediatrikoen kopurua, tipologia klinikoak eta abar... Izan ere, datu horiek guztiak ezagutzea oinarri egokia izanen da konponbide egokiena hautatzeko. Halaber, beste irizpide tekniko mediko batzuk, egungo garapen zientifikoaren eredu baliokideak, hartu behar ziren aintzat zerbitzuaren laguntza-kalitatea ebaluatzeko erreferente gisa.

Parametro objektibo horiek guztiak eta alderdi hertsiki klinikoak dira, gure ustez, planteaturiko kasua baloratzeko eta hari buruzko ebazpen bat emateko behar den abiapuntua.

Azaldutako kexari buruz, ebazteko ondoko bi alderdi aurkeztu ziren: a) ea komenigarria den hiru osasun eskualde oinarriko pediatriko kontsultak berriz Lizarrako García Orcoyen Ospitalean zentralizatzea, hain zuzen ere zerbitzua hobetzeko neurri gisa; eta b) ea ospitale horretako larrialdietako zerbitzuan pediatrik egon behar ote duten egunean 24 orduz.

Lehenbiziko gaiari buruz esan behar dugu Lizarra, izatez, ukituriko hiru barrutietako zentro neuralgikoa izanda ere, egia dela zerbitzua emateko modu berri horrekin lortzen dela, administrazioaren txostenean esaten den bezala, laguntza pediatrikoa hobetzea Los Arcos eta Alloko osasun barruti oinarrikoetan bizi diren gehienentzat, zeren eta leku horietako erabiltzaileek errazago jo ahalko baitute pediatriarengana, hark kontsulta daukalako bi herri horietan –lehenago, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleraino joan behar izaten zuten–.

Villatuertako oinarriko osasun eskualdeko bizilagun gehienek ere hobera egin dute arazo berarengatik, Villatuertan bizi direnek eta Oteitzan

bizi direnek ere. Hala eta guztiz ere, gainerako udaletako bizilagunek okerrera egin dute pediatriarengana joan nahi dutenean; halere, ezin da ahaztu Osasun Departamentuak emandako datuen arabera, barruti horretako haurren erdiak baino gehiago hain zuzen ere Villatuertan eta Oteitzan bizi direla; horrek, hain zuzen ere, bidea ematen du esateko laguntza-ereduaren erreformak eragina dueneko populazioaren gehienak abantaila argiak izanen dituela pediatriarengana joateko, nahiz eta, diogun bezala, zalantzarik gabe beste herri batzuetako biztanleek, Abartzuza, Lezaun, Jaitz, Ameskoak, Deierri eta Gesalatzekoek, besteak beste, pediatria zerbitzua urrunago izanen duten.

Halere, oro har badirudi Osasun Departamentuak hartutako neurria hobekuntza bat dela ukituriko osasun eskualde oinarrikoetako biztanle gehienentzat, eta ez duela eragiten osasun laguntza eskasa ematea –bai, ordea, enbarazu egitea– aipaturiko herrietako biztanleei. Hala eta guztiz ere, egia da hurbilen dagoen osasun etxea Villatuertan dagoela, eta herri hori Lizarratik oso hurbil dagoela; bertan, pediatria zerbitzua ematen da astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan, hau da, nahikoa laguntza, eta gainera, hori ez da eragozpen Lizarrako Ospitaleko larrialdietako zerbitzuetara joan ahal izateko, beharrezkoa denean.

Azken batean, berrantolaketa berriaren hobekuntzak eta trabak oro har hartu behar dira, eta ezin da alde batera utzi biztanle gehien onerako dela, zeren eta pediatriarengana joatea errazago izanen baitute; beste alde batetik, erabiltzaile batzuei eragiten zaizkien trabak ez dira aurreko sistemara itzultzea justifikatzeko bezain larriak.

Hala eta guztiz ere, aztertu behar dugun beste alderdiak erreklamazio-egileek espediente honetan planteatzen duten beste gai batekin du lotura. Esaten dute García Orcoyen Ospitaleko pediatriko larrialdiak sendagile orokorrek hartzen dituztela, eta ez pediatrik; hori, gure ustez, bai da zerbitzua okertzea kalitateari dagokionez.

Horri buruz, administrazioaren txostenak dio Lizarrako Ospitalean 2002an pediatriko 4.339 larrialdi izan zirela, eta horietatik 2.836 arratsalde eta gauz izan zirela, hain zuzen ere ospitalearen funtzionamenduko ordutegi arruntetik kanpo. Esaten du, baita ere, pediatriko larrialdi horietan larrialdietako sendagileak egonen direla jardunean, eta ez pediatrik, horiek guardia lokalizatuko araubidean egonen dira. Bestalde, 2002an, guztira, 430 erditze izan ziren ospitalean; horietatik 133 distozikoak izan ziren.

Osasun Departamentuak emaniko datuak irakurrita atera genuen lehen ondorioa da pediatria

zerbitzuaren egoerak, larrialdiei eta erditzeei dago-kienez, nolabaiteko antzekotasuna daukala 27.02.5 kexa-espeditentean, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko pediatriako larrialdien zerbitzuari buruzkoan, planteatutakoarekin.

Espediente hartan egin genuen gomendioan adierazten genuen pediatrek ospitalean bertan egon behar zutela 15 urtez beheitiko erabiltzaileen larrialdietan eta erditze distozikoetan laguntza egokia emateko, zeren eta hartara Tuterako Reina Sofía bezalako eskualdeko ospitale batean eska daitekeen kalitate-maila bermaturik egonen baitzen, Espainiako beste leku batzuetan gertatzen den bezala; izan ere, ospitale horretan laguntza eman beharreko populazioa 80.000 pertsona baino gehiagokoa izan daiteke.

Lizarrako García Orcoyen Ospitalean 56.521 osasun txartel biltzen dituen populazio bati eman beharko litzaioke laguntza, Tuterako Ospitalean baino biztanle gutxiago; halere, kopuru hori nahikoa da hura bigarren mailako ospitaletzat hartzeko, antzeko ezaugarriekin. Hori dela eta, bertan pediatriak modu jarraituan egotea defendatu behar dugu, larrialdietan laguntza eman ahal izan dezaten. Horri buruz, gure gomendioan gogorarazten genuen ospitaleak kudeatzeko erabiltzen diren eskuliburuaren arabera, osasunaren arloko profesio-

nalen artean erabateko adostasuna dagoela bigarren mailako ospitaleetako –Lizarrako García Orcoyen Ospitalea halakoa da– larrialdi zerbitzuak antolatzeko moduari buruz; horien ustez, zerbitzu horietan larrialdietako sendagileek egon behar dute, baina, horiez gain, barne-medikuntzako sendagileak, kirurgia-orokorrekoak, traumatologiakoak, tokoginekologiakoak, anestesia zerbitzukoak eta pediatriakoak ere izan behar dira. Horretaz gain, sendagile horiek ospitalean bertan eta laguntza emateko moduan egon beharko lukete. Eskuliburu horietan fakultatibo horien guardia lokalizatuak egonen lirateke soilik zerbitzu batean laguntza emateko edo lehen mailako ospitaleetan; izan ere, ospitale horietan oinarrizko larrialdiak bakarrik hartzen dituzte, eta gaixok beste ospitale espezializatuagoetara bidaltzen dituzte gehienetan.

Azaldutakoa dela eta, Nafarroako Gobernuari GOMENDIOA egin genion, ahal den bezain laster, pediatriak bertan egoteko gardien araubide bat ezar dezan Lizarrako García Orcoyen Ospitalean, beren espezialitateko larrialdiak hartu ahal izateko.

Aipatu departamentuko kontseilariak behar den erantzuna igorri zigun; hartan esaten zigun bat zetorrela egindako gomendioarekin eta behar den azterketa egiten ari zirela aipatu araubidea ezartzeko.

CORELLA-CASTEJÓN OINARRIZKO OSASUN ESKUALDEKO PEDIATRIA LAGUNTZA.**AURREKARIAK**

Corellako gurasoen talde handi batek kexa bat aurkeztu zuen (02/197/S espedientea) Corellako osasun etxeko pediatria zerbitzuan antzematen zuten saturazioa zela eta.

Horri buruz, azaldu ziguten kudeaketak eginak zituztela Corellako Udalaren bitartez eta Osasun Departamentuaren aurrean, eta Corellako osasun etxeko pediatria zerbitzuaren berri eman zietela, baina ez dutela oraindik ere inongo erantzunik jaso.

Interesdunek esaten dute osasun eskualdeari atxikitako bi pediatriak hartzen dituztenak baino kontsulta eskari gehiago izaten dituztela, nahiz eta badakiten ahal duten guztia egiten dutela zerbitzua behar bezala emateko. Egia esan, batzuetan erabil daitezkeen kontsulten kopurua ez da aski izaten, zeren eta minutu gutxi batzuetan eguneko zerrenda betetzen baita. Egoera horrek, duela hamar urteko 900 haurren kopurutik 1.400 haurrera iristeak eragindakoak, haserreak eta kexak sortzen ditu erabiltzaileengan, kontsultara joan ezinik geratzen direlako bi edo hiru egunez.

Hori guztia dela eta, eskatzen dute erakunde horrek bitartekotza lana egin dezan osasun etxe horretako arazoa, pediatriako kontsultei buruzkoa, laster konpontzeko.

Osasun Departamentuari behar den informazioa eskatu ondoren, kontseilariak hauxe adierazi zigun:

“Corellako oinarrizko osasun eskualdea Corellak eta Castejónen osatzen dute –batetik bestera 12 km daude–. Bien artean, osasun laguntza hartzeko eskubidea duten 1.398 haurren populazio pediatrikoa dute; horietatik, 1.052 haur Corellan eta 346 Castejónen.

1. taula.- Corellako oinarrizko osasun eskualdea. Banaketa pediatrikoa. BOTaren datuak. 2002ko iraila.

CIAS	FAKULTA-TIBOA	HERRIA	ADINA			
			0-2	3-6	7-14	GUZTIRA
1502480201A	Dk. [...]	Castejón	70	85	191	346
		Corella	226	273	553	1052
OINARRIZKO ESKUALDEA, GUZTIRA			296	358	744	1398

1. taulan ikus daitekeen bezala, eta dirudienez azken urteetan jaiotzek behera egitearen ondorioz, 2 urte baino gutxiagoko populazioak, zeina baita laguntza gehien behar duena, ehuneko 21 inguru egiten du.

Gaur egun, eta 2000ko maiatzetik, laguntza pediatrikoa eskualdeko pediatria titularrak eta hari laguntzeko beste pediatria batek ematen dute; azken horrek beste bi egunez ematen du zerbitzua (astelehenean eta ostegunean), lanaldi osoan. Horrenbestez, oinarrizko osasun eskualde horretan 1,4 pediatriak egiten du lan. Horrenbestez, sendagile bakoitzeko batez bestekoa 1000 haur ingurukoa da, Corellakoaren antzeko Nafarroako beste oinarrizko osasun eskualdeetan bezala.

Haren lan agendaren banaketa, 2. taulan ikus daitekeen bezala, bi herri horietan banatzen da, bata bestetik urrun daudelako, betiere zerbitzuaren kalitateari eustea bermatzen duten irizpideak erabiliz. Hartara, eutsi egin zaio pediatria titularrak bi herrietan kontsulta izateari, “haur osasuntsua” programan sartzan diren 2 urteko haurren jarraipena beti profesional berak egin zezan.

2. taula. Oinarrizko osasun barrutietako pediatrien zitazioen agenda.

		Corella		Castejón	
Astelehena	Heras doktorea	9:00-12:00	Eskatutako kontsulta	13:00-14:30	Eskatutako kontsulta
	Rubio doktorea	8:40-14:30	Itundutako kontsulta		
Asteartea	Heras doktorea	9:00-14:30	12:00tik 14:00ra itundutako kontsulta		
Asteazkena	Heras doktorea	9:00-11:00	Eskatutako kontsulta	12:00-14:30	12:00tik 13:00ra itundutako kontsulta
Osteguna	Heras doktorea	9:30-14:30	12:00tik 14:00ra itundutako kontsulta		
	Rubio doktorea			8:40-14:30	Eskatutako kontsulta
Ostirala	Heras doktorea	12:00-14:30	Eskatutako kontsulta	9:00-11:00	9:00tik 9:30ra itundutako kontsulta

3. taulan jarduera pediatrikoaren datu konparatuak ikus daitezke, batetik 2001eko lehen sei hilekoan eta bestetik 2002ko aldi berean.

3. taula.- Corellako oinarrizko osasun eskualdeko jarduera pediatrikoaren konparazioa 2001-2002 urtea

	ESKATUTAKO KONTSULTA			ITUNDUTAKO KONTSULTA		
	2001	2002	% 02/01	2001	2002	%
Urtarrila	752	962	27,93	106	128	20,75
Otsaila	726	826	13,77	83	83	0,00
Martxoa	755	651	-13,77	134	149	11,19
Apirila	613	728	18,76	46	175	280,43
Maiatza	739	729	-1,35	126	87	-30,95
Ekaina	586	549	-6,31	148	91	-38,51
GUZTIRA	4171	4445	6,57	643	713	10,89

Aipatu informaziotik ondoriozta daiteke adin pediatrikoko eta Corellako oinarrizko osasun eskualdeko biztanle bakoitza 3,69 aldiz joan dela kontsultara 2002ko lehen hiruhilekoan; antzeko ezauzgarriak dauzkaten oinarrizko osasun eskualdeetan, bai Tuterako barrutian, bai Nafarroa osoan, antzeko zifrak ikus daitezke, hain zuzen ere, 3,71 bisita epe berean. Hori dela eta, esan dezakegu maiztasun handia izanda ere, ez dagoela aipatzeko moduko ezberdintasunik Corellako haurren pediatriako kontsulta kopuruaren eta Nafarroako gainerako haurren kontsulta kopuruaren artean.

ANALISIA

Lehenbizi, egiaztatu dugu erreklamazio-egileek aurkeztutako datuak bat datozela, funtsean, Osasun Departamentuaren txostenean islatzen direnekin; halere, azken horiek osatuagoak eta zehatzagoak dira. Eskainitako datuak funtsezkoak dira finkatzeko zerbitzua zuzen ote dabilen edo hobetu ote daitekeen; hori dela eta, beharrezkoa da hura aztertzea kexa honetan planteatutako auzia ebatzi ahal izateko.

Analisi-ahalegin handiegirik gabe atera daitekeen lehen ondorioa da Corellako eta Castejónko bizilagunei –bi udal horiek baitira ukitutakoak– laguntza pediatrikoko zerbitzua ematen dieten fakultatiboan kopurua aski dela laguntza pediatrikoa emateko baldintza arruntetan, zeren eta itxaron zerrenda metaturik ez baita sortzen: kontsulta guztiak emateak egun batean, bitan, hirutan, gehienez, aparteko kasuetan, erreklamazio-egileek berek esaten dutenez, argi erakusten du egun batzuetan izaten den eskari kopuru gehiegizkoari hurrengo egunetan ematen zaiola irtenbidea. Hala

ez balitz, itxaron zerrendak sortuko lirateke, eta zerrenda horiek, epe ertainean, sendagileak aski ez direla erakutsiko lukete. Txostenak dioten bezala, zerbitzua gainerako oinarrizko osasun eskualdeetako baldintza beretan eskaintzen da; halere, egia da batzuetan lan puntak gertatzen direla, eta halakoetan ezin dela berehalako laguntzarik eman, desio izatekoa izanen litzatekeen bezala. Hori dela eta, aztertu beharko litzateke ea bidezkoa izanen litzatekeen zuzenketa batzuk egitea zerbitzuaren antolaketan, fakultatiboan efizientzia hobetzeko.

Jarduera pediatrikoari buruz Osasun Departamentuak eskaini dizkigun taulak aztertuta, ikusten dugu ez dagoela proportzionaltasun zuzeneko bat ukituriko bi udaletan ematen den laguntzaren artean, zehazki hitzartutako bisitei dagokienez.

Ondoko datuetatik abiatuko gara:

a) Eskualde honi atxikitako haurren kopurua: Corellako 1.052 haur eta Castejónko 346 haur.

b) Asteko laguntzaren ordutegiak:

- Corella: 1.430 minutu (590 programatuak)
- Castejón: 710 minutu (440 programatuak)

Lehen begiratuan ikusten da Castejónerako programaturiko laguntza-denbora nahikoa handiagoa dela Corellarako dagoena baino. Lehen kasuan, laguntzak guztizko denboraren ia % 62 egiten du, eta Corellan % 41,25; ez dirudi kontsultan hartutako gaixoen artean ezberdintasun kliniko berezirik dagoenik.

Castejónerako aplikatu balitz Corellarako hitzartutako kontsultetarako hartzen den guztizko denboraren ehunekoa, % 41,25 alegia, herri horretan kontsulta horietarako asteko 292,8 minutu beharko lirateke, eta ez egungo 440 minutuak; horrenbestez, asteko 2 ordu eta erdi sobratuko lirateke, eta programatu gabeko laguntza hobetzeko baliatu ahalko lirateke.

Halaber, txosteneko 3. taulan esaten da 2002ko ekitaldiko guztizko kontsultak, bi herrietan, 5.158 izan zirela, eta horietatik 4.445 eskatuta egin zirela eta 713 programatutakoak izan zirela. Azken kopuru horrek bi kontsulta moten guztizko baturaren % 13,82 egiten dute. Ikusten da ehuneko hori Corellako oinarrizko osasun eskualdeko kontsulta hitzartutarako erabiltzen den guztizko denbora baino askoz ere txikiagoa dela, zeren eta onenean ere, Corellan denbora horrek guztizko denboraren % 41,25 egiten baitu; aldea azal daiteke, neurri batean, esanez kontsulta hitzartuek, batez beste, eskatutako kontsulten denbora halako bi behar izaten dutela. Horretarako, baliozkotzat jo

dezakegu fakultatibo batek eskatutako kontsultetan 7 edo 8 minutu ematen duela, inguruabar normalean –horiexetan baizik ezin da efizientziari buruzko ratorik eman– eta 15 minutu inguru kontsulta itundueterako, hau da, aurrekoetan halako bi, diogun bezala.

Hala eta guztiz ere, ez dirudi azalpen horrek behar bezala oinarrizten duenik eskatutako eta programatutako kontsulten artean egiten den denbora-banaketa. Abiapuntu gisa hartuta kontsulta programatu batek behar duen denbora eskatutako batek behar duena halako bi dela, bi kontsulta mota horiek aldera ditzakegu, bisita programatuak eskatutakoen bi halako direla hartuta.

Alderaketa 2002ko kontsultei buruzko datuekin egiteko, kontuan hartu behar dugu eskatutako 4.445 kontsulta izan zirela eta 713 programatutakoak; azken horiek, konparazio ondorioetarako, 1.426 dira. Kontsulten zifra teoriko guztizkoa 5.871 da (4.445 + 1.426). Hartara, eskatutako kontsultak guztizkoen ia % 75 dira, eta programatuak, bihurtuta egin ondoren, gainerako % 25. Proportzio hori errespetatu beharreko ideala izanen litzateke, baita pediatriako fakultatiboan dedikazio denborei dagokien ere. Hala eta guztiz ere, Corellan guztizko denboraren % 41,25 kontsulta programatuetarako hartzen da, eta Castejónen, denboraren % 62, horrelako kontsultetan gure ustez beharrezkoa den % 25aren orde. Corellako oinarrizko osasun eskualdean denborak banatzeko modu horren ondorioa da denbora gutxiago ematen dela eskatutako kontsultetan, eta, horrenbestez, berehalako laguntza pediatrikoa eskatzen duten gurasoei zerbitzu okerragoa ematen zaiela. Hori guztia dela eta, sobera justifikatuta dago erakunde honetara jo duten gurasoen ezinegona eta kexa honen oinarria.

Hala eta guztiz ere, aukera honetaz baliatu nahi dugu gogorarazteko Osasunari buruzko Foru Legearen arabera, arlo honetako printzipioetako bat biztanleen osasun hezkuntza dela, hain zuzen ere bereziki 12.3.d) eta 15.1 artikuluetan aipatzen dena. Hezkuntza ezinbesteko elementua da osasunaren arloko profesionalen efizientzia hobetzeko, zerbitzuaren erabiltzaileentzako hezkuntza programak abiarazteak eta garatzeak herritarrek eskatzen duten osasun laguntza arrazionalizatzea ahalbidetzen baitu. Bereziki, gurasoei arlo honi buruzko oinarrizko ezagutzak eman behar zaizkie, zerbitzuetara jo dezaten soilik benetan beharrezkoa den kasuetan, eta seme-alaben egoera klini-

koaren arabera erantzun azkarra lor dezaten. Horrelako hezkuntza programak ezartzeak osasun zerbitzuaren efizientzia hobetzea ekarriko du, eta hori onuragarria izanen da guztiontzat, bai erabiltzaileentzat –haien haurrak gaixotzen direnean lehenbailehen artatu behar baitira–, bai osasun arloko langileentzat, askotan eguneroko lanak gainditzen baititu.

Osasun Departamentuari GOMENDIO bat egin genion, noski, Corellako oinarrizko osasun eskualdeko pediatriako kontsulta programatuen eta kontsulta eskatuen arteko denborak berrantola zitzan, eta laguntza medikoak behar bezalako proportzionaltasuna gorde dezan eskualdea osatzen duten udalen artean, herritarrek eskatzen duten laguntza hobetze aldera. Halaber, IRADOKIZUN gisa planteatu genuen zerbitzua erabiltzen dutenentzako osasun hezkuntzako programak sistematikoki ezar daitezten.

Departamentuko kontseilariak, bere erantzunean, gaiari buruz hartzen joan diren neurriak aipatzeaz gainera, esan zigun beste neurri batzuk ere hartu direla gure gomendioan adierazitakoaren bidetik, hain zuzen ere pediatria zerbitzuak berrantolatzeke, erabiltzaileei laguntza hobea emateari begira, eta Corellako laguntzako medikoaren dedikazioa, beharrezkoa denean, handitzeari begira. Halaber, esan zigun zerbitzuak erabiltzen dituztenentzat erabilera arduratsuari buruzko mezua azpimarratu behar zela; izan ere, herritar batzuk urtean 30, 40 eta 50 aldiz ere joaten direla kontsultara. Horren arabera, herritarren % 20k pediatriako kontsulten laguntza emateko denboraren erdia baino gehiago hartzen dute, eta horrek adierazten du osasun zerbitzuak ez direla modu egokian erabiltzen.

Horri buruz, eta ulertuta departamentua gure gomendioan adierazitakoaren bidetik ari zela, berriz azpimarratu genuen zeinen garrantzitsua den nabarmen zera zerbitzu medikoen erabilera arduratsua egin behar dela, hartara laguntzaren atzerapenak saihesteko. Izan ere, atzerapenek kalte egiten diete zerbitzua egiazki behar dutenean behar bezala erabiltzen dutenei, zeren eta departamentuak kasu honetan ematen zituen datuekin frogaturik geratzen baitzen oinarrizko osasun eskualdeko guraso batzuek ez dituztela pediatriako zerbitzuak ongi erabiltzen; horrek berekin dakar, noski, gainerako erabiltzaileei kalte egitea eta zerbitzu publikoak behar gabe garestitzea.

ABEREEN ETA ELIKAGAIEN OSASUNA**ETXEBIZITZA BATEN OSASUN ETA HIGIENE EGOERA, ANIMALIAK IZATEAGATIK.****AURREKARIAK**

Kexa (02/391/S) aurkeztu zuen pertsonak salatu zituen Zizur Nagusiko bere etxean duela hilabete batzuetatik pairatzen ari den filtrazio eta usain txarren arazoak.

Interesdunaren arabera, usain txarren eta zaraten filtrazioak bere etxebizitzaren gainekoan jabearekin bizi diren zakurrenak dira. Usain eta zaraten filtrazio horien ondorioz, buruko eta eztarriko minak eta bestelako osasun arazoak dauzka; horiek direla eta, laguntza medikoa hartzen ari dira bai bera bai bere emaztea.

Kexa-egileak erakunde horietan eginiko jarduketara batzuen aurrean, Zizur Nagusiko Udalera eta Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentura jo genuen, zer urrats eman dituzten esan ziezaguten.

Bere aldetik, Hezkuntza Departamentuak ondokoen berri eman zigun:

“Gure ustez, kexak bultzatu dituzten arrazoiak Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 34. artikuluari dagozkio; izan ere, artikulua horren 1.c) puntuan ezartzen da udalaren eskumena dela eraikinen eta etxebizitzaren osasun kontrola...

36.2 artikuluan ezarrita dago eginkizun horietarako langile eta zerbitzu propioak izateko modua ez dagoen udaletan, eginkizun horiek kasuan kasuko osasun arloko profesionalen esku utziko direla, eta osasun etxeen laguntza teknikoa izan behar dutela... (eta) soilik ondorio horietarako udal horien zerbitzuko langilek hartuko direla. ...

Aztergai dugun auzian aplikatzekoa izan daiteke, bigarren maila batean, Animaliak babesteari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legea.

Gaur egun arte, osasun publikoko ikuskatzaileek ondoko urratsak egin dituzte:

2002ko martxoaren 11n Zizur Nagusiko Udaleran [...] jaunak aurkeztutako salaketa jaso zen. Haren arabera, goiko etxebizitzako bizilagunaren txakurrek arazoak sortzen dituzte, haien gernua kexa-egilearen etxebizitzako leihoraino iristen delako; albitari baten ikuskatzailetza eskatzen du.

Kexa helarazi zitzaion eskualde horretako albitari arduradunari, zeinak honakoa antzeman baitzuen:

– 2002ko martxoaren 12an: Salaketa-egilearen etxeko balkoian gernu usaina dago. Etxeko fatxadetan orbain bat antzematen da kaletik.

– 2002ko martxoaren 15ean (10:00etan): Ez da txakurrik ikusten salatuaren galerian.

– 2002ko martxoaren 18an (11:00etan): Bi txakur daude.

– 2002ko martxoaren 22an (10:00etan): Txakurrik ez dago.

– 2002ko martxoaren 25ean (14:00etan): Txakurrik ez dago.

– 2002ko apirilaren 4an: Txakurrik ez dago.

Apirilaren 8an txosten bat egin zuen, eta Zizur Nagusiko Udalari helarazi zion, horixe baita administrazio eskuduna; bertan jasota dago gernuaren usain pixka bat badagoela, fatxadako paretan orbain bat dagoela eta bi txakur daudela balkoian; gainera, aurreko egunetan antzemandakoa ere jasotzen da, eta informazioaren osagarri Animaliak babesteari buruzko 7/1994 Foru Legeko iruzkin batzuk jasotzen dira.

Maiatzaren 20an, salaketa-egile berak beste salaketa bat aurkeztu zuen Zizur Nagusiko Udaleran; salaketa eskualdeko albitariari helarazi zitzaion, eta horrek, beste lankide batekin batera, beste bisita bat egin zuen salaketa-egilearen etxebizitzara, maiatzaren 22an; berriz ere gernu usaina antzeman zuten etxeko balkoi itxian; jasota gelditzen da, salaketa-egileak esanda, goiko pisuan jada ez dagoela txakurrik (maiatzaren 23an egin eta udalari egun berean helarazitako txostenaren arabera).

Osasun Departamentura eta Osasun Publikoa Ikuskatzeko eta Elikagaien Higienarako Atalera behin eta berriz eginiko deien ondorioz, atal horrek berriz ere txostenen kopiak igorri zituen Zizur Nagusiko Udalera.

Abuztuaren 13an, erreklamazio-egileak salaketa berretsi zuen, eskabide orokor baten bitartez eta Osasun Departamentura dei eginez. Osasun Publikoa Ikuskatzeko eta Elikagaien Higienarako Ataletik erantzun zitzaion bi txosten bidali direla Zizur Nagusiko Udalera.

Aurrerago, Zizur Nagusiko Udalak eskualdeko albitariari salaketa-egilearen idazki bat igorri zion, non esaten baitu lehengo arazo berak dituela, eta udalak esku hartu ezean bestelako neurri batzuk hartzeko asmoa duela legerari batekin.

2002ko azaroan, Osasun Publikoa Ikuskatzeko eta Elikagaien Higienarako Atalean salaketa-egileak Foruzangoan aurkeztutako beste salaketa bat

jaso zen, egitate berdinegatik; salaketa hori Zizur Nagusiko Udalari helarazi zitzaion, haren eskumeneko gaia zelako. Planteaturiko kexa aztertzeo garaian, garrantzitsua iruditu zitzaigun lehenbizi gogoratzea erakunde honen gainbegiratze ahalmenak Nafarroako administrazio publikoen jardueretara mugaturik daudela, eta ez duela inongo eskumenik partikularren artean gerta daitezkeen auzi edo gatasketan esku hartzeko.

Hori dela eta, gure azterketaren xedea zen ea Zizur Nagusiko Udalak eta Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak zuzen jokatu ote zuten, aplikatzeoak diren arauak bakoitzari esleituriko eskumenez baliatuz.

Horretarako, Osasun Publikoaren Institutuko ikuskatzaileak, Foruzaingoak eta Zizur Nagusiko Udaltzaingoak eginiko jarduketak aztertu genituen.

Zizur Nagusiko Udalari dagokionez, gai hau zela-eta 2003ko urtarrilaren 8tik eginiko jarduketa guztien kopia igorri zigun; haien aipamena eginen dugu haiek hitzez hitz eman gabe, luzeak baitira:

1.- Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuko Osasun Publikoaren Institutuko ikuskapen akta, 2002ko apirilaren 8koa.

2.- Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuko Osasun Publikoaren Institutuko ikuskapen akta, 2002ko maiatzaren 23koa.

3.- ADA0681611 zenbakiko salaketa administrazioaren akta, Foruzaingoan 2002ko azaroaren 16an aurkeztua.

4.- Zizur Nagusiko Udaltzaingoaren txostena, 2002ko abenduaren 19koa.

5.- Zizur Nagusiko Udaltzaingoaren akta, 2003ko urtarrilaren 2koa.

6.- Zizur Nagusiko Udaltzaingoaren akta berria, 2003ko urtarrilaren 2koa.

7.- Zizur Nagusiko Udaltzaingoaren 006/03 zenbakiko txostena, 2003ko urtarrilaren 8koa.

ANALISIA

Aztertutako aurrekari hauek bidea eman zuten kexa-egileak planteatutako arazoa eta hura ebazteko emandako urratsak –inolaz ere gutxi ez zirenak– nahiko ongi ezagutzeko.

Horri dagokionez, Konstituzioak berak, 45. artikuluan, botere publikoak gonbidatzen ditu herritarren bizi kalitatea babestu eta hobetzera.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak bere txostenean dioen bezala, azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 34. artikulua

aren arabera, udalen eskumena da “eraikinen eta etxebizitzaren eta hartu-emaneko tokien osasun kontrola” (...)

Aurrekoa kendu gabe, Animaliak babesteari buruzko maiatzaren 31ko Foru Legeak, bere artikuluetan, animaliak –bereziki, konpainiako animaliak– dituztenei dagozkien betebeharrak batzuk jasotzen ditu –2.1, 7 eta 10.1 artikulua–, aztergai dugun kasuari dagokionez; betebeharrak horiek betetzen direla zaintzea udalei dagokie, baina Nafarroako Gobernuak jarduketa subsidiarioak egiteko eskumenak dauzka ikuskapen eta zaintza lanetan –23.3 artikulua–.

Deskribatutako jarduketaren arabera, ikus daiteke [...] jaunak aurkeztutako salaketak Nafarroako Osasun Publikoaren Institutura igorri zituela Zizur Nagusiko Udalak, eskualdeko ardura duen albaitariak gaiari buruz informa dezan.

Lehenengo txostenean, 2002ko apirilaren 8koan, ikuskatzaileak antzeman zuen “gernu usain pixka bat zegoela, eta orbain bat fatxadan, eta litekeena zela orbaina goiko balkoiko likidoen isurketatik etortzea”.

Urte bereko maiatzaren 22an, ikuskatzaile berak beste bisita bat egin zuen [...] jaunaren etxebizitzara, eta berriz antzeman zuen “gernu usaina” zegoela balkoi itxian. Hala eta guztiz ere, interesdunak adierazi zion jadanik ez dela txakurrik bizi goiko pisuan.

Jarduketak guztiak ikusita, bai ikuskatzaileenak bai Zizur Nagusiko Udaltzaingoarenak, eta txakur zaindegiko ziurtagiria ere ikusita, ondoriozta daiteke gutxienez ere 2002ko irailetik ez dagoela txakurrik [...] jaunaren goiko pisuko etxebizitzan.

Jarduketak ikusita, ondoriozta daiteke, halaber, ezin zaiola leporatu ez Zizur Nagusiko Udalari, ez Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuari, beren eskumenez baliatuz jardun ez izana, betiere formulatzen joan diren salaketaren ondorioz.

Aurrekoa gorabehera, eta gai honetan beste urrats bat emateko, hain zuzen ere hari akabera ematearren, gure ustez erabakigarria izanen litzaiteke udalak berak sustatuta osasun langileek azken ikuskapen bat egitea, Osasun Publikoaren Institutuaren beraren bitartez nahiz herriko osasun etxearen bitartez, kexa-egilearen etxebizitzaren egungo egoera egiaztatzeo. Horretarako, kontuan hartu behar da Osasun Publikoaren Institutuko ikuskatzaileak eginiko azken bisitatik, 2002ko maiatzaren 22tik, udalaren esanetan eginiko azken jarduketara, hain zuzen ere 2003ko urtarrilaren 8ra, Zizur Nagusiko udaltzainak izan direla eginda-

ko salaketen ondorioz etxebizitza horretara bisitak egin dituztenak.

Inguruabar hori, guztiz gaitzestekoa ez bada ere, osatu egin daiteke eta osatu behar da, oraingo kasuan, proposatzen dugun amaierako ikuskapen honekin, zeren eta auzigaiak proposatzen ditugun teknikarien –osasan arlokoak–esku-hartzea eskatzen baitu, adituak direlako eta gaia ongi ezagutzen dutelako; hori, dena den, ez da eragozpena esateko esku hartu duten udaltzainek beren lana zuzen egin dutela.

Gure gogoeta berresteko aski da aintzat hartzea teknikariek eginiko azken bisitan –2002ko maiatzaren 22an– balkoi itxian “gernu usaina” antzeman zela; horrek ez du esan nahi usainek irauten dutenik, baina arrazoi nahikoa da azken ikuskapen bat egin dadila gomendatzeko, hain zuzen ere teknikarien ikuskapena, gaiari amaiera emateko.

Hori guztia dela eta, bidezkotzat jo zen IRADOKIZUN bat egitea Zizur Nagusiko Udalari, osasan arloko langileen azken ikuskapen bat susta dezan

kexa-egilearen etxebizitzan, Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuaren bitartez nahiz herriko osasun etxearen bitartez. Horretarako, beharrezkoa bada, Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuaren laguntza eska daiteke; izan ere, hari ere honen berri emanen diogu, jakin dezan eta ikuskapen hori egiteko behar diren neurriak har ditzan.

Horren guztiaren ondorioz, Zizur Nagusiko Udalak eginiko txosten higieniko-sanitarioa igorri zigun, gure iradokizuna osasun publikoko albaitari ikuskatzaileen bitartez igorri ondoren; bertan, hauxe esaten da, hitzez hitz: geletan egiaztatu genuen –sukaldea, egongela, komuna, balkoia...– ez dagoela paretetan orbainik eta ez dagoela ez animalia usainik, ez desinfektatzaile usainik ere ([...] jaunak, jabeak, adierazi zigun desinfektatzaile usaina antzeman duela bere etxebizitzan, baita etxe guztian ere, eskaileretan, sotoan eta abarretan)”

Horren ondorioz, udalak gure iradokizuna onartu zuela iruditzen zaigu.

OSASUN PUBLIKOA IKUSKATZEKO ETA ELIKAGAIEN HIGIENERAKO ATALAREN JARDUNAREN BALDINTZAK.

AURREKARIAK

Aztergai dugun kasu honetan (03/22/S espediente), Nafarroako Osasun Zerbitzuko funtzionario batzuek kexa bat aurkeztu zuten Osasun Publikoa Ikuskatzeko eta Elikagaien Higienarako Ataleko koordinazio faltarengatik eta al baitari ikuskatzaileen kolektiboaren lan-baldintzengatik.

Lehenbizi, adierazi zuten 89/1999 Foru Dekretuak aurreikusitako moduan –haren bitartez, Osasun Publikoaren Institutuko egitura organikoa onesten da–, “Programazio eta Ebaluazio Unitatea” sortu behar zela, lortu beharreko helburuak ezartzeko, al baitari guztien lanak koordinatzeko eta irizpideak batzeko. Hala eta guztiz ere, hura aurreikusi zenetik lau urte iragan direnean, garrantzi handiko unitate hori oraindik ere ez da abian jarri. Esaten dute, baita ere, al baitari bat baino gehiago dagoen hiltegieta ez dela koordinatzaile-rik izendatu, figura hori legez aurreikusita badago ere. Egoera horrek berekin ekarri du ikuskapeneta ez egotea ez plangintzarik, ez haien ebaluaziorik, ez ikuskatzeko protokolorik edo irizpide baturik ere; horrek berekin dakar establezimendu bakoitzari exijitzen zaiona ikuskatzailearen arabera aldatzen joatea eta desberdintasunak eragitea.

Bigarrenik, alegatzen dute ez direla aktiboki eta irizpide uniformeaz aplikatzen ari elikagaien sektorerako autokontrolerako sistemak, 2207/95 Errege Dekretuan aurreikusitakoak, eta ez da betetzen ari Elikagai Industrien Erregistroari buruzko legedia, elikagai industriak ez direlako behar den denboran eta moduan baliokidetu; horrek sortu du, hain zuzen ere, horietako batzuk arauz kanpo egotea.

Hirugarrenik, lan egin behar izaten duten lantokietako lan baldintza desagokiak salatzen dituzte. Ez dute administrazioko langilerik, ez ordenagailurik edo bulegoko material egokirik; izan ere, oraindik ez omen da ezarri ikuskatzailetzako bulego batek gutxienez ere zein gauza eduki behar dituen.

Halaber, kexu dira ez dutelako inolako prestakuntza jarraiturik jasotzen, eta langilerik kontratatzen ez delako bajak edo oporraldiak betetzeko: beste lankide batzuei ematen zaizkie ez dagoenaren eginkizunak. Hori dela eta, oso zail suertatzen da aldi berean betetzea atxikita dauden lanpostuko eginkizunak eta beste lanpostu batzuetan aldi baterako hartu behar izan dituztenak. Gainera, interesdunen arabera, ez dago langile horien osasunaren gaineko berriazko kontrolik, nahiz eta arrisku handiko materialarekin lan egiten duten, ez

eta haien lan osasunari buruzko azterlan zehatzik ere.

Azkenik, alegatzen dute askotan ezarritakoez gaineko ordutegiak betetzen dituztela, baina ez dutela horregatik dagokien lansaririk kobratzen, eta ordutegi oso aldakorak izaten dituztela, zerbitzua ematen duteneko enpresa pribatuen beharrezanetara egokitu behar izaten dutelako, eta bete beharko duten txanda denbora gutxiarekin jakiten dutela; horrek egoera pertsonal kaotikoak eragiten dizkie.

Osasun Departamentuari eskatu zitzaion kexan planteaturiko gaiei buruzko informazioa eman zezan. Departamentuak aztergai dugun kasuari zegokion informazioa igorri zigun; ondoko ataletan, haren berri ematen dugu, gai bat baino gehiagoko baitaude kexaren arrazoieta.

ANALISIA

Igorritako txostenetik eta interesdunek emandako dokumentaziotik, ondoko alderdiak azpimarratu behar ditugu:

1.- Programazio eta Ebaluazio Unitatea sortzea.

Interesdunek alegatzen dute unitate hori oraindik ere ez dela sortu, 89/1999 Foru Dekretuan aurreikusita dagoen arren. Bere aldetik, Osasun Departamentuak honakoa erantzuten du erakunde honetara igorritako txostenean:

“Azken lau urte hauetan elikagaien larrialdiek eta ingurumen jatorriko gaixotasunek (dioxinen krisia, Coca-Colaren krisia, “Behi eroen” krisia, “Legionella” agerpenak, eta haiekin batera sektore berriak antolatzen dituzten edo beste sektore batzuk sortzen dituzten legedia berriak agertzea: biozidak, legionelosiaren prebentzioa, entzefalopatia espongiforme kutsagarriak, igerilekuei buruzko arau berriak, giza kontsumorako uren araupena, tatuaietara eta piercingari buruzko arauak) laneko edukien eta zamen handitzea ekarri dute; horrenbestez, gomendagarria da egitura berri baten garapena aztertzea, hain zuzen ere eskura daukagun baliabideak ahal den modu onenean erabiltzeko”.

Martxoaren 29ko 89/1999 Foru Dekretuak 17.2 artikuluan ezarri zuen Higiene Publikorako eta Osasuna Babesteko Zerbitzuak Programazio eta Ebaluazio Unitatea izanen duela, laguntza emanen diona lantokiz kanpoko ikuskapenak programatzen, jarduerak ebaluatzen eta beste unitate sanitario edo sektorial batzuekin koordinatzen, eta horretarako gordeko ditu informazioa eta zehapen

espediente eta erregistroak. Zehazki, ondoko egin-kizunak zehazten ditu:

a) Zerbitzuaren mendeko atalen jarduerak planifikatu, programatu, jarraitu, ebaluatu eta koordinatzea; sektorearteko erakundeekiko harremanak; bidezko diren txosten eta ziurtagiriak egitea.

b) Informazio espedientei hasiera ematea eta zehapen espedienteetarako ikuskapenak hautatzea.

c) Elikagai industria eta produktuen osasun erregistroak eta kudeaketa, instalazio erradiologikoenak, pestiziden erabiltzaileenak eta izan daitekeen gainerako edozeri buruzkoak; eta zoonosiarren aurkako osasun babeseko programak.

Departamentuak berak bere txostenean aitortu du unitate hori gaur arte ez dela sortu, elikagai arazoekin lotutako gertakari berrien ondorioz (dioxinen, Coca Colaren, behi eroen, legionellaren krisialdiak eta abar) Osasun Publikoa Ikuskatzeko eta Elikagaien Higienarako Ataleko teknikariek beren gain lan zama handiagoa hartu behar izan dutelako. Txostenean esaten da, halaber, gaur egun beste egitura baten garapena aztertzen ari dela, baliabide horiek ahal den guztian hobetze aldera.

Datu horien aurrean, gogorarazi behar da administrazio publikoek beren arauak bete behar dituztela; hori, halere, ez da eragozpena izan beren burua antolatze ahalmenez baliatuz arau horiek aldatzeko, legezko prozedurari jarraituz. Dena den, arauak aldatzen ez diren bitartean, bete egin beharko dira, are gehiago Nafarroako Gobernuak erregelamendua onetsi zuenetik lau urte iragan eta hartan aurreikusitakoa bete ez denean. Gainera, kexa prozedura hau hasi zenetik, 2003ko urtarrilean, Osasun Departamentuaren erantzuna jaso arte –hurrengo ekainaren 19an–, ez dirudi arauzko aurreikuspen hori kendu denik; hori dela eta, oinarrizkoa dirudi hura ezarri behar izatea.

2.- Ikuskapenen plangintza eta irizpideak

Interesdunek alegatzen dute al baitari bat baino gehiago dagoen hiltegieta ez dela “koordinatzailearen” figura aurreikusi, nahiz eta figura hori antolamendu juridikoan aurreikusita egon; horrek eragiten du zuzendaritzarik ez izatea, ikuskapenen plangintzarik ez egotea, ebaluaziorik ez egitea eta ikuskapenetarako protokolo eta irizpide baturik ez izatea, eta berekin dakar establezimenduei eskatzen zaiena batetik bestera aldatzea eta desberdintasunak izatea.

Bere aldetik, departamentuak dio ikuskapenetarako plangintza eta irizpideak bi arlo nagusitan

oinarrizten direla: a) hiltegiak, non derrigorrezkoa baita al baitari ofizial bat izatea, aplikatzekoa den araudia bete dadin; eta b) elikadurarekin lotura duten gainerako establezimenduak, non osasun publikoko ikuskatzaile bakoitzak eremu jakin bakoitzean daudenen ardura hartzen duen, sektoreetako arauak betetze aldera. Ez du daturik ematen al baitari-koordinatzaile lanpostuari buruz.

“Al baitari koordinatzailearen” figura urtarrilaren 29ko 147/1993 Errege Dekretuko 9.1. artikuluan jasota dago; artikulua horretan zehazten da establezimendu batek bi al baitari ofizial edo gehiago dituenean, haien artean bat izendatuko dela arau indardunak betetzeko beharrezko jarduerak guztien koordinazioaren arduradun.

Nafarroako Gobernuak urtero onesten dituen funtzionarioen plantillak aztertu ditugu, eta ikusi dugu Osasun Publikoa Ikuskatzeko eta Elikagaien Higienarako Alorrean, zeinaren partaideak baitira bi erreklamazio-egileak, ez dagoela ez koordinatzailearik ez sekzioaren azpiko unitate administrati- boetako koordinatzaile edo arduradunik ere. 89/1999 Foru Dekretuaren lehen eranskinaren arabera –arau horrek Osasun Publikoaren Institutua- ren egitura organikoa onetsi zuen–, atalburu bakarra dago A mailako 46 lanpostu koordinatze- ko; erregelamendua argitaratu zen unean, horietatik 40 osasun ikuskatzaileak ziren eta 2 ospitale- z kanpoko fisikariak; ikuskatzaileen 5 lanpostu hutsik daude.

Analisi gehiagorik egin gabe egin daitekeen balorazioa langileen kudeaketaren ikuspuntutik egin daiteke eta bat dator erreklamazio-egileek adierazitakoarekin, zeren eta argi eta garbi baitago zerbitzu publiko garrantzitsu horren antolamendua- ren ahulezia; ahulezia horrek, izan ere, adierazten du edo koordinaziorik ez dagoela, edo dagoena ez dela aski, zeren eta ez baita posible osasun publi- koko ikuskatzaile kargua daukaten 44 funtzionario- ren ikuskapen lanak pertsona bakar batek seriotasunez koordinatu ahal izatea, eta are gutxiago elikagaien arloan krisialdiak edo alerta egoerak daudenean, administrazioaren txostenean azal- tzen den bezala. Ez dakigu, bestalde, jarduketa protokolorik ezarri den funtzionarioek beren lanak behar den bermearekin egin ditzaten, neurri bate- an koordinazio ahula gaudituz; erreklamazio-egile- en arabera, dena den, horrelakorik ez dago.

Horrenbestez, gure ustez zerbitzu publiko garrantzitsu honetarako –guztion elikagaien segur- tasuna bermatzeko balio du– hautatu den antola- menduzko egitura ez da nahikoa, argi eta garbi, gaur egun exijituzkoak diren kalitate-mailak bete ahal izateko.

3.- Ikuskapen lanez arduratzea eta autokontrolko sistemak aplikatzea.

Interesdunek alegatzen dute ez direla aktiboki eta irizpide uniformeaz aplikatzen ari elikagaien sektorerako autokontrolko sistemak, 2207/95 Errege Dekretuan aurreikusitakoak, eta ez da betetzen ari Elikagai Industrien Erregistroari buruzko legedia, elikagai industriak ez direlako behar den denboran eta moduan baliokidetu.

Nafarroako Elikagai Industria eta Produktuen Osasun Erregistroa Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legean aurreikusi zen eta urriaren 27ko 311/1997 Foru Dekretuak arautu zuen; haren kudeaketa Osasun Zuzendaritza Nagusiko Osasun Publikoaren Zerbitzuko zuzendaritzari esleitu zitzaion.

Erregistro horretan izena eman behar dute, nahitaez, elikagaiekin diharduten eta foru erkidegoaren lurraldean kokaturiko establezimenduren bat duten industria eta establezimendu guztiak.

Industria horiek funtzionatzeko osasun baimena eskatu behar diote Osasun zuzendari nagusiarri, jardueran hasi baino lehenago. Osasun Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu teknikoek eskaria eta dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, ikuskapeneko bisita bat egiten da egiaztatzeko instalazioak 311/1997 Foru Dekretuan adierazitako baldintzen arabera direla, aplikatzeak diren erregelamendu tekniko-sanitarioak betetzen dituztela eta txostenean eta eskatzaileak igorritako dokumentazioan jasotako helburuekin bat datozela. Baimen horiek bost urtetarako balio dute; epe hori iraganik, industriaren titularrak eskatu beharko du funtzionatzeko baimena berritu diezaioten, betiere baimenaren indarraldiaren azken bi hiletan, eta aurretik azaldutako prozesua berrituko da.

Horri buruz departamentuak alegatzen duenez, "2207/95 Errege Dekretuan aurreikusitako autokontrol sistemak industria batzuetan aplikatzen zailak dira, batez ere sektore batzuetako industria txikietan. Arazo hori orokorra da, Espainiako erkidegoetan ez ezik, Europako gainerako herrialdeetan ere.

Ikuskatzaileen irizpideetan uniformetasuna lortzeko, arlo horretan prestatzeko ikastaro batzuk egin dira.

Arazoa industrien baliozkotzera ere iristen da, baina ez ditu industria horiek antolamenduz kanpo uzten, idatziak dioen bezala; izan ere, baliozkotze

horiei konponbide azkarra ematen zaie beharrian edo presa kasuetan".

Departamentuak berak aitortzen ditu, inplizituki, elikagaien industrien baliozkotzeak direla-eta gertatzen diren atzerapenak, deklaritzen baitu "baliozkotze horiei konponbide azkarra ematen zaiela beharrian edo presa kasuetan". Puntu horretan gogorarazi behar zaio departamentuari eraginkortasun eta efizientzia printzipioak betetzearen baliozkotzeak azkar egin behar direla kasu guzti-guztietan, eta ez soilik beharrian edo presa dagoenean.

Hori dela eta, elikagaien industriei baimena behar den denboran eta moduan emateari dagokionez, gure ustez departamentua ez da eginkizun hori azkartasunez eta behar den eraginkortasunaz betetzen ari; hori guztia, aipatu dugun antolamendu ahularen ondorioa baizik ezin da izan.

4.- Beste lan baldintza batzuk.

Azkenik, interesdunek beren jarduerak egin behar dituzten lantokietako baldintza desegokiak salatzen dituzte; eta prestakuntza jarraiturik ez dagoela; eta ez dela langilerik kontratatzen bajak edo oporraldiak betetzeko, beste lankide batzuei ematen baitzaizkie ez dagoenaren eginbeharrak; eta ordutegia gainditzen dutenean ez zaizkiela ordaindu beharrekoak ordaintzen.

Gure ustez, arazo horiek guztiak guztiz barnekoak dira, nahiz eta haien tratamendu desegokiak beste arlo batzuetan ondorioak izan ahal dituen; hori dela eta, zerbitzua emateko antolamendua eta plantilla birdefinitu ondoren aztertu beharreko gaiak dira –esan dugun bezala, gai horiek ez datoz bat osasun publikoaren ikuskapenari antolamendu juridikoan ematen zaizkion eginkizun garrantzitsuekin–.

Horrenbestez, ondoko GOMENDIOA egin genion Osasun Departamentuari: Osasun Publikoaren Institutuko Osasun Publikoa Ikuskatzeko eta Elikagaien Higienerako Atalaren antolamendua eta funtzionamendu arauak aztertu eta birdiseina ditzan, aplikatzeak diren arauak eta eraginkortasun eta efizientzia printzipioei jarraituz, eta jar ditzan behar adina bitarteko, elikagaien osasun publikoaren arloan antolamendu juridikoak esleitutako eginkizunak, bereziki ikuskapenarena, betetzeko.

Aipatu departamentuko kontseilariak jakinarazi zigun, egindako bisitaren ondoren, behar ziren neurriak hartzen ari dela, atal horretan behar diren hobekuntza guztiak egiteko, kasua bada.

OSASUN LAGUNTZA**BORTZIRIETAN EMAKUMEARI LAGUNTZEKO ZENTRO ESPEZIALIZATUA IREKITZEKO ESKAERA.**

Berako emakumeen elkarte batek kexa bat aurkeztu zuen (02/37/S), non Bortzirien alderdian emakumeei laguntza emateko zentro espezializatu bat irekitzeko eskatzeko arrazoiak ematen baitzituen.

Elkarteko buruak esan zigun Beran osasun etxea, zaharrentzako egoitza, kultur etxea eta abar badaudela, baina elkarteburuak ordezkaten zuen elkartearen iritziz beste eskari batzuk oraindik ere bete gabe daudela, hain zuzen ere pertsona guztien osasunerako eta bizi kalitaterako beharrezkoak diren eskariak. Zehazki esaten dute alderdi hartan ez dagoela emakumeei laguntzeko zentro espezializaturik, Nafarroako beste leku batzuetan dauden bezala, bertan ginekologia zerbitzua, antisorgailuei buruzko informazioa eta aholkua eta gaixoari laguntza emateko zerbitzua, besteak beste, eskaintzeko. Azaltzen du zentro hurbilena Elizondoko dagoela, 40 kilometrotara, eta horrek traba handiak ekartzen dituela, autobus linearik ez dagoelako; hori dela eta, haren iritziz arrazoizkoa litzateke eskari horri baiezkua ematea, Bortzirien inguruan 3.000 emakume baino gehiago badaudelako.

Kasu honetan, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentura jo genuen, eta galdetu genion beharrian horiek betetzeko plangintzari buruz, eta, zehazki, etorkizunean Bortzirietako eremurako aurreikusita zegoenari buruz.

Erakunde horrek bi txosten igorri ondoren –haiek direla eta, beste bi aldiz informazio osagarria eskatu behar izan genuen, gaia ezagutu ahal izateko behar genituen datu zehatzak lortu ahal izateko–, behin betiko ondoko erantzuna igorri zigun:

“Elizondoko Emakumeari Laguntzeko Zentroa Burlatako ELZren menpeko azpi-unitate bat da, Elizondoko osasun etxean dagoena; lan egiteko erreferentzia gisa, Elizondoko, Lesakako eta Doneztebeko osasun eskualde oinarritzako laguntza toki-ginekologikoa, familia plangintza eta sexu-hezkuntza dauzka.

Ondoko populazioa –emakumeak– hartzen du, adin tarteen arabera (Osasun Departamentuak 2001ean emaniko datuen arabera):

Bestalde, Osasun Departamentuko beste iturri batzuen arabera, Lesakako osasun eskualde oinarritzakoan 3.959 emakume daude 2001-01-01ean:

– Bera: 1.751 emakume

– Lesaka: 1.264 emakume

– Igantzi: 288 emakume

– Arantza: 284 emakume

– Etxalar: 372 emakume

Zentroan, honako langileak daude:

Ginekologo bat lanaldi osoan.

Erizain bat lanaldi osoan, erizain eta emagin lanak egiten dituen.

Erizain bat lanaldi partzialean (astean 21 ordu), emagin lanak egiten dituen.

Administrari laguntzaile bat lanaldi osoan.

Emagina Lesakaraino joaten da erditzea presartzeko ikastaroak ematera, talde bat osatzeko modua dagoenean.

Jendea hartzeko ordutegia 08:00etatik 15:00etara bitartekoa da, egunero (salbu eta guardia ondorengo egunetan eta ebakuntzak dauden egunetan, haietan ez baita ginekologia kontsultarik).

2001ean eta 2002ko urtarrilaren 1etik 2002ko abuztuaren 31 arte kontsultetako jardueraren honakoa izan da:

OBSTETRIZIA:

2001. urtean: 878 kontsulta
(5,6 kontsulta eguneko)

2002. urtean: 705 kontsulta
(5,0 kontsulta eguneko)

GINEKOLOGIA

2001. urtean: 2.183 kontsulta
(13,8 kontsulta eguneko)

2002. urtean: 2.080 kontsulta
(14,9 kontsulta eguneko)

GINEKOLOGIA+OBSTETRIZIA:

2001. urtean: 3.121 kontsulta
(19,4 kontsulta eguneko)

2002. urtean: 2.940 kontsulta
(19,9 kontsulta eguneko)

2003-02-12an Burlatako ELZk (non Elizondo sartzen baita) 18 gaixo ditu kirurgiarako itxaron zerrendan, eta 69 eguneko batez besteko itxaronaldia dago lehentasunezkoak ez diren ebakuntzetarako.

Kontsultetarako itxaron zerrendari dagokionez, esan beharra dago ELZetako medikuntza kontsultetan obstetrizia, ginekologia patologikoa, prebentzioko ginekologia eta familia plangintza agenda

berean uztartzen direla; gaur egun, ez dago xehe-katurik ez jarduera ez prestazio bakoitzari dagokion itxaron zerrenda ere. Hori dela eta, itxaron zerrenda oso ere erlatiboa da. Egia da obstetrixia-ko lehen bisitak eta ginekologia-patologiako astebeteren buruan ematen direla, zentroko ginekologoaren bolanteaz lehen balorazioa egin ondoren.

Daukagun informazioarekin, esan dezakegu lehen kontsultarako 26 eguneko itxaronaldia dagoela (hemen minbizi ginekologikoaren prebentzioa ere sartzen da) eta errebisioetarako 4 eguneko itxaronaldia.

Bestalde, Elizondoko ELZra joaten diren erabiltzaileen jatorria jakiteko, laginketa bat egin dugu, 2002ko irailean 10 egunez ausaz eginikoa; izan ere, egun horietan, ginekologoaren kontsultara joan diren erabiltzaile guzti-guztiei zein herritakoak ziren galdetu zitzaien, eta honako emaitzak lortu ziren:

HERRIA	KONTSULTA KOPURUA	%
Elizondo	45	23
Lesaka	29	15
Bera	21	11
Doneztebe	15	8
Irurita	11	6
Ziga	6	3
Oronoz	5	3
Donamaria	5	3
Urrotz	5	3
Arizkun	5	3
Zugarramurdi	4	2
Narbarre	4	2
Erratzu	4	2
Igantzi	3	2
Etxalar	3	2
Urdazubi	3	2
Sunbilla	3	2
Zubieta	2	1
Ezkurra	2	1
Azpilkueta	2	1
Gainerakoa	17	5
Guztira	194	100

Arestian aipaturiko aldi hartutako 194 kontsultetan, ia % 50 Elizondon (% 23), Lesakan (% 15) eta Beran (% 11) bizi ziren erabiltzaileak ziren.

Kontuan hartuz gero 2001ean Elizondoko ILZn 3.121 kontsulta egin zirela, eta zentro horretako ondoz ondokoak / lehenak indizea (O/L=0,54) aplikatzen badiegu, honakoa da urte batean herri horietako bakoitzetik, teorikoki, datozen erabiltzaileen kopurua:

Sendagilearen kontsultaz gainera, bestelako jarduerak egiten dira; esate baterako, emaginaren eta erizainaren kontsultak eta heziketa ematea.

Azken lan hori zentro berean, ikastetxeetan, institutuetan, emakumeen elkarteetan eta abarretan egiten da, osasunerako heziketa saioetan.

Emaginak erditzea prestatzeko ikastaroak ere ematen ditu, Elizondoko ILZn eta Lesakan (emakume haurdunen kopurua nahikoa denean: urtean 3 edo 4 talde)”.
 Xexa honetan planteaturiko eskariari erantzuna emateko, gaur egun Nafarroan tokoginekologiako, familia plangintzako eta sexu hezkuntzako osasun prestazioen arloan nagusi den arauari egin genion erreferentzia, hain zuzen ere irailaren 22ko 259/1997 Foru Dekretuari.

Ara horren 2. artikulua arabera, honako prestazioak exijitu ahal dira sare publikoan:

– Eritasun tokoginekologikoetarako eta hilekoaren zikloko eta klimaterioko arazoetarako osasun laguntza.

– Haurdunaldiaren diagnostikoa, laguntza goiztiarra eta osasun jarraipena, bai eta amarendako zein fetuarendako arrisku faktoreen zainketa ere, haurdunaldiari buruzko informazioak erditzearen une eta tokiraino jarraipena izanen duela bermatuz.

– Amatasun agiri pertsonal bat izateko aukera, haurdunaldian aldizka egiten diren azterketak azalduko dituen.

– Ama izateko heziketa, erditzeari buruzko prestakuntza eta analgoanestesia tekniken bidezko erditzeari buruzko argibideak, horren gainean hautaketa arduratsua egiteko.

– Ama izateko heziketa, erditzeari buruzko prestakuntza eta analgoanestesia tekniken bidezko erditzeari buruzko argibideak, horren gainean hautaketa arduratsua egiteko.

– Erditze uneko laguntza, ospitale batean, emakumeak bere erditzean protagonista gisa parte hartzeko erraztasunak ematea eta erditze ez-distozikoan emakumeak bere konfiantzako pertsona baten laguntza izatea.

– Emakumeak informazioa jaso ondoren bere adostasuna emateko bermea izatea prozesu klinikoetan eta asistentziaren ikuspuntutik behar-beha-

rrezkoak ez diren eta emakumearen edo haurra-
ren osasunari kalte egin gabe saihestu daitezkeen
interbentzioetan.

– Erditze ondoan osasun-laguntza etxean jasotzea.

– Antisorgailu bat hautatzeko argibideak. Metodo ezberdinen azalpena, aplikazioa, kontrola eta jarraipena, basektomiak eta tronpen loturak barne.

– Banakako eta taldeko sexu hezkuntza.

– Argibideak, aholkularitza, laguntza psiko-sozio-emozionala eta dohaintasuna legearen arabera ezarritako egoera eta baldintzak betetzen dituzten Haurdunaldiaren Borondatezko Etenaldi kasuetan, prozesu guztian ahalik eta arintasun eta konfidentzialtasun handiena bermatuz.

Prestazio horiek osatzen dira arrisku taldeak antzematera eta bularreko minbiziari eta umetokiko lepoko minbiziari aurrea hartzeraz zuzendutako beste batzuekin.

Nafarroako osasun sistema publikoak bere baitan hartzen ditu prestazio horiek. Prestazioak direla eta, dauden gauza eta giza baliabideak integratu eta koordinatuko dituen antolamendu sistema bat garatzen du. Eredu horretan, Iruñeko Bideko Ama Birjina Ospitaleko Obstetrizia eta Ginekologia Zerbitzua eta Tuterako Reina Sofía eta Lizarrako García Orcoyen ospitaleetako antzeko unitateak integratzen dira, arlo horretan zerbitzu espezializatuagoa ematen dutenak, eta emakumeari laguntzeko zentroak, organikoki eta funtzionalki haietan sartuta daudenak, betiere dauden osasun barrutien arabera.

Famili orientazioko eta sexu heziketako zentroi (FOSHEZ) dagokienez, arauak aukera ematen du emakumeari laguntzeko zentroi laguntza eman diezaieten, oso antzekoak baitira bi organismoek betetzen dituzten eginkizunak, eta beren berriazko programak garatzen jarraitu ahal izanen dute, bai eta emakumeari laguntzeko zentroyen funtzioak beren gain hartu ere.

Aurrerago, apirilaren 19ko 119/1999 Foru Dekretuaren bitartez, erabaki zen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren famili plangintzako eta sexu heziketako zentroak emakumeari laguntzeko zentroetan integratzea, halako moduan non gaur egun integrazio hori gauzatu baita.

259/1997 Foru Dekretuaren 1. eranskinean, Nafarroan emakumeari laguntzeko dauden 9 zentroak aipatzen dira (Burlatakoa, Iruñeko bostak, Tafallakoa, Lizarrakoa eta Tuterakoa); haien zein osasun zentrotan dauden eta oinarritzko zein eskualdetan ematen duten zerbitzua ere zehaztuta

ematen da. Halaber, emakumeari laguntzeko zentroak dauden lekuetatik urrunegi dauden azpi-unitateak aipatzen dira (Elizondo, Zangoza, Lodosa-San Adrián eta Etxarri Aranatz). Horrenbestez, Elizondoko azpi-unitatean dago Bera, Lesakako osasun eskualde oinarritzokoa delako; azpi-unitate horren egoitza Elizondoko osasun etxean dago.

Datu horien aurrean, ondoriozta dezakegu emakumeari laguntzeko zentroak populazio handiena duten herrietan daudela, edo geografikoki mugakideak diren edo hurbil dauden populazio batzuetako herriburuak izan daitezkeenetan. Egia esan, Nafarroako herri gehien-gehienetan ez dago horrelako zerbitzurik udalerrian bertan; hori dela eta, bizilagunek aipatu ditugun herriburu horietara joan behar izaten dute; herriburu horiek 259/1997 Foru Dekretuan finkatu ziren. Gainera, informazio guztia osatzeko, esanzen dugu udalen menpeko bi FOSHEZ badaudela, Orkoien eta Berriozarko udalek ezarritakoak, Nafarroako Gobernuaren sare publikotik kanpo finantzatzen direnak, nahiz eta foru gobernuaren laguntza batzuk hartzen dituzten.

Oinarritzko osasun laguntza betetzen duten osasun zentroekin gertatzen denaz bestera –horrexegatik herritarrarengandik nahiko hurbil daude–, emakumeari laguntzeko zentroak laguntza espezializatuko unitateak dira; hori dela eta, lotura zuzena dute aipatu ospitaleetako obstetrizia eta ginekologia zerbitzuekin. Laguntza mota honek dotazio materialak eta giza baliabide espezializatuagoak eskatzen ditu; hori dela eta, osasunerako berme handiagoekin ezarri behar da, betiere aldi berean errespetatuz gastuaren efizientziaren printzipioa, zeren eta beharizan publikoak ugari baitira eta baliabide ekonomikoak, berriz, mugatuak.

Ez litzateke gomendagarria izanzen zerbitzu horiek ezartzea abiapuntu hartuta Berako eta inguruko herrietako emakumeen populazioa, hau da, 3.784 pertsona, zeina Elizondoko azpi-unitateko emakumeen populazio osoaren % 38 baita (izan ere, guztira, 9.750 emakume dauzka). Populazio horrek ongi justifikatzen du ginekologo bat, emagin bat, lanaldi partzialeko erizain bat eta administrari laguntzaile bat egotea, horiek baitira azpi-unitate osoan zerbitzua ematen duten langileak; arrazoi nahikoa ere bada zentroa behar diren instalazioez, tresnez eta beren zerbitzuak emateko profesionalek behar dituzten gainerako bitarteko materialez horniturik egoteko.

Gure ustez, plantilla hori zatitzea eta Bortzirietako beste herri batean antzeko leku bat behar bezala prestatzea ez da neurri ona, nahiz eta erosoagoa eta hurbilagoa iruditu Berako erabiltzaileei, zeren eta badirudi hobe dela emakumeari

laguntzeko zentro gutxiago egotea gauza eta giza baliabide onekin eta ez zentro asko egotea, gaizki ezarririk; izan ere, arlo honetan lehenbizi bermatu behar dena, zalantzarik gabe, osasuna baita.

Besterik da tokoginekologia, famili plangintza eta sexu heziketako zerbitzuak nola ematen diren; irailaren 22ko 259/1997 Errege Dekretuko 2. artikuluan garatuta daude horiek, lehen aipatu bezala. Horri buruz, administrazioaren txostenak dio taldean egiten den jarduera bakarra erditzea prestatzekoa dela, emakume kopuru nahikoa dagoenean; horrek adierazten du emakumeari laguntzeko zentroek eman beharko lituzketen prestakuntza-lan garrantzitsu batzuk, bereziki familia plangintzarekin eta sexu heziketarekin lotutakoak, ez direla nahiko ematen ari. Gure iritziz, arlo horietako prestakuntza ez litzateke eman beharko soilik erabiltzaileek eskatutako banakako kontsulten bitartez, baizik eta, oso bereziki, ikastaro, hitzaldi edo interesdunei zuzendutako hezkuntza jardueren bitartez; horretarako, logikoa litzateke profesionalen prestakuntza hori sistematikoki ematea, maiztasun jakin batekin, eta horretarako interesdun gehienak bizi diren aldera joan daitezela. Gure ustez, emakumeari laguntzeko zentroi dagokie adingabeen prestakuntza, bereziki sexu heziketaren arloan; horretarako, bidezkoa izanen litzateke zentro horietako profesionalak maisu-maistreakin eta hezitzaileekin koordinatzea, gazteei modu sistematiko eta erregularrean arlo horretako prestakuntza-programak eskaintzeko.

Horrenbestez, gure ustez ezin da Bortzirietako aldean emakumeari laguntzeko zentro bat ireki dadin planteatu, zeren eta bertan bizi diren emakumeen kopurua ez baita nahikoa era horretako zentro bat edukitzeko. Hori, halere, ez da eragozpena guk gomendatzeko modu sistematikoan eta erregularrean antola daitezela emakumeari laguntzeko zentroetako profesionalen ematen dituzten heziketa jarduerak.

Azaldutakoa dela eta, GOMENDIO bat egin genion Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuari, behar diren neurriak har zitzan, bermatzeko emakumeari laguntzeko zentroek modu sistematikoan eta erregularrean eskainiko dituztela helduak eta adingabeak famili plangintzan eta sexu hezkuntzan prestatzeko jarduerak.

Osasun Departamentutik jasotako lehen erantzunean, esaten ziguten gomendio hori jadanik betetzen ari zirela, zeren eta jarduera horiek eskaintzen ari baitziren emakumeari laguntzeko zentroko erabiltzaileek eskatzen zituzten neurrian. Garaturiko jarduera horiei buruzko informazio gehiago eskatuta –departamentuak adierazi zizkigunak zehatz zitezela esanez– kexa aurkeztu zuen elkarteari, neurri horiek nahikoak ote ziren ebalua zezan eta, hartara, gure oharraren betetzemaila zehazteko, ez zigun inongo eragozpenik jarri; hori dela eta, departamentuaren jarduna, funtsean, gure gomendioan eskatutakoaren arabera izan zela jo genuen.

JASO EZ DEN OSASUN PRESTAZIO BAT ORDAINZEKO ESKAERA.**AURREKARIAK**

Kexaren egileak (03/95/S) salatzen zuen Nafarroako Osasun Zerbitzuak faktura bat igorri ziola sekula ere jaso ez duen osasun prestazio baten-gatik.

Horri buruz esaten zigun 2002ko irailaren 12an [...] zenbakiko faktura jaso zuela, Minaren Unitateak ustez emandako osasun prestazio batengatik. Halere, interesdunak alegatzen du sekula ere ez duela horrelako laguntzarik jaso; aitzitik, eskatutako mediku-laguntza ukatu ziotela dio.

Faktura horrekin ados ez zegoenez, 2002ko urriaren 1ean erreklamazio bat aurkeztu zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan, eta hura deuseztatzeko eskatu zuen. Ordutik denbora bat iragan bada ere, eskari horrentzako erantzunik ez zuen jaso; bai jaso zituen faktura ordaindu ezean ondasunak bahitzeko eta haren ondarearen gaineko exekuzio batzuen mehatxua egiten zuten komunikazio batzuk. Hori dela eta, erakunde honen esku-hartzea eskatzen zuen, arazoari konponbidea emateko.

Osasun Departamentuak ondoko informazioa igorri zigun kasu hau dela eta:

“2002ko urrian, [...] andreak idazki bat aurkeztu zuen Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan, non eskatzen baitu [...] zenbakiko faktura deuseztatzeko. Horretarako alegatzen du “eman nahi izan ez zaizkion prestazio mediku batzuen” faktura bat dela.

Faktura hau Nafarroako Ospitaleko Minaren Unitateko 2001eko abenduaren hemezortziko kontsulta bati dagokio.

2002ko urriaren hamaikan, aipatu idazkia Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari igorri zitzaion eta, gero, Nafarroako Ospitaleko Fakturazio Unitateari.

2002ko urriaren hogeita bian, Nafarroako Ospitaleko Administrazio Atalak egiaztatu zuen Minaren Unitateko Erregistro Liburuan, 2001eko abenduaren hemezortzian, egin gabeko kontsulta bat ageri dela; bertan, “ez zen etorri” hitzak ageri dira.

Iragan den denbora ikusita, ezin dugu baieztatu zergatik ez zitzaion kontsulta egin: ez zen joan, Erregistro Liburuan ageri den bezala, edo “ez zioten laguntza medikoa eman nahi izan,” interesdunak dioen bezala.

2003ko martxoaren 5ean, Nafarroako Ospitaleko Fakturazio Batzordea bildu zen; bertan, besteak

beste, honakoa erabaki zen: [...] faktura deuseztatzea.

Hori izan zen batzordean aztertutako lehen kasua (aurreko batzordea 2002ko urriaren 14an izan zen), zeren eta sistema informatikoan arazo bat antzeman baitzuten: “Vianako Printzea” Kanpoko Kontsultetarako Zentroan programatuta egon baina egin ez diren kontsulta batzuk ez dira automatikoki deuseztatzen.

Gaixoari Laguntzeko Ataletik gutun bat igorri zioten Laguntza Anbulatorioa Koordinatzeko zuzendariordeari, horrelako akatsak saihesteko behar zirenak egin zitzaion.

Laburbilduz, gaur den egunean baieztatu dela; halere, jarraitutako tramitazioa kontuan hartuta, Nafarroako Ospitalean ez dago jasota [...] andreaki egoera horren berri idatziz eman zaionik.”

ANALISIA

Kasu honetan, Osasun Departamentuk ez dio erantzun, aplikatzekoa den arauak horretarako ezarritako epean, herritar batek aurkeztutako erreklamazioari.

Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bitartez eman zitzaion testuan, eta bereziki, 42. artikulua, hauxe ezartzen du: “Administrazioak esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan, prozedura horiek hasteko modua edozein dela ere.”

Horrenbestez, administrazioak erantzun formal eman behar dio, horretarako ezarritako epean, hasieran aurkeztutako asmoari, zeren eta esanbidezko ebazpena eman behar baitie, epe horren barruan, herritarrek aurkeztu dituzten eskari edo erreklamazio guztiei. Ikuspegi horretatik, ez da ahaztu behar Konstituzioaren egileak administrazioaren jarduerari ezarri zion lehen printzipioa (Espainiako Konstituzioko 103. artikulua) eragin-kortasunarena izan zela, eta horrek esan nahi du, bistan da, administrazio-prozedurak ebazpen berriak, arazoitu eta behar den epean emandako baten bitartez amaitu beharra.

Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeak berak duen zioen azalpena erreferentzia modura hartuz, honako hau baieztatu daiteke:

“Legeak administrazioaren eta herritarraren arteko harremanari dagokion kontzeptu berri bat ezartzen du, administrazio-isiltasun deritzonaren doktrina gaindituz. Esan liteke lege horrek admi-

nistrazio-isiltasun positiboa ezartzen duela, eta hori egitean gure arau tradizionala aldatzen duela. Baina hori ez litzateke zuzena izanen. Legearen helburua ez da partikularrek administrazioarengana jotzen dutenean administrazioaren jardunik ezari izaera positiboa ematea.

Administrazioaren jardunik ezaren izaera positiboa berme bat da, zeina ezartzen baita legearen egiazko helburua (hots, herritarrek erantzun espresu, esanbidezkoa lortzea administrazioarengandik eta, batez ere, ezarritako epean lor dezatela) betetzen ez denerako. Administrazio-isiltasunak, positiboa nahiz negatiboa izan, ez du institutu juridiko normal bat izan behar, berme bat baizik, administrazioak bere antolaketaren helburu diren eginkizunak eraginkortasunez eta behar den azkartasunez betetzen ez dituenen partikularren eskubideek edukia galtzea eragozteko. Berme hori eraginkortasuna formalismoari nagusitua duen administrazio baten agergarri da, eta azpian utzi ahalko da, soil-soilik, lehentasuna duen interes orokor bat dagoenean edo ezagutua izan dadin eskatzen den eskubidea egiazki existitzen ez denean.”

Lehenengo gai honetan, ezarritako epeen barnean ebatzi beharri dagokion honetan, hautsi du Osasun Departamentuaren jarduerak, argi eta garbi, lehenago aipaturiko araudia. Horretarako, aski da egiaztatzea interesdunak 2002ko urriaren 1ean idazki bat aurkeztu zuela [...] zenbakiko faktura deusezta zezatela eskatzeko.

Departamentuak, 2002ko urriaren 22tik ongi bazekien ere fakturaren zenbatekoa erreklamatzeko oinarria izan zen kontsulta medikoa ez zela benetan egin, ez zion interesdunari horren berri eman, faktura bertan behera utzi ondoren. Gainera, 2003ko martxoaren 5ean, fakturazio batzordeak erabaki zuen erreklamaturako kopurua deuseztatzea, zeren eta egiaztatu baitzuen akats informatiko bat izan zitekeela tartean. Hala eta guztiz ere, departamentuak ez zion interesdunari jakinarazi faktura deuseztaturik zegoela; izan ere, erakunde honi igorritako erantzun bera igorri behar zion, baina ez zuen egin. Hori dela eta, [...] kexa prozedura hau abiarazi behar izan zuen, konponbidea bilatzeko.

Hori dela eta, interesdunek administrazioan aurkezturiko idazkiei erantzunik eman ez zaien aurrekoetan egin dugun bezala, LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENA egin zaio Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari, interesdunari jakinaraz diezaion, fede emateko moduan, kexa honen xedea den faktura deuseztatu egin dela.

Departamentu horretako kontseilariak jakinarazi zигun gogorarazpen hori onartu dutela, eta egun berean behar den komunikazioa igorri zitzaiola Nafarroako Ospitaleko zuzendaritzari, interesdunari fede emateko moduan jakinaraz ziezaion kexa honen helburua den faktura deuseztaturik zegoela.

ZENTRO PRIBATU BATEAN EBAKUNTZA EGITEAGATIK IZANDAKO GASTUA ITZULTZEKO ESKAERRA.

AURREKARIAK

Kexaren egileak (03/06/S espediente) kexa aurkeztu zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezezkoa eman ziolako barizeekin daukan arazo larriari konponbidea emateko Klinika Unibertsitarioan egin behar zioten “fleboesklerosia mikroaparrarekin” izeneko ebakuntza kirurgikoa finantzatzeari.

Interesdunak azaldu zигun III. graduako barizeak dauzkala 1988tik eta lesio baskularren larritasuna eta osasunerako daukaten arriskua gorabehera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboek aholkatu diotela ebakuntza kirurgiko arruntik ez egitea, koadro kliniko konplexua daukalako; izan ere, Von Willebranden gaixotasuna dauka, modu arinean bada ere, eta gaixotasun horrek berekin ekar dezake ebakuntzan zehar arazo larriak sortzea.

Sistema publikoan konponbide onik ematen ez ziotela ikusita, 2003ko urtarrilean Klinika Unibertsitariora jo zuen; bertan azaldu zioten prozedura terapeutiko berri bat bazegoela, “fleboesklerosia mikroaparrarekin” izenaz ezagutzen dena, berariaz egokia izan daitekeela berea bezalako historial medikoak daukaten pertsonentzat, non ebakuntza kirurgikoa kontraindikaturik baitago, sor ditzakeen bigarren mailako efektuengatik.

Gero, bere familia-medikuarengana jo zuen, eta hark ebakuntza hori gomendatu zion; interesdunari Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Prestazio eta Itunen Zerbitzura joateko esan zion, Klinika Unibertsitarioko tratamendua hartzeko baimena eman zezan. 2003ko maiatzaren 2an, zerbitzu horrek ezezkoa eman zion eskariari, eta alegatu zuen ebakuntza hori ez zela sartzen Osasunbideak zentro pribatuarekin zeukan osasun laguntzako itun indardunean.

Osasun Departamentuari behar den informazioa eskatu ondoren, hauxe adierazi zигuten:

“Prestazio eta Itunen Zerbitzuan gaixoari buruz dauden txostenen arabera, irizpide hoberik ezean, ondoko ondorioak atera daitezke, Nafarroako Klini-

ka Unibertsitarioan barizeetarako egin nahi zioten “fleboesklerosia mikroaparrarekin” izeneko ebakuntzaren gaineko eskariari ezezkoa emateko arrazoiei buruz:

1.- Ezin da inoiz ere alegatu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko espezialistek, gaixoarekin lan egin dutenek, ez dutenik lagundu; kontua da espezialista horiek azaldu diotela ebakuntzak arriskuak dakartzala, Von Willebranden gaixotasuna, maila arinean bada ere, baduelako. Hori dela eta, ebakuntzarik eginez gero, hematologia zerbitzua daukan osasun zentroren batean egin beharko litzaioke.

2.- Nafarroako Ospitalean bihotz-hodietako kirurgia eta hematologia zerbitzuak badaude.

3.- Gaixoak, bere erabakiz eta modu pribatuan, Nafarroako Klinika Unibertsitariora jo zuen, eta bertan tratamendu bat proposatu zioten “fleboesklerosia mikroaparrarekin” delako teknika erabiliz.

4.- Aipatu teknikari buruz, berria baita, ez daukagu ebidentzia zientifiko nahikorik; halako egoeretan, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren menpeko Carlos III.a Osasun Institutuko Teknologien Ebaluaziorako Agentziara jotzen dugu.

5.- Aurreko atala dela eta, teknika hori ez dago itundurik Klinika Unibertsitarioarekin.

6.- Kontsulta pribatu batetik heldu den indikazio bat izanik, Nafarroako Klinika Unibertsitarioarekin itundurik ez dagoen teknika bati buruzkoa –gaur egun haren gaineko ebidentzia zientifikorik ez dago–, deribazioari ezezkoa eman zitzaion?

ANALISIA

Kexa honetan planteatzen zena zen zehaztea ea osasun sistema publikoak teknika kirurgiko berritzaile batzuk, zentro pribatu batean eginikoak, finantzatu behar ote dituen, sistema publikoko fakultatiboek osasun arazo bati konponbiderik eskaintzen ez diotenean.

Departamentuaren txostenean esaten bada ere sistema publikoak konponbidea eman ahal ziola erreklamazio-egilearen osasun arazoari, Nafarroako Ospitaleak bihotz-hodietako kirurgiako eta hematologiako zerbitzuak badauzkalako, eta hori gorabehera gaixoak erabaki zuela bere aldetik Nafarroako Klinika Unibertsitariora joatea, non “fleboesklerosia mikroaparrarekin” teknikaren bidezko tratamendua eman zioten, Nafarroako Ospitaleko bihotz-hodietako kirurgialariek emandako txostenetan islatzen den egiari erreparatuz gero, ikus daiteke ez zitzaiola konponbiderik eman arazo medikoari, kasuak zeuzkan zailtasunak direla eta.

Hartara, [A] doktorearen lehenengo txostenetik, 1990eko maiatzaren 10ekotik, [...] andreari esaten zaio ez zaiola ebakuntza kirurgikorik egin behar, “Von Willebranden gaixotasuna” izateagatik, ebakuntza hori guztiz ezinbestekoa ez bada. Berandago, [B] doktoreak 1996ko maiatzaren 6an emandako txosten batean, ohartarazten da ebakuntza soilik hematologia zerbitzua daukaten osasun zentroetan egin daitekeela; esate baterako, Nafarroako Ospitalean. [A] doktoreak 1996ko ekainaren 18ko bigarren txosten batean berriz esaten du ezin dela ebakuntza aholkatu. [C] doktoreak ere, 1999ko abenduaren 7an, ez zuen gomendatu ebakuntza egitea. Halaber, [...] doktoreak, Nafarroako Ospitaleko fakultatiboak, 2003ko martxoaren 18an dio ebakuntza kirurgikoa baztertzekoa dela. Tratamendu egoki gisa, sistema publikoak galtzerdi elastikoak eta krema hidratatzaileak ematea preskribitu zuen.

Azken batean, argi utzi nahi dugu [...] andrearen aukera, zerbitzu mediko pribatuak erabiltzearena, ez dela arinkeriaren ondorioa, ez eta funtsik gabekoa ere, baizik eta bere arazo zirkulatorio larrietarako konponbiderik ezaren ondorioa; izan ere, sistema publikoak ez du jakin hari irtenbidea ematen, baina medikuntza pribatuak bai.

Azaldutako egitateetatik datorren lehen ondorio hori abiapuntu hartuta, osasun zentro pribatu batean erreklamazio-egilearekin erabilitako teknika finantzatzeari administrazioak ezezkoa eman izana aztertu behar dugu.

Esaten du “fleboesklerosia mikroaparrarekin” izeneko teknika berria dela, eta, horregatik, ez dagoela ebidentzia zientifiko nahikorik sistema publikoak hura onartzeko, eta, horregatik, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren menpeko Carlos III.a Osasun Institutuko Teknologien Ebaluaziorako Agentziak ez duela hari buruzko ziurtagiririk eman. Gainera, ez da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Nafarroako Klinika Unibertsitarioarekin itundutako teknika bat.

Izan ere, Osasunari buruzko apirilaren 26ko 14/1986 Legeak 110. artikuluan dioenez, “Estatuko osasun administrazioari dagokio osasunerako eta osasun laguntzarako garrantzia daukaten teknologien segurtasuna, eraginkortasuna eta efizientzia baloratzea”; horretarako, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren menpeko Carlos III.a Institutua sortu zen.

Osasun Sistema Nazionaleko osasun prestazioak antolatzekeko urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuko lehen xedapen gehigarriak ezarri zenez, “Estatuko osasun administrazioak teknika edo prozedura diagnostiko edo terapeutiko berrien sar-

tzea (...) baloratu egingen du, haien segurtasunari, eraginkortasunari eta efizientziari erreparatuta”

Teorikoki zuzena bada ere, oro har, Osasun Departamentuaren txostenean baieztatzen dena, ezin dugu onartu, amaierako erantzun gisa, osasun sistema publikoak konponbiderik ez izatea [...] andreak adierazitako arazoa konpontzeko modu baliozkoan eta nahikoan. Ez dugu ahaztu behar nagusiengan, bereziki emakumeengan, oso arrunta den gaixotasun bat sendatzeaz ari garela. Hain da arrunta, non sistema saiatu den bide egokiak hartzen arazoari konponbide eraginkorra emateko kasurik gehienetan. Gaixotasun hau sendatzea, logikoa denez, Gizarte Segurantzaren prestazioen zerrendan dago.

Hala eta guztiz ere, erreklamazio-egilearen kasuan, konponbide kirurgiko tradizionala larriki zailtzen zuen faktore bat ematen zen, alegia, beste gaixotasun batekin batera gertatzea Von Willebranden gaixotasuna, maila arinean, zeinak ebakuntzan konplikazioak eragin ditzakeen. [...] doktorearen 1996ko ekainaren 18ko txostenak dio ebakuntzaren konplikazioak oso serioak izan daitezkeela.

Azken batean, barizeen ebakuntza tradizionalaz bestelako konponbide klinikoa bilatzea beste biderik ez zegoen, zeren eta ebakuntza hura egin behar zuten sistema publikoko fakultatiboek behin eta berriz ohartarazi baitzuten gaixoarentzako nahikoa arriskutsua zela; hori dela eta, argi dago metodo horri jarraikiz ezin zela gaixoa sendatu, edo sendatzekotan ere osasuna larriki arriskatu behar zuela.

Egoera horren aurrean, erreklamazio-egileak aukera bakarra zuen: bere osasuna arriskuan jartzea edo beste konponbide bat bilatzea, zeina azken buruan eraginkorra izan baita. Sistema publikoak barizeena bezain arrunta den gaixotasun bat sendatzerik izan ez badu, txosten medikotetan aipatzen diren zailtasunekin ere, onartu egin beharko du, gutxienez ere, eraginkorra izan den froga baten finantzaketa. Esandakoak ez du esan nahi “fleboesklerosia mikroaparrarekin” delako teknika ezarri behar duenik, oraindik ere haren baliozotasunari buruzko ebidentzia zientifikorik ez badago, baina bere gain hartu beharko du osasun sistema publikoaren erabiltzailea zen gaixo baten arazo larrirako sendabidea izan den teknika; izan ere, gaixoak erabat sendatzerainoko laguntza izateko eskubidea zeukan, sendatzea posiblea bazen. Gehitu beharra dago [...] andrea uneoro saiatu zela sistema publikoan konponbide bat aurkitzen, eta halakorik ez ziotela emanen egiaztatu ondoren jo zuela zentro pribatu batera, bestelako teknikarik ba ote zen jakiteko, eta gero ahaleginak

egin zituela sistema publikoak bere gain har zitzan teknika berriaren kostuak, arlo honetan exijitzekoak ziren prozedurak erabiliz.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuari GOMENDIO bat egin genion, bere gain har zitzan Nafarroako Unibertsitate Klinikari [...] andreak barizeak sendatzeko jarraitutako tratamenduaren kostuak.

Gure gomendioari erantzuteko, aipatu departamentuko kontseilariaren erantzuna jaso genuen; bertan azaltzen du ezin zaiola baiezkorik eman guk egindako gomendioari, aurreko txostenean azalduko arrazoiengatik.

Aipatu kontseilariari gogoratu ondoren gure erabakiaren oinarria zela osasun sistema publikoak ezin izan duela sendatu barizeak bezain arazo arrunt bat, hori baitzen erreklamazio-egilearen gaixotasuna, adierazi genion urteko txostenean hori jasoko genuela, gure erakundea arautzen duen legeak xedatu bezala.

NAFARROAN BIZI DEN PERTSONA BATI OSASUN TXARTEL INDIBIDUALA BERRITZEA UKATZEA.

AURREKARIAK

Kexa-egileak (03/107/S espedientea) salatu zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez diola banakako osasun txartela berritu.

Azaldu zigun 1973tik Nafarroan bizi dela, lehenbizi Tuteran eta 1995etik Murchanten. 1998an bere gaurko lanpostuan hasi zen Zaragozako [...] Ospitalean, erizaintzako laguntzaile gisa; lanpostu hura hautatu zuen Murchanteko bere bizitokitik hurbilago zegoelako.

Dioenez, 2003ko martxoan konturatu zen banakako osasun txartela iraungirik zeukala eta, horregatik, Murchanteko osasun etxera jo zuen; bertan esan zioten Nafarroan bizi zela egiaztatu behar zuela, eroldaren ziurtagiri baten bitartez, Gizarte Segurantzaren kartillaren fotokopia bat ere erakutsiz eta lantokiko ziurtagiri bat –ohiko egoitza Nafarroan zuela zehaztuko zuena– ere eramanen.

Maiatzaren 15ean, Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuneko Zuzendaritzaren ebazpen bat jaso zuen; bertan ezezkoa ematen zitzaion banakako osasun txartela emateari, interesdunak benetan egoitza Nafarroan zuela egiaztatzen ez zen bitartean zuzenbidez onartutako edozein frogabide erabiliz.

Interesdunak uste du uko hori zuzengabea dela, zeren eta demostratu baitu Murchanten errol-datua dagoela eta PFEZaren aitortpena Nafarroan

egiten duela. Horrez gainera dio antsietate egoera duela, gaixorik geratuz gero babesgabetasun egoeran egonen litzatekeelako.

Osasun Departamentuak, gai horri lotuta, hauxe azaldu zigun:

“2000ko irailean zehar, eta osasun datuen basean egiten diren garbiketa sistematizatuena arira, egiaztatu zen [...] andrea alta emanda zegoela Zaragozako probintziako Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren datu basean, eta Nafarroako Osasun Zerbitzuaren banakako osasun txartela zeukala, 2003ko otsaileko iraungitze datarekin.

Hil hartan bertan Murchanteko kontsultategiari eta Cascanteko osasun zentroari jakinarazi zitzaizkien [...] andrea, ondorio administratiboetarako, “Nafarroara desplazatutakotzat” hartu behar zela, eta une horretatik aurrera osasun laguntza horixe jasoko zuela; gainera, esan zitzaion banakako osasun txartela berritzeko egiaztatu egin beharko zuela egoitza benetan Nafarroan duela.

Gero, osasun txartela berritzeko garaia iritsita, txartelik ez zen egin interesdunak ez zuelako egiaztatu egoitza benetan zuela Foru Komunitateko udal batean. Bestalde, lehengo egoerari eusten zaio, eta hala egiaztatzen da; alegia, interesduna alta emanda dago Zaragozako Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza Probintzian.

Murchanteko kontsultategiko langileek banakako osasun txartela berritzeko behin eta berriz eskatzen zuten eta [...] andreak Banakako Osasun Txartelaren Atalera dei ugari egiten zituzten, interesdunari beste behin egoeraren berri eman zitzaion, eta berriz esan zitzaion egoitza benetan non duen egiaztatu behar duela zuzenbidez onartutako edozein frogabide erabiliz, eta une hartara bitarte aurkeztutako dokumentazioak (Murchanteko errolda agiria eta Zaragozako [...] Ospitaleko idatzia, non bi helbide agertzen baitira) ez zuela balio egoitza benetan Nafarroan zuela behin betiko esateko.

2003ko maiatzaren 9an, Oinarrizko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuneko Zuzendaritzako Antolamendu Zerbitzuko buruaren ebazpen bat eman zen, Nafarroako osasun txartel berria ezesten zuena; halaber, interesdunari jakinarazi zitzaion ebazpen horren kontra auzibidera jo aurreko erreklamazio bat aurkez zezakeela.

2003ko ekainaren 11n, [...] andreak auzibidera jo aurreko erreklamazio bat aurkeztu zuen, eta 2003ko ekainaren 13an Araubide Juridikoaren Zerbitzura igorri zitzaion Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak tramita eta ebatz zezan.

Azkenik, jasota utzi nahi dugu [...] andrea inoiz ere ez dela egon eta ezin daitekeela sekula egon, arartekoak sinaturiko idatzian esaten den bezala, babesgabetasun egoeran, zeren eta inoiz ere ez baitzaio ezezkorik eman eta aurrerantzean ere sekula ezin izanen zaio ezezkorik eman hari laguntza sanitarioa emateari, hartarako eskubidea baitu Osasun Sistema Nazionaleko erabiltzailea den aldetik. Zalantzan eta ebazteko dagoena da ea haren osasun txartela Nafarroak edo Aragoik eman behar duen. Baldin eta, azkenean, jotzen bada haren ohiko egoitza Zaragozako probintzian dagoela, Aragoiko Osasun Zerbitzua bera izanen da osasun txartela igorri beharko diona, eta une horrexetan eta etorkizunean ere hura guztiz bermaturik egonen da Aragoi eta Espainiako lurralde osoan ere (Nafarroan eta Espainiako gainerako autonomia erkidegoetan), Osasun Sistema Nazionaleko erabiltzailea baita.

ANALISIA

Arlo honetako oinarrizko araua Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea da; haren 1. puntuan honakoa ezartzen da: “Foru Komunitateko lurraldearen barrenean osasun laguntza publikoa Nafarroako edozein udaletan bizi direnengana zabalduko da.” Bestalde, otsailaren 21eko 71/1991 Foru Dekretuak, osasun laguntza ororenganatzeari buruzkoak, 3.a) artikuluan dio eskubidearen titularra izateko baldintzetako bat dela “Foru Komunitateko udalerrri batean egoiliar gisa erroldan sartuta egotea eta Nafarroan zinez sei hilabetez gutienez egoitza dutela egiaztatzea.”

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean egoitza izatearen irizpidea erabakigarria da Nafarroan osasun laguntza publikorako eskubidearen jabea izateko.

Hori dela eta, zehaztu beharko da zein kasutan eta nola jo daitekeen ezen herritarrek egoitza udal jakin batean dutela. Horri dagokionez, interesdunak alegatzen du bere egoitza Murchanteko udal erroldak frogatzen duela, bertan auzolagun gisa izen emanik baitago; hartara, baloratu beharko litzateke noraino duen froga-baliorik bizilagunen udal erroldak, eta benetako egoitza egiaztatzeko gainerako frogabideek ere.

Toki araubidearen oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 15. artikulua eta Toki entitateen populazioari nahiz lurralde mugaketari buruzko erregelamendua onesten duen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuko 54.1 eta 55. artikuluek Espainian egoitza duen pertsona oro behartzen dute normalean bizi den udaleko erroldan izena ematera, hau da, urtean zehar denbora gehien bizi den udalean. Izena emanez lortzen da herritarrak

libreki aukeratu duen udaleko bizilagun-izaera, eta hortaz, udal erroldan izena emanda dauden pertsonak udaleko bizilagun dira ondorio guztietarako.

Toki araubidearen oinarriei buruzko Legeko 16.1 artikulua eta Toki entitateen populazioari nahiz lurralde mugaketari buruzko erregelamendua onesten duen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuko 53.1 artikuluko 2. lerroak ezartzen dutenez, "udal errolda da udal bateko bizilagunak jasotzen dituen administrazio erregistroa. Erroldako datuak dira udalean bizi eta bertan ohiko bizilekua izanaren frogak. Datu horiei buruz ematen diren ziurtagiriek agiri publiko eta fedemaileen izaera izanaren dute administrazio-ondorioetarako." Erroldaren frogak balioa guztiz onartuta dago Auzitegi Gorenak behin eta berriz eman duen eta ezaguna den jurisprudentzian.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago, baita ere, egoitzaren eta ohiko etxebizitzaren presuntzioa, udal erroldaren inskripzioetik heldu dena, "iuris tantum" presuntzio bat dela; hori dela eta, aurkako frogekin aldarazi egin daiteke.

Kasu jakin honetan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak egiaztatu ondoren interesdunak bere lanbide jarduera Zaragozan zuela, osasun txartelaren berritzea ukatu zion, zeren eta jo baitzuen ez zuela benetan demostratu ohiko egoitza Murchanten zuenik.

Hala eta guztiz ere, ezin dugu esan txartela emateko ukoa behar bezala eman zenik, horretarako arrazoi bakarra delako erreklamazio-egileak Zaragozan lan egitea, hiri horretan beste bizileku bat edukita ere; izan ere, Murchantetik Zaragozara 100 kilometro baino gutxiago dago, eta horrek aukera ematen du gaua bietako edozeinetan emateko edo batetik bestera erraz joateko edo norberaren ibilgailua erabiliz, edo trenez, edo autobus linea erregularra erabiliz, Tuteratik. Edozein dela ere hartzen den garraibidea, ordubete ere ez da behar. Gure iritziz, osasun administrazioak txartela ez emateko erabili duen irizpidea ez da berez nahikoa, eta oraingo kasu honetan ez du balio udal erroldako "iuris tantum" presuntzioa aldarazteko, zeren eta ez baitu ezinezko egiten Murchantetik askotan edo egunero ere joan eta etorri ibiltzea.

Gainera, kasu honetan alde batera ezin utzi daitekeen beste egitate bat dago, alegia, [...] andreak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena Foru Ogasunean aurkezten

duela. Ondorio horietarako, ohiko egoitzarena oinarriko irizpide bat izaten da Nafarroako Gobernuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordainarazteko. Abenduaren 26ko 28/1990 Legeak, estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmen ekonomikoa onesten duenak, zehazten du pertsona fisikoek ohiko egoitza dutela Nafarroan lurralde horretan urte natural batean ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiago ematen dituztenean. Irizpide hori Tributuei buruzko Lege Orokorreko 45. artikuluan ere aurkitzen dugu, bertan ohiko egoitzarena pertsona fisikoek helbide fiskala finkatzeko irizpide erabakigarritzat ezartzen baita.

Kexa honetan aztertutako kasuan, azpimarratu beharra dago erreklamazio-egileak helbide fiskala Murchanten duela ezarria eta Nafarroako Foru Ogasuneko zergaduna dela. Halaber, tributu administrazioak guztiz onartua du Domínguez andrea zergadun gisa, nahiz eta ongi dakien, nabarmena den bezala, dirusarrerak Zaragozan duen lanpostutik lortzen dituela. Jokaera horren ondorio juridikoak zuzenean eramaten gaitu egintza propioen doktrina aplikatzera; doktrina horren indarrez, inork, are gutxiago administrazio publikoek, ezin du bere egintzen aurka jo fede oneko hirugarrenen kaltetan. Interesdunaren helbide fiskala foru erkidegoan egotea nahikoa da jotzeko [...] andreak egoitza benetan Nafarroan duela, hori bera onartzen baitu foru administrazioak PFEZa ordainarazten dionean; hori dela eta ez dago justifikaturik hari osasun txartela ez ematea Nafarroan helbidea ez izateagatik.

Hori dela eta, bidezkotzat jo zen Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuari gomendioa egitea kexa-egileari banakako osasun txartela berritu ziezaiola, zeren eta ez baitago fede emateko moduan egiaztaturik interesdunak ohiko egoitza Nafarroatik kanpo izatea.

Gure jarraibide hori dela-eta departamentuko kontseilariak erantzun zigun esanez egindako gomendioa onartzen zuela. Handik egun batzuetara, Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari-kudeatzailearen ebazpen berriaren kopia igorri zigun. Haren bitartez indarrik gabe uzten zen aurreko beste ebazpen bat, hain zuzen ere interesdunaren eskariari ezezkoa ematen ziona, eta baiezkoa ematen zitzaion haren asmoari; bestalde, jarraibideak ematen ziren banakako osasun txartela eman ziezaioten.

II-12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA**PENTSIOAK****LANBIDE ARTEKO GUTXIENEN SOLDATARA IRISTEN EZ DEN PENSIOA DUEN PENSIODUNA, ALARGUN-PENSIOENTZAT EZARRI BEHAR DEN DIRULAGUNTZA JASOKO EZ DUENA.**

Kexa-egileak (03/200/T espedientea) salatu zuen zein egoeratan dagoen gure erkidegoan alargun pentsioetarako aparteko laguntzak ezartzearen ondorioz.

Adierazten du bere burua bazterturik ikusten duela neurri horren eraginez, zeren eta martxoaren 7ko 11/2003 Foru Legea eta hura ezartzeko eta aplikatzeko publiko egin diren neurriek ere soilik alargun pentsioak hobetzeko balio baitute.

Esaten du gizonezko alarguna dela, 65 urtetik gorakoentzako erretiroko pentsio gutxienekoa jasotzen duena eta ezkontiderik ez duena bere kargura; pentsio hori ez da iristen lanbide arteko gutxieneko soldatara, eta horregatik dio "konparaziozko bidegabekeria bat" dela berak eta berea bezalako egoeretan daudenek ez hartzea neurri horietatik inolako onurarik, haiena ez baita alargun pentsioa.

Hori guztia dela eta, eskatzen du behar diren neurriak har daitezen laguntza horiek ez daitezen eman horren modu murriztailean, eta haien onura hartu ahal dezatela berearen antzeko egoeretan dauden pertsona guztiek, alegia, pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa dutenek.

Planteamendua ikusita, Ekonomia eta Ogasun Departamentura eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentura jo genuen, egoeraren berri eman diezagun eta ezagutzeko, kasua bazen, zein neurri har daitezkeen egoera horri irtenbidea emateko.

Alde batetik, Gizarte Ongizate Departamentuak soilik esan zigun Nafarroako Parlamentuaren foru lege batez egin behar dela aldaketa, bertan jasota kexa-egileak azaltzen zigun egoera, bai eta 11/2003 Foru Legeak baztertutako beste batzuen ere.

Bestetik, Ekonomia eta Ogasun Departamentutik, alargun pentsioengatik kenkaria arautzen duten arau fiskalak aipatu ondoren, berretsi egin ziguten kenkari hori alargun pentsio batzuetarako ezarrita dagoela, eta ez dela beste pentsio batzuetarako kenkaririk ezarri.

Jasotako erantzunak eta kexa-egileak planteatzen zigun egoera ikusita, beharrezkotzat jo genuen ondoko gogoetak egitea eta haiek interesdunari eta aipatu departamentuei helaraztea.

Lehenbizi, kexaren idazkian –gero beste idazki batekin osatu zuen, eta harekin batera bere eskaria ezesten zuen gora jotzeko errekurtsioa ere aurkeztu zuen– ustez aipatzen den araua martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legea da, zenbait zerga aldatu eta beste tributu neurri batzuk hartzeari buruzkoa; lege hori alarguntza pentsioengatik kenkariak alde aurretik ordaintzeko prozedura arautzen duen maiatzaren 20ko 127/2003 Foru Dekretuaz garatu zen.

Arau horiek oinarri hartuta, aukera bat ezarri zen urtean 2.700 euro baino alargun pentsio txikiagoa jasotzen duten subjektu pasiboek, Gizarte Segurantzari buruzko arauan ezarritako gutxienekoengatik osagarriak jasotzeko eskubidea dutenek, urteko 900 euro bitarteko kenkari gehigarri bat aplikatu ahal izan dezaten, kontuan hartuta kopuru horien guztien (pentsioa, gutxienekoengatik osagarria eta kenkaria) baturak ezin izanen duela izan lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa.

Bestalde, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko martxoaren 7ko 11/2003 Foru Legeak laguntza osagarri bat ezarri zuen lanbide arteko gutxieneko soldata baino alargun pentsio txikiagoa jasotzen duten pertsonen oinarritzko beharrianei erantzuteko, hain zuzen diru gutxi zeukatenen egoera arintze aldera. Laguntza osagarri horren zenbatekoa bi kopuru hauen arteko diferentzia izanen da: lanbide arteko gutxieneko soldata horren ehuneko ehuna, batetik, eta alargun pentsioari Gizarte Segurantzaren kargurako gutxienekoen osagarria batuta dagokion zenbatekoa, bestetik.

Gobernu zentralak foru lege horren aurka aurkeztutako konstituziokontrakotasun-errekurtsioa noiz ebatziko dago azken lege testu hori; halere, berriki, Konstituzio Auzitegiak bere garaian deklaratu zuen etetea altxatu du, eta, horrenbestez, gaur egun indarrean dago praktikan; hala eta guztiz ere, Nafarroako Gobernuak oraindik ere ez du aplikatu.

Bi testuek, egiazta daitekeen bezala, alargun pentsioak jasotzen dituzten pertsonen kasua baikiz ez dute biltzen; hori dela eta, printzipioz, Nafarroako Gobernuak kasu horretan eginiko aplikazioa, 16/2003 Foru Legean aurreikusitako kenkaria eskatu zenean, hartan ezarritako terminoei egokitu zaie, zeren eta egiazki interesdunak ez baitu alargun pentsio bat jasotzen.

Ezin dugu ahaztu, bestalde, kasu honetan aipatzen ditugun pentsioak egoera ezberdinetatik heldu direla. Horrela, alargun pentsioen zenbatekoari buruzko legezko araubideari dagokionez,

zenbateko hori, oro har, kausatzaileari zegokion oinarri arautzailearen % 52raino igoko da 2004an, nahiz eta % 45ekoa izan orain dela denbora gutxi arte. Azken batean, formula horrek esan nahi du pentsioaren kausatzailearen heriotzak nabarmen murrizten duela pentsio horren zenbatekoa, zeina baita, hain zuzen ere, hortik aurrera alargunak jasoko duena.

Erretiro pentsioak, ordea, kalkulatu dira oinarri arautzaileari ehuneko jakin bat aplikatuz, zeina aldatu egiten baita kotizaturiko urte-kopuruaren arabera; hain zuzen, % 50etik, eskubidea lortu ahal izateko 15 urteko gutxienezko kotizatuz gero, % 100era, 35 urtez edo gehiagoz kotizatuz gero. Beraz, jaso beharreko pentsioaren zenbatekoa azken batean zehazten da interesdunak eginiko kotizazioaren ezaugarrien arabera. Horrela, bada, kontribuzioaren eta norbanakoaren pentsioaren arteko oreka aintzat hartzen da, sistemaren kontribuzio- eta proportzionaltasun-izaeraren ondorioz, estatuko gaur egungo araudian antolatua dagoen bezalaxe, non zehazturik baitaude beharrezkoak diren aurrekontuak, bai eta horrelako pentsioen hartzaile zein baldintzatan eta zer zenbatekorekin izan daitekeen.

Hori horrela, eskueran dauden bitartekoak erabiliz egoera horiek hobetzeko lehentasunak ezartzearen zailtasuna ez zaigu oharkabea gelditu. Ildo horretan, Parlamentuak hartutako erabakia, alegia, aipaturiko neurrien bitartez alargun pentsioez arduratzekoa, kokatu behar dugu Parlamentuak gai hori eta beste batzuk jorratzeko daukan eskumen- eta erabaki-esparruaren barrenean.

Aurrekoa ezertan galarazi gabe, eta pentsio hauek antolatzen dituen araudia estatukoa izan arren (horrek eragina dauka arartekoak esku hartzeko duen ahalmenean), ezin dira aipatu gabe utzi herritarrak egiten ari diren eskaerak. Eskaera

horietako batzuk gure Komunitatean berriki gauzaturiko ekimenen ondoriozkoak dira, eta agerian uzten dute sistemako pentsio txikiaren diru-zenbatekoaren eskastasuna, arlo honetan eman diren aurrerapausoak emanda ere.

Nahiz eta Gizarte Segurantzako pentsioen kudeaketa hobetu den, oraindik ere gauza nabaria da sistemako gutxienezko pentsioen prestazio ekonomikoen urritasuna. Pentsio horiek bermatzen jarraitu behar da eta gainerako pentsio publikoen igoeraren batez bestekoaren gainetik igo behar dira, gaur egungo zenbatekoek ez baitute bermatzen adineko pertsonen nahikotasun ekonomikoa, eta Konstituzioak ezartzen du botere publikoek pertsona horien nahikotasun ekonomikoa ahalbidetu behar dutela, pentsio egoki eta aldizka gaurkotuen bidez, horretarako herritar guztientzako gizarte segurantzako erregimen publiko bati eutsiz.

Horregatik, nahiz eta aztergai izan dugun kasu zehatzean ez dugun arauen aurkako jokabiderik aurkitu administrazioaren ekintza jakin batean (eskaerari ezezkoa eman zaio araudian ezarritako betekizunak ez zituelako betetzen), jabeturik gaude, lehenago adierazitako arrazoiengatik, arlo honetan suertatzen diren egoera ezberdinez. Gomendagarria da egoera horiek isla izatea arartekoak Nafarroako Parlamentuari urtero aurkezten dion txostenean, beste ararteko batzuek beren eskumen-esparruan egiten duten bezala. Horrez gain, lehen aipaturiko departamentuei egoera horien berri eman behar zaie, eta lehenago egin ditugun gogoetak ere adierazi behar zaizkie, gai honetan Konstituzioak ezarritakoa betetzeko beharri buruzkoak. Helburua da komeni diren neurriak har daitezela han, zuzenean edo administrazio eskudunari begira, gai honetan ahalik eta konponbide asegarriena aurkitzen saiatzeko.

GIZARTE SEGURANTZA

LANGILE AUTONOMOEN KOTIZAZIOAK, ONDORIORIK EZ DUTENAK.

Kexa-egileak (03/253/T espedientea) langile autonomoen araubide berezian alta formalizatu aurretik egin zituen kotizazioak zituen aipagai.

Bere idazkian adierazten zuen ezen, 1980-04-01ean araubide horretan alta hartu ondoren, bertara kotizazioak egin zituela 1975-05-01etik aurrera, hau da, alta formalizatu aurreko bost urteetan kotizatu zuela, esaten zuenez, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak berak horretara behartu zuelako.

Hala ere, lan-bizitzaren agiria aurkeztu digu, eta bertan agertzen da bere altaren indarraldiaren eguna 1980-04-01a dela, eta ez 1975-05-01a, bere estez behar lukeen moduan, bi data horien arteko epean eginiko kotizazioak kontuan izanda. Halaber esaten du epe horretan ordaindu zuena itzuli beharko litzaiokeela, baldin eta gauzak ez badira berak adierazi bezalakoak.

Horri buruz, lehenik eta behin adierazi genion arartekoaren erakundea arautzen duen uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak mugatu egiten duela arartekoaren erakundearen esku-hartzearen esparrua, hain zuzen, Nafarroako administrazio publikoen egintzetara; hau da, Nafarroako Gobernuaren eta gure Foru Komunitateko toki-entitateen egintzetara. Horrek esan nahi du ez daukagula eskumenik arazo hau bezalakoetan, alegia, estatuko administrazio orokorrekoa den Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioari atxikia dagoen Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari dagokion kasu batean.

Kasu hauetan, gure araudiak ezartzen duena da helarazten zaigun arazoa zuzenean Espainiako arartekoari igorri behar zaiola, hura baita ministerioen edo haietan txertaturiko organismoen jarduerak ikuskatzeko eskumena daukana.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta adierazi dugun aukera eskueran zegoen, helarazi zitzaigun arazoa aztertu genuen, aplikatzekoa zaion araudiari egokitzen ote zaion ondorioztatzeko, horren arabera erabakitzeko ea azkenean bidezkoa ote zen arazoa Espainiako arartekoaren eskuetan uztea.

Ondorioa izan zen Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kasu honetan ez zuela arau kontrako inolako egintzarik gauzatu, eta beraz, kexa Espainiako arartekoari igortzeak ez zeukala inolako zentzurik, ez baitzuen tramitera onartuko.

Kexa-egileari ondorio horren berri eman genion, eta halaber jakinarazi genion zein araudi aplikatzen zen berak adierazi zigun kasuan.

Izan ere, kontuan izan behar da ezen, langile autonomoei buruzko araudi bereziari dagokionez indarrean dauden xedapenen arabera –Gizarte Segurantzari buruzko lege orokorra eta Gizarte Segurantzaren enpresak inskribatzeari eta langileek bertan afiliazioa egin, altak eta bajak hartu eta haien datuak aldatzeari buruzko erregelamendu orokorra–, epez kanpoko altek indarra daukatela araubide berezi horretan sartu ahal izateko betekizunak betetzen diren hilabete naturalaren lehen egunetik aurrera. Kasu horietan, bidezkoak diren administrazio-zehapenak ezertan eragotzi gabe, alta formalizatu aurreko kotizazioak egitera behartu daiteke, eta kotizazio horiek ondorioak dauzkate prestazioei dagokienez, baina soilik 1994-01-01etik aurrera formalizaturiko altei aplikatu dakieke hori. Egoera hori ez da kasu honetakoa, alta 1980-04-01ean formalizatu baitzen.

Halaber, jurisprudentziak egoera hori argitu du, kontuan izanik aipaturiko araudia eta eginiko araualdaketak. Adierazi duenez, 1994-01-01aren aurreko kotizazioen eragingarritasunari dagokionez, baldin eta eskatzen den prestazioaren zergatia den egintza kokaturik baldin badago aipaturiko dataren eta 1998-01-01aren artean, kotizazio horiek baliodunak eta eragingarriak direla jo behar da. Ez da hori gertatzen, ordea, 1994-01-01a baino lehenagoko kotizazioekin, baldin eta prestazioaren zergatia den egintza 1998-01-01 baino beranduago gertatu baldin bada: kasu horretan, kotizazio horiek ez dute eraginik (Auzitegi Gorenaren epaiak, 2001eko martxoaren 27koa eta maiatzaren 21ekoa).

»Adierazitakoa gogoan izanik, eta adierazi zitzaigun egoeran irregulartasunik ez zegoela ikusirik, erabaki genuen ez zela bidezkoa kexa tramitera onartzea, eta halaxe adierazi genion kexa-egileari, eta informazio hori ere helarazi genion.

II-13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA**HIRIGINTZA****ARGA IBAIKO PLAN INTEGRALA BETETZEKO DESJABETZAPEN PROZEDURA.****AURREKARIAK**

Kasu honetan (01/333/U espedientea), kexa-egileak Iruñeko Magdalena auzoan kokaturiko finka baten titularrak ziren. Arga ibaiko plan integrala betearazteko desjabetzapen-prozesuak finka hori ukitzen zuen.

Interesdunek azaldu zuten desjabetzapen-espedientea osatzen duten urratsak zein izan ziren, eta prozesu horren emaitzari buruzko frogagiriak ere erantsi zituzten. Haien eskaera zen arartekoa udalarekin harremanetan jar zedila, honako puntu hauekarako konponbide bat aurkitzeko: a) desjabetzapena egin ondoren prozesu horretatik soberatu den lurzattia itzul dadila, pasealekua Lagun Artea klubaren ondotik igaro dadin diseinatu baita; b) dagoen lubeta egokitu behar zaio proiektuan ezarritako zabalerari, toki horretan galdu den lur-zatia handiagoa baita desjabetua baino; c) ibai-parketik finka bereizteko pareta bat egitea; d) udalak espedientean eskainitako prezioa berrikustea, alegazioetan adierazi ziren irizpideei jarraituz; eta e) desjabeturiko lur-azalera tokian bertan zehaztea.

Gai horri buruz, Iruñeko Udalak, zehazki Hirigintza eta Etxebizitza Alorrak, txosten bat bidali zigun eta bertan, denboran zehar eginiko jardueren laburpen xehekatu bat egin ondoren, udal teknikariek iritsitako ondorioak adierazten ditu. Ondorio horien arabera, hain zuzen, desjabeturiko lur-azalera guztiak ureztalur izateko ezaugarriak galdu ditu, apaindura gisa lubeta bat eraiki baita ibaiaren ondoan. Horregatik, lehorreko lur gisa jo daiteke eta, beraz, udalak eskainitako "balio justua" murriztu egiten da. Halaber, interesdunek beren alegazioetan esaten dutenari, hots, obrak egitearen ondorioz giro pribatua galdu izanari, udalak kontrajartzen dio betidanik izan dela bertatik jendea igartzeko zortasun bat –zortasun hori lubetaren goiko aldean gauzaturik legoke–, eta itxiturarako eskaria ez dagokiola espediente honi, baizik eta lubeta egitearen espedienteari. Horrez gain, partikularrek eskatu zuten udalaren finka eraikigarri batekin trukea egitea, eta horri dagokionez, hauxe esan zitzaizkien: espedientearen xede den lursaila uholde-arriskua duen eremua dela, eta ez dela eraikigarria.

Geroago, arartekoa berriro ere Iruñeko Udalarik zuzendu zitzaion, Hirigintza Gerentziari hain

zuzen, eztabaidagaiari buruzko azalpen batzuk eskatzeko; baina ez zen inolako erantzunik jaso.

ANALISIA

Hasteko esan behar da desjabetzapenaren xedea 3898 metro koadroko lur-azalera dela, eta lur-sail hori erreklamazio-egileen jabetzapeko finkako zatia dela. Finka hori Arga ibaiaren ondoan kokatuta dago, eta nekazaritza hutseko eginkizunetarako erabiltzen da. Okupatu aurreko aktan esaten da laborantza intentsiboko lurra dela, eta kalte-ordain gisa 8.626,53 euroko kopurua eskaintzen da, hau da, bi euro baino zertxobait gehiago desjabeturiko metro koadro bakoitzeko.

Hirigintzaren ikuspegitik, ukituriko lurra V. unitate integratuan kokaturik dago, "Txantrea-Magdalena" A-3 izenekoan, ez-urbanizagarri gisa sailkatua dago, eta aurrekusten zaion erabilera ibai-parkearena da, Iruñeko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokor indardunaren arabera. Erabilera horri dagokionez, planak adierazten du aztergai dugun eremuak ibai-parkearen izaera duela, aisialdiko eta naturala, eta hiriaren egitura orokorraren osagai dela. Horregatik, eremu hori erabilera publiko-koa izanen da.

Kexa-egileek eskatzen dute, lehenik eta behin, desjabetzapenetik soberatu den lur-zatia itzul dadila, pasealekua Lagun Artea klubaren ondotik igaro dadin diseinatu baita. Auzia gehiago aztertu gabe, badirudi eskaera horri udalak erantzun espresa eman behar diola. Baldin eta lurra desjabetu ondoren lur-soberakin bat geratu bada, begibistakoa da bere jabeek itzuli behar zaiela, horri dagokionez ez baita betetzen desjabetzearen helburua; betiere, alde aurretik espediente bat osatu beharko da, egoera hori behar bezala frogatzeko.

Bigarrenik, eskatzen da eginiko lubeta doitzea proiektuan ezarritako zabaleraren arabera; izan ere, alde horretan lur gehiago galdu da desjabeturikoa baino. Gai horri buruz adieraz dezakegu soilik ezen udalak, obrek proiektua errespetatu ote duten jakiteko egiaztapen-lanak egin ondoren, behar diren zuzenketak egin behar dituela, dela proiektuan, dela obretan, eta horren arabera jardun behar duela. Horrela, behar zen neurritik gora okupaturiko lurzorua balorazioa egin behar du, ondare-galerari dagokion kalte-ordaina emateko.

Erreklamazioa egin dutenek eskatzen dute, baita ere, finka eta ibai-parkea bereizteko pareta bat egin dadila. Horren kostua, beren alegazioetan eginiko ebaluazioaren arabera, 36.253.298 pezetakoa zen. Argudioa da finkak lehenago ibaia zuela muga, eta hesi natural horrek halako intimitate bat errazten zuela, orain ibai-parkearen ondorioz gal-

dua, hain zuzen. Horri buruz, komeni da gogoraztea berriki onetsiriko Urari buruzko Legearen 6. artikulua nola arautzen dituen ibilgu publikoek dituzten zortasunak. Aipaturiko xedapenak adierazten du (gogoan izan bedi xedapen horrek, gai honetan, 1985eko legeak ezarritako gauza bera dioela) ibaien ibilguak bost metroko zabalera publikoak, bai eta 100 metroko zabalera polizia-eremua ere, non zoruaren erabilera eta bertan eginen diren jarduerak baldintzaturik egonen baitira. Horik ondorioztatzen da erreklamazio-egileek ez dautela eskubiderik, zuzenbidearen ikuspegitik, beren intimitatea babesteko nahi duten pareta egin diezaieten. Are gehiago: ekarri dituzten argazkietan ikus daitekeenez, bazen lehen lubetaren gainetik zihuan bidezidor bat, jendea bertatik igarotzekoa; horrela, bada, gure ustez ez dirudi ez lehen eta ez orain halako eskubiderik izan denik, antolamendu juridikoak uraren inguruko baldintzak nola arautzen dituen ikusita. Intimitate edo giro pribaturako balizko eskubide hori, udalari pareta bat egin beharra ezarriko liokeena, ez da interesdunen ondare bat; horrelako zerbait izan beharrean, interes edo igurikimen soil bat besterik ez da, eta ez du sortzen hura babestu beharreko inolako betebeharririk. Ondorioz, ez du kalte-ordainerako esku-biderik ematen.

Laugarrenik, kexaren bitartez eskatzen da udalak berriki desjabeturiko lur-sailaren balioaren arabera erreklamazio-egileei eskainitako prezioa, zeren eta, haien iritziz, ez baitira kontuan hartu haiek beren alegazioetan adierazi zituzten zenbait irizpide.

Auzi hori aztertzeko hartu behar dugun abiapuntua da desjabetzapena hasi zen egunean (hau da, 1997ko urriaren 31n) aplikatzekoa zen zuzenbidea (aipaturiko egunean erabaki zuen udalaren osoko bilkurak prozedura hastea). Egun horretan, jadanik emana zegoen Konstituzio Auzitegiaren 1997ko martxoaren 20ko epaia, lurzoruari buruzko 1992ko testu bateginaren zati handi bat Konstituzioaren aurkakotzat jo zuena, baina, besteak beste, lurzoruaren balorazioari buruzko arauak ontzat eman zituena. Horregatik, arau horiek aplikagarriak izan ziren Lurzoruaren araubideari eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legeak indarra hartu zuen arte.

Lurzoru ez-urbanizagarriaren balorazioari dagokionez, lurzoruari buruzko 1992ko testu bategin horretako 48. artikulua ezartzen zuen tasazioa egin behar zela lurzoruaren hasierako balioaren arabera. Balio hori, 49. artikuluari jarraikiz, landa-lurraren katastro-balorazioetatik kalkulatu da, ezertarako ere aintzat hartu gabe lurzoru

horren balizko hirigintza-erabilera. Arau horiek literalki interpretatzen badira, atera beharreko ondorioa izanen da udalak eginiko balorazioak erreklamazio-egileentzat oso onuragarriak ere izan direla, zeren eta entitateak finkaren tasazioari buruz emandako txostenean, zeina espedienteen jasota baitago, agertzen den balorazioa askoz ere apalagoa baita, aipatu diren lege-irizpideak modu erradikalean aplikatzearen ondorioz, nahiz eta, esaten denez, lurzoruari buruzko 1976ko legeko 103, 104 eta 107. artikuluetan jasotako irizpideak erabili diren, teknikariek argigarriagoak direla uste baitute.

Alabaina, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ohar garrantzitsuak egin ditu herri baten hirigintza-garapenak lurzoru ez-urbanizagarrian eragina izatearen kasurako, eta ulertu du horrelako kasuetan hirigintza-eragin horiek ere baloratu beharrekoak direla.

Horrela, 1997ko ekainaren 22ko epaiak, legearen interesetan emandakoak, honakoa dio bere zazpigarren oinarrian: "1997ko ekainaren 20ko epaian adierazi dugun bezala, badago gutxienez ere kasu bat non, ondasunen balio justua ezartzeko unean, lur-saila ez-urbanizagarri gisa sailkatua egoteak ez baitu nahitaez behartzen lur-saila soil-soilik bere nekazaritza-erabilerearen arabera baloratzera. Hain zuzen ere, aipagai dugun kasuan ondorioztatzen da bestelako erabilera berriazko bat dagokiola, sektoreko arauak baimentzen dituen eta sailkapena egiten duen planeamenduak zehazten dituen jarraibideetan oinarriturik. Lurzoruaren erabilera ez da soilik ez-urbanizagarri gisa esleitzen zaion tituluaren baitakoa –izan ere, sailkapen horrek duen xede bakarra da urbanizatzeko prozesutik hura babestea, mota horretako jabetzaren ezaugarri diren eraikuntza-erabilerekin zerikusia duten hiri-jabetzako mota guztietatik at utziz–; zerikusia dauka, halaber, sektorialki ezar dakizkioken erabilera zehatzekin. (...) Ez da bidezkoa pentsatzea balizko erabilera horiek lurzoruari erants diezaioketen balioa ezartzen denik haren balizko hirigintza-erabilera aintzat harturik, baina baztertu ezineko aukera da balio hori kasuren batean zenbatetsia izatea desjabetzapen-prozedura batean balora daitekeen nekazaritza-erabilera haratagoko erabilera-aukera baten aktualizazio gisa. (...) adierazitako hipotesietan, eta antzeko beste batzuetan, zorrozki nekazaritzaren arlokoa den errentagarritasunaz bestelako errentagarritasun bat aintzat harturik lur-saila baloratzea ez litzateke izanen 8/1990 legean (katastroko balioak zehazteko irizpideei jarraikiz hasierako balioa zehazteari buruzkoan, alegia) agindutakoaren aurkakoa. Izan ere, toki ogasunen legeko 68.2 artikuluko azken lerroak ahalbidetzen du, fak-

tore tekniko-nekazaritzakoez eta ekonomikoez gain, "pairatzen dituzten beste baldintza batzuk" aintzat hartzea.

Jurisprudentzia hori eragozpenik gabe hartu du Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietako salak 2001eko urriaren 8ko epaian, non, era berean, eta Auzitegi Gorenaren 1997ko ekainaren 20 eta 21eko epaiak aipatuz, ez-urbanizagarri gisa sailkaturiko lur-sail desjabetuen hirigintza-aukerak baloratzen baititu, nekazaritza-balio hutsaz haratago.

Bestalde, eta gai honi buruzko azalpenak amaitzeko, Nafarroako Unibertsitate Publikoa kokatzeko xedez desjabetu ziren lur-sail batzuk direla-eta Auzitegi Gorenak emandako epai-multzo baten bidez ezarritako doktrina ere aipatu behar dugu. Unibertsitate hori lurzoru urbanizagarri ez-programatu gisa sailkaturiko lurzoruan eraiki zen, zeinak, balorazioei dagokienez, lurzoru ez-urbanizagarriaren antzeko tratamendua baitauka, 1992ko legearen arabera (Auzitegi Gorenaren 2000-12-19ko epaia –RJ 10018–, 2001-01-16koa eta 2001-02-10ekoa, oinarri berberak erabiltzen dituzten beste askoren artean). Antzeko epaiak aipatuz, arlo honetan aplikatzekoa den doktrina bildu da, eta honakoa utzi da ezarrita lurzoru ez-urbanizagarriari dagokionez: "(...) Erabilera dotazionalerako edo sistema orokorretarako lurzorua ez-urbanizagarri gisa sailkatua egon arren, haren balorazioa, sistema horiek desjabetzapearen bitartez exekutatzeari dagokionez, egin behar da lurzoru urbanizagarria izanen balitz bezalaxe, zeren eta, bestela, planeamendutik eratorritako onurak eta zamak berdintasunez banatzeko bete-beharra ez bailitzateke beteko".

Arlo horretan epaileek eman dituzten ebazpenak ikusita, erabaki behar da ea Iruñeko Ibai Parkea lurzoru dotazional gisa ala sistema orokor gisa hartu behar den; hori dela-eta, derrigorrezkoa da argitzea zein diren aplikatzekoa den planeamenduan hari buruz ezarritako hirigintza-xedapenak. Horrela, Iruñeko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorrak lurzoru ez-urbanizagarri gisa sailkatzen du aipagai dugun lurzorua, eta "ibai parke" gisa erabiltzeko kalifikatu diren eremuen artean sartzen du. Planak esaten du ezen eremu horiek ibai-parkearen izaera dutela, aisialdikoa eta naturala, eta hiriaren egitura orokorraren osagai direla; eta, horregatik, erabilera publikokoak izanen direla.

Baldin eta aipaturiko ibai-parkea hiriaren egitura orokorraren zatia baldin bada, udal planak esaten duen bezalaxe, eztabaidatu ahalko litzateke ea tokiko dotazio bat den ala sistema orokor bat; baina, edonola ere, begi-bistakoa da bi horietako bat izanen dela. 10/1994 Foru Legea garatzen

duen erregelamendua onesten duen apirilaren 3ko 85/1995 Foru Dekretuko 10. artikulua sistema orokorren definizio kontzeptual bat eskaintzen du, baita haien deskribapen aski xehekatu bat ere. Arau horrek ematen duen definizioaren arabera, sistema orokorrak dira lurraldearen egitura organiko eta funtzionaleko oinarriko elementuak, biztanleen zerbitzu orokorraren baitan daudenak, eta behartzen du sistema horien erabilera eta titulartasuna publikoak izan daitezen. Ohar bedi ezen, arau horrek bezalaxe, Iruñeko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorrak, aipaturiko ibai-parkeari dagokionez, hiriarekin egitura-harreman bat izan dezan ezartzen duela, eta erabilera publiko orokorreko eta titulartasun publikoko zerbitzu gisa definitzen duela; hain zuzen ere, aipaturiko artikulua sistema orokorreari dagokienez egiten duen modu berean. Gainera, arau horretako 1.c) letrak sistema orokorren artean sartzen ditu hirietako parkeak, berdegune handiak, plazak, pasealekuak eta bulebarrak, eta horien artean sartuta daude ibai-parkeak ukitzen dituen eremuak, halaxe ezarri baitu udal planak.

Ondorioz, desjabeturiko lur-sailari buruz udalak egin duen balorazioa, soil-soilik lur-sailaren nekazaritza-balioaren arabera eginikoa, ez da zuzena, ez baititu aintzat hartu planeamenduak erabilerei buruz ezartzen dituen hirigintza-zehaztapenak; alegia, ez du aintzat hartu jurisprudenziak ezarritakoa.

Azkenik, erreklamazio-egileek egin duten beste eskakizun bati dagokionez, alegia, amaieran ukiturik geratu den lur-azala hesolen bitartez bereizteari, bakarrik adieraziko dugu puntu hori ere guztiz argitu behar duela udalak, eta horri buruzko erantzuna eman behar duela.

Esandakoagatik, egokitzen jo zen Iruñeko Udalarri GOMENDIOA egitea, lehenik eta behin berrikus zedin [...] jaun-andreei haien jabetzako lurak desjabetzeagatik eskainitako prezioa, eta planeamenduak zehazturiko hirigintza-erabileren arabera aintzat hartu beharreko balioa gehitu zedin, adierazi ditugun jurisprudentzia-irizpideei jarraikiz. Bigarrenik, gomendatu zitzaion jabeen itzultzea desjabeturiko lurretatik ibai-parkeak ukitu ez dituenak, eta, lubeta kokatu deneko lur-zati desjabetuari dagokienez, proiektuak ezarritakoa ea zati horretan errespetatu ote den ziurtatzea, horretarako egiaztatuz ea erabilitako lur-azalera handiagoa ote den proiektuan adierazitakoa baino; horrez gain, gomendatu zitzaion edozein kasutan ere tokian bertan, lur-sailean, zehatz zezala desjabeturiko lur-azalera zein zen.

Gure gomendioari erantzunez, Iruñeko Udaleko alkatetzak emandako ebazpena jaso genuen,

zeinak hein batean onartzen baitzuen gomendioa. Ebazpen hartan ontzat ematen zen ibai-parkearen ondorioz ukitu gabe gelditu ziren lurrak jabeei itzultzea, bai eta lubetari zegokion zati desjabetua proiektua aintzat hartuz ikuskatzea ere, hura udalak beharrezkoa duen lur-azalerari egokitzeko.

Jabeei eskainitako prezioari dagokionez, ordea, gomendioa ez zen onartu, desjabetzapenaren balio justuaren zehaztapena Desjabetzapenen Epaimahai Probintzialari zegokiola jotzeagatik. Udalaren aburuz, lurzorua balioa apirilaren 13ko 6/198 Legeari jarraikiz zehaztu da, eta ez da partikularren babesgabetasunik gertatu, aipaturiko organismoak ezarriko baitu azkenean ordaindu beharrekiko prezio justua.

Dena den, espediente honetan izan dugun esku-hartzea amaitutzat jo aurretik, erreklamazio-egileek beranduago aurkeztu zuten beste eskaera bati heldu behar izan genion, kexarekin zerikusizuzena baitzuen. Agertzen zuten, udalak hesi metaliko bat ezarri zuen "Lagun Artea" sozietatearen jabetzako finka batean, arrazoi beragatik desjabetua izan zen batean, alegia, zeina haien finken antzeko egoeran baitago. Hesiak finken mugaren luzera guztia hartzen du, ibai-pasealekua egin zenean agerian geratu zena. Ondorioz, udalari eskatzen zioten sozietate hark izandako tratamendu bera izan zezatela, eta finken itxura jar ziezaiela. Horrela, bada, gai horri buruz galdetu genion udalari, baina ez dugu lortu udalak horri buruzko erantzuna ematerik. Ondorioz, informazio hori eskueran izan gabe espedientea amaitutzat jotzera behartuta egon gara, eta gertatu den horren berri txosten honetan ematea erabaki dugu.

ETXE BAT ERAIKITZEA LEHENDIK ZEUDEN BESTE BATZUEN ONDOAN.

AURREKARIAK

Lizarrako eraikin bateko jabeekideen elkarteak kexa bat aurkeztu zuen (02/62/U espedientea), eraikin horren ondoan egiten ari ziren eraikin batek, haien iritziz, udaleko hirigintza-arauak urratzen zituelako.

Jakinarazi zigutenez, Lizarrako Udalak obra-lizentzia bat eman zuen, etxebizitza mugakideen artean errespetatu beharrekiko 3 metroko gutxieneko distantzia errespetatzen ez zuen eraikin bat egitea baimentzeko –dirudienez, gai hori jurisdikzio zibileko auzitegien eskuetan utzi dute, haiek ebatz dezaten–. Hala eta guztiz ere, lizentzia hori emateari eta indarreko hirigintza-planeamendua araberakoa den ala ez ote den erabakitzeari dagokionez, eskatu zuten lizentzia emateko prozesua azter zedila, hirigintza-arloko araudia urratu

ote zen edo lizentzia ematean hirigintza-arloko nolabaiteko arau-hausteren bat egin ote zen jakiteko eta, urraketarik izanez gero, hirigintza-arloko araudia errespetarazteko beharrezkoak ziren neurriak har zitezen.

Gainera, arartekoaren erakundeari jakinarazi zioten ezen, udalari 2001eko uztailaren 3an idazki bat aurkeztu ondoren, non zenbait gogoeta egiten zituzten eta neurri jakin batzuk har zitezen eskatzen baitzuten, kexa aurkezteko unean oraindik idazki haren inolako erantzunik jaso gabe zeudela, eta 2002ko otsailaren 12an beste idazki bat aurkeztu zutela, aztergai dugun espedienteari buruzko zenbait ohar biltzen zituena.

Lizarrako udalari kasu honi buruzko informazioa eskatu ondoren, bertako alkateak hurrengo erantzuna igorri zigun:

"1.- ZER ERANTZUNEN DION UDALBATZA HONEK [...] JAUNAK 2002KO OTSAILAREN 12AN AURKEZTURIKO IDAZKIARI, ETA ZERGATIK EZ ZITZAION ERANTZUNIK EMAN [...] JAUNAK 2001EKO UZTAILAREN 3AN AURKEZTURIKO IDAZKIARI

1.1.- 2001eko uztailaren 3ko erantzuna.

Idazki hori salaketa gisa aurkeztu zen, [...] jaunak adierazten duenez, eta bertan aitortzen da emandako lizentziaren esparrutik kanpokoak direla jabetza-auziak, eta horregatik ez dela bidezkoa bizilagunei jakinarazpenik egiterik, ez kasuko hirigintza-plana onesteko unean, ezta lizentzia tramitatzean ere. Salatzen den "hirigintza-arloko izugarrikeria" horri dagokionez, lizentzia eman zen planak xedaturikoari jarraikiz, eta ez beste inola. Egoera horretan, udalak ezin du esku hartu eskatzen zaion moduan eta, ildo horretatik, hirigintza-arloko legezkotasunaren defentsari dagozkion neurriak hartu ere, hain zuzen ere, ez baita arauhausterik, errakuntzarik edo hutsunerik izan hirigintza-arloko onespentan, ez eta obra-proiektuan ere (betiere, salaketan erabilitako hitzak erabiltzeren).

Aurkezturiko idazkia berraztertze-errekurtso gisa kalifikatuko balitz ere, Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean ezarritako hilabeteko epea igaro denez, administrazio-isiltasun negatiboa aplikatuz ezetsitzat jo behar da eginiko eskaera, lege horretako 43.2 artikuluari jarraikiz. Ustezko ezespren horren aurka zilegi diren gora jotzeko errekurtsioak aurkeztu ahalko zaizkio Nafarroako Administrazio Auzitegiari, edo bestela administrazioarekiko auzien bidetik errekurritu ahalko da.

Egoera hori ikusirik, zeinean administrazioak jotzen baitu berak esku hartzea ez dela egokia, espedientea hirigintza-arloko araudiaren arabera-koa izateagatik, eta hari soilik dagokionez kasu honetan udalaren jardunari bultzada ematea, gogoan izan behar da ezen, 2001eko uztailaren 3an aurkezturiko idazkiari espresuki emandako ezein erantzunen konstantziarik ez dagoen arren, alkatetzak askotan egin izan dituela bilerak egoera pairatzen dutenekin, eta bilera horiek idatzizko erantzuna formalki ordeztan ez duten arren, interesdunak udalaren jarreraren jakinaren gainean egon daitezten balio dutela. Bilera horietan, interesdunek beraiek egiaztatu ahalko duten bezala, udalak bizilagunen arteko bitartekotza-eginkizuna besterik ez zuen egin, emandako lizentziari zuzen irizten ziolako. Horren emaitza izan zen lizentziaren onuradunak baloratzea zenbateko kalte-ordaina legokiokeen aipagai dugun eraikinak hirugarren solairu bat izateari hark uko egiten bazion. Ustez kalteturiko bizilagunek ez zuten balorazio hori onartu.

Auzi zibilari dagokionez, administrazio honek jakin ahal izan duenez, kasuaren arabera egokia den errekurtsoa aurkeztu da jurisdikzio zibilean.

1.2.- 2002ko otsailaren 12ko erantzuna.

[...] jaunak idazkia aurkeztu zuenez, administrazio honek txosten bat eskatu zion Lizarrako Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorren egileari, eta hura 2002ko apirilaren 3an jaso zen udaletxe honetan. Horrela, bada, kasuko batzordeei dei egitea falta zen, gaia aztertzeke eta bidezkoa zena ebazteko. Txostenak lotesleak ez direnez gero, bistan da batzordeen jarrera eta udal organo eskudunaren ebazpena jakin beharra dagoela; hori dela-eta, ezin da aurrez ziur esan zein izanen den emaitza, nahiz eta aurreikustekoa den eginiko txosten teknikoak adierazitakoaren arabera-koa izanen dela, eta egokitzat jotzen diren azalpen eta ñabardura guztiak eginen dituela; dena den, horien berri behar bezala emanen zaie interesdunei, edozein kasutan ere.

2.- UDALEKO HIRIGINTZA ARAUDIA ETA 2001EKO MAIATZAREN 25EKO 64. NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN ARGITARATURIKO AKATS-ZUZENKETA.

2.1.- Udaleko hirigintza-araudia

Eztabaidagai den eraikina Lizarrako Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorreko 20-4 U.P.P. unitatean sartuta dago. Plan horretan sarturik daude plana onetsi aurretik onetsiriko plan partzialeko hirigintza-zehaztapenak.

Hirigintza Araudi Partikularreko 58. artikulua kopia erantsi dugu, bai eta geroago eginiko akats-zuzenketarena ere.

2.2.- Akats-zuzenketaren eragina

Eraikuntza-proiektua aurkeztu ondoren, ikusi ahal izan zen akats bat zegoela eraikin berriaren eraikuntza-arloko aukerak jasotzen zituen taulan. Horrela, 20-4 U.P.P. unitatearen planoan eta deskribapenean behe-solairuz gehi beste hiru solairuz osaturiko bolumen alternatibo bat argi ezarriko zegoen arren, erantsiriko laburpen moduko taulan ez da agertzen hirugarren solairuari dagokion zutabea. Halako hutsa ikusirik, planaren egileei kontsulta egin ondoren hartutako erabakia izan zen aipaturiko akatsa zuzentzea, ahalik eta bermerik gehienekin eta publizitate handienarekin, argi baitzegoen hura ez zela udal planaren berrikuntza bat, baizik eta akats baten ondoriozko zuzenketa bat.

3.- OBRETARAKO LIZENTZIA

3.1.- Formari dagozkion alderdiak

Lizentzia emateko erabilitako prozedura da azaroaren 26ko 30/1992 Legeak agintzen duena; hau da, hasiera, instrukzioa eta ebazpena; horrez gain, eta prozedurari dagozkion alderdietan eragin txikiagoa duen arren, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 223. artikulua ezarritakoa.

3.2.- Txostenak

Espedientean udal-arkitektoaren zenbait txosten tekniko jasota daude, bai eta udalbatzako idazkariaren oniritzi juridikoa eta nahitaezko bizigarritasun-txosten aurretiazkoa ere, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 223.7 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

3.3.- Aplikatu zen hirigintza-araudia

Lurzatiari dagozkion berariazko zehaztapenak, Lizarrako Hirigintza Antolamenduari buruzko Plan Orokorreko 20-4 U.P.P. unitatean jasoak. Haien kopia bat erantsi da."

ANALISIA

Kexa honen gaia da behe-solairuz eta beste hiru solairuz osaturiko eraikin bat egitea erreklamazio-egileen alboko leihoretatik hurbil (2,30 metrora). Eraikin berri horri horma bat jarri diote, inolako leihorik ez duena eta lurzorutik hasita eraikinaren gehieneko altueraraino luzatzen dena. Horrek eragin larria dauka alboko bizilagunen etxebizitzaren argi eta bistetan, eta orain arte izan

ez den kalekka bat sortzen du; ondorioz, multzo osoak itxura estetiko negatiboa hartzen du.

Eraikin berria egin deneko orubeak udal planeamenduko 20.4 U.P.P. unitatea osatzen du, eta 177 metro koadroko azalera dauka. Arauetako 58. artikulua, zeinak unitate honen hirigintza-araudia ezartzen baitu, lehendik zegoen eraikin bat kontsolidatu zuen, eta haren ordezkotako eraikin berri bat, behe-solairuz eta haren gainetik beste hiru solairuz osatua, egitea baimentzen du.

Araua hasieran izan zuen testuan akats bat zegoen solairu bakoitzaren azalera zehaztean, izan ere behe-solairua eta lehen bi solairuak bakarrik aipatzen zituen, eta hirugarrena, nonbait, ahaztu egin zuen. Hori kontraesanetan zegoen arauak unitate honetarako ezartzen zituen altuerekin. Arauari koherentzia ematearren, Lizarrako Udalak prozedura egokia izapidatu zuen akatsa zuzentzeko; horrela, ahazturiko solairuaren azalera zehaztu zuen. Ez daukagu inolako zalantzarik planak –arauak hasieran izan zuen testua izanda ere– unitate horretan behe solairu gehi hiru solairuko eraikin bat egitea ahalbidetzen zuela, izandako ahanztura izan arren, zeren eta, inguru guztian unitate mugakideetarako altuera horietan berak ezarritako egoteaz gain, udalak aurkezturiko planoan argi eta garbi ikus daitekeenez, kontua da 58. artikulua lehen zeukan testuak espresuki ezartzen zituela altuera horiek, nahiz eta, solairu bakoitzaren azalera zehaztean, goiko solairuaren azalera aipatzea ahaztu.

Egoera horren alderdi faktikoak eta juridikoak abiapuntu gisa hartuta, auzitan jarritako eraikina egiteko eman zen obra-lizentziaren legezkotasuna aztertu dugu, eta ondorioztatu dugu udalak jokatu duela Lurrearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 222.1 artikulua agintzen zionari jarraituz (aipaturiko artikuluan xedatzen da lizentziak emanen direla legerari eta planeamenduari jarraituz). Planeamenduak behe-solairuaz gain beste hiru solairu eraikitzea baimentzen bazuen, obren sustatzaileek eskubidea zeukaten baimena izateko, udal-txostenak baieztatzen duen bezala. Horri buruz, ez da ahaztu behar horrelako lizentziak emateko boterea arautua dela, jurisprudentziak errepikatu izan duenez; hau da, lizentzia ukatzea bidezkoa litzateke soilik baldin eta obrak planeamenduaren aurkakoak balira; planeamendua beteko balute, udala behartua legoke lizentzia ematera. Betiere, hirugarrenen balizko zuzenbide zibilak babesturik leudeke, auzitegi arruntetan defenda baitaitezke, bizilagun kaltetuek egin duten bezalaxe. Ez da ahaztu behar hirigintza-arloko administrazio-botereek bete-betean eragiten dutela jabetza-eskubideetan; horrela,

administrazio publikoek ezin dute jokatu, eta halakorik ez dute zilegi ere, haien botereak guztia-haldunak balira bezala, legeak zorrozki ezartzen baititu botere horien erabilerearen muga gaindiezinak. Muga horiek honakoan hezurramitzen dira: kasu bakoitzean aztertu behar izatea ea obrak planeamenduaren araberrakoak diren, bestelako gogoetetan sartu gabe.

Beraz, lizentzia emateari dagokionez, gure iritzia Lizarrako Udalaren aldekoa baizik ezin da izan, legeak agindutakoari bete-betean jarraituz jardun baitu lizentzia hori ematean.

Hala eta guztiz ere, kasuaren ezaugarriak gogoan izanik, aipagai daukagun ingurura bisita egin genuen, eta bizilagunek baieztatzen dutena egiaztatu. Horixe bera azaltzen dute aurkezturiko argazkiek, eta azkenean ondorioztatzen den ideia honako hau da: lizentzia legezkoa izatea alde batera utzita, udalak badituela beste botere batzuk, eta horiek erabiliz iritsi beharko zela azkenean harturiko erabakia baino hobea den hirigintza-konponbide batera. Udalak eskudun dira ez bakarrik lizentziak emateko, baizik eta planeamendu-tresnak erabiliz hiria hirigintzaren ikuspegitik planifikatzeko ere, uztailaren 4ko Lurrearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeko 111. artikulua eta hurrengoek xedatzen duten bezala. Eskumen horiek erabiltzen dira Nafarroako Gobernuarekin batera, hari baitagokio udal-planei behin betiko onespina ematea; dena den, azpimarratu behar da foru administrazioari esleituriko eskumenak batez ere "lurrearen antolamendu" deritzonari buruzkoak direla, eta ez kexa honetan adierazitakoa bezain alderdi puntualeri buruzkoak, non udalek taxaturiko hirigintza-antolamenduko diseinuak lehentasuna duen, ez duelako lurrearen antolamenduan eragiten.

Egia da hirigintza-planak taxutu ahal izateko zuzentzarako ahalmen handia eduki behar dela, hiri baten diseinua erabakitzeko eginkizun zailari ekin ahal izateko. Legeak nahiko askatasun handia ematen die udalei kasu bakoitzean erabaki ahal izan dezaten egoki iruditzen zaien antolamendumota, baina zuzentzaren araberrako ahalmen horiek erabili behar dira arrazionaltasun eta arrazoi-kotasun printzipioak muga dituztela; izan ere, printzipio horien araberrako epaitu daiteke administrazio-egintza bat arrazionala ote den legearen logikaren ikuspegitik, eta era berean, erabakitako soluzioa arrazoi-kota ote den erabilitako bitartekoen eta helburuen ikuspegitik.

Gauzak horrela behatuz, ikusten dugu planak baimena ematen duela aipatu dugun orubean behe-solairua eta haren gainetik hiru solairu dituen eraikina egiteko; alabaina, azalera soilik 177

metro koadrokoa da, eta metro horiek banatuta daude eraikuntza-lana zail egiten duen modu batean, orubea oso luzea eta estua baita. Logikoa denez, bizilagunen etxebizitzetatik distantzia bat uzteak nabarmen murrizten zuen eraikigarritasuna, oraindik estuago egiten baitzuen orubea; horregatik, sustatzaileek, bidegabeki, ez dituzte legezko zortasunen gutxieneko distantziak berak ere errespetatu. Azkenean gauzatu den emaitza, lizentzia legezkoa izan daitekeela alde batera utzita, nekez izan daiteke onargarria gaur egun eskatzeoak diren hirigintza-parametroen ikuspegitik, auzian zeresana daukaten alderdi guztiek emaitza hori ikuste hutsarekin ondoriozta dezaketenez: kalteuriko bizilagunek horma bat daukate beren leihoetatik oso hurbil; estua eta luzea da aipaturiko kalekka, eta multzo osoak gabezia estetiko larria agertzen du. Gainera, horrek guztiak erakarri du etxebizitzaren kalitateak egiazko galera bat pairatzea. Egoera hori begi-bistakoa iruditzen zaigu, eta une honetan ez du behartzen egiaztatze-urrats gehiagorik egitera.

Azaldutakoa bezalako egoerak gerta ez daitezkeen, legeak planifikazioa egitera behartzen ditu administrazio publikoak, hirigintzaren jarduna behar bezala jorratzen dela bermatzeko. Horretarako, printzipio, botere eta tresna multzo bat ezartzen du, jardun hori orekatua eta dauden interes publiko eta pribatuei egokituia izan dadila ziurtatzeko, eta, batez ere, arrazoizkoa izatea eta, horrela, hautaturiko ereduak legearen helburuak lortzeko balio izatea ziurtatzeko. Plangintza-botereak erabili ahal izateak esan nahi du legearen bitartez ahalmen edo eskubide batzuk, zentzu zabalean ulertuak, esleitzen direla, baina, hori ez ezik, horrekin batera legeak ahalmen edo eskubide horiek nahitaez erabiltzera behartzen duela ere. Udalek zeinek bere herriaren hirigintza-garapena planifikatzeko ahalmena daukate, baina, era berean, garapen hori egiteko betebeharra ere, eta gainera, arrazoizko moduan eta legeari jarraikiz jarduteko.

Aztertu dugun kasuari dagokionez, gauza nabaria da ezen planifikatzaileak, Lizarrako Udalak alegia, udal planaren bitartez hautaturiko soluzioa dela lizentzia eman denean sorturiko egoera kaltegarriaren erantzulea. Horri buruz zehaztu behar da aipaturiko erantzukizuna erakundearena dela, pertsona juridiko gisa, hauteskunde-aldi bakoitzean kudeatzaile suertatzen direnak suertatzen direla ere, egoera hau aspaldikoa baita, gai honetan maiz gertatzen den bezala.

Horrela, kontua da erreklamazio-egileen etxebizitzak kokaturik dauden orubearen jabe izan zenak etxebizitza haien eraikuntzaren sustapena egin zuela aintzat hartu gabe orain eraikina egin

deneko lurzatiaren eraikuntza-arloko balizko interes edo eskubideak. Hori horrela, diseinatu zituen etxebizitzek lurzati horretara ematen duten leihoak zituzten, eta etxebizitza horiek saldu ahal izan ziren kanpoaldera ematen duten etxebizitzak balira bezala; hots, haren interesentzat mesedegarrien zen moduan. Jakina, garai hartan behar bezalako plangintza izan balitz, bi lurzati horien eraikigarritasunaren antolamendua, eta baita haien mugakide direnena ere, bateratua izanen zen, ekitatezko soluzioak ziurtatzeko eta hirigintzako printzipio garrantzitsu bat bermatzeko, zeina baita eskubide eta zamak lurzorua jabeen artean berdintasunez banatzearena, legediak betidanik ezarri duena. Behar bezala eginiko hirigintza-kudeaketak eragotzi behar du lehendabizi jarduten duen etxebizitza-sustatzaileak abantailak lortzea arrazoi horregatik, eta alboko jabeen orubeen eraikigarritasuna murrizturik gelditzea; hirigintzaren garapenak behartzen du zamak eta onurak lurzorua jabe guztien artean banatzera. Bestalde, lurzatiaren eraikigarritasuna taxuzkoa ez den kasuetan, lurzati-berrantolamenduaren teknika erabiltzen da, zeinaren bidez guztiek beren finkak batzen dituzten, eta hortik abiatuta lurzatiak eraikigarritasunaren mesedetan antolatzen dituzten, nork bere eskubideen neurrian.

Aztergai dugun kasuaz denaz bezainbatean, esaten denez, erreklamazio-egileen etxebizitzak orain dela hogeitun urte inguru eraiki ziren, eta hautaturako diseinuak ez zuen legezko oztoporik izan, nahiz eta ordurako aurreikusteko modukoa izan zen mugakide ziren lurzatiekin batera haien tratamendu bateratua egitera behartu ezean zer-nolako arazo sortu ahalko ziren. Horrela, bada, pentsatzen da sustatzaileak eraikina zuzenbidearen arabera egiteko aukera izan zuela, eta orain, ordea, eraikin berria dela-eta, fede onez eta arazo horren jakitun izan gabe etxebizitzak erosi zituzten bizilagunak plangintza txar baten ondorioak pairatzera behartuak izan dira. Haien pentsatu zuten beren etxebizitzek kanpoaldera ematen zutela, baina ezaugarri horren zergatia zen, berez, alboko jabeak bere lurzatiaren eraikitzeko eskubidea oraindik erabili ez izana. Eta erabili duenean, ikusi ahal izan da bere betebeharrak bakarrik izan dela argi eta bista zortasunak errespetatzea, eta ez dela behartua egon eraikitzeko zituen aukerei uko egitera. Halaber, egiaztatu da erreklamazio-egileen etxebizitzek ez zutela berez kanpoaldera ematen, ez baitaude bide publiko aldera irekita.

Hala eta guztiz ere, lurzati eraikigarrien tratamendu bateratu baten bitartez plangintzak bere garaian soluzio egokiagoak aurreikusi izan balitu, ziur aski erreklamazio-egileen etxebizitzek ez zuten horrela ere kanpoaldera emanen, orubeek

kalearekin alderatuta daukaten sakonera aintzat hartuz; horrela, bada, balizko soluzio bat izan ahalko zen lurzatiaren artean barne-patio komunak egin izana. Baina gauzak horrela eginez gero, erosi behar zuten etxebizitza-motaren jakinaren gainean behintzat egonen ziren kexa-egileak.

Ondorioz, egoera nolakoa zen kontuan hartuz, egin zitekeen gauza bakarra zen, gure ustez, udalak ziurta zezala kexa-egileen leihok aurrez aurre daukaten horma behar bezala txukuntzen zela, ikusizko eragin estetikoa hein batean arintzearen. Horrez gain, kasu honetan ezer gutxi egin daitekeela iruditzen zaigu, ez bada gogoraraztea udalak dituen plangintza-ahalmenak zorrotzasunez erabili behar direla, hiria parametro egokien arabera diseinatzeke, azaldutakoa bezalako egoerak gerta ez daitezen.

Adierazitakoagatik, egokitzen jo genuen Lizarrako Udalaririk IRADOKIZUNA egitea, ahalik eta epe laburrenean kexa-egileen leihok aurrez aurre daukaten hormaren eragin estetikoa arintzeko neurriak har ditzan.

Halaber, LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZ-PENA egin diogu, gai honetan errespetatu beharrekoak diren parametroen arabera erabil dezan hirigintza-plangintzaren boterea, aztergai izan dugun kexa sortarazi duen egoeraren antzekorik gerta ez dadin.

Udal horretako alkateak jakinarazi zigun gure oharrak onartzen zituela. Hormari dagokionez, adierazi zigun ezen, eraikinaren lehen erabilerarako lizentzia eman zenean, obra-proiektuan ezarritako behin betiko tratamendua bazeukala jadanik, eta gai hori ebatzi zela kaltetuekin negoziazioak egin ondoren.

Udal horri adierazi genion beste puntuari dagokionez, adierazi zitzaigun gure oharrak kasuan kasuko zerbitzuari helaraziko zizkietela, bai eta Hirigintza Batzordeari eta Lizarrako Hirigintza Antolamenduko gaur egungo Plana kasua bada berrikusiko duen erredakzio-taldeari ere.

ENPRESA BATEN INSTALAZIOAK BAIMENIK GABE ERAIKITZEA.

AURREKARIAK

Kexaren (02/241/U espediente) zergatia izan zen kexa-egileak irregulartasun batzuk antzeman zituela Corellako Udalarena zen herrilur batean enpresa baten instalazioak handitzeko lanetan; hain zuzen ere, bere ustez anomalia batzuk gertatu ziren bere familiaren lurzati bat udal katastroan inskribatzearen eta babes ofizialetarako zen lur-

zati batean prezio libreko etxebizitzak eraikitzearen kariaz.

Salaturiko lehen puntuari dagokionez, jakinarazi zigun Corellako Udalak 1997an baimena eman zuela kontrapisu industrialen fabrikaren instalazioak handitzeko [...] ez-urbanizagarri gisa kalifikaturiko herrilur batean, egokitasun politikoko irizpideak kontuan harturik, eta geroago lurzati hori enpresaren jabetzakoa zen beste batekin trukatu zuen.

Alabaina, udalbatzako idazkariak berak 1998ko apirilaren 15eko txosten batean adierazi zuen bezalaxe, aipaturiko jarduera-handitzerako eta lurzati-trukerako lege ezarritako prozedura ez zen bete.

Handitze-baimena eman eta gero, udal horrek nahitaezkoa zen tramitazioari ekin zion, 1999ko maiatzaren 10eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarki bat argitaratuz, herrilur bat desafektatu eta ondoren partikularren finkekin trukatzeari buruzkoa. Hala ere, interesdunaren arabera, ondoren eginiko jarduera guztiak lege kanpokoak lirateke, lehen adierazitako prozedura ez errespetatzearen ondorioz.

Bestalde, interesdunak ohartarazten du jarduera sailkatuaren lizentzia ematearen inguruko balizko lege-hauste bat ere egon litekeela. Puntu horri dagokionez, salaketa aurkeztu zion Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, esanez enpresaren jarduerak sorturiko ur- eta hondakin-urak [...] kanporatzen zirela bere jabetzapeko finka batera, eta ondoren ureztaketarako ur gisa banatzen zirela. Ureztatze Sindikatuak egoera horren egiazkotasuna berresteko eginiko idazki bat ere erantsi zuen. Idazki hori, ordea, kontraesanean zegoen organismo horrek berak jarduera sailkaturako kasuko espedientearen aurkezturiko beste batekin, zeinaren arabera hondakin-urak isurtzen baitziren ureztaketarako erabiltzen ez zen ubide publiko batera. Kontraesan hori ikusirik, aipaturiko puntuari buruzko informazioa eskatu zion Departamentuari udal horri. Ikerketa horren emaitzari buruzko ezer ez zaio jakinarazi salatzaileari; hori dela-eta, puntu horiei buruz behar bezalako informazioa eman dakion eskatzen du.

Bigarrenik, adierazten du katastroko ziurtagiria eskatu zuela 7. poligonoko 71. finkari buruz, zeina bere aitaren jabetzakoa baitzen. Udal horrek informazio hori ukatu egin zion, eta horregatik Nafarroako Gobernuaren Lurralde Aberastasunaren Zerbitzura joan behar izan zuen, finka horri buruzko datuak bidal diezazkieten: finkak pairaturiko esku-aldaketak eta finkaren egiazko azalera –inguruetako bizilagun batek finkaren azalera zein zen ezbaian jartzen baitzuen–. Horretan oinarriturik, finkaren

egungo egoera zein zen jakinaraz ziezaioten eska-tu zuen.

Azkenik, adierazten zuen 7. poligonoko 133. lur-zatia berak gainerako jabeekin batera [...] enpresari saldu ziola, merkatuko prezioa baino zenbateko txikiago baten truke, bertan babes ofizialeko etxebizitzak eraiki behar baitzituzten. Hori, ordea, ez da egin, eta horrelako etxebizitzaren ordez prezio libreko etxebizitzak eraiki dira.

Lehen adierazitakoan oinarrituz, eta kexa-idazkian azaltzen ziren puntu guztiak aztertu ondoren, Corellako Udalari informazioa eskatu genion herri-lurra desafektatu eta ondoren hura partikular bati lagatzeko erabilitako prozedurari buruz, egiazki eginiko trukeari buruz eta obra-lizentzia eta jardue-ra sailkatuaren lizentzia emateko prozedurari buruz.

Eskaera hartan, halaber, 7. poligonoko 71. fin-kari buruzko katastro-informazioaz, bere gaur egungo jabeaz eta azaleraz eta, azkenik, 7. poligonoko 133. lurzatian eraikitako etxebizitza-motaz ere gal-detu genuen, egiaztatu nahi baikenuen ea bene-tan proiektuan jasota ote zegoen babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea, eta jakin nahi baikenuen zein arrazoi zirela-eta justifika zitekeen eraikuntza-ren kalifikazioaren aldaketa.

Gogorazpena egin ondoren, Corellako Uda-lak bere txostena eta galdetu genizkion gaietako batzuei buruzko dokumentazioa igorri zizkigun, eta horietan ondorioztatzen da [...] enpresaren espedi-entea dela-eta geroago eginiko jarduketei esker lorturikoa dela, hain zuzen ere, hasierako egoera-ren erregularizazioa. Era berean, enpresa horreta-ko uren kanporatzeari dagokionez, adierazi zuen zein ekintza gauzatu ziren antzemandako okerrak zuzentzeko: azkenean, hobi septiko bat egin da, enpresa horretako aldageletatik kanporaturiko hondakin-urak biltzen dituen.

Azkenik, katastro-informazioa ukatzeari buruz, udalak adierazi du ez daukala halako ezein ukoren konstantziarik, eta horregatik galdetzen du zein izan zen eskaera zehatza, eta udalak ustez eman zuen ezezko erantzuna.

ANALISIA

Lehenik eta behin, beharrezkoa deritzogu honako hau esanda uzteari: udalak bidali zigun informazioa, galdeturiko puntuetako batzuei zego-kienez osoa zen arren, ez zen guztiz argigarria eta behar adinakoa beste batzuei buruz. Halaber, kexa-idazkian azaldutako puntuak kasu batzuetan modu nahasian adierazita zeuden, eta aurrekariak guztiz argituta utzi gabe; horrek, nolabait, gure analisisa oztopatu egiten zuen.

Muga horiek izan arren, eta adierazi zaizkigun arazoak askotarikoak izan arren, zenbait ondorio iritsi genituen kasuko kexari buruz garrantzitsue-nak iruditzen zitzaizkigun bi zergatiei buruz: [...] enpresaren instalazio/handitze espedienteari dagokiona eta 7. poligonoko 71. katastro-lurzatia-ren egoerari dagokiona.

Dena den, aipatu zitzaizkigun gaietako bat ez genuen jorratu, adierazi zitzaizkigun aurrekarietan ez baikenuen Corellako Udalaren inolako egintza irregularrik ikusi.

Gai hori da kexa-egileak 7. poligonoko 133. lur-zatiari buruz azaldutakoa, alegia, berak gainerako jabeekin batera [...] enpresari saldu ziola, merkatu-ko prezioa baino zenbateko txikiago baten truke, bertan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeoak baitziren. Salatzen duenez, ordea, ez da horrela-korik egin, eta etxebizitza horien ordez prezio libreko etxebizitzak eraiki dira.

Horri buruz, komeni da gogoan izatea horrela-ko eskualdaketak direla-eta partikularrek izenpe-tzen dituzten itun edo kontratuak lotesleak direla haientzat, eta bete daitezen eskatu behar dela haien arteko eremu pribatuan.

Udalaren jardunari dagokionez, lur-sail jakin batzuek izan beharreko erabilera herri bakoitzeko hirigintza-planeamenduan jasotako xedapenek soilik erabaki behar dute. Komeni da gogoan izate-a kasuan kasuko obra-lizentziak ematean udalek daukaten eginkizun bakarra dela egiaztatzea ea eskaturikoa bat ote datorren une horretan indarre-an dagoen udal-planeamenduekin; izan ere, lizentzien ematea zorrozki arautua dago, eta her-tsihi hirigintza-arlokoa den puntu horretara mugatzen da. Partikularren artean izan daitezkeen akordio, itun edo baldintzak ez dira haien eskumenekoak, eta, halaber, ez dira haientzat lotesleak.

Aurkeztu diguten dokumentazioan Corellako Udaleko arkitektoaren txosten bat dago, lur-sail horretako zati bateko eraikuntzari buruzkoa, eta esaten du aurkezturiko proiektuak bete egiten dituela herriko arau subsidiarioek lur-sail horretarako ezarritako zehaztapenak. Horregatik, eta hertsiki hirigintza-arloko xedapenen betetzeari buruzko bestelako irizpen-elementurik aurkeztu ezean, txosten horretan adierazitakoari atxikitzea beste aukerarik ez daukagu.

Kexa-idazkiko bi gai nagusiei dagokienez, honako gogoeta hauek adierazi nahi ditugu:

[...] enpresa handitzea

Espediente honek tramite ezberdinak izan ditu, horietako batzuk denboran zehar elkarren gain

jarriak, ikusirik kexa-egileak eta udalak berak aurkezturiko dokumentuak ezberdinak direla. Hortik zenbait datu atera daitezke, azpimarratzeko modukoak direnak, gogoan izanik, batez ere, Corellako Udalak berak aurrerantzean eman ditzakeen urratsak. Izan ere, orain aipatzera goazenak 1998 eta 1999koak dira eta, beraz, guk daukagun eragin-ahalmenetik kanpo daude, arartekoaren erakundea arautzen duen foru legeak mugatu egiten baitu kexa bat aurkezteko aukera gertakarien berri izaten denetik urtebete igaro arte.

Begi-bistakoa da, eta halaxe ikusi zen Udala Hirigintza Batzordeak 1997ko abenduaren 17an eginiko bileran, enpresa batek eskaturiko obra batzuk hasi zirela garai hartan, instalazio jakin batzuk handitzeko herrilur baten gainean, artean bukatu gabe izanik urte hartako azaroan hasitako jarduera sailkatuaren espediente eta, beraz, nahitaezkoa den udal obra-lizentzia izan gabe.

Jarduera sailkatuaren espediente amaitu ondoren, industriarako nabe bat eraikitzeko obra-lizentzia eman zen, gobernu batzordeak 1998ko urriaren 13an hartutako erabakiaren bitartez, baina oraindik ebatzi gabe zegoen herrilurren desafektazio-espediente. Horien desafektazioa, hasierakoa, 1999ko apirilaren 14ko osoko bilkuran erabaki zen, eta urte bereko azaroaren 17an osoko bilkurak hartutako erabakiaren bitartez amaitu zen.

Gertakarien deskribapen hutsa nahikoa da begi-bistan dagoena eta udalak berak aitortzen duena hautemateko; alegia, enpresa handitzeko ekintza horien guztien babes juridikorik eza. Ekintza horiek geroago legeztatu behar izan dira, dela jarduera sailkatuaren espediente bukatuz eta kasuko obra-lizentziak emanez, dela herrilurrak trukatzeko aldera lur horien desafektazio-espediente formalizatuz eta bukatuz.

Aztergai dugun egoeran, administrazioak batzuetan behartuta egoten dira egitatezko bidera jotzera haien interesekoak diren inbertsio edo ekintza batzuk bermatze aldera. Hala eta guztiz ere, ezin da azpimarratu gabe utzi oinarrizkoa den zerbait, Konstituzioak zuzenbide-estatuaren agerri gorenaren aldetik jasotzen duena: alegia, botere publiko guztiak legezkotasun printzipioari lotuta daudela.

Haien jarduera guztiak antolamendu juridikoari lotuta egotea, horrela, haiek zerbitzatu behar duten interes orokorraren berme gisa agertzen zaigu eta, era berean, haien eginkizunak betetze aldera antolamendu juridikoak esleitzen dizkien botereen egiatzko justifikazioa da.

Bestalde, kasu bakoitzean egitekoak diren administrazio-egintzak –jarduera-lizentziak, obretarakoak, trukatzeko-akordioak– sortzeko ezarritako dauden prozedurak betetzeak berme bat ematen die, alde batetik, egintza horien jomuga diren pertsonen eskubide indibidualei, eta bestetik, kasuan kasuko administrazio-jarduketaren eraginkortasun, zuzentasun eta egokitasunari ere.

Administrazioak bere borondate-adierazpenak sortzeko ildo zehatz bat jarraitzearekin erdietsi nahi diren bi helburu horiek garrantzitsuak dira, baina horiek bezain garrantzitsuak da dituzten eskubideetan prozeduraren ondorioz eragina jasan dezaketen pertsonengandik prozedura horretan bertan lortu nahi den lankidetzak. Inolako zalantzarik gabe, lankidetzak hori gure antolamendu juridikoan jasotako bermerik eragingarriena da. Horrela, interesdunek administrazio prozeduran entzutea izan dezaten bermatzen da (Espainiako Konstituzioko 105. artikulua), eta herritarrei arazo publikoetan zuzen-zuzenean parte hartzeko eskubidea aitortzen zaie (23.1 artikulua), arazo horiek kudeatzeko erabiltzen den prozedura argi eta garbi adierazi nahian.

Ondorioz, instalazioak egin aurretik Ingurumena babesteko Jarduera sailkatuak kontrolatzeari buruzko Foru Legean eta hori garatzeko erregelamenduan ezarritako prozedurak jarraitu behar dira, eta alde aurretik ere bai, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legean eta Nafarroako toki entitateen ondasunen erregelamenduan ezarritako tramitazioa bete, trukeak formalizatuz.

Horregatik guztiagatik, LEGEZKO BETEBEHARRAREN GOGORARAZPENA egin zitzaion Corellako Udalari, horrelako espediente tramitazioan jardun dadin indarreko legedia osoki errespetatuz eta kasuan kasuko jarduera edo jarduketa egin aurretik beharrezkoak diren tramitazioak eta baimenak egin eta lor daitezken.

Kexa-egilearen jabetzakoa den finka batera urak isurtzea lotua dago enpresa horren jardura areagotzearekin, eta tramitazio egokia egin izan balitz bere garaian, kexa-egileak aukera izanen zuen espediente azagutzeko eta horri buruz bere interesen defentsan egoki jotzen zuena alegatzeko. Ur-isurketa horren auzia ebatzia izan dela ondorioztatzen da, zeren eta, Corellako alkate udalburuak Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentuari 2000ko urriaren 11ko idazki baten bitartez jakinarazi zionez, putzu septiko bat instalatu baitzen, enpresa horretako aldagelatik datozen hondakin-urak biltzen dituen.

7. poligonoko 71. partzelari buruzko katastro-informazioa

Kexa egiteko bigarren arrazoi honi dagokionez, eta udalari eskatzen zaion informazioaren ikuspegitik funtsezkoak diren gertakarietara mugaturik, kontua da 7. poligonoko 71. partzelak, 1987ko maiatzaren 7an zeukan hasierako kalifikazioa hirilurra-rena zela, katastro berria ezarri zenean, eta haren titular gisa Corellako Udala agertzen zela, eta parentesi artean "ezezaguna" erreklamatu izaten ez zen bitartean, haren jabea ezezaguna baitzen, Nafarroako Gobernuaren Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuaren 1999ko uztailaren 28ko txostenak adierazten zuenez.

Geroago, 1993ko martxoaren 31n, balioespen-ponentzia berria onetsi zenean, landalur gisa hartua izatera pasa zen, eta beraz, hirilur-katastrolik at utzi zen.

1998ko maiatzaren 14an katastroko titulartasun-aldaketa egin zen, Corellako Udaletik [...] izeneko jaun/andrearengana (jadanik hila), [...] legegariaren eskarian oinarrituz. Horrekin batera Tuterako Jabetza Erregistroaren informazio-oharra aurkeztu zen, non adierazten baitzen oinordekoek nahi zutela hildakoaren izenean inskriba zedila, herentziarekin zerikusia zeukaten zenbait arazo argitu bitartean.

Era berean, 1999ko urtarrilaren 27an, finka horren katastro-titulartasuna ofizioz aldatu zen, [...] jaun/andrearen mesedetan, salerosketa baten ondorioz. Salerosketa horren berri ematen du Corellako notario den [...] andreak 1998ko apirilaren 27an luzaturiko eskritura publikoak, protokolo-ko 595 zenbakia duenak.

Egoera hori bera 1999ko abuztuaren 19ko partzela-zedulak berresten du, non partzela hori agertzen baita, titular berarekin, landalur gisa kalifikatua –T. Labor Int.– eta 5250 metro koadroko azalerarekin.

Alabaina, gaurko egunean, katastrolik bertatik ateratako informazioaren arabera, partzela berri ere hirilur gisa hartua izan da, eta 4403 metro koadroko azalera duela ezarrita dago. Aldaketaren ondorioz, poligono berean partzela berri bat agertzen da, 282 zenbakia eta 847 metro koadroko azalera dituena. Hortik ondorioztatzen da partzela hori jatorrizko partzelatik bereizi dela; izan ere, bi azalaren batura bat dator 71. partzelak hasiera batean zeukan 5250 metro koadroko azalerarekin.

Aldaketa hori da, dirudienez, kexa-egileak eztabaidatzen duena, katastroan lurzati horren titular gisa agertzen den pertsonarekin –datu hori

ez zaigu aurkeztu– lurzatiaren titulartasunari buruz duen desadostasunaren ondorioz.

Kexaren gaia arazo horretan kokatu ondoren, zenbait gogoeta aintzat hartu behar ziren, horrelako kasuen inguruan daukagun jarrera ulertzeko.

Lehenik eta behin kontuan hartu behar da ezen katastro edo erregistroak, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala arautzen duen martxoaren 10eko 3/1995 Foru Legeak adierazten duenez, aberastasun higiezinari buruzko informazio-tresna iraunkorra izatea duela helburu, bai eta jarduketa fiskal edo ekonomikoetarako eta legeek zehazten dituzten besteetarako euskarri izatea, Jabetzaren Erregistroari dagozkion ondorioak ezertan kaltetu gabe (2. artikulua). Bestalde, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala udal katastro guztien oinarria da eta katastroan eragina izan dezaketen datu guztiak erregistro hartan sartu beharko dira (17. artikulua). Baina, hala ere, lege-testu bereko 36.2 artikulua ezartzen duenez, "jurisdikzio arrunteko Auzitegiak izanen dira finken identitate eta inguruabar fisikoen gorabeheren gainean erabakitzeke ahalmena duten bakarrak".

Inguruabar horiek gogoan hartuta, gogorazi behar dugu ez daukagula eskumenik finken edo lursailen jabetzari buruzko horrelako gai zorrozki zibilei buruzko iritzirik emateko, eta beraz jurisdikzio horretako auzitegietan aztertu behar direla, horiek soilik baitira eskudun gai hauei buruz erabakitzeke.

Aurrekoa ezertan galarazi gabe, eta gai honetan eskudun diren administrazioek kasu bakoitzean gauzatzen duten jarduerari dagokionez, horrelako kasuetan, gure ustez, gure jarduna bideratu behar da, nagusiki, herritarrek beren eskubideak erabiltzeko aurki ditzaketen eragozpenak kentzen saiatzera, eta horretarako, aurkezten zaizkigun kasuei buruz lor dezakegun informazioa eskuratu behar diegu, horretan oinarrituz haien eskubideen defentsan egokiena iruditzen zaien erabakia hartu ahal izan dezaten; kasu honetan, jurisdikzio zibileko auzitegiekiko harremanari dagokionez, hala behar badu.

Aipagai dugun partzelari buruz lehen adierazi ditugun aldaketan artean bada bat gure ustez garrantzia duena interesdunak geroago bere eskubideen defentsa egiteko –eskubide horiek kaltetutak izan direla uste badu– hautatzen duen moduaren ikuspegitik. Adierazi ditugun aldaketetatik azkenari buruz ari naiz; haren ondorioa izan da partzela berri ere hirilur gisa hartua izatea, eta 4.403 metro koadroko azalera duena. Horretatik par-

tzela berri bat bereizi da, 282 zenbakiduna eta 847 metro koadroko azalera da.

Herritarrei informazioa emateko garaian, haiei Administrazio publikoaren araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeko 35. eta 37. artikuluetan aitortzen zaien eskubideari ezin zaio ez ikusiarena egin; batez ere, horiek interesdun izaera dutenean, haien eskubide edo interes zilegiak ukituak suertatzeagatik. Alabaina, ezin da ahaztu informazio hori eskuratu behar dela modu koherente eta zentzuzkoan, zerbitzu publikoaren funtzionamenduak inolako eraginik pairatuko ez duen moduan, alegia.

Hori horrela, iruditzen zaigu interesdunari eskuratu beharrekoa zela katastroko aldaketa horri buruz zegoen informazioa; horregatik, GOMENDIOA egin genion Corellako Udalari, katastroko aldaketari buruzko espediente horretan –71. partzela hirilur bihurtzea eta bertatik 847 metro koadro bereiztea– zegoen dokumentazioa kexa-egileari eskuratu ziezaion, eta espedienteko dokumentuetatik interesdunak eskatzen zituenen kopiak ere eman ziezazkion.

Udal horretatik jasotako erantzunean, bertako alkate udalburuak adierazi zigun onartzen zutela, enpresa handitzeko xedez jarraituriko prozedurari zegokionez, eginiko legezko betebeharren gogorazpena.

Jarraian, eta 7. poligonoko 71. partzelaren aldaketari buruz eman beharreko katastro-informazioari buruz eginiko gomendioaz, adierazi zitzaigun, hura onartu ondoren, informazio hori ez dela inoiz ere ukatu, eta horregatik jotzen zutela gure oharra ez zela beharrezkoa. Horrez gain, arazo honi buruz eman zen epaiaren aurrekariak ere adierazi zitzaizkigun; epai horren ondorioz, hain zuzen ere, udalak katastroko aldaketa egin zuen.

Epai horrek, zeina 2000ko urriaren 4an eman baitzuen Tuterako Lehen auzialdiko eta instrukzio-ko 3. epaitegiak, [...] jaunaren eta [...] andrearen erregistro-finka batzuen jabetza zehazten du, eta horren ondorioz egin zen gure azken ebazpenean aztertu genuen katastro-zuzenketa, zeinaren ondorioz sortu baitzen 282. partzela, hau da, 71. zenbakidunaren ondokoa, jatorrizko 71. partzelatik bereizitakoa.

Azken gai horri buruz, espediente honi buruzko gure jarduerak amaitutzat jotzearekin bat, udalari eta kexa-egileari ere adierazi genien atsekabetzen gintuela ez batak ez besteak guri aipatu ez izana datu garrantzitsu hori; izan ere, epai horren berri izanez gero, arazo honetan adierazi genuen jarra ezberdina izanen zen ezinbestez. Eta hori, ezertan galarazi gabe herritar guztiek interesdun gisa agertzen diren arazoetan informazioa lortzeko daukaten eskubidea, zeinak guztiz indarrean segitzen duen, baita kasu hauetan ere.

ERAIKUNTZA LIZENTZIA EMATEKO BALDINTZAK.**AURREKARIAK**

Oraingoan (02/311/U espediente), kexaren gaia zen etxe batean bi tximinia eraikitzen ari zirela, kexa-egilearen etxebizitzarako arriskutsuak izan zitezkeenak.

Azaltzen zigunez, bere bizilagun bat, zeinaren jabetza mugakidea baitzen kexa-egilearenarekin, gaur egun eraikina berregiten ari da, eta langintza horretan, bi tximinia eraiki ditu interesdunaren etxearen alboko hormaren ondoan. Tximinia horiek bere etxebizitzaren teilatu-hegaletik 3 metrora daude, haren azpitik, eta mehelinetik zentimetro gutxira.

Kexa-egilearen kezka nagusia da tximinia horietatik ateratzen den edozein txinpart teilatu-hegalerraino (zeina egurrezkoa baita) iristea eta horren ondorioz sute bat sortzea. Eta bestetik, kedarrak bere etxeko fatxadan eragin ditzakeen kalteak. Horregatik, Arakilgo Udalarari eskatu zion tximinien kokalekua ikuska zezala, haiek sorturiko arriskua egiaztatzeko, eta egoki ziren jarduketak egin zituztela. Kexa hau aurkeztu zuenean udalaren erantzuna jaso gabe zeukan oraindik, eta tximinien kokalekua ere aldatu gabe zegoen.

Horregatik guztiagatik, eskatzen zuen udalak eraikinaren egoera ikuska zezala eta aipaturiko tximinien kokaleku-aldaketa agin zezala, tximinia horiek jartzeak salatutako arrisku hori zekarrela uste izanez gero.

Udal horrek, alkate udalburuaren idazki baten bidez, arazo honi buruzko txostena igorri zigun, eta hartan ondokoa esaten zuen:

“1.- Eztatanda eragin duen tximinia kokaturik dagoen etxea errehabilitatzeko hirigintza-lizentzia emate aldera (alkatearen 71/2001 erabakia) egin den nahitaezko txostena, [...] jaunak sustatua, berrikusi ondoren, egiaztatu zen ez zela hirigintzarik ezein arau hautsi.

Oinarri gisa hartu ziren txostenak, hirigintzako eta Etxebizitza Zerbitzuarena, aldekoak izan ziren.

Obrak egiten ari dira onetsiriko proiektuak ezarritakoari jarraikiz.

2.- Aipatzekoa da ezen UNE- 001-94 araua, zeinak ezartzen baitu tximiniek metro batean gainditu beharko dutela 10 metro baino gutxiagoko erradio batean dagoen edozein gailur, ez dela nahitaez bete beharrekoa.

Aztergai dugun kasuan, badirudi problema gertatzen dela alderdiak elkarrekin ados ez jartzeaga-

tik, salatzailea eta salatua, bi etheen artean dagoen mehelinari buruz eta horren arabera tximinia kokatzeari buruz.

Hori agerian gelditu zen joan den azaroaren 15ean udalak sustaturik egin zen bileran. Bertara gonbidatuak izan ziren alderdiak eta beren arkitekto edo aholku-emaileak, obra-lizentzia emateari buruzko hirigintza-alderdiak udaleko teknikariek batera aztertzeko.

3.- Beraz, ulertzen dugu Alkatezako 71/2001 zenbakiko erabakia zuzenbidearen arabera dela.

Beste kontu bat da, ordea, tximiniaren kokaleku zehatzak kalterik eraginen duen ala ez; horretarako, gure ustez Kode Zibileko 590., 1908. eta 1909. artikuluetan xedaturikoa aplikatu behar da.”

ANALISIA

Kexa-egileak aurkeztu zigun dokumentazioa eta Arakilgo Udalaren erantzuna ikusirik, ohar hauek egin behar ditugu:

Lehenik eta behin azpimarratu behar dugu ezen, alde batera utzirik udalari aurkezturiko proiektuaren arabera paraturiko tximiniak izatea, haien kokalekuak ez duela betetzen UNE 123001:1994 araudia, zeinak ezartzen baitu metro batean gainditu beharko dutela 10 metro baino gutxiagoko erradioan dagoen edozein gailur. Arauhauste hori udalak berak aitortu du.

Nahiz eta UNE arau guztiak ez diren nahitaez bate beharrekoak, ezin ukatuzkoa da erreferentzia-arauen multzo garrantzitsu bat osatzen dutela, funtsezko betekizunak eta zehaztapen teknikoak ezartzen dituztela eta, normalki, aintzat hartu beharrekoak direla obra-proiektuak prestatzen direnean.

Zehazki, 0214 zenbakiko jarraibide tekniko osagarriak, zeina jasota baitago eraikinetako instalazio termikoei buruzko erregelamendua eta bere jarraibide tekniko osagarriak onesten dituen uztailaren 31ko 1751/1998 Errege Dekretuaren eranskinetan, honakoa dio: “egokitzat jotzen da UNE 123001 arauak zehazten duenari jarraikiz diseinatzea bero-sorgailuetako errekontzaren emaitza diren produktuak kanporatzeko tximiniak eta ke-hodiak”

Beraz, udalak erabakiarazitako soluzio teknikoak izan beharko zuen proiektaturikoak bestelako bat, aipaturiko UNE arauan ezarritako baldintzen murrizketarik gerta ez zedin; are gehiago, kontuan harturik tximinien kokalekua obrak egiten ari ziren bitartean salatu zuela guri kexa aurkeztu zigun pertsonak. Gainera, begi-bistakoa zen tximinietako

bat paratuko zela mehelinari ia itsatsita, teilatu-hegal baten azpitik eta harekiko bertikalean eta oso hurbil. Horrela, bada, sortu ahalko zen gatazkaren jakinaren gainean zegoen erabat.

Bete beharreko betekizun teknikoak zein izan diren alde batera utzita, ikusirik espedienterako aurkezturiko informazioa eta dokumentazio grafikoa, gure iritzia da tximinia eztabaidagarri horiek ondoko eraikineko teilatu-hegalaren azpian paratzeak ez dituela betetzen eska daitezkeen gutxieneko segurtasun-baldintzak. Halaber, mehelinetik hain hurbil egoteak kalte estetikoak eraginen ditu fatxada horretan, ia ziurtasun osoz.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeak ezartzen du eraikinen jabeak horiek kontserbatzeko betebeharra daukala, 224. artikuluan xedatzen baita eraikinak segurtasun, osasungarritasun eta txukuntasun baldintzetan eduki behar dituela jabeak, ingurumenaren babesari, ondare babesari eta hiri errehabilitazioari buruzko araei lotuz. Baldin eta betebeharrak ez badira betetzen, udalak, ofizioz edo edozein interesatuk eskaturik, eginarazi beharko dituzte nahitaezkoak diren obrak segurtasun, osasungarritasun eta txukuntasun baldintza haiei eusteko, lanak burutzeko epea zehazturik.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Lege berriak ere mota guztietako lur eta eraikinen jabeen betebeharra ezartzen die segurtasunari, osasungarritasunari, apaintasun publikoari eta bizigarritasunari dagokienez lurrak eta eraikinak behar den egoeran mantentzeko, kasuan kasuko xedearen arabera, behar diren lanak eginez egoera hori kontserbatu edo konpontzeko. Lege berri horretako 195. artikulua ezartzen duenez, udalak, ofizioz edo interesaturen batek eskatuta, exekuzio aginduak eman ditzake, ondasun higiezinak jabeak 87. eta 88. artikuluetan ezarritako beharrak, hots, ondasun higiezinak erabili, kontserbatu eta zaharberritzekoak eta inguruneari egokitzekoak, betetzeko behar diren obrak egitera behartzeko.

Exekuzio aginduetan ongi zehaztu beharko dira egin beharreko obrak eta horretarako epeak: epe horretan jabeek alternatiba teknikoak proposatzen ahalko dituzte eta arrazoizko luzapen bat eta zilegi dituzten dirulaguntzak eskatu. Exekuzio agindu bat ez betetzeak eskubidea ematen dio udalari exekuzio subsidiarioaren bitartez jarduteko.

Ondorioz, gure iritziz arau horiek toki entitateei ahalmenak eta eskumenak ematen dizkiete, udal horrek erabili behar dituenak, kexa-egilearen etxearen ondoko eraikinean paraturiko tximinien kokalekua aldatzeko. Udal administrazioak ezin dio

arazo horri bizkarra eman auzitegi zibiletara bideratuz. Horregatik, udalak eginiko alegazioa, hots, tximiniaren kokaleku zehatzak kalteak eraginez gero Kode Zibileko 590., 1908. eta 1909. artikuluetan ezarritakoa aplikatu ahalko dela esatea, utzikeriaz jokatzeko da, etxebizitzetan gutxieneko osasungarritasun eta segurtasun baldintzak daudela eta mantentzen direla zaintzeko duen betebeharrari dagokionez: udal administrazioak halabeharrez egikaritu behar du botere eta eskumen hori. Zer esanik ez, kexa aurkeztu zigun pertsonak jurisdikzio arruntera jotzen badu konponbide bat aurkituko du, zeren eta aipaturiko 590. artikulua horrek espresuki debekatzen baitu tximiniak jartzeko mehelinen ondoan; hain zuzen ere, modu orokorragoan Nafarroako Konpilazioako 367.a) Legeak agintzen duen bezalaxe. Baina gauza nabaria da guk proposatzen dugun soluzioa dela alderdi guztiei kosturik gutxien ekartzen diena, bai eta errazena ere.

Azaldutakoagatik, Arakil Ibarreko Udalari GOMENDIOA egin genion, behar den exekuzio aginduaren bitartez premiazkoak diren aldaketak eginarazi ditzan San Andrés kaleko [...] jaunaren eraikinean dauden tximinien luzeran, harik eta tximinia horiek halako moduan instalatuak egon daitezkeen non bateragarriak izanen diren alboko eraikinaren segurtasunarekin eta apaintasunarekin. Horretarako, jabea behartu egin behar du Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako Foru Legeko aipaturiko artikuluetatik eratorritako betebeharrak bete ditzan.

Udal horretatik jasotako erantzunean, bertako alkate udalburuak adierazten zigun obra-lizentzia isiltasunaren bidez lortu zela bere garaian, Ekaiko Kontzejuak gai hauetako eskumenak eskuordetu ez zituelako eta kontzejua bera eratu ere ez zegoelako; horrela, bada, ondorio guztietarako balioduna da lizentzia. Horrez gain, adierazten zuen kasu hori sakonki aztertu zuela udalak, kalte-uriko partikularrekin eta teknikariek batera, eta ondorioztatu zela UNE 123001 araua ez dela loteslea, eta, hala eta guztiz ere, udala behin eta berriz saiatu izan dela arazo hori konpontzen, alderdiekin bilerak eginez, arrakastarik gabe baina; horregatik, haren iritziz auzitegiei dagokiela arazoa ebaztea, legedi zibilean oinarriturik, auzokideen arteko arazoak izateagatik.

Hori ikusirik, ondorioztatu genuen udal horri egin genion gomendioa ez zela aintzat hartua izan. Horregatik guztiagatik, eta gure gomendioa materialki onartu ezenez gero, nahiz eta aitortzen ditugun Arakil Ibarreko Udalak eginiko ahaleginak, ukituriko partikularrek beren interesei komeni zaien konponbideren bat adostea lortzera

bideratuak, kontua da urteko txosten honetan jasota utzi behar dugula gure gomendioa onartzeari emandako ezetza.

BIDE BATEN HIRIGINTZA EGOERA.

AURREKARIAK

Kasu honetan (02/357/U espedientea), Mutiloabeitiko industrialdeko P kalean dagoen ibilgailuetarako bidearen hirigintza-egoera eta ezaugarriak salatzen ziren. Bide hori da, hain zuzen, -, -, -, eta - zenbakietako nabeetarako sarbidea.

Horri buruz, kexa-egileak adierazten zигun ezen, orain dela bi urtez geroztik, Aranguren Ibarreko Udalari eskatzen ari zaiola aipaturiko bidearen egoera juridikoa argitu dezan; izan ere, aipaturiko kalea sarbide gisa duten nabeetako jabeek seinaleak eta oztopoak ezarri dituzte, eta horien bidez haien instalazioekin zerikusirik ez daukaten pertsoneri libreki sartzea eragozten zaie. Alabaina, kexa egin zueneko unea iritsi zen, eta udala oraindik erantzun gabe zegoen.

Hori guztia dela-eta, arartekoaren erakundera jo du, udalaren erantzuna lortu ahal izateko, bide horren egoera juridikoa argitzearren.

Udal horrek, alkate udalburuaren bidez, ondoakoa adierazi zigun kexa-egileak azaldutakoari lotuta:

“Urtarrilaren 21ean idazki bat bidali zen udal honetara, 02/357/U espediente-zenbakia duena, Mutiloabeitiko industrialdeko P kalean dagoen ibilgailuetarako bidearen hirigintza-egoerari buruzkoa. Bide hori da, hain zuzen, -, -, -, - zenbakietako nabeetarako sarbidea.

Txostenaren gaia den eremua Mutiloabeitiko industrialdean kokaturikoa da, eta III. poligonoari dagokio. Poligono horretan plan partzial bat eta birzatiketa-proiektu bat egin ziren.

P3 poligonoaren birzatiketa proiektuko 9. planoa bidaltzen dugu honekin batera (1. dokumentua); hain zuzen, han kokaturik daude urbanizatu ondoren udalari lagatako partzelak eta kaleak.

-, -, -, eta - zenbakiak dituzten nabeetarako sarbide den “bidea” G2 eta H3 partzeletan sartuta dago: birzatiketa-proiektuaren planoa ere erantsi dugu (2. dokumentua), non egiazta daitekeen partzela horien artean ez dagoela ezein bide publikorik, ezta lagapen-eremurik ere.

Promociones [...] enpresak obren lizentzia eskatu zion udalari, H3 partzelan nabeak eraikitzeko. Eskaera horretan ikus daiteke G2 partzelaren aurreko aldera ematen zuten nabeak egin zire-

la; gauza bera gertatu zen enpresa horrek berak G2 partzelan nabeak eraiki zituenean. (4. dok.)

Udalak ez zuen inolako eragozpenik jarri P kaletik nabe horietarako sarbide gisako bide txiki bat egin zedin; hain zuzen, udalaren jabetzakoa izanen ez zen bide bat.

1997ko azaroaren 14an, -, -, - eta - zenbakiak dituzten nabeen jabeek eskaera bat aurkeztu zuten udaletxean, nabe horietarako sarbide den kale pribatua itxi zedin. Arkitektoak eginiko txostenean berresten da kale hori pribatua dela. Alkatezaz 1998ko apirilaren 20an emaniko ebazpenaren bidez baimena eman zen kalea ixteko. (3. dok.)

Horregatik guztiagatik adierazi behar dut ezen Mutiloabeitiko industrialdeko P kaleko -, -, - eta - zenbakiak dituzten nabeen jabeek bide txiki bat daukatela jabetzan beren nabeen sarreraren aldean, eta orain arte ez jabetza ez eta erabilera ere ez direla Aranguren Ibarreko Udalaren eskuetara pasa.”

ANALISIA

Kexak mahaigaineratzen duen lehen gaia da Aranguren Ibarreko Udalak erantzunik eman ez izana argibideak emateko egin zitzaion eskaera bati, Mutiloabeitiko industrialdeko P kalearen ondoan dagoen zolaturiko eremu baten hirigintza-egoerari eta ezaugarriei buruzkoa. Erreklamazio-egileak frogatu du ezen berak ordezkatzeko duen entitateak 2001eko urriaren 18an eta 2002ko otsailaren 28an informazio hori eskatu ziola udalari. Lehen idazkian eskatzen zuen “eperik laburrenean idatzizko erantzun bat ematea bide horren egoera juridikoari buruz”, eta bigarrenean erregutzen zuen “birzatiketa-proiektua ikustea, Mutiloabeitiko industrialdeko P kalean eragiten baitu. Horren beharra daukagu, egokiak diren legezko ekimenak egikaritu ahal izateko”. Udalak, bere aldetik, egin zitzaion eskaera bete zuenik ez du frogatu, ez eta jakinarazi zuenik ere eskaturiko dokumentazioa udalaren bulegoetan eskueran zeukala partikularrak; beraz, begi-bistakoa da ez zuela inolako informaziorik eman bere eskumenekoa zen gai bati buruz.

Ez dirudi udalari zuzenduriko eskaerek 1992ko Lurzoruaren Legeko 299. artikuluan jasotako hirigintza-kontsultaren izaera dutenik (lege hori da gaur egun indarrean dagoena, lurzoruaren araubideari eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legeko xedapen indargabetzaile bakarrak xedaturikoari jarraikiz); izan ere, lortu nahi duena da jakitea industria-partzela horien artean dagoen eremu zolatu bat bide publikoa ote den, eta beraz, ibilgailuen aparkaleku publiko gisa erabil ote daitekeen, industria-nabe horietako jabeek erabilera

orokor horretan esku sartu edo erabilera hori murrizteko modurik izan gabe. Alegia, informazioaren xedea ez da hirigintza-planeamenduko zehaztapenak ezagutu eta horrela lur-sail jakin batek zer-nolako hirigintza-erabilera izan dezakeen jakitea –hirigintza-arloko kontsulta batek berezkoago lukeena–, baizik eta eremu bat aparkaleku gisa libreki erabili ahal izateko zer aukera dagoen jakitea.

Kontua da idatzizko bi eskaera egin zirela gai honi buruzko zenbait argibide izateko, eta Aranguren Ibarreko Udalak ez zuela inolako erantzunik eman, Administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. artikulua ezartzen duenaren aurka, zeinak administrazioa behartzen baitu egiten zaizkion eskaera guztiei erantzuna ematera. Ederki erantzun ahal izan zuen ezen, lege horretako 37. artikuluari jarraikiz, partikularrak eskubidea duela udaleko espedienteetakoak diren eta udaleko artxiboetan dauden erregistro eta dokumentuak kontsultatzeko; hori da, izan ere, udalak orain aurkeztu dizkigun planeamenduko dokumentuen kasua.

Gure iritziz, begi-bistakoa da partikularrak zuzenean agertu beharko zuela udaleko bulegoetan dokumentu horiek kontsultatzeko, eta egoki ziren azalpenak eskatu ahal zituela; halaber, eskubidea luke kontsultatzea baimenduta zeukan dokumentuen kopiak edo ziurtagiriak lortzeko. Lege horretako 35. eta 37. artikuluetan xedaturikoak ez ditu administrazio publikoak behartzen partikularrek erabiltzekoak diren idatzizko txostenak egitera, ez eta haiei espedienteen kopiak bidaltzera ere, baina bai eskatzaileari idatziz jakinaraztera dokumentazioa bere eskueran dagoela, kontsultarako, udal bulegoetan. Antolamendu juridikoak administrazio publikoari debekatzen diena da partikularren eskaerei inongo erantzunik ez ematea; are gehiago azalduko bezalako kasuetan, zeina, argi eta garbi, udalaren eskumenen esparrukoa baita.

Ondorioz, bidezkoa da Aranguren Ibarreko Udalarari gogoraraztea legez behartua dagoela partikularrek egiten dizkieten eskaerei erantzuna ematera, haiei jakinaraziz nola eskuratu ditzaketen eskatzen dituzten dokumentuak, edo ezezkoa justifikatzen duten arrazoiak emanez, eskaerari bidezko erantzuna ematea juridikoki bidezkoa ez denean.

Bigarrenik, argibideak eskatu dira industrialdeko -, -, - eta – nabeen artean dagoen eta P kalera ematen duen eremu zolatuaren egoera juridikoari buruz. Horri buruz, udal txostenak adierazten du lur-saila nabeen jabeena dela osoki, eta haiek lur-

saila erabiltzen dutela nabe horietarako guztietarako sarbide gisa eta haien ibilgailuak aparkatzeko; halaber, ezin dela inola ere kale publikotzat hartu, ez eta lurzoruaren jabeek laga beharreko eremutzat ere. Halaber, frogatzen du ezen 1998ko apirilaren 20an alkateak emandako ebazpen baten bidez obra-lizentzia eman zitzaiela nabe horien jabeei, eremu hori antola zezaten haien artean erabili ahal izateko moduan eta inolako eskubiderik izan gabe sartzeko ziren kanpoko ibilgailuei sartzeko ez uzteko moduan.

Mutiloabeitiko arau subsidiarioetako P-3 poligoaren konpentsazio-proiekturako planoaren erantsi dugu, non elkaturik agertzen baitira G-2 eta H-3 partzelak, industria-nabeen kokaleku direnak alegia, eta haien artean ez dago hirigintza-lagapenerako inolako eremurik. Halaber antolaturik agertzen da inguru horretako bide-sarea, zeina aztergai dugun eremu zolatutik at egituratua baitago. Plano hori bat dator plan partzialekoak eta eremuko birzatiketa-proiektukoak diren eta halaber eranskin gisa atxiki diren beste batzuekin.

Planoek agertzen duten partzela-egituraketa eta erreklamazioaren egileak aurkeztu dizkigun argazkietan ikus daitekeena bat datoz, argazkiek erakusten baitute ezen nabeetara sartzeko, espaloia beheratua dagoela, eta ez dagoela zoladura jarrairik P kalearekin, bide-sarearen zati bat izanzen balitz bezala, baizik eta espaloia agertzen dela eremu pribatua bide publikotik bereizten duen elementu gisa. Beheraturiko espaloizati hori ibilgailuetarako pasabide bat da, partzelak kaletik bereizten dituen.

Adierazitako guztitik ondorioztatu behar dugu nabeen jabeek eskubidea daukatela beren lurzati orain arte egin duten moduan antolatzeko, ez baita erabilera publikokoa, eta ez delako, halaber, ibilgailuak igarotzeko eta askatasunez aparkatzeko bide bat. Beraz, ez da bidezkoa udalari puntu honi buruzko inolako gomendiorik egitea.

Alabaina, erabaki genuen Aranguren Ibarreko Udalarari LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENA egitea, partikularrek aurkeztzen dizkieten informazio-eskaerei azkartasun handiagoz erantzun diezaien, eta haiei eskueran jar diezazkien, kontsultatu eta aztertzeko, zilegi diren dokumentuak, Administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35. eta 37. artikuluek ezartzen duten neurrian.

Hasiera batean erantzun zitzaigun udalak ez ziola espresuki idatziz erantzun kexa-egilearen eskaerari, hain zuzen, pentsatu zuelako akordio batera iritsi behar zuela sarbidearen titular diren

enpresekin –haien titulartasuna auzitan jartzen baitzuen keak–, hark ordezkatzeko duen enpresak erabili ahal izan zezan.

Horrela, bada, udal horri adierazi genion legeak ez duela horrelako arrazoibiderik baimentzen partikular batek udal erregistroetan dagoen espediente edo informazio batean interesa izan eta informazioa eskatzen duenean. Aitzitik, legeak behartzen du eskatzen diren dokumentazioa eta txostenak eskueran jartzera, eta administrazio publikoek ez dute partikularrentzat onuragarriena denari buruzko bestelako hausnarketetan sartzetik. Azken batean, bermatu beharrekoa da informazioa eskuratzea eta behar diren dokumentuen kopiak lortzea, hori guztia aipaturiko arauak xedaturikoaren esparruan.

Azkenik, udal horrek erantzun zuen adieraziz egin zitzaion gogorarazpena onartzen zuela.

ETXEBIZITZA

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK ESLEITZEKO PROZEDURETAN BAREMOAK APLIKATZEKO MODUARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA HORRELAKO ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN HARTU AHAL IZATEKO BEHARRA.

AURREKARIAK

Kasu honetan (02/263/U espedientea) kexa-egileak kexa aurkeztu zuen babes ofizialeko etxebizitza bat hari behin eta berriro ukatu ondoren, parte hartu zuen hautaketa prozesu guztietan, bai jabetza-araubideko bai alokairuko etxebizitza.

Esaten zigunez, % 45eko minusbaliotasuna duen 62 urteko pertsona bat da, eta aldi baterako bizi da bera etxean hartu zuen pertsona baten etxebizitzan, baina aurki handik alde egin beharko du. Ez dauka baliabiderik ez eta haiek lortzeko modurik ere, oinarrizko errentatik bizi baita.

Horregatik azaldu digu prestatzen diren sustapenetako alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko eskaerak aurkezten dituen sortzen zaion problema. Adierazten digunez, ezarri ohi diren baldintzen arabera, “baremo ekonomikoan sartzen banaiz, gehiegizko adina daukat, eta eskatzen duten adina baldin badaukat, ez naiz baremo ekonomikora iristen”.

Bere idazkiari erantsi dizkio 2000ko urriaren 19an eta 2001eko maiatzaren 10ean [...] enpresari aurkezturiko eskaerak, bai eta 2000ko urriaren 20an Viviendas de Navarra S.A.ri aurkezturiko ere.

Azaldutako kasua ikusirik, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamen-

tura eta Gizarte Ongizatekora jo genuen, eta helarazi zitzaigun keakari buruzko informazioa eskatu genien, batez ere jakiteko horrelako egoerak nola hartzeko ari diren gogoan jabetza nahiz alokairu araubideko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko ezarritako baremoetan, eta zer aukera dagoen azaldu digutena bezalako kasuetarako nolabaiteko konponbideren bat aurkitzeko.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak honakoa adierazi zigun:

“1.- Jabetza edo alokairu araubideko etxebizitza bat eskuratzeari begira [...] andreak duen arazo larri bat da ez daukala baliabiderik ez eta horrelakorik lortzeko modurik ere, oinarrizko errentari esker bizi baita. Kontuan izan behar da ezen etxebizitzak diruz lagunduak egoteak ez duela eragozten etxebizitza erosi edo alokatzean interesdunak gastu batzuk egin behar izatea.

2.- Baremo ekonomikora ez iristeari edo urte gehiegi izateari buruzko esapide nahasi samar horrekin baliteke esan nahi izatea badaudela 35 urtez beherakoentzako babes ofizialeko etxebizitzak sustapen batzuk (gazteentzako alokairua) edo 65 urtez gorakoentzakoak ere (zaharrentzako apartamentu babestuak).

3.- [...] andreak 2000ko urrian Vinsa enpresan aurkeztu zuen eskaerari dagokionez, jakin ahal izan dugu sustapen hura alokairu araubide bereziko babes ofizialeko 46 etxebizitzarena izan zela, eta haietarako 785 eskaera egon zirela; halaber, hautaketa-baremoaren aplikazioaren ondorioz, sustapen hartan [...] andreak 90. postua lortu zuela.

4.- [...] andrearen kasuak agertzen duena bezalako arazoei soluzioa ematean, bi errealitateri egin behar zaie aurre: batetik, babes ofizialeko sustapenen eskasia, batez ere alokairuko araubide berezikoena, eta bestetik, sustapen hauetan parte hartu ahal izateko baremoek errealistak behar dutela izan, eta lehentasuna eman behar dietela alokairua ordaindu ahal izateko moduko diru-sarreraren bat daukatenei (nahiz eta % 75eko diru-laguntza ematen den lanbide arteko gutxieneko soldata baino diru-sarrera txikiagoa dutenentzat), bai eta komunitate-gastuak (igogailua, mantentzea, eskailerak eta abar), tasak eta zergak (zaborrak, estolderia, kontribuzioa, sustatzaileak maizterri ordainaraz diezaiokena eta abar) eta abar ordaintzeko ere.

5.- Alokairu-araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak sustapenak aurre egin behar die arazo ekonomikoari (haien prezioa araubide orokorrekoena baino baxuagoa da), arazo sozialei (per-

tsona batzuek nahiago dute beren etxe inguruan lan- eta diru-egoera normalizatuko erabiltzaileei zuzenduriko sustapenak kokatzea) eta pertsona eta populazio-talde ugari horrelako etxebizitzak eskuratzeko eginiko eskaera logikoen ondoriozko arazoei ere”.

Bestalde, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak honakoa jakinarazi zuen:

“Gutuna irakurrita ondorioztatzen da [...] andrea 62 urteko pertsona bat dela, % 45eko minusbaliotasun aitortua daukana, eta oinarrizko errenta jasotzen duena.

Hirugarren adineko arloaren ikuspegitik, pertsona horrek, 65 urteko adinera iritsi ez denez gero, ezin du egoitza-baliabiderik eskuratu, eta aitortua daukan % 45eko minusbaliotasun-mailari dagokionez, minusbaliotasunak dauzkaten pertsonen arlotik esan dezakegun gauza bakarra da maila horrek puntuazio handiagoa ematen diola Etxebizitza Departamentuak babes ofizialeko etxebizitzak esleitze aldera ezarritako baremoetan.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ez duenez parte hartzen babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko baremoen prestaketan, ezin zaio erantzunik eman arartekoaren erakundeak eginiko galderari”.

ANALISIA:

Babesturiko etxebizitza bat eskuratzearan inguruko arazo horri dagokionez, aplikatzeko den araudia bilduta dago, hemen eta orain interesatzen zaigunaren ikuspegitik, urriaren 1eko 276/2001 Foru Dekretuan, zeinaren bidez arautzen baita zer finantzaketa eta laguntza neurri hartu behar diren etxebizitza gaietako ekintza babesgarrietarako, bizileku eraikinak sustatzeko, ikuskapen eta kontrolerako eta baita ere babes ofizialeko etxebizitzaren prezio- eta deskalifikazio-araubidearen arlorako. Foru dekretu horrek ordeztu zituen aurretik aplikatzekoak ziren 350/2000, 75/2000, 621/1999 eta 287/1998 Foru Dekretuak.

Kexa-egileak aurkeztu dituen eskaerak, gehienetan, alokairu-araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzetara zuzendu dira. Haien araubidea lehen aipaturiko foru dekretuko 80. artikulutik 87.era bitartekoetan jasota dago, interesdunak dituen familia-dirusarrera ponderatuek ez baitute gainditzen lanbide arteko gutxieneko soldata halako 2,5.

Etxebizitza horien esleipen-hartzaileen hautaketari dagokionez, foru dekretu horretako 21. artikulua ezartzen du ezen, araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak erosteko, hartzaileek izan

beharreko familia-dirusarrera ponderatuek txikiagoak izan behar dutela lanbide arteko gutxieneko soldata halako 2,5 baino, eta familia-dirusarrek handiagoak izan behar dutela esleitzen zaien etxebizitzaren prezio edo balioaren zazpirena baino.

[...] andreak arartekoari jakinarazi dio bere dirusarrera bakarrak oinarrizko errentatik datozela, Gizarte Ongizate Departamentuak ematen diona, apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretua aplikatuz, zeinak laguntza mota hori arautzen baitu.

Departamentuaren arabera, VINSAk eginiko sustapen batean, alokairu-araubide bereziko 46 etxebizitzarenean, Rodrigo andreak 90. postua lortu zuen, eta horregatik, sustapenean sartua izan zen, bere egoera ekonomikoa makala izan arren; dena den, ez zuen etxebizitza eskuraterik lortu, zeren eta, baremoa aplikatuz, beste eskaizale batzuek puntuazio handiagoa lortu baituzten.

Printzipioz, eskueran dauden datuen arabera, interesdunak bete egiten ditu araudian ezarritako baldintza orokorrak, eta gainera % 45eko minusbaliotasun fisikoa du. Antza denez, egoera hori guztia aintzat hartua eta behar bezala balioetsia izan da, nahiz eta hautaketa-prozesuaren amaierako emaitza izan den haren eskaerari ezetza ematea.

Departamentuak berak bere txostenean aitortzen du gaur egungo arazoa dela alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenen urritasuna, eta horregatik arartekoaren erakundeak halabeharrez premiatzen du departamentua sakonki azter dezan gaur egungo eskaintza zentzutekoa den eta eskaintza zabaltzeko aukera aintzat har dezan. Funtsean, badirudi halako neurri baten bidez konpon daitezkeela kexa-egileak pairatzen duen egoera eta horren antzekoak, zeinetan, deialdiek ezarritako betekizunak beteta ere, ezin baitute etxebizitza duinik eskuratu, haien ezaugarri egokitzen zaizkien etxebizitzaren urritasunaren ondorioz eta hautaketa-irizpideak aplikatzean baldintza mesedegarriagoak dituzten pertsonak egotearen ondorioz.

Hemen kontuan hartu behar da ezen etxebizitza bat edukitzeko eskubidea, Konstituzioak aitortzen duena, ez dela etxebizitza bat jabetzan eskuratzearan sinonimoa. Horren arabera, alokairu-araubideko etxebizitzak eskuratzeko agertzen ari zaigu, gaur egungo egoeran, aztertzen ari garen problematikarako oinarrizko soluzioen artean.

Espainiako higiezin merkatuaren bereizgarrietako bat, gure inguruko herrialdeekin alderatuta,

hauxe da: jabetza bilakatu dela etxebizitza eskuratzeko modu nagusia. Egoera hori ikusirik, beharrezkoa gertatzen da ohartarazpen-dei bat egitea alokairu-erregimenak populazio-talde zabalei etxebizitza duinak eskuratzeko ematen dien aukeraz eta, beraz, erregimen horren komenigarritasunaz. Dituzten dirusarreraren zenbatekoa dela-eta etxebizitza horien jabe bihurtzea ezinezkoa duten biztanleez ari gara.

Ondorioz, botere publikoek alokairuaren aldeko apustu tinkoa egin behar dute etxebizitza eskuratzeko erregimen gisa, eta neurriak hartu behar dituzte alokairu-etxebizitzaren eskaintza suspertzeko eta haiek ikuspegi ekonomikotik erakargarriago egiteko. Aldi berean lortu behar da gaur egun dauden etxebizitza hutsen kopurua murriztea.

Etxebizitza-alokairuaren esparruko esku-hartze oraindik irmoagoa da alokairura bideraturiko babes publikoko etxebizitzak sustatzea, bai administrazioak zuzenean, bai hirugarrenek, ahalegin horren bitartez handituz esku-hartze azkar eta eraginkorraren premia daukaten egoera sozial larriei erantzuna emateko administrazio publikoek eskuean daukaten etxebizitzaren multzoa. Horrelako etxebizitzaren sustapena handitzea tresna bereziki komenigarria da beharrizanik handiena daukaten populazio-taldearen gizarteratzea lortzeko; horrekin batera, etxebizitza horien kudeaketa egokia ahalbidetuko duen sistema bat sortu behar da.

Baina apustu horretan kontuan izan behar da, etxebizitza eskuratzen laguntzera zuzenduriko ekintza publiko orotan bezala, badirela zenbait kolektibo arreta berezia eskatzen dutenak, beraien egoera berezia dela-eta. Hala da, izan ere: zaharrek, gazteek, etorkinek, ezgaituek, familia ugarietako kideek edo famili zamak jasaten dituzten emakumeek (dela banantze- edo dibortzio-prozesuen ondorioz, dela tratu txarrak saihestu beharrenden ondorioz, euren bikotekidearengandik urruntzeko beharra dutenean) errentarekin eta gizarteratzearekin zerikusia daukaten arazo bereziak izaten dituzte, eta arazo horiei aurre egin behar zaie aurrera eramaten diren esku-hartze politiketan.

Hori guztia, aintzat harturik horrelako jarduketari ekin behar zaiela bai hirien erdiguneetan bai eta gainbeheran dauden hiri-inguruetakoa auzoetan ere, ingurune egokia bermatzera zuzenduriko jarduketak integratuz, ikuspegi sozial, ekonomiko, ingurumeneko eta abarretik iraunkorra den hirieredu batean oinarriturik, eta ahalegin berezia eginenez, bizi izandako esperientzia batzuk gogoan harturik, hiri batzuetan gertatzen ari den espaziozatiaketaren arazoa ekiditeko, zeina sozialki homogeneoak diren giza taldeak hirietako eremu

jakin batzuetan kontzentratzearen eta, horrela, marjinaltasun eta gainbehera gune bilakatzearen ondoriozkoa baita.

Horrelako etxebizitzak sustatu beharri buruz lehen eginiko gogoetaz gain, hau ez da lehen aldia izan horrelako hautaketa- edo esleipen-prozesuen ondorioz gugana jotzen dutenek informaziorik eza salatu izan duteneko, ez eta guk aztertu duguneko ere. Horri buruz azpimarratu izan dugu, gai honetaz arduratu izan garenetan, nolako garrantzia duen horrelako kasu eta prozesuetan interesdunei euren eskaeren ebazpenari buruzko informazio egokia emateak eta azkenean hartzen diren erabakiei buruzko behar bezalako azalpenak emateak. Harturiko erabakia azaldu edo motibatuz, bi helburu lortu nahi dira: alde batetik, borondatea taxutzerakoan seriotasunez jardutea ziurtatzea, eta bestetik, erabaki bat hartzeko aintzat harturiko oinarriak agertaraztea, erabakiaren hartzaileek haien berri izan dezaten.

Kontuan har bedi ezen arrazoitu beharra –hertsiki administrazioaren jardunari badagokio ere– printzipio orokorrak nahiz oinarriko eskubideak betetzeari zor zaiola, hala nola legezketasun printzipioa, epaileen babes eraginkorra izateko eskubidea, arbitrariotasuna debekatzeko printzipioa eta objektibotasuna eskatzeko eskubidea.

Horri buruz, interesdunak aurkezturiko idazkiari emandako erantzuna aipatu beharra dago. Sanduzelaiko babes ofizialeko 34 etxebizitzaren esleipena du gaia. Erantzun horretan, Rodrigo andreari esaten zitzaion alokairu-etxebizitzak sustatzaile pribatu batek sustatuak zirela, eta Nafarroako Gobernuak esleituak ez zirenez, ezin zuela esleipen horri buruzko errekurtsorik ebatzi. Egia da Etxebizitza departamentuak ez duela inongo adjudikaziorik egin, sustatzaileak direla adjudikazioak egiten dituztenak, baina hori bezain egia da, jartzan duen diruaren ondorioz, sustatzaileek eginiko adjudikazioak kontrolatu eta ikuskatzeko ahalmen handia duela departamentu horrek; izan ere, aipatu dekretuko 137. artikulua ezartzen duenez, araubide bereziko etxebizitzaren kasuan aplikatuko diren prozedura eta baremoa aurkeztu behar dira alde aurretik departamentuan, eta ondoren kreditatu egin behar da aurkeztutako dokumentazioari egokitu zaiola prozesua (21.b artikulua).

Hortaz, gure ustez, nahiz eta batzuetan zaila izan daitekeen –sustapen bakoitzera aurkeztu diren eskaera ugarien ondorioz–, administrazioak ezin du esan, erantzunak itxura batean iradokitzen duen bezala, prozesuan zerikusirik ez duela; aitzitik, kontrol hori egin dezala eskatu behar zaio, bai eta, prozesua hobetzen ahal dela ikusten baldin

bada, neurri egokiak proposatu eta susta ditzala, antzemandako akatsak zuzentze aldera.

Sustatzaileak sektore pribatu nahiz publikokoak izan arren, exijentzia hori egin behar zaio; exijentzia hori nabarmenagoa da Nafarroako Gobernuarena den Vinsa bezalako sozietate publiko baten kasuan, baina sustatzaile pribatuen kasuan ere berdin-berdin exijitzeko modukoa da kontrol hori, gisa horretako sustapenak egiten dituztenean laguntza publiko ez nolanhikoak jasotzen dituztelako.

Alegia, berriro ere adierazi behar dugu ezen, gure ustez, administrazioak, duen ahalmen horren ondorioz, aztertu egin beharko lukeela zer neurri hartu behar diren –argitara ematen diren zerrendez haratago–, prozesu horietan eskatzaileek erantzun arrazoitua jaso dezaten baldin eta egin duten eskaria onartu ez bada.

Hori horrela, eta 265/2001/13 zenbakia duen espedientean departamentu horri eginiko gomendioa zela-eta, departamentuak adierazi zигun ezen, haien ustez, konponbiderik egokiena zela eskatzaile bakoitzari jakinaraztea zer puntuazio lortu duen eta zein den, puntuazio hurrenkerari jarraikiz, etxebizitza lortu duen azken zerrendakidea. Hori eginez gero eskatzaile bakoitzak jakinen luke zein den haren puntuazioa eta zein azken hartzailearena, eta ez luke pairatuko milaka eta milaka jakinarazpenen tramitazioak –puntuazioak zehazteko moduari buruzko askotariko azalpenak eta guzti– berekin dakarren atzerapena, eta hori ez da eragozpen puntuazioaren alderdiren batekin ados ez dagoen edo zalantzaren bat duen herritarrek departamentuari eskatzeko bere kasuari buruz egoki irizten duen informazio gehigarria.”

Bere garaian, eta orduantxe antzemandako problematikaren abiapuntu gisa, soluzio hori onargarria iruditu zitzaigun, eta halaxe jakinarazi genion departamentu horri. Dena den, uste dugu beharrezkoa dela puntu hori behar adina azpimarratzea, kontuan harturik denbora igaro dela eta, horregatik, jadanik eskueran daudela irizpen baterako beharrezkoak diren gutxieneko elementuak, zeinek ahalbidetuko baitute proposamen horren balizko emaitzak ebaluatzea eta, kasua bada, proposamen hori kasuan kasuko egoerara egokitzea.

Azaldutako guztia dela-eta, bidezkoztat jo genuen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza departamentuari GOMENDIOA egitea, honakoa ongi azpimarratzeko: behar diren neurriak har daitezela, horrela bermatu ahal izateko babes ofizialeko etxebizitzaren eskatzaileek jaso dezaten, baremo jakin bat aplikatu denean, haien eskariei dagokien erantzuna, departamentuak

berak erabakitako edukia izanen duena, eta zehazki aipatuko duena eskatzaileak lorturiko puntuazioa eta kasuan kasuko sustapeneko onuradun suertatzeko beharrezkoa izan den puntuazioa ere.

Halaber, azterturiko beste gaiari dagokionez, alokairu-etxebizitza alegia, era berean bidezkoztat jo genuen GOMENDIOA egitea, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak sakonki azter zezan zein den alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzaren gaur egungo eskaria, eta kontuan izan zezan eskaintza handitzeko aukera, eskaintza hori egiazko eskariaren arabera izate aldera; helburua hori izanik, horrelako etxebizitzak sustatzeko eta haiei bultzada emateko egoki diren neurriak hartuko lituzke.

Aipaturiko departamentuak ohar horiei buruz bidali zигun erantzunean, Etxebizitza Zerbitzuko zuzendariak adierazi zигun bi gomendio horiek onartzen zituela.

Alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzaren gaur egungo eskariaren azterketari dagokionez, esaten zuen neurri hori gauzatuko dela Vinsa enpresa publikoak eginiko azken alokairu-deialdian izandako eskariaren analisisian, bai eta Nafarroan oro har dagoen etxebizitza-eskariaren barrenean alokairu-etxebizitzetarako dagoen eskaria aztertzeko langintzan.

Babes publikoko etxebizitzaren eskatzaileei helarazten zaien informazioari buruzko gomendioari dagokionez, honako hau ere jakinarazi zitzaigun:

“Bidezkoa da gomendio hori onartzea eta komunikazio-prozedura bat taxutzea, lurzorua adjudikatzeko hurrengo lehiaketetarako eta –gaur egungo nahiz etorkizuneko araudiari jarraikiz– baremoa erabiltzera beharturiko sustapen guztietarako, zeinaren bitartez eskatzaile bakoitzak behar adinako informazioa jasoko duen bere puntuazioari buruz, eta halaber aipatuko zaio sustapen horretan etxebizitza bat eskuratzeko beharrezkoa izan den gutxieneko puntuazioa, edo agian, eta kasua bada, itxaron zerrendan eskatzaileak zenbagarren postua duen. Hori guztia egin beharko da kontuan izanik Sarrigurenen aurki egitekoa den adjudikazioaren esperientzia. Horri buruz, hauxe adierazi behar da:

Asmoa da 2004ko urtarrilean Sarrigurengo 1000 etxebizitza inguru esleitzeko kanpaina bat egitea, zeinak barnean babes ofizialeko eta prezio tasatuko etxebizitzaren 17 sustapen hartzen baititu, 9 sustatzaile ezberdinek eta baremo ezberdinak aplikatuz egiten dituztenak.

Herritarrei eragozpenak eta tramiteak gutxitzearen, Nafarroako Gobernuak 9 sustatzaileak bildu

ditu eta, haiekin adosturik, dei egiteko eta eskaerak jasotzeko kanpaina bateratua antolatzen ari da. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak parte-hartze tinkoa izanen du kanpaina horretan, baita baremazio-irizpideei eta sortzen diren zalantzei buruz aholku emanaz. Esku-hartze hori gauzatuko da, gehienbat, adjudikazio-hartzaileen behin-behineko zerrendak argitaratu aurretik.

Halaber, puntuazioen eta zerrenda bakoitzeko posizioaren jakinarazpen xehekatua, adjudikazio-hartzaile guztiei bidali beharrekoa, kudeatuko du, nahiz eta aurreikustekoa izan hori lan-zama handia izanen dela; 8.000 eskatzaile inguru aurreikusi dira, eta haiek 17 sustapen horietatik guztietan parte hartzea eskatuko dute; horrela, bada, 136.000 puntuazio (17x8.000) izanen dira igorri beharrekoak”

ALOKAIRU-ARAUBIDE BEREZIKO BABES PUBLIKO ETXEBIZITZA BAT ESKURATZEKO ESKAEREI UKO EGITEA

Minusbaliatu-bikote batek aurkezturiko kexan (02/361/U espedientea) antzeko arazoa azaltzen zen, alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitzaren eskastasuna zela-eta. Izan ere, minusbaliatu horiei hiru aldiz ukatu zitzaizkien alokairu-araubide bereziko etxebizitza bat lortzeko aurkezturiko eskaera.

Kexa-egileak % 65eko minusbaliotasuna zeukan aitortua, eta ezintasun iraunkor erabatekoaren ondoriozko pentsioa jasotzen zuen; bere bikotekideak, bestalde, % 42ko minusbaliotasuna dauka aitortua, eta ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoaren ondoriozko pentsio bat jasotzen du.

Azaltzen zigutenez, babes ofizialeko etxebizitzetarako zenbait sustapenetan parte hartu zuten, eta zenbait aldiz eskatu zuten alokairu-araubide bereziko etxebizitza bat; alabaina, ez zaie halakorik onartu. Gaur egun etxebizitza alokatu batean bizi dira, pertsona gehiagorekin batera, eta bikotearen egoera pertsonala dela-eta, haien bizikidetzarako baldintza hobeak behar dituzte, hori lagungarria izanen bailitzateke haien diagnostiko klinikoaren egonkortasunerako.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari gai honi buruzko informazioa eskatu ondoren, honakoa azaldu zigun:

“1. Pertsona horiek eta beste askok alokairu-araubide bereziko etxebizitzarik ezin eskuratu izanaren arrazoia da horrelako etxebizitzaren eskasua dela haien eskaerarekin alderatuz gero.

2. 2003rako Iruñean alokairu-araubide bereziko babes ofizialeko 40 etxebizitza adjudikatzeko deialdi publikoa egiteko asmoa dago. Sustatzailea Vinsa da, eta horretarako kanpaina maiatzean edo ekainean egingen du; komeni da interesdunak erne egon daitezen, deialdi hori tokiko eguneroko prentsan argitaratuko baita.

3. Salerosketa edo jabetza araubideko babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebizitzak eskuratzeari buruz, honakoa esan behar da:

Nafarroako Foru Komunitatetik edo Vinsa-aren jabetzatik eskuraturiko lurzoruetan, 2003an Iruñean eta Iruñerrian honako deialdi hauek egingen direla aurreikus daiteke:

Prezio tasatuko 100 etxebizitza, Construcciones [...] enpresak Iruñean sustatzen dituenak (otsailaren 7ra arte).

Araubide orokorreko babes ofizialeko 118 etxebizitza, [...] kooperatibak sustatzen dituenak (otsailean).

Prezio tasatuko 108 etxebizitza, [...] enpresak Iruñean sustatzen dituenak (otsailean).

Babes ofizialeko eta prezio tasatuko 392 etxebizitza Iruñean eta Sarrigurenen, Vinsa-ak (maiatz edo ekain aldera).

943 etxebizitza Sarrigurenen (2003. urtearen amaiera aldera).

Aurreko etxebizitza horiek prentsan iragarritako deialdi publikoaren bitartez esleitu ziren.

Nafarroako Gobernuak U.G.T. eta CC.OO. sindikatuei saldutako lurzoruan babes ofizialeko 342 etxebizitza sustatu dira Sarrigurenen, eta sindikatu horiek esleitu dituzte; interesdunek sindikatu horietara jo dezakete.

Iruñerriko udal batzuetan (hiriburua aintzat hartu gabe) sustatzen dira udalek haien egoiliarrentzat gorde ohi dituzten etxebizitzak; interesdunak udalerriri horietan bizi badira, beren udaletara jo dezakete informazioa lortzeko.

Epe ertainean, eta Iruñean nahiz Iruñerrian lurzoru publikoan egitekoak diren etxebizitzaren kopuru handia dela-eta, aurreikustekoa da hobetu egingen dela baliabide ekonomiko urriak izanik prezio egokiko etxebizitzak jabetzan edo alokairuan eskuratu nahi litzuketen pertsonen egoera.”

Arazo horretan, alokairu-araubide bereziko babes publikoko etxebizitzari dagokienez aurreko kasuan eginikoen gisa bereko gogoetak adierazi ondoren, antzeko GOMENDIOA egin genion departamentu horri, sakonki azter zezan zein den alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzaren

gaur egungo eskaria, eta kontuan izan zezan eskaintza handitzeko aukera, eskaintza hori egiazko eskariaren arabera izate aldera; helburua hori izanik, horrelako etxebizitzak sustatzeko eta haiei bultzada emateko egoki diren neurriak hartuko lituzke.

Jaso genuen erantzuna aurretik azaldu dugun kexa-espeditan agertu dugunaren antzekoa izan zen.

BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN ADJUDIKAZIO PROZEDURAK, SINDIKATUEN KASUAN EGINKOAK.

AURREKARIAK:

Kexa egin zuen pertsonak (03/60/U espedita) hizpide zituen sindikatu batzuek eginiko azken sustapenetan babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikazio-hartzaileak hautatzeko izan ziren prozesuak.

Horri buruz, jakinarazi zigun babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratu ahal izateko baldintza guztiak, arauak ezarritakoak, betetzen zituela.

Sindikatu jakin baten etxebizitzaren kasuan, bere eskaera behar zen garaian eta moduan aurkeztu zuen eta, geroago, gutun bidez jakinarazi zitzaion bere eskaera ez zela hautatua izan. Sindikatu horren eledun batek adierazi zionez, adjudikazioak notario aurreko zozketa bitartez eginak dira; hala ere, esaten du ez zela inoiz ere publikoki jakinarazi zein egunetan eginen zen zozketa hori, eta horrek eragotzi egin zuela nahi zuten eskatzaileek zozketa horretara bertaratu eta hura behar bezala egiten zela egiaztatzea.

Beste sindikatuaren etxebizitzaren kasuan, ez zen ezta zozketarik ere egin; izan ere, sindikatuaren egoitzara informazio eske joan zenean, jakinarazi zitzaion etxebizitzak jadanik adjudikatuak zirela, eskatzaileen barne-zerrenda bat erabiliz. Kexa-idazkian adierazten duenez, inoiz ere ez zen publikoki jakinarazi zerrenda horretan izena emateko aukera zegoenik.

Hori dela-eta, adierazten du ez dagoela ados sustapen horietan adjudikazioak egiteko erabili den moduarekin, bere iritziz gardentasuna eta publikitatea falta zaielako; horrela, bada, ararteko-arengana jo zuen bere kexa aurkeztera.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentutik bidali zitzaigun txostenean ondokoa adierazten zitzaigun (txosten horri erantsi zaizkio Nafarroako Gobernuak eta aipaturiko sindikatuek lur-sail horien eskualdatzerako sinatu zituzten akordioen kopiak):

“Sarrigurenen kokaturiko etxebizitza-erabilera-rako lurzorua [...] eta [...] sindikatuekin lotura duten kooperatibei adjudikatu zitzairen, hain zuzen, Sarrigurengo besterentzeari buruzko abenduaren 29ko 14/2000 Foru Legeko 2.1 b) artikulua aplikatuz; horrek esan nahi du lurzorua zuzenean adjudikatu zitzaizela.

Adjudikazioan ezartzen zaizkien baldintzak dira abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legeko 4. artikulutik eratorritako baldintza orokorrak, ez besterik.

Horregatik, arartekoak aipaturiko puntuei eman beharreko erantzuna hau da:

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez du esku hartu behar [...] eta [...] sindikatuei loturiko kooperatibek antza denez aurrera eraman duten etxebizitza-adjudikazioko prozesuan.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak kontrolatu behar du, eta hala eginen du, arauetan ezarritako betekizunak betetzen dituztela etxebizitza horien adjudikazio-hartzaileek. Kontrol hori gauzatzen da, batez ere, etxebizitzak adjudikatzeko kontratuei ikus-ontsia emateko egintzaren bitartez.

Kexak aipatzen dituen sustapenak eginen diren partzelen eskualdatzea hezurramitu duten akordioen kopiak erantsi ditugu.

Aipagai ditugun etxebizitzak adjudikatzeko erabilitako baremorik ez dugu eskueran; ziur aski, ez dago halakorik. Ez dakigu etxebizitzaren salmentarako inolako publizitaterik egin ote den”

ANALISIA

Dagoeneko zenbait herritarrek jo izan dute arartekoaren erakundera, eta babes publikoko etxebizitzaren adjudikazio-prozesuak gauzatzeko moduarekin ados ez daudela azaldu izan digute, enpresa pribatuek nahiz publikoek (VINSaren kasua) sustatuak izan, haien gaineko jabetza eskuratzeko nahiz haiek alokatzeko helburua izan.

Hainbeste kexa jasotzearen arrazoi nagusieta-ko bat izan daiteke, zalantzarik gabe, sustapen bakoitzerako aurkezten den eskabide kopuru handia, eskaintzen diren etxebizitzena baino askoz ere handiagoa; horren ondorioz, oso gutxi dira etxebizitza bat lortzen dutenak, eta gainerakoek beste sustapen batzuetara jo behar izaten dute haien helburua erdietsi ahal izateko, eta askotan oztopoz beteriko bide luzea izaten da. Gainera, oztopo horiek areagotu egiten dira behin eta berriro eskabideak aurkeztu beharrekin eta horrek dakartzan ondorioekin.

Arartekoaren erakundeak egoera aztertu du eta gutxienez ere lehen ondorio gisa, begi-bistakoa da ezen, arestian deskribatutako egoera ahaztu gabe, esleipen-prozedura horiek lehenbailehen hobetzeari ekin behar zaiola. Horren haritik, azken batean administrazioaren zeregina da zaintzea babesturiko etxebizitzaren adjudikazioa publikitate, lehia publiko eta gardentasun printzipioak errespetatuz egiten dela.

Kexa honetan azaldu zaigun kasuan elementu berri bat dago, lehendik aztertu izan ditugun kasuekin alderatuta; beraz, aintzat hartu beharrekoa da. Elementu hori da, hain zuzen, administrazioetik lurzorua zuzeneko besterentze edo eskualdatze bat egiten zaiela erakunde sindikal batzuei, zeinek, geroago, etxebizitzaren adjudikazio-hartzailak hautatzen baitituzte.

Horrelako neurri bat –entitate horiei zuzenean adjudikatzea, alegia– zertan dagoen oinarritua ez da izanen guk aztertuko duguna, zeren eta Nafarroako legegileak, abenduaren 29ko 14/2000 Foru Legearen bitartez, bere eskumen-esparruaren barnean jokatzu eta horretarako dituen aukera zabalak baliatuz, erabaki baitu soluzio jakin bat taxutzeari, jokoan dauden interes ezberdin eta askotarikoak aintzat hartuz.

Alabaina, aipaturiko etxebizitzaren gainean geroago entitate horiek eginiko hautaketa edo adjudikazioari dagokionez –horixe da, hain zuzen ere, kexaren gaia–, iruditzen zaigu badaudela egin beharrekoak diren zenbait gogoeta, hasierako gure jarrerari berriro heldurik.

Sarrigurengo udalez gairik planeamendu sektorialak ukituriko eremua besterentzeko prozesua arautzen duen abenduaren 29ko 14/2000 Foru Legea aipatu dugu entitate horiei zuzeneko adjudikazioa egiteko aukera ematen duen arau gisa. Bertako zioen azalpenaren arabera, Sarrigurengo proiektu hori Nafarroako erakunde publikoek eginiko beste urrats bat da, datozen urteetan gizartearen izan den etxebizitza-eskariari aurre egiteko.

Arau horren zioen azalpenaren arabera, proiektu horren helburu nagusia da etxebizitza planetan ezarritako araubideetako baten pean babestutako etxebizitzaren eskaintza zabala egitea, Iruñerri osoan datorren eskaerari erantzuteko.

Erdietsi nahi den helburu sozialean oinarrituz, enkantea bazterturik utzi da zorua besterentzeko prozedura gisa, eta zorua besterendu edo eskualdatzeko bide gisa ezarri dira, batetik, lehiaketa publikoa, eta bestetik, eskatzaileari zuzenean besterendu edo eskualdatzea, baldin eta eskatzailea honako hauetako bat bada: Foru Komunitatearen

menpeko sozietate instrumental bat edo irabazteko asmorik ez duen laguntzazko entitate edo gizarte entitate bat.

Etxebizitzetarako partzela batzuk sindikatuei eskualdatu ahal izateko, aipaturiko foru legeko 2.1 b) artikuluan jasotako aukera erabili zuen Nafarroako Gobernuak. Artikulu horrek ezartzen duenez, “Aurreko artikuluan aipatu ondandunak, etxebizitzetarako eremuan sartutakoak, besterendu edo eskualdatzeko bide hauek erabili ahalko dira: (...) Foru Komunitatearen titulartasun publikoko sozietate instrumentalei zuzenean besterendu edo eskualdatzea edo, bestela, irabazteko asmorik ez duten laguntzazko entitate, gizarte entitate edo sindikatu eskatzaileei, nolabaiteko babes publikoa izan den etxebizitzaren eraikuntza sustatu eta sustapenaren bideragarritasuna bermatzeko esperientzia eta bitartekoak dituztela frogatzen badute”. Beraz, horrelako eskualdaketa zuzenbidearen araberakoa da zeharo.

Hala ere, geroago, sindikatu-entitate horiei lurzoru publikoa eskualdatu ondoren, administrazioa mugatzen da, kasuan kasuko kontratuaren ikus-onespen egintzaren unean, honako hau kontrolatza: haien adjudikazio-hartzailak arauetan finantziaturik dauden betekizun orokorrak betetzen dituztela. Ez du inolako baldintzarik ezartzen hautaketa-prozesuari eta etxebizitzaren adjudikazioari dagokionez, helburu berberarekin lurzoru publikoa besterentzen den beste kasu batzuetan ez bezala.

Arartekoaren erakundearen pentsatzen dugu jokamolde hori nabarmenki hobetzeko modurik badagoela eta hobetu egin behar dela, hautaketa-prozesu horiek aztertu izan ditugun beste batzuetan adierazi dugun ildoari jarraikiz; departamentuak bermatu behar du hautaketa-prozesu horiek garatzen direla lehenago aipatu ditugun publikitate, lehia publiko eta gardentasun printzipioen arabera, eta horretarako beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira; premia izanez gero, ezaugarri horiek jasotzen dituen prozedura bat arautu behar da.

Ondorio horrek ez du urratzen lehen aipaturiko 14/2000 Foru Legeak ezarritakoa; aitzitik: gure ustez, hurbilago legoke horrek ezartzen dituen helburuetatik, legearen edukiaren zati batzuk aintzat hartzen baditugu. Horrela, zioen azalpenaren hitzez hitz esaten duenez, “lurzorua besterentzeko prozesuetan, hautatutako formula edozein delarik ere, eskatu eta baloratuko dira (...) etxebizitzaren hartzailen ezaugarri sozioekonomikoak. Halaber, Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio behar diren neurriak ezar dituzan proiektua egoki kudeatzen dela eta ezartzen diren baldintzak betetzen direla bermatzeko”.

lido horretatik, 5. artikulua berak, etxebizitzetarako eremuko lurzorua besterentzeko prozedurei dagokienez, 3. idatz-zatian xedatzen du eskatu edo baloratuko dela, besteak beste, honako alderdi honi buruzko baldintza batzuk betetzea: "etxebizitzaren hartzaileen ezaugarri sozioekonomikoak, horien barrenean direla familia egoera, etxebizitzaren beharra norainokoa den eta dirusarrerak"

Laburbilduz, departamentuaren kontrola murriztea, harik eta soil-soilik egiaztatzeraino etxebizitzaren azken hartzaileek oro har eskatzen diren eskuratze-baldintzak betetzen ote dituzten, eta, bestetik, onartzea ezen erabilitako baremoei buruzko informaziorik ez dagoela –baremoei izan ez dela ontzat emanez–, ez eta sustapen horietan esku hartzeko inolako publizitatekin egin izanari buruzko informaziorik ere, ez dirudi lehen azaldu-tako lege-xedapenen araberrako jokabidea denik. Gainera, oso posizio kaskarra da segurtasun juridiko, berdintasun eta objektibotasunaren printzipioak babesteko, zeinak gure Konstituzioko 9.3, 14 eta 103.1 artikuluetan aipatzen baitira. Horrela, bada, ez dago bermatuta gutxieneko arau batzuei loturiko prozedura bat ezarriko denik, eta beraz, adjudikazio-hartzaileak hautatu behar direnean arbitrariotasunari tarte bat ireki ahal zaio, bateraezina dena aipaturiko printzipioekin.

Bestalde, etxebizitza horiek adjudikatzeko prozesuetan, administrazioak eskatu ahal du eta behar du, lurzoru publikoaren horrelako adjudikazioek estipulazioetan sartzen uzten dituzten kontratu-betebeharren ondorioz, bestelako irizpide edo betekizun batzuk ezar daitezela, aplikatzekoak diren arauak eskatzen dituzten irizpide oroko-

rez gain. Bestelako irizpide horiek aurretiaz eza-gunak izanen dira, eta prozesu hauetan parte hartu ahal izateko bidea irekiko diete horrelako egoera batean egonik parte hartzeko interesa dutenei. Ikuspegi horretatik, 276/2001 Foru Dekretuaren 22. artikuluan balizko eskatzaileen egoera jakin batzuei buruz eginiko aipamena abiapuntu bat izan daiteke, horretan oinarriturik etxebizitza hauek adjudikatzeko baldintzak finkatu ahal izateko.

Aurretik azaldu dugunaren ondorioz, Nafarroako Gobernuaren Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari GOMENDIOA egin genion abenduaren 29ko 14/2000 Foru Legeko 2.1 b) artikuluan jasotako formula bezalakoetan oinarrituz egiten diren lurzoru publikoaren adjudikazioei dagokienez, zertarako eta, araudiak eskatzen dituen betebehar orokorrak betetzeari buruzkoaz gain, aldeztu aurretik bestelako betekizunak edo irizpideak ezar daitezela hautaketarako, etxebizitzak horien arabera esleitzeko, prozesu hauetan parte hartzeko interesa daukatenen artean.

Departamentu horretako kontseilariak bere iritzia berri eman zigun, gomendioa onartu zuen eta adierazi zigun Nafarroako Gobernuak datozen hilabeteetan lege-ekimen bat eramanen duela Parlamentura, zeinak behartuko baitu babes ofizialeko etxebizitza guztiak halako moldez adjudikatu daitezela non interesdun orok parte hartuko baitu hautaketa-prozesuan, eta prozesu hori egiten baita foru legeak eta bere erregelamenduek xedaturikoari egokitutako baremo bat aplikatuz.

BAREMOEN APLIKAZIOA BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAK ESLEITZEKO PROZEDURETAN ETA ADMINISTRAZIOAK EGINIKO IKUSKAPENA.

AURREKARIAK:

Kexa-egileek kasu honetan azaltzen zuten (03/43/U espediente), ukatu egin zitzaizen babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko eskaria.

Azaltzen zigutenez, beren ama pentsio-hartzailera da, eta harekin bizi dira 36 metro koadro erabilgarri dituen etxebizitza batean. 2002an eskaera bana aurkeztu omen zuten [...] enpresak eraiki behar zituen babes ofizialeko 56 etxebizitzaren adjudikazioan parte hartzeko.

Adjudikazioa ebatzi zenean ikusi zuten haien eskaerak ez zirela onartuak izan, eta ez zitzaizkiela eman baremoaren arabera zegozkien 30 puntu, hain zuzen ere honako baldintza hau betetzearen ondoriozkoak: "etxebizitza bat jabetzan edo alokairuan edukitzea eta bertan bizitzea, zeinaren azalera desegokia baita famili osaketa aintzat harturik, 276/01 Foru Dekretuko 6. b) artikulua ematen duen definizioari jarraikiz."

Zeukaten etxebizitza-beharra zela-eta, eraikuntza-enpresa horri eskatu zioten baremoaren arabera zegozkien 30 puntuak eman diezazkiela, eta enpresak emandako erantzuna izan zen haiek bizi direneko etxebizitzaren azalera ez zutela frogatu.

Hori ikusirik, interesdunek administraziora jotzea erabaki zuten, Etxebizitza Zerbitzura hain zuzen, eta hark arazoa bere gain hartu nahi ez eta berriro ere enpresa sustatzailearen eskuetan utzi zuen. Administrazioak esan zuen enpresa horrek eginiko adjudikazioa edo idazkiari eman ahal dizkion erantzunak ez direla Nafarroako Foru Komunitateko administrazioeko ezein organok gauzaturiko egintza administratiboak.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari eskatu genion txostenean hauxe adierazten zen:

"[...] enpresa da oraingoan sustatzen dituen araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzen dituena.

Babes ofizialeko etxebizitzak egiteko lurzorua eskuratzeko Nafarroako Gobernuak ahalbidetu zenez, hark enpresari aholku ematen dio enpresaren baremoa aplikatuz adjudikazioak egiteko moduari buruz. Enpresak gogo onez hartu du aholkularitzan hori.

Etxebizitza-eskatzaileek aurkezturiko 4000tik gora espedienteetako bakoitzean baloratzen da, soilik, aurkezturiko dokumentazioa, nahiz eta batzuek, eta ziur aski [...] andreek ere, baremoa-

ren arabera puntuak jaso ditzaketenez ezaugarriak hobeto agertzen dituzten beste zenbait dokumentu aurkeztu ahalko zituzten.

Arartekoaren idazkiak aipatzen du etxebizitza zein egoeratan dagoen eta zenbateko azalera duen. Horri buruz, esan daiteke aplikatu legezkoak [...] andreen amari, baina inolako muntarik gabekoak direla alaben kasuan, honakoagatik:

Baremoak 30 puntu ematen zizkion egoera honetan zegoenari: "etxebizitza bat jabetzan edo alokairuan edukitzea eta bertan bizitzea, zeinaren azalera desegokia baita famili osaketa aintzat harturik, 276/01 Foru Dekretuko 6. b) artikulua ematen duen definizioari jarraikiz."

"Famili unitate" kontzeptua zehazteko, 276/2001 Foru Dekretuko 8. b) artikulua pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren legedira jotzen du; bertan, famili unitatearen kontzeptua zehaztuta dago abenduaren 30eko 22/98 Foru Legeko 71. artikuluan. Horrela, bada, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari dagokionez, honako hauek dira famili unitateak:

a) Legez berezita ez dauden senar-emazteek eta, kasua bada, adin txikiko seme-alabek –gurasoen baimenez haiengandik aparte bizi direnak izan ezik– eta judizialki ezgaitutako adin nagusiko seme-alabek, luzatu edo birgaitutako guraso-ahalgopean daudenek, osatutakoa.

b) Bikote egonkorak osatzen duena, hari buruzko legedi berariazkoaren arabera, eta, baleude, adin gutxiko seme-alabek eta judizialki ezindutako adindunek, aurreko atalean adierazten den bezalaxe.

c) Legezko banantzea izan denean edo ezkontza-loturarik ez dagoenean, famili unitatea aitak edo amak eta batarekin edo bestearekin bizi diren seme-alaba guztiek osatzen dutena izan da, baldin eta aurreko idatz-zatietako baldintzak betetzen badituzte.

Famili unitatearen kontzeptuari buruzko azalpen hori literalki jasota zegoen informazio-ohar batean, enpresa sustatzaileak banaturiko eskaera guztiei erantsita.

Azalera eztabaidagai duen etxebizitzan bizi diren pertsonak ez dira, azaldutakoaren arabera, famili unitate bat, aztergai dugun arazoari dagokionez, banatu zitzaizen informazio-oharrean adierazten zen bezalaxe; horrela, bada, ez zen bidezkoa arrazoi horren ondoriozko inolako punturik ematea."

Txosten hori jaso ondoren, kexa-egileek beste idazki bat aurkeztu zuten, non adierazten baitute

zer gertatu zen haiek parte hartu zutenean [...] enpresak Buztintxurin sustaturiko etxebizitzaren esleipen-prozesuan: behin-behineko onuradunen zerrendetan sartuak izan ondoren, beranduago bertatik atera zituzten, Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Zerbitzuak eginiko zuzenketaren ondorioz. Halaber, beste enpresa batek eginiko azken sustapenetako batean gai honi berari buruz aurkezturiko alegazioa aipatzen da.

ANALISIA:

Etxebizitza-arloko horrelako jardueri aplikatzea den araudia urriaren 1eko 276/2001 Foru Dekretuak jasotzen du –horren bidez arautu zen zer finantzaketa eta laguntza neurri hartu behar diren etxebizitza gaietako ekintza babesgarrietarako, bizileku eraikinak sustatzeko, ikuskapen eta kontrolerako eta Nafarroako babes ofizialeko etxebizitzaren prezio araubidea eta deskalifikazio aukerak finkatzeko–. Foru dekretu horrek 350/2000, 75/2000, 621/1999 eta 287/1998 Foru Dekretuak ordeztu zituen, horiek baitziren lehenago aplikatu beharrekoak.

Arau horretako 6. b) artikulua –irailaren 30eko 204/2002 Foru Dekretuak aldatu du– zehazten du ezen “etxebizitzaren azalera erabilgarriaren desegokitasun” gisa hartuko dela azalera hori ez izatea, hiru pertsonarentzat, 45 metro koadro baino gehiagokoa.

Hain zuzen, [...] enpresak sustaturiko babes ofizialeko 56 etxebizitzaren hautaketan aplikatu beharreko baremoko A ataleko 2. puntuak arau horretara bidaltzen du, eta bertan adierazitako baldintza betetzen dela behar bezala frogatuz gero, eskatzaileak 30 puntu eskuratzen ditu.

Aztergai dugun kasuan, kexa-egileak beren amarekin batera bizi direneko etxebizitzaren azalera 36 metro koadrokoa da, eta hori frogatua izan da, lurzati-zedula aurkeztu baitute.

Alabaina, gai honetan datzan problema nagusia da, eta horrek bultzatu ditu kexa-egileak behin eta berriro beren desadostasuna adieraztera beren etxebizitzaren azalera erabilgarriaren desegokitasuna aintzat ez hartzearekin, desegokitasun hori frogatzea ez, baizik eta “famili unitate” kontzeptua, etxebizitza arloko ekintza babesgarriari aplikatzekoak diren arau guztietan erabiltzen dena.

Beste esparru batzuetan ez bezala –adibidez, babesturiko etxebizitza bat deskalifikatu ahal izateko gutxieneko epeak, zeinak behin baino gehiagotan aldatu baitira–, Nafarroako Gobernuak kontzeptu horren aplikazioari dagokionez beti ildo

berari eutsi dio, irizpide hori denboran zehar aldatu gabe.

Horrela, jadanik irailaren 28ko 287/1998 Foru Dekretuko 10. artikuluan –gaur egun indargabetua dagoena–, famili unitatea agertzen zen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren legediak definitu bezala. Erreferentzia hori bera hartzen zen urriaren 30eko 350/2000 Foru Dekretuan, zeinak aurreko arau hori aldatzen baitzuen. Etxebizitza babestuari buruzko gaur egungo araudiak, zeina 276/2001 eta 204/2002 Foru Dekretuek osatzen baitute, ez du kasu bakar batean ere aldatu irizpide hori, alegia, “famili unitate” gisa hartzea, soilik, zerga-legedian ezarritako baldintzak betetzen dituena.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 71. artikulua xedatuaren arabera (zeina hitzez hitz jasota baitago departamentuak emandako erantzunean), famili unitate bat dagoela kontsideratzen den kasuetatik ezin ezin zaio parekatu kexa-egileen egoerari (haiek beren amarekin bizi dira etxebizitzan).

Hemen gogoan hartu behar da ezen artikulua horrek definituriko egoeretako batean dauden pertsonak beste inor ezin dela kontsideratu famili unitatearen kontzeptuaren barrenean sarturik eta, beraz, soilik haiei aplikatu ahalko zaizkiela etxebizitzaren araudiak kontzeptu hori aipatzen duen arau ezarritako xedapenak.

Horrela, bada, nahiz eta interesdunek jotzen duten beren etxebizitzaren azalera desegokia dela, bertan bizi diren pertsonak kontuan izanda –eztabaidagaia ez da hori, alabaina–, kontua da horrek ez duela esan nahi ezaugarri horri dagozkion puntuak automatikoki esleituko zaizkien eskera aurkeztu duten sustapenetan; izan ere, puntuazio hori aplika daiteke, bakarrik, egoera horretan dagoena famili unitate bat, azaldu dugun moduan ulertua, denean. Ondorioz, aztergai dugun kasua ez ezik, beste batzuk ere, non, era berean, azalerraren aldetik desegokitasuna egon daitekeen, orduan eta handiagoa zenbat eta pertsona gehiago elkarrekin bizi, puntuazio hori eskuratzeko aukerarik gabe leudeke.

Eta ikus daiteke kasu ezberdinak aintzat hartu direla orain aztertzen ari garen arloan, gerta daitezkeen egoera ezberdinak barnean hartzeko ahallegina eginez, halako moldez non, etxebizitza-beharrizanez dagozkien kasuak aplikatuz –ezin dira elkarrekin metatu–, puntuazioa lor daitekeen, adibidez, famili unitatea osatu gabe familiartekoen edo beste familiburuen etxebizitzan haiekin batera bizitzea bezalako inguruabarrengatik, baina ez

lukeen puntuaziorik lortuko beste inguruabar bati dagokionez, hala nola aztertu duguna, azalera desegokiarena.

Baremoetako xedapenak beti hobetu daitezke, baina azalduko sustapenetarako ezarriak izan ondoren, argi dago aplikatu behar direla ezarrita dauden moduan eta aipatzen dituzten kasuak aintzat hartuz, desadostasunak desadostasun, nahiz eta zilegi izan haiekin ados ez egotea.

Bestalde, eta baremoaren aplikazioari dagokiona alde batera utziz –eskura ditugun datuen arabera uste dugu baremo horrek ezarritakoaren arabera jokatu dela–, badago bigarren arazo bat, gure ustez jorratu beharrekoa eta, nolabait, prozesu hauetan gertatzen ari dena.

Aipagai dugun arazoa gertatzen da horrelako etxebizitzan onuradunen behin-behineko zerrendan pertsona batzuk sartzen dituztenean eta beranduago, batez ere departamentuak pertsona onuradunen dokumentazioa berrikusi eta gero, puntuazioaren bat aldatzen denean, baremoko ataletakoren batean ezarritakoa oker esleitu delako.

Horrela, pertsona horiek ikusten dute behin-behineko zerrendetan esleitu zaien hasierako puntuazioa aldatu egin dietela eta, kasu batzuetan, horrez gain etxebizitza, hasiera batean lorturiko puntuazioaren arabera zegokien etxebizitza hori, eskuratu ezinik gelditzen direla.

Gure ustez, horrelako kasuetan, begi-bistakoa da zer-nolako atsekabe ekar diezaiokeen horrek pertsona bati, baldin eta hasiera batean eskuratu zuela uste zuen etxebizitza lortzeko aukera kentzen bazaio, eta horrek eragin are larriagoa izan dezake baldin eta kaltetuak ez baditu ongi ezagutzen edo ez bazaio informazio egokirik ematen hori gertatu izanaren arrazoiez.

Puntu honetan garrantzitsua iruditzen zaigu informazio hori ematea, batez ere, pertsona kalteak eskatu egiten badu. Departamentuak emandako erantzunean –kasu batean, guri, eta bestean, kexa-egileei–, hura mugatzen da afera hau enpresa sustatzailearen eskuetan uztera, eta enpresa horrek bere aldetik dioenez, baremoaren aplikazioari dagozkion gaietan departamentuak berak emandako aholkuei jarraitzen die.

Jabetzen gara ezen, departamentuak berak adierazten duen bezala, berari ez dagokiola etxebizitzak adjudikatzea eta, beraz, adjudikazioa egitean ez dela berez sortzen Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko ezein organok gauzaturiko administrazio-egintzarik. Baina horrek ez digu zuzentzat joarazi behar administrazioak

ezer jakin nahi ez izatea informazioa eskatzen duenari informazio hori behar bezala helaraztearekin; bereziki, departamentuak berak “enpresei zuzenduriko aholkularitza” deritzona gertatzen denean (zeina, gure aburuz, departamentuari dagozkion kontrol eta ikuskaritza eginkizunak betetzea baino ez baita), batez ere jatorriz publikoa, Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa zen lurzoruan eginiko etxebizitzan adjudikazio-prozesuak direnean. Kasu horietan, gure iritziz eskatu behar da, alderdi bakoitzak hartzen dituen kontratu-betebeharren ildotik, aldeztatik ezarritako baremoa behar bezala aplikatzea eta behar bezalako informazioa ematea prozesu horretan parte hartzen duenari.

Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, azaldu ditugunak bezalako kasuetan nahitaez errespetatu beharrekoak liratekeen publizitate, lehia publiko eta gardentasun printzipioak neurri berean bermatu beharko lirateke beste edozein prozesutan. Ikuspegi horretatik kontuan hartu behar da etxebizitza bat lortzeko zailtasun ekonomikoak dituzten pertsona askok horretarako duten aukera bakarra dela administrazioek eta sustatzaile pribatuek prezio babestuan eskaintzen dituzten etxebizitza-sustapenetan parte hartzea, eta horrek praktikan esan nahi duela babes ofizialeko etxebizitzak eskatzen dituztenen kopurua askoz ere handiagoa dela eskaintako etxebizitzena baino.

Horrelako prozesu batean parte hartzen dutenen arteko interes kontrajarrien egoera honetan, oraindik ere premiazkoagoa da jarduketa-arau horiek errespetatzea; batez ere, kontuan hartzen badugu horrelako etxebizitzek ordaintzeko moduko prezioa izan dezaten botere publikoek egiten duten ahalegin ekonomiko handia –salbuespen fiskalak, interes-tasetarako dirulaguntzak, funts galdurako finantzaketa eta abar–.

Hori guztia dela-eta, GOMENDIOA egin genion Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, baremoaren aplikazioa dela-eta adjudikazio-prozedura hauetan interesdun direnek desadostasunik adieraziz gero berma dezan interesdunei behar bezala jakinaraziko zaiela zehazki nola aplikatu den eztabaidaturiko irizpide edo puntua, batez ere onuradunen behin-behineko zerrendetan aldaketak gertatzen diren kasuetan. Azken kasu horretan, aldaketa departamentuak berak eginiko ikuskapenaren ondorioa denean batez ere, horri buruzko jakinarazpena departamentuak berak edo enpresa sustatzaileak egin beharko lukete, eta aldaketa horretarako arrazoiak ere adierazi beharko lituzkete.

Departamentu horretatik, Etxebizitza zerbitzuko zuzendariak erantzuna bidali zigun, eta hartatik

ondorioztatzen zen gomendio hori onartzen zute-
la. Halaber, bertan adierazten zen ahalegina egi-
nen zela departamentuak prozesu guztietan egin
beharreko ikuskapena batez ere adjudikazio-har-
tzaileen behin-behineko zerrendak argitaratu
aurreko fasera bideratzeko, era horretan zenbait
egoera saihestu ahalko bailirateke, zerrenda hori-
ek beranduago zuzentzearen ondorioz gertatu
direnak bezalakoak.

Halaber, txosten horretan erantsi zen jadanik
helarazi zitzaigun informazio bat, Sarrigurenen
1.000 etxebizitza adjudikatzeko prozesurako era-
baki zen antolamenduari buruzkoa. Aipaturiko
departamentuak prozesu horretan tinko esku hartu
behar zuen, puntuazioei eta adjudikazio-hartzaile
guztiek zerrenda bakoitzean zeukatzen posizioari
buruzko komunikazio xehekatua kudeatzuz.

**ETXEBIZITZA BATEN BIZIGARRITASUN-BALDIN-
TZA KASKARREN EGIAZTAPENA, BABES PUBLIKO-
KO ETXEBIZITZAK ADJUDIKATZEKO PROZEDURA
BATEAN**

AURREKARIAK:

Kexa-egileak kasu honetan azaltzen zuenez
(03/56/U espedientea), babes ofizialeko etxebizi-
tza bat ukatu zitzaion Arrotxapean sustatzaile pri-
batu batek eskainitako sustapen batean.

Horri buruz esaten zuen ezen, nahiz eta susta-
tzailea izan etxebizitzak adjudikatzen dituen,
Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebi-
zitza Departamentuak izan zuela adjudikazio-bare-
moa onartzeko erantzukizuna, kexa-egilearen
ustez betetzen ezinezkoa den baremoa, hain
zuzen.

Zehazki, kexan adierazten zenez, sustapenean
baloratzen ziren inguruabar pertsonaletako bat
zen une horretan eskatzailea bizi zeneko etxebizi-
tzaren bizigarritasun-baldintza kaskarrak egiazta-
tzea. Interesdunaren etxebizitzak (zeina errentan
hartua baitzuen) ez zeukan dutxarrik; horrela,
bada, Iruñeko Udalaren zerbitzu teknikoetara jo
zuten, horri buruzko ziurtagiria eskatzeko, baina
ukatu egin zieten, udaleko zerbitzuak adierazi bai-
tzuen ez zuela horrelako ziurtagiririk egiten. Hori
horrela, eta aipaturiko sustapeneko etxebizitza bat
eskuratze eskaria aurkeztean, egoera horren
berri ematen zuen zinpeko adierazpen bat erantsi
zuten.

Adjudikazioa ebatzi ondoren, eta adjudikazio-
hartzaile gisa agertzen ez zenez gero, lorturiko
puntuazioaren kopia bat eskatu zuen, eta bertan
adierazten zen ez zituztela frogatu bizigarritasun-
baldintza kaskarrak.

Horrelako baremoen aplikazioa zela-eta behin
eta berriro kexak jasotzen ari ginela ikusirik, eta
batzuetan salatzen ziguten informazioak eza ain-
tzat hartuz, eskaera bat egin genuen, batetik sus-
tatzaileek baremoak behar bezala aplikatzen dituz-
tela kontrolatze aldera departamentuak gauzatzen
dituen jarduketak ezagutzeko asmoz, eta bestetik,
jakiteko, kasu zehatz honi dagokionez, zer-nolako
bitarteko erabili beharko zuen partikularrak modu
fede-emailean egiaztatze bere etxebizitzaren
bizigarritasun-baldintza eskasak.

Departamentu horrek bidalitako txostenean
honako hau adierazten da:

“1. Lurzoru publikoaren lehiaketetatik eratorrita-
ko etxebizitzaren adjudikazioaren arloko administra-
zio-jarduketei dagokienez:

a) Sustatzaile pribatuei lurzoru publikoa adjudi-
katze lehiaketetan puntuazioa ematen zaie dei-
aldi publikoa egiteko moduei eta etxebizitzak gero-
ago adjudikatzeko aplikatu beharreko baremoei.

b) Adjudikazio horiek sustatzaileek egiten dituz-
te, ez Nafarroako Gobernuak; horrela, bada, ez
dira administrazio-egintzak.

c) Nafarroako Gobernuak bere funtzionarioak
bidaltzen ditu enpresa sustatzaileetara, hautaketa-
prozesuaren berri izateko, zalantzak argitzeko,
informazioa emateko eta egoki diren iradokizunak
egiteko. Orain arte, sustatzaileek aintzat hartu
dituzte iradokizun horiek.

2. [...] jaunaren kasuari dagokionez:

a) Ekainaren 17ko 184/1988 Foru Dekretuak
indarra hartu ondoren, nahitaezkoa da alokatzen
diren etxebizitza guztiek indarreko bizigarritasun-
zedula izatea. Beraz, errentamendu-kontratu bat
foru dekretu horrek indarra hartu ondoren sinatzen
bada, uste izatekoa da etxebizitzak bizigarritasun-
zedula badaukala; hori horrela, ezezkoan, frogaren
zama interesdunari dagokio, zeinak txosten tekni-
ko bat aurkeztu beharko baitu, eta ez adierazpen
soil bat.

b) Behin-behineko zerrendak jendaurrean jarri
ondoren, interesdunek alegazioak aurkezteko epe
bat izan zen.

c) Alegazioak, Arrotxapean egitekoak ziren
araubide orokorreko babes ofizialeko 56 etxebizi-
tzaren sustapeneko adjudikazio-hartzaileen behin-
behineko zerrendari aurkeztuak, enpresa susta-
tzaileak ebatzen zituen.

d) Hala ere, gogoan izanik sustapena Nafarro-
ako Gobernuak besterendutako lurzoru publikoan
egitekoa zela, enpresa sustatzaileak Kudeaketa
Ekonomiko eta Plangintzarako Atalari bidali zizkion

aurkezturiko alegazioei emandako erantzunak, horiek interesdunei igorri aurretik.

e) Alegazioak irakurri egin ziren, horrela egiaz-tatzeko erantzunak baremoen eta aurkezturiko dokumentazioaren arabekoak zirela.

f) Eskaeraren inprimakietan, "aurkezten diren dokumentuen zerrenda" izeneko epigrafean, adierazten zen aukera zegoela "Udaleko zerbitzu tekniko-koen ziurtagiri" bat aurkezteko, zeinak frogatu beharko baitzituen etxebizitzaren bizigarritasun-baldintza kaskarrak eta haren azalera erabilgarria (...); eta zehaztu beharko zuen ea konponketa edo hobekuntza sanitarioa bideragarria ote den ikuspegi tekniko, hirigintzako edo ekonomikotik.

g) [...] jaunak zinpeko adierazpen bat aurkeztu zuen, non esaten baitzuen ezen alokairuan bizileku gisa zeukaten pisuak ez zeukala dutxarrik, eta jabeak galarazi egin ziela hori instalatzeko obrak egitea, behin eta berriro eskatu zielako pisua ahalik eta denbora epe laburrenean utz zezatela. Horretarako eskubide osoa dauka, honekin batera bidali dugun alokairu-kontratua dela-eta.

h) Interesdunaren idazkitik ere ondoriozta daiteke etxebizitzak bizigarritasun-baldintzak bete ahaliko litzukeela, betiere errentan eman duenak obra jakin bat egitea baimenduko balu. Beraz, badirudi iradokitzen dela hobekuntza bideragarria dela, eta ez litzatekeela zilegi biziezineko etxebizitza bat denik jotzea.

i) Ezin zaio puntuaziorik eman "etxebizitza batean bizitzea, hori uzteko egun finkoa izanik" baldintzari. Ohartarazi behar da ezen [...] jaunak ez duela baremoa hitzez hitz aipatu, bertan esaten baita "etxebizitza batean bizitzea, hori uzteko egun finkoa izanik, titularrari egotzi ezin zaion ezinbesteko kausa batengatik". Aztergai dugun kasuari inola ere ezin zaio aplikatu ezinbesteko kausaren kontzeptu juridikoa.

j) Etxebizitzaren bizigarritasunik eza frogatzeko ohiko modua da bizigarritasun-zedula ukatzen duen ebazpen irmoa, gure departamentuak emana. Kasu honetan, zedula hori etxebizitzaren jabeak eskatu behar duenez eta, dirudienez, halakorik ez duenez egin, bidezkoa izanen zena da maizterrak txosten tekniko bat aurkeztea, argituko zuena ea etxeak bizigarritasun-baldintzarik betetzen duen ala ez eta, halako baldintzarik betetzen ez badu, horren zergatiak adieraziko zituena, bai eta konponketarik egin ote daitekeen ere. Adibidez, ez da gauza bera bizigarritasun-baldintzarik ez betetzea aireztatu ahal izateko kanpoaldera ematen duen gelarik ez izateagatik (egoera hori konpontzerik ez dago) edo konketa edo dutxarrik ez izateagatik (zeren, kasu horretan, konketa edo

dutxa hori jar baitaitezke, baldin eta behar den instalazioa egina badago eta behar adinako tokirik badago). Halaber, aukera dago, logikoa denez, udaleko zerbitzu teknikoek luzaturiko ziurtagiria aurkezteko."

ANALISIA:

Interesdunak frogatu zuen etxebizitzan bizi zela, errentan hartua baitzeukan. Horretarako, errentamenduaren kontratua aurkeztu zuen, 1989ko otsailaren 17an sinatua. Horren originalaren kopia bat espedienteari erantsi zaio. Halaber, etxebizitzaren bizigarritasun-baldintza kaskarrak alegatu zituen bizigarritasun-zedula bazegoela ez zekiela; izan ere, etxebizitzak ez zeukan dutxarrik, eta ez zegoen hobekuntza hori egiteko aukerarik, jabeak maizterrei horretarako baimena ukatzen baitzien, eta hark bere kabuz ere ez zuen konponketa egiten.

Arartekoari igorri dion txostenean departamentuak berak esaten duenez, eskaera-inprimakietan aukera ematen zen, aurkeztu beharreko dokumentuen zerrendari zegokionez, udaleko zerbitzu tekniko-koen ziurtagiri bat aurkezteko, zeinak akatsak frogatuko baitzituen, eta, halaber, adierazi beharko zuen ea haien konponketa edo hobekuntza bideragarria ote zen ikuspegi tekniko, hirigintzako edo ekonomikotik.

Halaber, aukera ematen zitzaion bizigarritasun-zedula ukatzen zion ebazpen irmoa aurkezteko; Departamentuak aitortzen duenez, alabaina, dokumentu horretarako eskaria etxearen jabeak egin behar du; horrela, bada, dokumentu hori interesdunak aurkeztu ezinekoa zen.

Hori dela-eta, kexa-egileak Iruñeko Udalera jo zuen, txosten tekniko hori eskatzeko, eta ukatu egin zioten, zeren eta udaleko arduradunaren iritziz etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzen kontrola Etxebizitza Departamentuaren eskumen eskusiboa baita eta, beraz, horrelako txostenak ematea Zaharberitze Bulegoak esleiturik dituen eskumenak gainditzen dituen zerbitzu bat da.

Egoera horrekin topo egitean, eta beste inolako aukerarik ez zitaionez eman, interesdunak zinpeko adierazpen bat erantsi zuen, non inguruabar horien berri ematen baitzuen, eta, horrez gain, Iruñeko Udalak txosten hori egiteari eman zion ezezkoaren kopia bat ere erantsi zuen.

Bizigarritasun-baldintza kaskarrak, antza denez, behar adina frogatu ez zituelako adjudikazio-hartzaileen zerrendan agertzen ez zela egiaz-tatu ondoren, baztertua izatearen aurkako alegazioak aurkeztu zituen, eta, une hartan, udalak bidali zion ezezkoaren idazkia gehitu zuen.

Erreklamazio horri emandako erantzunean, departamentuak zioen enpresa sustatzaileak etxebizitzak esleitzea ez dela Foru Komunitateko administrazio-egintza bat eta, horregatik, enpresa sustatzaileari zuzendu behar zitzaizkiola sustapen harekin zerikusia zeukaten eskaerak edo alegazioak.

Puntu horri dagokionez, eta horrelako kasuetarako adierazten ari garenaren ildotik, garrantzitsua iruditzen zaigu ukituriko pertsonen informazio egokia ematea haiek azaltzen dituzten gaiei buruz; kasu honetan, etxebizitzaren bizigarritasun-baldintza kaskarrak frogatzeko moduari buruz.

Gogoan daukagu ezen, departamentuak adierazten duen bezala, berari ez dagokiola etxebizitzak adjudikatzea eta, beraz, adjudikazioa egiten denean ez dela Nafarroako Foru Komunitateko administrazio-egintzarik sortzen; baina horrek ez du esan nahi zuzena iruditzen zaigunik administrazioak inolako ardurarik hartu nahi ez izatea informazioa eskatzen duenari informazio egokia helarazteko. Gure iritziz, administrazioari dagozkion kontrol eta ikuskapen eginkizunak behar bezala bete behar dira; batez ere, jadanik adierazi dugun bezala, jatorriz publikoa zen lurzoruan eginiko etxebizitzak adjudikatzeko prozesuekin jardutean; kasu horretan, uste dugu beharrezkoa dela galdetzea, alderdi bakoitzak kontratu bidez bere gain harturiko betebeharren ildotik, aurretiaz ezarritako baremoa egokiro aplikatzea eta prozesu horretan parte hartzen duenari behar bezalako informazioa ematea.

Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, azaldu ditugunak bezalako kasuetan nahitaez errespetatu beharrekoak liratekeen publizitate, lehia publiko eta gardentasun printzipioak neurri berean bermatu beharko lirateke horrelako beste edozein prozesutan, kontuan izan gabe jarduteko modua sustatzaile pribatuen bitartezkoa den ala ez den. Ikuspegi horretatik kontuan hartu behar da etxebizitza bat lortzeko zailtasun ekonomikoak dituzten pertsona askok horretarako duten aukera bakarra dela administrazioek eta sustatzaile pribatuek prezio babestuan eskaintzen dituzten etxebizitza-sustapenetan parte hartzea, eta horrek praktikan esan nahi duela babes ofizialeko etxebizitzak eskatzen dituztenen kopurua askoz ere handiagoa dela eskaintako etxebizitzena baino.

Horrelako prozesu batean parte hartzen dutenen arteko interes kontrajarrien egoera honetan, oraindik ere premia-koagoa da jarduketara arau horiek errespetatzea; batez ere, kontuan hartzen badugu horrelako etxebizitzek ordaintzeko moduko

prezioa izan dezaten botere publikoek egiten duten ahalegin ekonomiko handia –salbuespen fiskalak, interes-tasetarako dirulaguntzak, funts galdurako finantzaketa eta abar–.

Beraz, eta lehen premisa gisa, gure ustez departamentuak bermatu behar du gai horiei buruzko informazio egokia eman dadila, departamentuarenak berarenak diren zerbitzuen bitartez ez ezik, horrelako promozioak egiten dituzten bitartez ere, sustatzaile pribatuak nahiz publikoak izan. Aztergai dugun kasuari aplikatuz gero, hori honako jokabidean gauzatuko zen: kexa-egileari adieraztea zein eratan froga zitzakeen bizigarritasun-baldintza kaskarrak, ikusi ondoren ezen, eskaera-inprimakian bertan zehazturiko aukerari jarraituz, udaleko zerbitzu teknikoengandik inolako txostenik lortu ez zuela.

Aurrekoa ezertan galarazi gabe, eta azken puntu horri dagokionez, bigarren gogoeta bat plazaratzeari beharrezko deritzogu. Departamentuak berak egiten duen aipamenaren eta Iruñeko Udaletik interesdunari emandako erantzunaren arabera, bizigarritasun-zedula bera, bai eta zedula hori emateko ezarritako dagoen prozesua ere, elementu garrantzitsua izan daitezke aztertzen ari garen atalaren aplikazioa erabakitzean. Baldin eta jaberren batek egoera hori baliatu nahi badu hori baloratzen den promozioetakoren batera aurkezteko, bizigarritasun-zedula eskatu besterik ez du, ezekoa eman diezaioten, bidezkoa bada, eta horrela frogatu ahal izateko bere etxebizitzaren bizigarritasun-baldintza kaskarrak eta hura konpondu edo hobetu ezina.

Hala ere, kasu honetan bezalaxe, aukera hori, antza denez, ezin du maizter den norbaitek erabili, zeren eta, bizigarritasun-zedula emateari buruzko araudiak dioenez, ekainaren 17ko 184/1988 Foru Dekretuak hain zuzen, jabea baita zedula hori eska dezakeena.

Hori horrela, pentsatzen dugu araudi horrek ate ireki bat uzten diola gure ustez departamentuak aztertu beharrekoa den soluzio bati (azterketa horren bidez ondorioztatu behar da bideragarria ote den, balioduna izan daitekeeneko kasu-kopuruaren arabera). Foru Dekretu horretako 18.3 artikuluan jasotako xedapenez ari gara. Bertan ezartzen da ezen, errentamenduen esparruan, jabeen eta maizterren arteko harremanari eragiten dioten bizigarritasun-afereetan administrazioaren jarduera bideratuko dela giza bizilekuaren osasungarritasuna eta higieena zaindu, sustatu eta arlo horretan aholku ematera, eta etxebizitzaren egoerari buruzko ziurtagiriak luzatu ahalko dituela.

Gure iritziz bide hori da, gainera, aztertzen ari garen atalaren aplikazioari objektibotasunik handiena eman ahal diona, zeren eta egoera horien frogaraldia bakoitzaren peritu-txostenen eskuetan uzteak begi-bistako arriskuak baititu, txosten horiek gerora ez badira behar bezala egiaztatzen.

Horregatik iruditzen zaigu ezen, ikusi ditugun kasuetan, zeinetan atal hori aplikatu baita, soluzio horretarantz jo beharko litzatekeela, soluzio hori baita lortu nahi diren helburuen ikuspegitik egokiena eta objektiboena, eta etxebizitzaren adjudikazio-prozesu hauetan parte hartzen duten pertsonen kostu txikiagoak jasanarazten baitizkie.

Hori guztia dela-eta, lehenik eta behin GOMENDIOA egin genion Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, horrelako adjudikazio-prozesuak egiten direnean bermaturik egon dadin informazio egokia ematen dela aplikatu beharreko baremoetan aintzat harturiko inguruabarrak justifikatu edo frogatzeko moduari buruz, departamentu horren zerbitzuen bitartez ez ezik, baita horrelako sustapenak egiten dituztenen bitartez ere, azken horiek sustatzaile pribatuak nahiz publikoak direla ere. Bestalde, GOMENDIOA egin

zitzaion departamentu horri, eta bertan adierazi zitzaion ezen, 276/2001 Foru Dekretuko 22. A 1) artikulua aipatzen duen kasua aplikatzeari dagokionez, errentamendu kasuetan aukera eman behar zela ekainaren 17ko 184/1988 Foru Dekretuko 18.3 artikuluan jasotako soluzioaren bitartez frogatzeko baldintza hori betetzen dela (dekretu horrek arautzen ditu gutxienezko bizigarritasun-baldintzak eta bizigarritasun-zedulak emateko prozesua eta horien kontrola), eta, kasua bada, jabeek ere antzeko prozedura baten bitartez frogatu beharko luketela, beraiek direnean babes publikoko etxebizitzak eskatzen dituztenak.

»Lehen gomendioari dagokionez, Departamentuak erantzun gisa bidali zigun Sarrigurenen 17 sustapen (guztira, 1000 etxebizitza) adjudikatzeko prozesurako hartzeak ziren neurriei buruz igorri zigun informazioa. Bigarren gomendioari buruz, hau da, etxebizitzaren egoerari buruzko ziurtagiriak emateko aukerari buruz (ekainaren 17ko 184/1988 Foru Dekretuko 18.3 artikuluan xedatuari jarraikiz), adierazi zigun gomendio hori aintzat hartzen zuela, betiere ikuskapenerako teknikarien eskuragarritasunaren eta horrelako prozesuetan aurkeztu ahal zaizkien eskaeren kopuruaren arabera.

ERAIKUNTZA AKATSAK BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZETAN ETA BIZIKIDETZA ARAZOAK VINSAREN JABEGOKO ETXEBIZITZEN ERRENTARIEN ARTEAN.

AURREKARIAK:

Kasu honetan, Viviendas de Navarra, S.A. sozietate publikoaren jarduerari buruzkoa zen kexa (03/129/U espediente), eta Berriozarko [...] kalean sozietate horrek jabetzan dituen etxebizitzetan antzeman diren akats batzuen ondorioz aurkeztu zen.

Interesdunak, zeina errentan bizi baita, bere senarrarekin batera, [...] zenbakiko ezkaratzetik sarbidea duen etxebizitzan, kexa-idazkian azaltzen zizkigun, besteak beste, etxebizitza hori kokaturik dagoeneko eraikinean gertatzen ari diren zenbait egoera, bertako bizikidetzari eta bizilagun batzuei kalte larriak eragiten ari zaizkienak.

Halaber, etxebizitzan eta kokaturik dagoeneko eraikineko elementu komun batzuetan antzemandako zenbait akatsen berri eman zigun; akats horiek VINSAk ez ditu konpondu, nahiz eta horretarako eskaerak egin zaizkion.

Zehazki, aipatzen ziren sarreraren eta sarrerako eskaileren (hormigoizkoak dira) egoera, bai eta patiorako sarbidea ere, zeina eskatu baitzuten itxi zedila, kanpotarrik sartu ahal ez izateko. Salatu zuen, halaber, patiotik ura iragazten zela bere gela batera, eta horrek, jakina, hezetasun-arazoak zekartzala. Hori guztia dela-eta, jabeakideen elkar-teari eginiko ordainketak akatsak konpontzeko adinakoa dira soilik.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari gai honi buruzko informazioa eskatu ondoren, honakoa azaldu zigun bere erantzun-idazkian:

- Eraikineko bizilagunen arteko bizikidetasun-arazoei buruz, gai pribatu bat dela.
- Sarreraren egoerari buruz, eraikinaren arkitektura-diseinuarekin zerikusia duen tankerakoa dela.
- Kanpotarrik sartu ahal ez izateko helburuz patioa ixteari dagokionez, sartzeko modua luketena alokairu-etxebizitzetan eraikin bereko beste eskailerako bizilagunak lirake; beraz, hori gai pribatu bat da, bizilagunek eraikinaren jabeari, VINSARI alegia, azaldu beharrekoa.
- Etxebizitzako gela batera ura iragazteari dagokionez, bidezkoa da VINSARI eska diezaioten konponketa hori egitea, eta eskaerei jaramonik egiten ez badie, aukera daukate, eraikinaren lehen 5 urteetan, behin betiko kalifikazioa izan zuenetik,

salaketa gisa aurkezteko haien problema Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan.

- Dena den, gure departamentutik ere VINSARI jo dugu, ura iragaztearen arazoaren berri eman diezagun eta arazo hori konpon dezan.

ANALISIA

Kexa-espediente honetan bi gai aipatzen ziren, eta, izaera ezberdinekoak zirenez, azterketa berezia egin zen bakoitzari buruz.

Lehenbiziko gaia da interesduna bizi den eraikinean zenbait eraikuntza akats egotea. Ikusirik departamentuak bidalitako txostena –zeinean esaten baita VINSAREkin harremanetan jarri dela, ahalik eta azkarren konponbide bat eman dezan–, bai eta interesdunaren senarrak helarazi zigun informazioa ere –geroago VINSAREkin zenbait bilera egin baitzituen, zer konpondu behar den eta konponketen egutegia zehazteko–, ondoriozta daiteke arazo hau soluzio bidean dagoela.

Ez da berdin gertatzen, ordea, bigarren gaiarekin; alegia, VINSARI, etxebizitzetan jabea den aldetik, izan ditzakeen betebeharrak, ziurtatzeko ezen bizilagunek ez dutela urratzen kexa-egileak bere etxean lasai eta intimitate-giroan egoteko duen eskubide zilegia.

Egin diren adierazpenen eta Foruzaingoari nahiz Udaltzaingoari eginiko salaketan (interesdunak horiek ere erantsi dizkio kexari) arabera, eraikineko bizilagun gehienek etengabeko mehatxuak, irainak, erdeinuak eta are erasoak ere jasan behar izaten dituzte, eraikinean bizi den familia bateko bikidek eginak.

Hala VINSARI nola Departamentuak egoera horren berri daukate, zenbait aldiz salatua izan baita. Hori horrela izan arren, Departamentuak haxe esaten du, interesdunaren senarrari 2003ko abuztuaren 25ean bidalitako erantzunean: “zuk salatzen dituzun arazo ia guztiak arazo pertsonalak dira, maizterren arteko harreman pribatuei dagozkienak eta ez sozietate publikoak ez administrazio honek ere konpondu ezin dituztenak”.

Hori bera esaten da arartekoaren erakundera bidalitako txosteneko lehen puntuan, hain zuzen gorago jaso dugun horretan.

Gure ustez, etxebizitzetan jabea den administrazioak, hileroko alokairu-sariak jasotze hutsaz haratago, badauka betebehar bat, kexa-egileak bere etxean lasai eta intimitate giroan egoteko duen eskubide zilegia zaindu eta babestekoa. Horretarako, eskubide horri eraso egiten dioten pertsonen aurka jardun behar du, eta soluziorik egokienak

bilatu behar ditu, hori guztia uztailaren 24ko 2114/1968 Dekretuak ezarritakoari jarraikiz, zeinak onesten baitu Babes ofizialeko etxebizitzaren testu bategina garatzeko Erregelamendua.

Are gehiago; bi modu ditu eskueran, horrelako egoeretan jardun ahal izateko:

Haietako lehena ezarrita dago aipaturiko erregelamenduko 138. artikuluan, zeinean esaten baita babes ofizialeko etxebizitzaren jabeek eskatu ahaliko dutela etxebizitza horien hartzaileak, maizterrak edo biztanleak iraitzea, legedi arruntak ezartzen dituen arrazoi berberengatik eta zehazten dituen prozedurei jarraikiz.

Aplikatzekoa den legedi arrunta izanen da estatuko 49/60 Legea, uztailaren 21ekoa, jabetza horizontalari buruzkoa, apirilaren 6ko 8/99 Legeak aldatutakoa. Haren 7. artikulua xedatzen duenez, pisuaren jabeak eta biztanleak debekatuta daukate bertan edo eraikineko beste edonon egitea estatutuek baimentzen ez dituzten jarduerak, fin-kari kalte egiten diotenak, inmoralak, arriskutsuak, deserosoak edo osasungaitzak; eta hori behar adinako arrazoiak izan daiteke, behar den epaiketa arrunta egin ondoren, etxebizitza erabiltzea galarazteko.

Konstituzio Auzitegiak berak, bere 28/1999 epaian, martxoaren 8koan, aitortu zuen bide hori erabil zitekeela irain, mehatxu eta eragozpenak eragin ziren kasu batean, non biztanle baten egintzek kalte egiten baitzioten bizilagunen bizikidetzari. Arrazoi horrengatik, hari urtebetez galarazi zitzaion bere etxebizitza erabiltzea, argudiatuz ezen jabeekideen erkidegoaren baitako bizikidetzak jasandako kalteak eta okertzeak gainditu egiten zituela muga normal eta jasagarriak.

Badago, erregelamendu horretan, bide azkarago bat, 140. artikuluan zehazturikoa; horren arabera, behar den administrazio-espeditentia tramitatu ondoren, bidezkoa izanen da etxebizitzatik iraitzea halako egintzak egiten dituzten erabiltzaileak nahiz berarekin bizi diren pertsonak, kalte larria egin dietenean bizikidetzaren eta polizia arauari.

Gure iritziz, aztergai duguna bezalako kasuetan administrazioak behar beste baliabide juridiko ditu egoera hori normalizatu ahal izateko, eta ez

du mugatu behar soilik alokairu-sariak kobratzera; horrengatik, kexa honetan agerturikoa bezalako egoerak gertatzen direnean, adierazi dugun tanke-erako jarduketaren bat egitea dagokiola deritzogu.

Dena den, aitortzen dugu horrelako gaiak tratatzean badagoela zailtasunik; horrengatik, arretaz eta zorroztasunez jokatu behar da, egoera hauek pairatzen dituzten pertsonen normalean bizi duten egoera gogoan izanik; horrek, logikoa denez, behartzen du baliabide fedee-mailak erabiliz egiaztatzea ea, kexan esaten den bezala, bizikidetzari kalte egiten dioten askotariko anomaliak halako maiztasun batekin gertatzen diren; izan ere, baiezkoan, bestelako soluzio batzuk bilatu behar dira, ukiturikoen gizarteratze egokia sustatu ahal izateko eta bestalde, interesdunak, bere familiarak eta gainerako bizilagunek duten eskubide zilegia, beren etxean lasai eta intimitatean egotekoa, bermatzeko.

Laburbilduz, baldin eta salaturiko gertaerak frogatzen badira, administrazio publikoak eraginkortasunez esku hartu behar du egoera konpontzeko; horretarako, arlo horretan espezializaturiko bestelako erakunde eta funtzionarioekin koordinatzeko urratsak ere eman ditzake, neurririk egokienak har daitezkeen.

Azaldutakoagatik, egokitzen jo genuen Nafarroako Gobernuaren Ingurumen, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza Departamentuari LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENA egitea, arretaz eta eraginkortasunez jardun dezan, kasu honetan ukituriko bizilagunen artean bizikidetzaren arazoak sortzea saihesteko. Horretarako, beharrezkoak diren egiaztatze-lanak egin eta xede horretarako egokien jotzen dituen erabakiak hartu behar ditu.

Departamentuak jakinarazi zigun gogorazpen hori onartzen zuela, eta honako urrats hauek emanen zituela:

– VINSARI gogorazpen horren berri ematea, hura baita eraikinaren jabea.

– Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak hasitako jarduketari jarraipena ematea. Jarduketa horien helburua zen egoera samurtze aldera eramatea, horrelako arazoetan espezialista direnak baliatuz.

II-14. HAINBAT**TOKI ENTITATEEN FUNTZIONAMENDUA****HERRITARREN ELKARTE BAT ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO ATZERAPE-NA.****AURREKARIAK**

Pitillasko herritarren elkarte batek kexa bat aurkeztu zuen (02/319/V espedientea), udal horretako arazo publikoetan herritarrek parte hartu ezin izateari buruz.

Azaltzen zuten nola, elkarte hori Foru Komunitateko administrazioan 2002ko uztailaren 15ean legeztatu ondoren, urte bereko abuztuaren 1ean Pitillasko Udalarari eskatu zioten elkarte hori Elkartearen Udala Erregistroan inskribatzea, Toki korporazioen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko erregelamenduak agintzen duen bezala. Baina udalak ez zion jaramonik egin eskaera horri.

Halaber, azaldu ziguten ezen alkatetzak inskribatze hori onartzen zuela soilik erregistro horren araubidea ezarriko zuen ordenantza bat aurretiaz onestearen baldintzapean, eta ordenantza hori artean egin gabe zegoen. Horri buruz, uste dute udalak ez duela inskripzioa atzeratzeko eskubiderik, ordenantzarik ez egotearen aitzakiarean.

Bestalde, salatzen zuten ezen, herritarren elkarte gisa, arrakastarik gabe saiatu zirela 2002ko irailaren 27an udalak eginiko osoko bilkuran parte hartzen, Toki araubidearen oinarriari buruzko 72. artikulua jasotzen duen aukeraz baliatuz. Horretarako, eskaera aurkeztu zioten alkateari, aurrekontuei eta elkartearen inskribatu ez izanari buruz zeukaten iritzia adierazteko, baina ez zitzaizen baimenik eman inolako parte-hartzerik izateko.

Amaitzeko, ohartarazten zuten elkarteko kideei mugatzen ari zitzaizela afera publikoetan parte hartzeko daukaten eskubidea, horretarako epe-mugarik gabe atzeratuz inskripzioa, eskaerei modu txarrean eta hilabeteetako atzerapenez erantzunez, eta bizilagunen parte-hartzea nahiz eskatzen duten informazioa jasotzeko daukaten eskubidea oztopatzen saiatuz.

Pitillasko Udalak, horri buruzko informazioa eskatu ostean, ondokoa jakinarazi zigun, bertako alkate udalburuaren bitartez:

“1.- Abuztuaren 1ean aurkezturiko eskaera ikusirik, Pitillasko alkateak, erregistro horri zegokionez egoera zein zen ez zekienez, egoera hori berria baitzen udal honetan, abuztuaren 13ko ebazpenaren bitartez egoerari buruzko txosten bat eskatu zion idazkaritzari, bai eta eskatutakoa bete-

tzeko udalak egin beharko lukeenari buruzko txostena ere.

Horrela, urte bereko abuztuaren 19an, idazkaritzak txostena eman zuen, zeinetan adierazten baitzen ez zegoela horrelako erregistrorik eta, ondorioz, bidezkoa zela erregistroa arautuko zuen ordenantza bat egitea.

Horrela, alkatetzak ebazpena eman zuen irailaren 4an, non ez baitzaio inola ere ezezkorik ematen eskaturiko inskripzioari, baizik eta hauxe esaten den: “eskaera jaso dela aitortzen da eta administrazio-zerbitzu eskudunari agintzen zaio nahitaezkoa den Pitillasko herritarren elkarteari buruzko ordenantzaren proiektua presta dezan.”

2.- ...Aipaturiko ordenantza-proiektua prestatu-rik daukate administrazio-zerbitzuek, eta udal honen asmoa da Pitillasko udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran, aurtengo martxoaren 28an egitekoa den horretan, testu hori aurkeztu eta berari hasierako onespina emateari buruzko erabakia hartzea.

Testu horren prestaketan gertatu ahal izan den atzerapena arrazoi ezberdinen ondoriozkoa da; gainera, udal honetan espediente ugari ari dira tramitatzen, eta horrez gain kontuan hartu behar da udaleko langileak Beireko Udalarekin konpartitua direla; horregatik, astean egiazki hiru egun besterik ez dute erabiltzen Pitillasko gaiak tramitatzeko.

3.- ... 2002ko irailaren 27ko osoko bilkuran parte hartzeko eskaera egin zen bilkura hori hasi baino minutu batzuk lehenago, ahoz, eta alkateari zuzendurik, eta betiere Toki araubideko oinarriari buruzko Legeko 72. artikuluari buruz elkarte horretako ordezkariak eginiko interpretazioari jarraikiz, hark jotzen baitzuen herritarren elkarteek eskubidea daukatela osoko bilkuretan parte hartzeko, gogoan izan gabe soil-soilik udalbatzako buruarena dela bilkuretako eztabaida zuzentzeko ahalmena, eta soilik bera dela hitz egiten uzteko edo ez uzteko eskuduna. Beraz, osoko bilkuretan esku hartzeko aukera ematea edo ez ematea udalbatzako buruaren erabakia da, Antolakuntza eta Jarduera Araudiko 228. artikulua adierazten duen bezalaxe, bertan aipatzen baitira “alkatearen baimena” eta “alkateak ezar dezake.”

Beraz, hori ez da antolamendu juridikoak elkartei ematen dien eskubide bat, baizik eta aukera bat, alkatearen erabakiaren esparrukoa, eta hark egokitzen jotzearen baitan egonen dena.”

ANALISIA

Gai honetan, lehenik eta behin gogorarazi behar dugu elkartzeko eskubidea Konstituzioko

22. artikuluan jasota dagoela, oinarritzko eskubide gisa, eta berriki onetsiriko Elkartzeko eskubideari buruzko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan garatua. Bertako zioen azalpenean esaten da fenomeno soziologiko eta politiko bat dela, bai eta pertsonen berezko joera bat eta parte hartzeko bitarteko bat ere, eta horri ezin diotela botere publikoek bizkar eman. Zioen azalpenean ere, esaten da elkarte-eskubidearen babesa bi ikuspegitik eskaini beharrekoa dela: alde batetik, bizitza sozialaren esparruan pertsonak daukaten eskubide gisa, eta bestetik, elkarteek funtzionatu ahal izateko izan behar duten ahalmen gisa. Bigarren ikuspegian sarturik daude, legearen arabera, elkartearen ahalmena kasuan kasuko erregistroan inskribatzeko; beren antolamendua ezartzeko, legeari jarraikiz betiere; beren helburuak betetzera zuzenduriko jarduerak egiteko, berariazko lege sektorialeki jarraikiz; eta azkenik, administrazioen inolako esku-sartzerik ez jasateko.

Toki administrazioaren arloan, bi arautan aipatzen da elkartearen gaia: toki araubideko oinarri buruzko legean (7/1985 legea, apirilaren 2koa) eta Toki entitateen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko erregelamenduan, zeina azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onetsi baitzen.

Gogoan izanik araudiari buruzko aipamen hori eta kexa honetan guk azter ditzagun aurkeztu zaizkigun arazoak, bi punturen inguruan egituratu behar dugu gure azterketa:

batetik, hizpide dugun elkartea herritarren elkartearen udal erregistro horretan inskribatzeko atzerapena edo inskripziorik eza, Pitillasko Udalak horrelako erregistrorik ez izateagatik eta horren araubidea ordenantza bidez oraindik egin gabe egoteagatik.

eta bestetik, elkarte horrek udaleko osoko bilkurretan parte hartzeko aukera.

1.- Lehendabizikoari buruz, lehen aipaturiko arauetan nahiko argigarriak diren zenbait xedapen agertzen dira:

Lehenik eta behin, Konstituzioak berak, bere 22. artikuluko 3. puntuan, dio artikuluko horren babespean eraturiko elkarteak erregistro batean inskribatu beharko direla, publizitate-ondoreetarako bakarrik.

Bestalde, Elkartzeko eskubideari buruzko 1/2002 Legeko 10. artikuluko haxe adierazten du:

1. Lege honetan arauturiko elkarteak kasuko erregistroan inskribatu beharko dira, publizitate-ondoreetarako bakarrik.

2. Erregistroko inskripzioak publiko bihurtzen du elkartearen eraketa, bai eta haien estatutuak ere, eta berme bat da, bai elkarteekin harremanak dituzten hirugarrenentzat, bai elkarteetako kideentzat ere.

Aurrekoaren osagarri, 24. artikuluko honako hau xedatzen du:

Elkartzeko eskubideak bere barnean hartzen du behar den elkarte-erregistroan inskribatzeko eskubidea, eta horri ezezkoa eman ahalko zaio, soilik, lege organiko honetan ezarritako betekizunak betetzen ez direnean.

Bere aldetik, 30. artikuluko honakoa dio:

1. Kasuko erregistroan inskribatzeko epea, betiere, hiru hilabetekoa izanen da, organo eskudunak eskaera jasotzen duenetik.

Aurreko lerrokadan zehazturiko inskripzio-epea igarotzen bada ebazpen espresik jakinarazi gabe, inskripzio-eskaera baietsizat hartzen ahalko da.

Administrazioak inskripzioa eginen du eta bere jarduera mugatuko du fundazio-aktak eta estatutuek bete beharreko betekizunak betetzen ote diren egiaztatzerako.

Toki entitateei buruzko araudiari dagokionez, Toki araubidearen oinarri buruzko legeak 72. artikuluan xedatzen du ezen herritarren interes orokorrak nahiz sektorialak defendatzeko elkarteak garatzearen alde lan eginen dutela udalbatzek, beren jarduerari buruzko informaziorik zabalena eskainiko dietela eta, ahal duten neurrian, erraztu eginen dietela bitarteko publikoak erabiltzea eta haien jarduerak egin ahal izateko diru-laguntzak eskuratzea, eta udalaren kudeaketan elkarte horiek parte hartzeari bultzada emanen diotela, 69. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako moduan.

Bestalde, Toki entitateen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko erregelamenduak gai hori 236. artikuluan ukitzen du; hain zuzen ere, haxe dio:

1. Erregelamendu honetako 232, 233, 234 eta 235. artikuluetan herritarren interes orokor edo sektorialen defentsarako elkartei aitorturiko eskubideak egikaritu ahalko dituzte soilik herritarren elkartearen udal erregistroan inskribatuak daudenean.

2. Erregistroaren xedea da udalari modua ematea udalean dauden entitateen kopurua, helburuak eta ordezkapen-ahalmena ezagutzeko, herritarren elkartegintza sustatzeko udal politika egokia ahalbidetze aldera. Beraz, ez dauka zerikusirik elkartearen erregistro orokorrarekin, zeinean ere inskribatu behar diren elkarte guztiak.

3. Herritarren elkarten udal erregistroan inskribatu ahalko dira xedetzat udaleko bizilagunen interes orokor edo sektorialen defentsa, sustapen edo hobekuntza daukaten guztiak eta, bereziki, auzo bateko bizilagunen elkarteak, ikasleen gurasoenak eta kultura, kirol, aisialdi, gazte, sindikatu, enpresa, lanbide eta antzeko beste edozein arlotako entitateak.

4. Udalbatzako idazkaritza nagusian kokatuko da erregistroa, eta bere datuak publikoak izanen dira. Elkarte interesdunek eskaturik egingen dira inskripzioak. Horretarako eman beharreko datuak hauexek dira:

- a) Elkartearen estatutuak.
- b) Elkarten erregistro orokorreko eta beste erregistro publiko batzuetako inskripzio-zenbakia.
- c) Zuzendaritza-karguetan dauden pertsonen izenak.
- d) Elkartearen helbidea.
- e) Urte horretako aurrekontua.
- f) Bazkide-kopuruari buruzko ziurtagiria.

Inskripzio-eskaera egiten denetik hamabost eguneko epean, non eta epe hori ez den eten behar hasiera batean aurkeztu ez zen dokumentazioa hartu beharraren ondorioz, udalak elkarteari jakinaraziko dio zein inskripzio-zenbaki duen, eta une horretatik aurrera joko da alta eman zaiola ondorio guztietarako.

Inskribaturiko elkarteak behartuta daude erregistroari jakinaraztera datuen aldaketa oro, aldaketa hori gertatu eta hilabeteko epean. Jardueren urteroko aurrekontua eta programa jakinaraziko dira urte bakoitzeko urtarrilean.

Betebehar horiek ez betetzeak erakarriko du udalak elkarteari erregistroan baja eman ahal izatea.

Azaldu ditugun arauetatik, gure azterketaren lehendabiziko puntuari –hau da, elkarte udal erregistroan inskribatzeari– dagokionez, zenbait ondorio atera ditzakegu, iritzi hau mamitzera garamatzenak: Pitillasko Udalak bere txostenean aipatzen duen ordenantzaren balizko prestaketak ezin du inola ere baldintzatu, baldintzatzan ari den bezala, elkarten udal erregistroan elkarte bat inskribatzea, zeinak horretarako eskaera egin duen eta horretarako betekizunak betetzen dituen. Kontuan har bedi ezen Toki entitateen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko erregelamenduko 232. artikulutik 235.era bitartekoetan herritarren interes orokor edo sektorialen defentsarako elkarteei aitortzen zaizkien eskubide-

ak ezin direla egikaritu inskripzioa gauzatzen ez den bitartean. Laburki zehaztearren, eskubide horiek dira laguntzak jasotzekoa, udaleko baliabide publikoak eskuratzekoa, informazio-eskubidea eta parte hartzeko eskubidea.

Izaera formaleko kontu batengatik eskubide horiek ezin egikaritu izatea inola ere justifikatu gabe dagoela iruditzen zaigu; are gehiago honakoak aintzat hartzen baditugu:

1.- Aipaturiko erregistroan inskribatzearen xedea da udalari modua ematea udalean dauden entitateen kopurua, helburuak eta ordezkapen-ahalmena ezagutzeko, herritarren elkartegintza sustatzeko udal politika egokia ahalbidetze aldera.

2.- Inskripzioa egin beharrekoa dela horretarako eskaera eginez gero eta, betiere, lehen aipaturiko 236. artikulua zehazten dituen datuak ematen badira; alegia, elkartearen estatutuak, elkarten erregistro orokorreko eta beste erregistro publikoetako inskripzio-zenbakia, zuzendaritza-karguetan dauden pertsonen izenak, elkartearen helbidea, urte horretako aurrekontua eta bazkide-kopuruari buruzko ziurtagiria.

Hortaz, inskripzioa ezin da atzeratu, atzeratzen ari den bezala; lehenik eta behin, interesdunei beren eskubideak egikaritzeari dagokionez egiten zaien kalteagatik, eta, bigarrenik, gai horretan arauak oso argi zehazten dituztelako epeak, eta zentzu positiboan eta eskatzailearen mesedetan eragiten dutelako epe horiek.

Ezertan galarazi gabe udalak ordenantza bat egiteko duen eskubidea, zeinak “.. gai hau arautuko duen... erantzun zabala emanen dien gai horren alderdi guztiei, beste udal batzuetan egin den bezalaxe, udal esparruko araubiderik eza dela-eta,” udaleko idazkaritzak emandako txostenean esaten den bezalaxe, udala behartuta dago, horretarako egin zaion eskaeraren ondoren, ahalik eta azkarren jardutera, elkarteei eta horien kideei aitorturiko eskubideak eraginkor egiteko; eta, horretarako, erregistroa sortu behar du, eta bertan inskribatu behar du horretarako eskaera egiten duen eta zehazturiko datuak ematen dituen elkarte.

Beraz, herritarrek elkartzeko eta parte hartzeko dituzten eskubideek eta eskubide horietatik eratorritako gauza guztiek lehentasuna izan behar dute bestelako formalismo batzuen gainetik; izan ere, formalismo horiek kasu batzuetan komenigarriak eta beharrezkoak ere izan arren, ezin dute baldintzatu, garaiz egin ez izatearen ondorioz, maila honetako eskubideen gauzatzea. Edozein kasutan ere, ordenantza onesten denean –hasierako onepena 2003ko maiatzaren 19ko 62. Nafarroako

Aldizkari Ofizialean iragarri da; hau da, elkarteak elkarteen udal erregistroan inskribatua izatea eskatu zuenetik zortzi hilabete eta erdi igaro direnean, udalak, egoki baderitzo, elkarteari eskatu ahalko dizkio beharrezkoak izan daitezkeen datuak edo informazio osagarria, baina, gauden garaietan gaudelarik, gure ustez horrek ezin du oztopo izan ez erregistroa berehalakoan eratzeko, ez eta jarraian elkarte bertan inskribatzeko ere.

2. Gure azterketaren bigarren puntuari dagokionez, elkarteek udalaren osoko bilkuretan parte hartzea, alegia, bi arau arduratzen dira horretaz berariaz: Toki araubidearen oinarri buruzko Legea eta Toki entitateen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamendua.

Toki araubidearen oinarri buruzko Legeak haxe dio 69. artikuluan:

1. Toki entitateek ahal den informaziorik zabalena eskainiko dute bere jardunaz, eta herritar guztiek herriko bizitzan parte har dezaten erraztuko dute.

2. Udalbatzek beren burua antolatzeke daukaten ahalmena egikaritzuz ezartzen dituzten parte hartzeke modu, bitarteko eta prozedurek ezin izanen dituzte inola ere kaltetu legearen bitartez arauturiko ordezkari-organoei dagozkien erabaki-ahalmenak.

Aurrekoaren osagarri, 72. artikulua xedatzen duena, lehenago jadanik aipatu duguna, aintzat hartu behar da. Bestalde, antolamendu eta funtzionamendu erregelamenduko 227. artikulua haxe dio:

1. Osoko bilkurak publikoak dira, salbu eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.1 artikuluan jasotako kasuetan.

2. Ez dira publikoak ez gobernu batzordearen bilkurak, ezta informazio batzordeenak ere. Hala eta guztiz ere, azken horien bilkuretara etortzeko deia egin ahalko zaie aurreko zenbakian aipaturiko legeko 72. artikuluan zehazturiko elkarte edo entitateetako ordezkari, baina gai zehatz bati buruz daukaten iritzia entzuteko edo egin duten txostena jasotzeko soilik.

3. Udaleko erregelamendu organikoak ezar ditzakeen gainerako organo osagarrien bilkurak publikoak izan ahalko dira, haiek arautzen dituzten legeek, erregelamenduek edo osoko bilkurako erabakiek ezarritako moduan.

228. artikulua honakoa zehazten du:

1. Apirilaren 2ko 7/1985 legeko 72. artikulua aipatzen dituen elkarte edo entitateetakoren batek

azalpenen bat eman nahi badu osoko bilkuran, aurretiazko administrazio-tramitazioan interesdun gisa esku hartu duen gai-zerrendako edozein gairi buruz, alkateari eskatu beharko dio, bilkura hasi baino lehen. Alkatearen baimena izanik, eta ordezkari bakar baten bitartez, bere iritzia adierazi ahalko du, alkateak finkatzen duen denbora-tartean, gai-zerrendan sarturiko proposamena irakurri, eztabaidatu eta bozkatu aurretik.

2. Osoko bilkura amaitu ondoren, alkateak erabaki ahalko du bertaraturiko jendeak eskari eta galderak egin ahal izateko txanda bat egon dadila, udal-esparruko interesekoak diren gai zehatzei buruzkoa. Alkateari dagokio txanda hori antolatu eta ixtea.

Aurreko artikulua horietan esandakotik ondoriozta daiteke bereizi egin behar direla, batetik, bilkuretan berez publikoari dagokion esku-hartzea, osoko bilkura amaitu ondoko eskari eta galderen txandaren bitartez gauzatzen dena, eta –egia da– alkateari dagokion erabakiaren baitakoa dena, eta bestetik, herritarren interes orokor edo sektorialen defentsarako elkarteek osoko bilkuretan eman nahi dituzten azalpenak edo izan nahi dituzten esku-hartzeak (aukera hori aipaturiko artikuluko 1. idatz-zatian jasota dago).

Azken kasu horretan, eta, hain zuzen ere, elkarte horiei kasuan kasuko udal erregistroan inskribatuak egotearen ondorioz aitortzen zaizkien eskubideen artean, argi dago haiek eskubidea daukatela osoko bilkuran horrelako azalpenak emateko, baldin eta, betiere, arauak berak aipatzen dituen inguruabarrak betetzen badira; hau da, alde aurretik horretarako eskaera egin dezatela, eta eskaera horren gaia den arazoaren aurretiazko administrazio-tramitazioan parte hartu izan dezatela, interesdun gisa. Alkateari eskaera egiteko modua da udalak berak finkatu eta arautu beharrek gai bat, tramite honetan gutxieneko ordena bat bermatu ahal izateko; baina horrek ezin izanen du inola ere mugatu eskubide hori.

Alabaina, hori esan ondoren, komeni da halaber azpimarratzea udalbatzek beren burua antolatzeke daukaten ahalmena egikaritzuz ezartzen dituzten parte hartzeke modu, bitarteko eta prozedura horiek guztiek ezin izanen dituztela inola ere kaltetu haien ordezkari-organoei –Toki araubideko oinarri buruzko Legeko 69.2 artikuluan arautuak– dagozkien erabaki-ahalmenak.

Azaldutakoagatik, GOMENDIOA egin genion Pitillasko Udalari, batetik, Pitillasko herritarren elkarteen udal erregistroa berehala sor zezan, antolamendu eta funtzionamendu erregelamenduko 236. artikulua xedatuari jarraikiz, eta, sortu ondoren,

kexa egin duen elkarteak behinola egin zuen inskripzio-eskaera segituan bidera zezan; eta, bestalde, antolamendu eta funtzionamendu erregelamenduko 228. artikulua ezarritakoaren arabera jardun zezan, herritarren interes orokor edo sektorialen defentsarako elkarteek osoko bilkuretan esku hartzea edo azalpenak ematea errazteko, hala eskatu badute eta interesdun gisa esku hartu badute arazoak aurretiaz izandako administratziotramitazioan.

Udal horretako alkate udalburuak bidali zigun hasierako erantzun batean, hiru gai oso zehatzi buruzko azterketa egiten zuen, hala nola elkartearen erregistroa eratzea, elkartea inskribatzea eta elkarteek osoko bilkuretan parte hartzea.

Lehendabiziko puntuari dagokionez, elkartearen erregistroa eratzea, berriro ere esaten zitzaigun udala ordenanantza arautzailea tramitatzen ari dela, eta horri bi alegazio aurkeztu zaizkiola. Bestalde adierazten zenez, hauteskunde-prozedurak gerarazi egin du onespentramitea, osoko bilkurak egin behar baitu hori, eta orain dela gutxi arte udala ez zen eratu, hauteskunde-auzi bat zela-eta; aurreikuspenen arabera, izanen den lehen osoko bilkuran onetsiko da ordenantza hori.

Kexa egin duen elkartearen inskripzioari dagokionez, berretsi ziguten inskripzio horren tramitazioa eginen dela indarreko legediak ezartzen duen moduan, eta behin betiko inskripzioa eginen dela legez eskaturiko betekizun guztiak betetzen badira.

Hori ikusita, alkate udalburu horri adierazi genion bi gai horiei buruz ez zigula ezer berririk esan, guk horri buruz gomendioa egin genionean aintzat hartu ez genuenik. Horrela, bada, berriro ere adierazi genion gure iritzia, alegia, ezin dela argudio formalik baliatu aztergai duguna bezalako tramite bat ez bideratzeko, eta hori eragiten ari dela Toki entitatearen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamenduko 232. artikulutik 235.era bitartekoek elkarte hauei aitortzen dizkieten eskubideak egikaritzeko aukeretan.

Elkartearen erregistroan inskribatzeko hasierako eskaera egin zenetik inskripzio hori egin gabe urtebete baino gehiago igaro izanak ederki asko erakusten du guk adierazten genuena. Beraz, berriro ere azpimarratu genuen eginiko gomendioa, alegia, aipatu dugun elkartearen erregistro hori sor dadila eta, jarraian, kexa-egileak erregistro horretan inskribatzeko eginiko eskaerari erantzuna eman dakiola.

Gai publikoetan herritarrek parte hartzeari dagokionez, udalaren osoko bilkuretan elkarte horrek izan beharreko balizko esku-hartzearekin

lotuta, eta ezertan galarazi gabe osoko bilkuretako esku-hartzei buruzko erabakiak hartzeko alkateak dituen eskumenak, aplikatzekoak diren arauak jarraikiz ere erabili behar direnak, kontua da aipatu egin genituela elkarte-izaerako entitate horien zeregin garrantzitsuari buruz auzitegiek egin izan dituzten adierazpen batzuk. Horrela, Auzitegi Gorenak 2000ko urriaren 11ko epaian dioenez, "aipaturiko arau guztietan (Antolamendu eta funtzionamenduari buruzko Erregelamenduko 236. artikuluan, Toki araubideko oinarriari buruzko Legeko 72. artikuluan eta abar) azpimarratzen da horrelako udalbatzak behartuta daudela herritarren interes orokor edo sektorialak defendatzen dituzten elkartearen garapena erraztera, eta horrekin batera modua badagoela, beren jarduerak egin ahal izan dituzten, haiei baliabide publikoak erabiltzen uzteko eta diru-laguntzak emateko, udalbatza horien kudeaketan haien parte-hartzeari bultzada emateko, Toki araubidearen oinarriari buruzko Legeko 69. artikuluan ezarritako moduan. Udalbatzen betebeharrak horren ondorio gisa, herritarren elkartearen udal erregistro bat sortzeko asmoa dago, helburu gisa izanen duena aipaturiko elkartei aitorturiko eskubideen egikaritzea ahalbidetzea, baldin eta elkarteak erregistro horretan inskribatuta badaude."

Bestalde, Konstituzio Auzitegiak, urriaren 27ko 165/1987 epaian, honako hau adierazi zuen, antzeko ildotik: "Herritarren elkarteak herritarrek bizitza publikoan parte hartu ahal izateko tresna bat dira, bereziki herriko bizitzan parte hartzeko, eta gure antolamendu juridikoak haiek sustatzeko ahalgina egiten du, Toki araubideko oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 72. artikuluan, eta azaroaren 28ko 2569/1986 Errege Dekretuko 227. eta 228. artikuluetan; izan ere, elkarte horiek agerkari demokratiko gorpuztuak dira, herritarren interes orokor edo sektorialen defentsarakoak, eta hartzen dituzten eginkizunen artean dago, besteak beste, herritarren multzoarentzat edo haietako norbaitentzat bidegabeak edo kaltegarriak iruditzen zaizkien egoeren berri ematea iritzi publikoari eta egoera horiei buruzko kontzientzia sustatzea; beraz, elkarte horiek eratzen dira Konstituzio-ko 22.1 artikulua bermatzen duen oinarritzko eskubide bat egikaritzuz; hain zuzen ere, elkartzeko eskubidea. Eskubide horren eduki positiboa datza elkartearen eraketan ezarritako helburu zilegiak erdiesteko behar den edo komeni den jarduerarekin, horretarako bitarteko halaber zilegiak erabiliz..."

Laburbilduz, elkarte horren inskripzioaren eta udaleko osoko bilkuretan parte hartu edo ez hartzearen afera ikuspegi orokor batetik behatu behar zen gure iritziz, eta ondorio guztiekin, gorago azal-

dutako ikuspegitik. Beste gauza bat litzateke, ordea, eskubide horien erabilera zein kasu zehatzetan gauzatzen den aztertzea, udaletik eginiko iradokizuna dela-eta; izan ere, hori ez zen une hartan gure analisiaren xedea, zeren eta kasu zehatz bakoitza aztertu eta horretan biltzen diren inguruabar guztiak kontuan hartu beharko bailirateke.

Dena den, eta azaltzen saiatu ginenez, gure ustez behar adina arrazoi zeuden udal horri eskatzeko gure gomendioan aipatu genuen moduan jardun zezala elkarrekin erregistroan inskribatzeari zegokionez, bai eta lehen adierazitako gogoetak aintzat har zitezten, elkarrekin horri ahalbidetzeko lege aitorturiko eskubideak egikaritzen, adierazitako moduan. Uneoro izan behar da gogoan gure azken jakinarazpenean jadanik adierazi genuen zerbait; alegia, udalbatzek beren burua antolatze-ko ahalmena erabiliz ezartzen dituzten parte hartze-ko modu, bitarteko eta prozedura horiek guztiak ezin dietela inola ere kalterik egin haien ordezkari-tza-organoenak (zeinak toki araubideko oinarri- buruzko legeko 69.2 artikulua arautzen baititu) diren erabaki-ahalmenei.

Udalari gogoeta horiek helarazi eta horri buruz zer jarrera adieraziko zuen zain gelditu ondoren, udal horretako alkate udalburuak erantzuna bidali zigun, zeinean berriro ere erabiltzen baititu lehena- go bidali zitzaizkigun idazkietan bildutako antze-ko argudioak. Azkenik esan zigun ezen, erregistro horretako inskripzioari dagokionez, haren eraketa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzearen zain dagoela eta, behin eratu ondoren, elkarre- horren eskaera bideratua izanen dela eta erantzun eginen zaiola.

Arartekoaren erakundea arautzen duen uztaila- ren 3ko 4/2000 Foru Legeak ezartzen duenez, Nafarroako Parlamentuari zuzenduriko urteroko txostenean jasoko dira arartekoak emandako eba- zpenak, eta aipamen berezia eginen da ararte-koaren iritziz soluzio positibo bat izan zezaketen arren halakorik lortu ez den arazoetan laguntze-ko jarrerarik izan ez duten administrazio publikoei buruz.

Ildo horretatik, eta udal horrekin eztabaidan hasteko asmorik gabe, eta jakinik, horren konstan- zia daukagulako, nolako zailtasunekin egin deza- keen batzuetan topo eginkizun horretan, iruditzen zaigu ezen, kasu honetan, laguntasun handiagoko jarreraz hartu ahal izan zituela arartekoaren oha- rrak, gai nagusizat honakoak zeukatenak: elkarre- en udal erregistroa sortzea eta elkarrekin kexa-egile- ak bertan inskribatzeko egin zuen eskaerari berehalako erantzuna ematea.

Horrela, bada, udal horrek gure iritzia onartu ez duela ikusirik, horren berri ematen dugu urteroko gure txostenean.

KONTZEJUKIDE KARGUAN ARITZEKO ZAILTA- SUNAK, HORRETARAKO BEHARREZKOA DEN INFORMAZIOA ESKURATZERIK EZ IZATEAGATIK.

AURREKARIAK:

Kontzejukide batek kexa bat aurkeztu zuen (02/324/V espediente), Arlegiko Kontzejuko kontzejukide gisa bere eginkizunak betetzeko dituen zailtasun batzuen ondorioz.

Kexa-idazkian azaltzen zuenez, osoko bilkure- tan ez zaio eztabaidak grabatzeko bitartekorik era- biltzen uzten. Berak beharrezkotzat jotzen du neu- rri hori, idazkaritzak idatzitako aktak bilkuretan eztabaidaturikoarekin funtsean bat etor daitez- en. Halaber, adierazi zuen osoko bilkuretarako deialdi- etan eta bilkura horiek egitean ere ez dela gai- zerrendako azken puntu gisa sartzen eskaera eta galderei dagokiena.

Horrez gain, kexa-egileak zioenez, bilkureta- ko deialdiak ez dira behar bezala egiten, eta lege bitartez ezarritako gutxieneko epeak ere ez dira errespetatzen; bestalde, bilkuretako espedienteak ez dira kontzejukideen eskueran jartzen, nahiz eta, horrela, kontzejuko bileretara joan aurretik haiek aztertzeko modua izanen luketen. Orobat salatzen du eskatzen dituen osoko bilkuraren era- bakiak ez zaizkiola helarazten. Horrek guztiak urratzen du karguan aritzeko behar duen informa- zioa jasotzeko daukan eskubidea.

Arlegiko Kontzejuko buruak honako informazio hau helarazi zigun:

“Zure idazkia dela-eta, zeina joan den abendu- aren 26koa baita, 20/324 espedientekoa, eta Arle- giko Kontzeju honetako kontzejukide den [...] andreak aurkezturiko kexa-idazkiaren ondorioz- koa, honako hau azaldu behar dizut:

Soilik kontu formalak izan daitezkeen arren, [A] jaunak kontzeju honetako buru izateari utzi zion 2001-11-26ko bilkuran, eta haren orde- z [B] jaunak hartu zuen kargua, batzordeak 2001-12-04an har- turiko erabakien arabera. [...] andreak auzitan jarri zuen hauteskunde batzorde zentral-ean, bere garaian, ez kontzejuburu berriaren izendapena, baizik eta [A] jaunak kontzejukide bezala segitu edo ez segitzea. Gai hori 2002-02-27ko erabaki-aren bitartez ebatzi zuen hauteskunde batzorde zentralak, eta erabaki zuen [A] jaunak kontzejuki- de gisa segitu ahal izatea aitortzea (erabakiaren kopia erantsi dugu).

[...] andreak berak Nafarroako Toki Administrazioako Departamentuari salaketa bera egin zion, eta gaur egun gai horri buruzko ebazpen judizial bat emateke dago Nafarroako Auzitegi Nagusian, administrazioarekiko auzi errekurtsio bat aurkeztu baita, 873/02 zenbakia duena.

Gaiaren funtsari dagokionez:

Ez da inola ere egia aipaturiko kontzejukideari "eztabaidak grabatzeko bitartekorik" erabiltzen utzi ez izana.

Kontzejuko batzordeak 2002-08-21ean eginiko bilkuran, [...] andrea bilkura grabatzen hasi zen, baina kontzejuburuari ez zion horri buruzko aurre-tiazko jakinarazpenik egin. Hori zela-eta, grabagai-lua handik eramateko eskatu zitzaion, eta halaxe egin zuen azkenean, eta bere gogoz.

Batzordeak egin zuen hurrengo bilkuran, 2002-12-23koan (hain zuzen, kontzejuak orain arte egin duen azkena), aipaturiko kontzejukideak, kontzejuburuari alde aurretik jakinarazi ondoren, bilkura guztia grabatu ahal izan zuen, eta egin ere halaxe egin zuen.

Halaber, bilkuretarako deialdiak gutxieneko epeak errespetatu gabe egiteari buruzko salaketak faltsuak dira, bai eta bilkuretako espedienteak kontzejukideen eskueran ez jartzeari buruzkoak eta kontzejuari eskatzen zaizkion osoko bilkuraren erabakiak ez helarazteari buruzkoak ere.

"Batzorde arrunterako deialdia. Batzordea 2002ko abenduaren 23an bilduko da, 19.30ean, kontzejuaren lokalean.

GAI ZERRENDA

Aurreko akta irakurri eta onestea.

Gora jotzeko errekurtsioak, zenbaki hauek dituztenak: 02-3969, 02-3970 eta 02-3971.

Kontzejuaren lokala zaharberritzea.

Herrian dauden ehun urtez gorako hiru zumarren egoera.

Eskariak eta galderak, [...] andreak aurkeztuak."

Kontzejukide horren jokabidea –batzorde hau osatzen duten bost kideetatik gainerakoena ez bezalakoa– behar den testuinguruan kokatzeko, adierazi behar dugu ezen, legegintzaldiaren hasieratik, andre horrek, antzeko egintzak eta egoerak direla-eta, 11 errekurtsio aurkeztu dizkiola Nafarroako Administrazio Auzitegiari; hain zuzen ere, jarraian zerrendatzen ditugun hauek:

3363/99 zk.	Bilkura bereziko deialdia egiteari buruzkoa.	Ezetsia.
1849/00 zk.	Herrilurrak mugatzeari buruzkoa.	Ezetsia.
4295/00 zk.	Obra-lizentzia emateari buruzkoa.	Ezetsia.
0033/00 zk.	Kontzejuko batzordearen bilerarako deialdiaren betekizunei buruzkoa.	Ezetsia.
1294/01 zk.	Etxebizitza bateko obretarako dirulaguntzari buruzkoa.	Ezetsia.
1863/01 zk.	Kontzejuak 2001-03-22an harturiko erabakien aurkakoa.	Ebazteke.
2923/02 zk.	Dokumentazioa eskuratzeari buruzkoa.	Ebazteke.
2924/02 zk.	Erabakien eskariari emandako isilbidezko ezetzari buruzkoa.	Ebazteke.
2347/02 zk.	Erabakiak eskatzeari buruzkoa.	Ebazteke.
3969/02 zk.	Aktaren zirriborroa eskatzeari buruzkoa.	Ebazteke.
3970/02 zk.	Udaleko hirigintza-espedientea eskuratzeari buruzkoa.	Ebazteke.

Hain zuzen ere, 3969/02 zenbakia duen gora jotzeko errekurtsioan, zeina ebazteke dagoen, [...] andreak, berari informazioa eskuratzeari kontzejuak ustez emandako ezezkua salatzeaz gain –antzeko beste errekurtsio batzuk kopiatuz, haietako batzuk ezetsiak eta beste batzuk tramitazioan–, halaber salatzen du batzorde zentralak 2002ko abuztuaren 21ean egin zuen bilkura grabatzeari ustez eman zitzaion ezezkua."

Informazio hori eta kasu horretan agertzen zen problematika ikusirik, elkarrizketak izan genituen kontzejuburuarekin eta zeresana zeukaten gainerako alderdiekin ere, eta arartekoaren erakundeak bitartekotza-eginkizun bat betez esku hartu ahal zezan ahalegindu ginen, era horretan soluziobideak aurkitu ahal izateko eztabaidagairik garrantzitsuenei; alabaina, kontzejuak ez zuen gure bitartekotzarik onartu.

ANALISIA

A) Kontzejuaren bilkuretarako deialdiei dagokionez.

Kexan adierazten den bezalaxe, interesdunek aurkezturiko dokumentaziotik, Arlegiko Kontzejuko buruak eginiko txostenetik eta arartekoaren erakundeak alderdiekin izandako elkarrizketetatik ondorioztatu dugu bilkura arrunt batzuetarako deialdia ez dela egiten legean ezarritako epeak zorrozki errespetatuz, eta kontzejuak ere ez du frogatu kontzejuko batzordeko kide guztiei bilkura guztietarako deialdia modu fede-emailean igorri

zaienik, ez eta deialdia egiten den unetik bertatik aurrera dokumentazioa batzordekideen eskueran jartzen denik ere.

Betiere bermatu beharrekoak diren epeei dago-kienez, Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 78.1 artikulua dio: "Osoko bilkuretarako deia Korporazioburuak egiten du, gutienik bilkura egiteko paratutako eguna baino bi lanegun lehenago, ohiz kanpoko premiazkoak salbu, hauekiko deia, izaera horrekin, Osoko Bilkurak baitetsi beharko baitu gehiengo soilaz." Ildo beretik doa Toki korporazioen antolake-ta, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamenduko 80.4 artikulua; izan ere, honakoa xedatzen du: "bilkurarako deialdia egiten denetik bilkura egiten den arte ezin izanen dira igaro bi lanegun baino gutxiago, presakoak diren bilkura berezien kasuan izan ezik".

Epeari buruzko aipamena egunak adieraziz egiteak behartzen du zenbaketa egun baliodunen arabera egitera, eta ez orduen arabera; halako moldez non beti modua eman behar den bi egun osorik zenbatu ahal izateko. Horietako bakar bat ere ezin da izan ez deialdiaren eguna ez eta bilku-rarena ere.

Bigarrenik, Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 78.2. artikulua ezartzen du deialdiak nahitaez aipatu behar dituela "bilkura egiteko eguna, ordua eta tokia, bai eta hari dagokion gai zerrenda ere". Halaber, formalizatu beharko da "gai zerrendan jasotako arazoaren dokumentazio osoa," eta hori "(...) korporazioaren esku egonen da Idazkaritzan, deialdia egiten den egun beretik aitzina." Dokumentazio hori orrika eta zenbaturik joanen da, zinegotzietatik behar bezala aztertu ahal izan dezaten bilkura bakoitza egun aurretik.

Halaber, deialdiari buruz zinegotzietatik eginiko jakinarazpenak behar bezala kreditatu behar dira idazkaritzan, toki korporazioen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko erregelamenduko 81.2 artikulua ezartzen duen bezala; izan ere, bilkura baterako deialdia administrazio-egintza bat da, eta horrenbestez, egintza hori jakinarazi egin behar zaie bere eragintza pertsonari; alegia, zinegotzietatik. Ez bada modu fedee-mailan frogatzen, hartu izanaren adierazpena eta guzti, tramite hori egin dela, akastuna izan daiteke eginiko bilkura, erabat deuseza izan baitaiteke; eta hori bera gerta daiteke aipatu ditugun gainerako betekizunen bat falta bada, horiek guztiak prozedura-akats larriak baitira.

Azkenik, eskari eta galderei eta bilkurak grabatzeko aukerei dagokienez, esan beharrekoa da

antolamendu eta funtzionamendu erregelamenduko 82.4 artikulua xedatzen duela bilkura arrunten gai-zerrendan betiere sartuko dela eskari eta galdereen gaia. Halaber, uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak 79.3 artikuluan dioenez, toki korporazioetako kideek soinu-grabazioak egin ahalko dituzte bilkura publikoetan, udalburuari aurretiaz horren berri eman ondoren." Azken gai horri dagokionez, badirudi une honetan ez dagoela arazorik, alderdiek jakinarazi dituztenez.

B) Zinegotzietatik informazioa lortzeko duten eskubideari dagokionez.

Atal honi hasiera emanen diogu esanez kontzejuak ez duela gutxienezko zorrotasunez betetzen kexa-egileari berak eskatzen duen dokumentazioa helarazteko betebeharra, eta horren frogara baietsi egin direla Nafarroako Administrazio Auzitegian denboran zehar aurkezturiko gora jotzeko errekurtsioak, zenbait dokumentu eskatze-koak.

Puntu hori bereziki larria da, argi eta garbi urratzen baita kargu publiko batean aritzeko eskubidea, Konstituzioak babestua. Eskubide hori egikaritzeko nahitaezkoa da bilkura bakoitzeko dokumentazioa osaturik egotea, formalizatua, eta udalbatzako kideen eskueran egon dadin idazkaritzan, deialdia egiten den egun beretik aitzina, zinegotzietatik behar bezala aztertu ahal izan dezaten bilkura bakoitza baino lehen, jadanik adierazi dugun bezala.

Honela dio, gai horri buruz, Toki araubideko oinarrien Legeko 77. artikulua:

"Toki korporazioetako kide guztietatik eskubidea daukate alkate, udalburu edo gobernu batzordearengandik jasotzeko korporazioko zerbitzuek esku-eran dituzten aurrekari, datu edo informazio guztiak, baldin eta haiek beren eginkizuna betetzeko beharrezkoak badira.

Aurreko lerrokadan aipaturiko eskubidea egikaritzeko eskaerari buruzko erabakia hartzean ebazpen arrazoitua eman beharko da, aurkeztua izan denetik bost egun naturaleko epean".

Arau horren ildotik, Toki korporazioen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamenduko 14. artikulua errepikatuta egiten du legeak esandakoa, eta eransten du ezen dokumentazioa eskuratzeko eskaerari isiltasun positiboaren bitartez baietza eman zaiola uler-tuko dela, baldin eta 5 eguneko epean ez bada kontrako erabaki arrazoitua hartzen; horregatik, epe hori betetzen denetik aurrera, idazkaritza behartua egonen da zinegotziak eskaturikoa atzerapenik gabe hari helaraztera.

Hala ere, erregelamendu horretako 15. artikulua zehazten duenez, deialdia egin duen bilkura batekoak diren espedienteak eta haren gai zerrendari buruzko gainerako dokumentuak ikuskatzeko ez dago ezein baimenen beharrik; idazkaritzak helarazi egin behar dizkio interesdunari. Halaber, zilegi izanen da baimenik gabeko helarazpen hori, eskatzen diren dokumentuak arau horren arabera herritarrek askatasunez kontsultatu ahal izatekoak direnean.

Azkenik, interesdunek administrazio-espedienteak eskuratzeko eskubideari dagokionez, kontzejuari gogorarazi behar zaio ezen Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35. eta 37. artikuluek barnean hartzen dutela, herritarrek interesdun izaera daukateneko prozeduren tramitazio-egoera edozein unetan eza-gutzeko daukaten eskubidea ez ezik, haietan daukaten dokumentuen kopiak eskuratzeko daukaten eskubidea ere, nahiz eta eskubide hori egikaritzeko beharrezkoa izan daitekeen alde aurretik ordaintzea legeak dokumentuen kopiak edo ziurtagiriak lortzeko ezarritako ordainarazpenak, aipaturiko legeko 37.8 artikuluari jarraikiz.

Halaber, Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 95.1 artikulua hauxe dio: "hiritar orok du eskubidea korporazio lokalek hartutako ebazpen eta erabakien, bai eta horien aitzindarien kopiak eta ziurtagiri kreditagarriak eskuratzeko. Kopia eta ziurtagiri horiek hamabost egunen barnean eskura eman behar dira."

Horregatik, LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENA egin genion Arlegiko Kontzejuari, adierazi ditugun lege- eta erregelamendu-xedapenak egiazki bete ditzan, zeinen arabera behartuta baitago osoko bilkurak egin ahal izateko ezarrita daukaten betekizun guztiak betetzera, eta orobat, zinegotziek eskatzen dizkioten informazioa eta dokumentuak haien eskuera uzteko duen betebeharra bete dezan, antolamendu juridikoari jarraikiz, haiek beren eginkizun publikoak bete ahal izan ditzaten.

Txosten hau amaitu dugun unean, kontzejuri horren jarreraren berri izateko zain gaude, nahiz eta horretarako eskaera errepikatu diogun.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutzako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 41,00 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,05 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,23 »	